



## EUSKAL LITERATURAZ

**Piarres Lafitte**

Iturria: *Euskal literaturaz*, Piarres Lafitte (Patri Urkizuren edizioa).  
Euskal Editoreen Elkarte, 1990.

Klasikoen Gordailuan:  
<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/L/LafitteLiteraturaz.htm>

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

## **HERRI LITERATURA**



## HERRI LITERATURAZ

Ez Eskual-herrian, ez bertze nehun, ez du herri batek deus ere asmatu. Edozoin asmu, edozoin pentsamendu jende bakar baten ganik heldu da, gogoa beti norbaitena baita, eta ez sekulan moltzu batena.

Gero, bai, herri batean ahoz-aho, beharrez-beharri hedatzearekin, herrikotzen ahal da, eta horra nola aipa daitezken herrikantú bat, herri-ipuin bat, eta berdin, ooren buru, herri-literatura bat.

Haatik eskualde batean asmatu, erran edo idatzi guziak ez dira literaturan sartzen: izen hori ez zaie zuzenki emaiten ahal, nolazpait landu eta apaindueri baizik: hortakoz behar dute usaiaz kanpoko zerbait gai edo arrimu, hori gerta baitakioke ez xoilki bertsuari, bainan halaber hitz laxo-ari.

Gaiez den bezanbatean, nork ez daki erresumaz erresuma dabiltzala, mugez axolarik gabe, gehienez nehork ezin erranez nun noiz sortuak diren, toki bakoitzean leku-usain berezi bat dariotela.

Halare zombait iturburu ez ditzazkegu uka, xehetasun batzu hor baititugu salatari: adibidez, *Misere*, *Robert-le-Diable*, *Marie Valentine*, *Juan Soldado*, *Vendome*, *Donkixot*, *Trentekuxilo*, eta gisa bereko izenak nunbait etorri zaizkula bixtan da.

Bertzeak bertze, hiru mendez, Troyes eta Frantziako Tolosatik *Bibliothèque bleue* delakoak zenbat liburuxka urdin ez deizte saldu, etxez-etxe zabiltzan bizkarkarien bidez: hortik jalgi zaizku pastoral eta ipuinak hebrosa; eta nola ixil gure kantu askok *Ocítania*-koeri deieten zorra, musikaren eta hitzen beren aldetik?

— Zorigaitzez, zion Ithurriague ene adixkide zenak, gure arbasoek ez zakiten erdara axaletik baizik, eta bertzalde nekez itzul zezaketen eskualarat.

— Zorionez, diot nik: horrela ekarriak baitziren beren maileguren errotikago aldatzerat eta beretzerat.

Hau ere ezagut dezagun: baizik-eta suiet batzu iragan direla egiazko ixtoriotik, ipuinerat; eta ipunetik ala kantura, ala antzerkira.

Ez da erraiteko baizik itsaso nahasi batean murgiltzerat edo pulunpatzerat goazila, herri-literaturaz mintzatzerakoan.

## Ipuinak

Hitz laxoz ipuinak dira nausi Euskaldunen herri-literaturan. Ipuin izen horrek estaltzen ditu kontu, kondaira, ixtorio-mixerio eta alegia, hots zerbait kondatzen duten guziak, edestia salbu.

Asko mendez gure etxetako mahaina edo supazter-xokoa alegeratu dute, bereziki afal-ondoetan, familia ohera gabe, eleketa eta jostaketa bildua zagolarik. Bazuen ipuinak bere lekua berdin, ezkontza edo bataio-bazkari luzeetan, artoxuritzetan, ihiztari edo ogi-joile bilkuretan, igande, jai edo merkatu arratsek betetzen zituzten ostatueta.

Ahoz-aho zabiltzan bai eta beharrez-beharri, batzu laster ahantzirik zaudela, bertzeak aldiz orroitzari errotik lotuak.

Ipuin-zaleak izan dira, izkiribuz hartu dituztenak gal diten ez nahiz, ezarri baitituzte han-hemenka barreaturik joan den mendeko eta gure huntako aldizkarietan.

Handik andana bat bil daiteke; ba eta oraino ere xahar bakar batzuen ahotik oraino idatziak ez diren zombaitzu.

Bainan ez da beharrik lan guzia egitekoa. Biltzale suharrak ukan ditugu. Arrotz ala euskaldun, hiru dotzena hurbil kondatzen ditugu. Izena ditzagun aipatuena bederen: Cerquand, Webster, Vinson, Arcaya, Monteiro, Barbier, Ariztia, Iribarren, J. M. Barandiaran, R. M. Azkue.

Heien bildumak batetaratz *Corpus fabularum Vasconiae* eder bat baginuke, hamabi ehun ipuinekin, hetarik kanpo uzten ditugularik, nahiz pollitak diren, euskaralat itzuli dituzten Perrault, Grimm, Andersen, Cervantes, Andreiev eta bertze arrotz askorenak.

Mota guzietakoak badira eta gaiak ardura nahas-mahas ateratzen. Halere, klasatzekotan, bortz taldetan ezar ginezazke.

Lehenik zertako ez eman paganu sinesteri eratxikiak: hor ginituzke Mari eta Maiu, Mikelats eta Atarrabi, Odei eta Eate: hor lamiak eta maideak: hor basa-jaun-andereak, Axko eta Tartaroa, beren inguruko iretxu eta bertze lagunekin.

Bigarrenekorik, Ebanjelio-izunetarik bilduak eta zabalki emendatuak: edo berdin sailduen alegiazko bizitzetarik: hor atxeman ginezazke Jesus eta Jondoni Petri Eskual-herrietan ibilki; Zakeoren ixtorio bitxiak; Haur prodigoaren balentriak, Sen Grat, San Nikolas eta bertze hainitzen mirakulu espantagarriak: debru, aingeru, eta arima herratu zer nahi, sorgin, hazti, belagieak, ahantzi gabe.



Hirugarrenekorik, basa-edestikoak. Aspaldiko gertakari batzuen kondaira, kanore izpirik gabeko xehetasun harrigarri aldatua. Gisa hortan kondatuak zaizku errege, gerlari, pilotari, marinela, eta bertze gizon aipatu hainitzen zori on ala gaitzak. Luis handiari, Gazteluberri jaunari, Santa-Cruz apezari, Perkaini, Pello Montvieux itsas-gizonari dagozkien ipuinak mota hortakoak dira.

Laugarrenekorik, ixtorio-mixterio batzu, iduripen hutsezkoak, nehologo oinarri gabekoak, hola nola Midasen minarena, Urregile xerriarena, Zozoarena, Xixtu xarmatuarena, eta bertze.

Bortzgarrenekorik, ezar ginezazke bertze guziak, iduri gertatuak, bainan izpirituz emanak, gehienak jostagarri hutsak. Maizenik aipatzen zaizkun jende-motak talde hoitan guzietan dira: errege-erreginak, medikuak, apezak, sakristauak, buhamia edo ijitoak, guardak, soldadoak, makinunak, mozkorrak, jujeak, ohoinak, atso gaixtoak, zozoak, jokolariak, amerikanoak, arrotzak. Kondatzale bakotzak bere jeinu berezia duelarik, ez da harritu behar ixtorio berak itxura desberdinak ukan ditzan bilduma batetik bertzera.

Bizkitartean badira ohidura batzu gehienetan hauteman dituztenak. Huna zombait adibide.

Ipuinak maiz hitz bertsuekin hasten dira (*Bazen behin munduan, Askotan gertatzen den bezala, Aldi batez berria hedatu zen, baizik eta...*).

Hitz bertsuekin bururatzen (*Ontsa bizi izan baziren, ontsa hil ziren, hurtan fini da ixturioa — Hala bazan ala ez bazan, eman hori kalabazan — Egia bada sinets, ez bada egia ez sinets — Geroztik pasatuez ez dut izan berririk*).

Ipuinetan ohargarri da zoin usu hirunazka datozin jendeak eta gauzak: «bidean heldu ziren *hiru* gizon, edo *hiru* neska, edo *hiru* soldado; norbaitek asmatu behar *hiru* egia, errepikatu *hiru* hitz, jo behar atea *hirutan*».

Epeak ere manera berezi batez neurtzen dira: *urte* eta *egun* baten buruan; handik *zazpi* edo *hamalau* urteren buruan. *Bederatziurrena*, beti tentu gaixtoko eguna...

Mintzairaz den bezenbatean zer erranen dugu? Ardurenean bakun eta arrunta dela, herrian herrikoa, hitz-zuhurrez, ditxo apaindua, arrabots-soinuez emokaturia (kisk-kask, zipli-zapla, hinki-hanka, brau, frikk, krik eta krak... eta abar); gaia gordinskoa delarik ere, hitzak bana bertze polliki hautatuak, nehorri gaitzi ez ditzen.

Oro bar, jostailutzat dauzkate Euskaldunek beren ipuinak, eta ez litzateke zuzen hoin arimaren jujatzea, oinarri ahul eta arin hortatik: gure gustuko, enganagarri lizateke.

## Hitz laxozko bertze josteta batzu

Hitz-laxoari datxizko asko ele kasta, hala-nola prediku, ebanjelio, epixtola, edo prefazio-ihakinak. Orok gogoan dituzkegu Itsasuko Zantagarayen omeliak, Bidarraiko 24 agotak aipu dituen epixtola, fraile salatari baten prefazioa, edo bere gelariari bazkariaren manatzeko erretor batek egiten duena.

Bertzalde nola ez aipa, galarrots batzu hasi gabe irakurtzen ziren alegiazko errege, enperadore, president edo prefeten aginduak; maskaradetan xorrotzek emaiten dituzten hitzaldi jostagarriak, notariak egiten dituzten ordenu eta ezkont-kontratuak; ihauteri, maiatz-arbola edo toberamunstra, auzietako lege-gizonen tartarikak?

## Atsotitzak

Erdi hitz-laxo, erdi neurtitz, huna atsotitz edo hitz zuhurrak. Euskaldunek lehenago nasaiki bazerabilzkaten: laket zituzten erran-bide motz, argi eta ozen horiek, mende zaharretako adimendu guzia baten bildua izan balitz bezala. Azkuek egin du atsotitz bildumarik aberatsena, 2936 zenbakirekin. Berak aipatzen ditu haatik bere aintzineko famatuenak: Zalgize, 1596ko bilzalea, Oihenart, Bela, Moguel, Voltoire, Darthayet, Landerretche eta bertze.

Asko idatzi da euskal atsotitzez. Nola ahantz Francisque Michel, Urquijo, Veyrin, Leon, Etchartek gai hortaz eginikako lanak? Heien araber, errangune horiek sakonki salatzen dute herriaren eitea bere gogobihotzeko zehardura berezienekin.

Halare zombait aldiz elgar gezurtatzen dute, eta bada kantu bat desbide andana bat argitaratzen dituen. Adibidez:

Laguna lagunari beti iduria:  
Nolako aita eta, halako semea;  
Uriaren ondotik heldu ateria:  
Aita biltzale batek haur xahutzailea!

Amiltzean harria ez da gorolditzen.  
Gizon ibilkariak zer ez du ikasten!



Busti nahi ez dena urean ez sartzen:  
Irriskatu gaberik nork du deusik biltzen!

Ikus bertze koplak *Kantu, kanta, khantore* liburuan (51. orrialdean).

## Bertsuak

Herri-olerkiak asko molde besarkatzen du gutartean. Apalena da *Kilixki-kalaxka* bertsua: ez du berenez deusik erran nahi, nahiz bere soinuez eta tankeraz beharria perekatzen duen:

Lan-lan-lan  
laran, laran, laran, lan, lan.  
Lan-lan-lan  
laran, laran, lan, lan.

Trikiti-trikiti-trikiti-tin  
trikiti, trikiti, trikiti, tton!

Kilixki-kalaxka gehientsuak lotzen zaizkie zerbait erran nahi duenn hitz batzueri. Haurrek beren berex-kantuetan maiz darabilte modu hori:

Harriola, marriola, kin-kuan-kin,  
portan zela, portan min,  
segera, megera,  
kiru, karum, pek!

Bertze kantu batzuetan ere gerta ditake holakorik:

Horien bien ezteietara  
Erregea zaldiz heldu da,  
rrau, rrau, rra,  
rrau, rrau, rra,  
Ezpata gerrian, rrau, rrau, rra!

Ni hiltzen naizenean,  
trala, tralala, iala-la...

Donostiako iru damatxo  
Errenteriyen dendari:  
josten ere badakite, baña  
ardoa eraten obeki,  
eta kriskitin, kraskitin  
arrosa klabelin,  
ardoa eraten obeki.

\* \* \*

Hain zuzen, kantua da gure herri-literaturaren apaintzale lehena. Zonbait mila badira bildurik. Heien bila ibili diren musikazale suharrenak izan dira Salaberry Maulekoa, Charles Bordes, J. Barbier, bainan oroz gaienetik Aita Donostia eta Azkue.

Euskal-kantuak zonbat diren orotarot, ez guri galda. Bada sehaska-kantu, haur-kantu, dantza-kantu, eske-kantu, amodio-kantu, eztei-kantu, deitore-kantu, laneko-kantu, soldatu-kantu, marinel-kantu, ostatu-kantu, pilotari-kantu, herriaren aldeko kantu, alegiakantu, irri-kantu, laudorio-kantu, mendekio-kantu, jendetasun-kantu... Badira alegerak eta trixteak; badira hunkigarriak, ederrak eta pollitak; badira entrabaleko hainitz, eta zenbait bakar gaixto eta xikinak. Mota bakoitxak hartze luke ikerpen berezi bat.

Euskaldunek koplaka neurtzen dute olerkia, eta ez erdaldunek beza-neurtizka. Bertsu edo bertso hitza bera neurtitz moltzoa zaie, puntu edo rima bera duten ber.

Neurtitzaren legeak ez dira hertsia. Ez dira konda bokalen azentua, ez labur-luzetasunak. Hiatoen axolarik ez. Dieresi, sineresi, elisioak behar arau baizik ez dira erabiltzen. Musikak manatzen ditu tankerak eta silaben kondua. Izaitez, hogeit bat neurtitz mota baditugu (luzeenak 18 silaba), eta dotzena bat bertsu mota (luzeenak bederatzi puntu).

\* \* \*

Bertsu zaharrenak badute beren begitarte berezia: itxurapenak errex, bizi eta motz; ele alfer guti, lokarri guti: ideiak hitz-erdika erranak, aieruz esandakoak, entzuleari utziz heien ikur sakonaren asmatzeko atsegina, sendimenduzko logika bati esker. Adibidez:



Halzak ez dik bihotzik,  
Ez gaztanberak ezurrik:  
Enian uste erraiten ziela  
aitunen semek gezurrik...

Etxian eder gerrena...  
Etxekandere lerdena,  
Zure erriko erraztun hortaz  
eros niro Baiona.

Eder zeruan izarra,  
errekaldean lizarra...  
Etxe ontako nagusi jaunak  
urre gorritz du bizarra.

## Bertsolaritza

Bertsolariak zonbaitek aipatu dituzte nasaiki eta ximenki. Luma puntarat heldu zaizkigu Lekuona, Iturriague, Zabala eta Onaindia jaunen izenak.

Lauek erakutsi daukute ahotik hortzerat bertsu kantatzeko ohidura munduko lau hegaletan hedatua zela lehenago. Baina leku gehienetan galdu da, guk zorionez oraino atxikitzen dugularik.

Egia erran, ez da nor nahi bertsolari jartzen ahal: bertsolarigaiak behar du ausartzia frango, jendearen heraberik ez, gogomihaiak zalu, hitz hainitz ikasia, idurimena aberats, boza argi eta azkar, zentzu eta oharpen erneak, bai eta kantari dohain zerbait.

Baitezpada bertso batean ez da behar potorik. Poto egitea da bertso berean hitz bat bi aldiz erabiltzea, ez bakarrik puntuetan, baina nun nahi. Adibidez, Domingo Kanpañari bota bertsoak lege hori hausten du, lau aldiz mando dakarrelakotz:

Mando baten gañian Domingo Kanpaña,  
ez dijoa utsikan mando orren gaña.  
Azpian dijoana mandoa da,  
baña gañekoa ere, bada azpikoa aña:  
mando baten gañian bestia, alajaña.

Bixtan da goraxeago aipatu ditugun euskal neurtitzeri emanak zaizkien errextasunak, bertsolaritzan ere haizu direla. Baina bertsularia ez da bakarrik bere hitzen jabe: derabilan musika ere guti eclu asko molda deza-ke gogoratu hitzekin uztar dadin. Adibidez: silaba baten orde biga heldu bazaizko burura, bi kortxea emanen ditu kantatzean beltz baten lekuan: silaba bat eskas balu, alderantziz.

Halere joko bihurria da tipus-tapas bertsu baten ateratzea. Teknika berezi bat galdatzen du.

Eman dezagun Mattin ela Xalbador buruz-buru ari direla, Mattin alegia laborari, Xalbador deputatu. Luzaz zoin bere bizibidearen alde ari izanik, Mattinek behar du bertsu batez auzia trenkatu.

Berehala pentsatzen du, bakotxa bere hartan egoitea dela hoberetia. Azken hitzak gogoan ditu:

*Ni laborari nago, zaude deputatu.*

Idea hori haatik poliki erakartzekoa da, bi ofizioen abantailak aitortuz:

Zure ohore hoiek enaute tentatu  
gure lur-lanak ere bereak baditu.

Bainan zertako ez has jendetasun hitz batez? Eta huna bertsoa:

Adixkide maitea, ez otoi gaitzitu:  
Zure ohore hoiek enaute tentatu:  
gure lur-lanak ere bereak baditu.  
Ni laborari nago, zaude deputatu!

Ikusten den bezala, azken neurtitzak manatu ditu bertze puntuak, eta bertze ideiak ere.

Ez da haratik ez hunatik, inomine batean lan horren egiteko, gogoren mekanikak behar du ongi olioztatua!

Holako kasuan Ligueix batek bertzela itzulikatuko zuen *berseta*:

Ekiak argitzen dü zelütik bazterra,  
Liliak alageraz ezarten alorra.  
Nik heben arrapizten düdalarik lürra,



Zü goiti deputatü zuaza Parisera.

Ziberotarrek ideiak iduripenez estaltzen dituzte, bertsuaren betetze-ko, ez baitira beti gaizkiago ateratzen.

Gaiez ez du balio mintzatzera: erran ditake zer nahitaz artzen direla gure bertsolariak, bainan beren jakitatearen mugetan.

\* \* \*

Bertso-paperen ontzaileak bertzen teknikaz ber-beraz baliatzen dira. Bainan badute astia, eta gogoeta egon ditazke hitz egokia edo neurri xuxena atxeman arte.

Ez uste izan halere tipus-tapas artzaileen heinerat heldu diren bai-tezpada. Ezagutu ditugu bertsolari batzu, luma eskuan biziki ahul zirenak; baina, aditzaleen aintzinean, sukar batek harturik, pindarka botatzen baitzautzueten berttua, xuxen eta bizi-bizia.

\* \* \*

Bertze bertsu mota zonbait aipa ditzagun laburzki. Gehienetan trufa edo murrika dakarkete.

*Trikiti-kopla*, motz-motza, zirikatzailea:

Ai mutil anka luze,  
zozo-armario:  
gantzonzillo-borlea  
bematik dario.

*Xarnegu-kopla*, mintzaireak nahasten zaizkuna. Huna Etchahun Bar-koxeren etsenplu bat:

Sed libera nos a malo, sit nomen Domini.  
Vamos a cantar un canto para divertir.  
Yan dügünaz gerozti xahalki huneti.  
Eta edan ardua Jüranzunekoti.  
Chantons, mes chers amis,  
je suis content pardi,  
trinquan d'aquest bun bi.  
Eta dezagün kanta kantore berri.

Elgarri lotuak dira: latina, española, frantsesa, kaskoia eta euskara. Gehienetan bi mintzaire dira bakarrik nahasten: Eskuara eta frantsesa:

Bettiri Uhartekoa, ah qu'il était bon chasseur!  
Erbi txar bat atxeman du sasi batian par bonheur.

Euskara eta española:

Por andar con las rubias emen nau galduta  
como los solterones geldituz sobrauta...

Euskara eta inglesa:

Todayko neskatillak  
jasten da pretty,  
powder ipiñi eta  
enseguida all ready  
Side-walkien pasatzen dan  
people guztiari  
begia giñatu eta  
come on right in, honey...

Jostatzeke, *fatrasiak* ere egiten dira, buru-buztanik gabeko bertsu errebesak:

Entzun nezazu, Frederik!  
amets berdea bederik,  
Arrosa tuntun gaberik,  
lurra zeruan osorik...

Xuberotarrek, ardi zain daudelarik mendian, elgar laidostatzen dute, irri-egiteko, bota-erreferaka: zer nahi erranikan ere legea da ez samurtze-ko. Adibidez:

*Pettek*  
Sagartzian, sagar eijer,  
Liliak, üsü arroser;



Asto-orrua, hire ezpainer.  
Xikito!

*Jüsefek*

Karesa, zamari hunentako,  
hitz goxo zentzüdüentako  
orrua dena hiretako.  
Xikito!

Ikusten ahal du irakurleak, bertsu mota hau hiru pontukoa dela eta beti xikito hitz berarekin bururatzen dela. Josteta hori deitzen dute xikitoa artzea.

## Herri-teatroa

*Teatro xumex:* Teatroa, biziaren itxura eta ihakina den belaket zaio herriari. Jende xeheak haalik ez du berenaz bakan baizik emankizun handietarat jo egiten; aski zaizko ager-aldi xumeak.

Asko kantuk, beren elgar-hizketekin, antzerki-puska batzu badirudite, eta bertsularien arteko saio hainitzek ere bai.

Are gehiago, naski, bertze josketa zonbaitek.

Itzal-xinuz (*ombres chinoises*) edo panpina-mugimenduz (*marionnettes*), ume ginelarik, gure amaso eta izabek komedixka pollitik ateratzen zaukuten. Adibidez:

— Itsu trixte bat nuzu,  
Eske nabila ikaran.  
Nitaz urrikal zaizte.  
— Ongi etorri zarela!  
Olagaraian zare!  
Nahuzu ogi puska bat?  
— Milesker, enuzu gose,  
ederki askaldua nuzu!  
— Nahuzu baso bat arpo?  
— Milesker, enuzu egarri,  
Egun ez da hain bero.  
— Nahuzu arropa zerbait?

— Milesker, badut ongi bestitzekoa.  
— Nahuzu zerbait diru?  
— Ya! baditut ehun mila libera.  
— Zer nahuzu ba, ixtant baten aterbe?  
— Jauregi eder bat badut, anderea.  
— Zertara heldu zare bada: ez naiz itsu sendatzaile.  
— Huna egia, andere gaixoa:  
enaiz batere itsua:  
Gazteluberriko primua naiz,  
itsutuki zaitut maite  
eta ezkontzaz zure galdatzeko  
hunarat jin naiz eskale.

Liho-kardatze eta arto-xuritzetan ere, jostatze egiten ziren alegiazko aharrak, ala bertszuz, ala hitz laxoz; gaia zer nahitaz hartzen zuten: doteaz, gizon-gai baten hautatzeaz, etxeko lanez, moda berriez. Elgarhizketa horiek Baxenabarren *disputak* deitzen zituzten, Nafarroan *errandoak*, Ataunen *Zelemín ta Zelemón*.

Ama, begira zazu  
leihotik kanpora

hitzekin hasten den kantuak disputa hoiere aire xaharra dauka, baina huntan amak ez dio alabari erasiarik egiten.

Xaribari edo galarrotsetan, suieten etxe bazterretan barreatuak ziren arrobost-egilek «errak, to»ka salatzen zituzten gaztigatu nahi omen zituzten gertakariak. Adibidez

— Errak, to!  
— Zer duk, to?  
— Badakika berri?  
— Zer berri?  
— Gurdoenean oiloa nausitu zaiola oilarrari?  
— Zer ari dituk? Oilarra erruten?  
— Ez oraino, baina oiloa kukuruku egiten!  
— Josepe dea oilatu?  
— Ba eta Margarita oilartu...  
— Berri horren ohoretan  
jo adarra errepikan





klan! klan! klan!

- Errak, to!
- Zer duk, to?
- Jakin duka berri?
- Zer berri?
- Josepek salda galdatu, Ogalea ukan baitu...
- Ez dea errebelatu?
- Kontentu zukan, kontentu!
- Amoak ez bide zioz burua berotu.
- Ez kafeak ere zainak altxatu...
- Berri hoiien ohoretan  
jo adarra errepikan

klan! klan! klan!

Eta gisa hortan jarraikitzen ziren gauak gauari, elgar-hitz eta arrabots, tuta, zartain, eltze-gogor, oihi, irri-karkaila.

Alegiazko auziak ere baziren tobera-mustretan, ihauterietan, kabal-kada batzuetan: zombait aldiz frango ausartak ziren, bainan batzuetan ez zuten izpiritu eskasik. Ikus *San Pantzaren jujamendua* (*Gure Almanaka*, 1972, p. 52-55).

*Pastoralez*. Ordu bide dugu Xuberoko pastoralen aipatzea. Aspaldi-koak dira. Oihenartek dio, hamaseigarren mende erditsutan Etchegaray delako batek Donibane Garazin *Artzain gorria* agerrerazi zuela.

Baina eskuz eginikako berrehun bat kopia gelditzen baitira hahemenka barreaturik, zaharrenak XVIII mendekoak ditugu, ez dakigularik xuxen badiren hetan aintzinagoetarik aldatuak.

Hérelle jaunari esker, hainitz gauza ikas ditake pastoralen teknikaz; bainan dugun erran deplauki textoak berak ezin ukan dituela funski iker-tu, ez zakielakotz eskuara izpirik eta laguntzalek axaleko lan ahula egin ziotelakotz, jakingabea eta lasterregiz. Baditake hor astia lukenarentzat iker-sail bat baliosa.

Pastoral-gauak azken denbora hautaraino ezar zitazken sei taldetan: 1. Testament zaharra; 2. Testament berria; 3. Sainduen bizitzak; 4. Klasi-ko zaharrak; 5. Ipuinak; 6. Kondaira. Berrikitan sartu dira Euskal-suiet batzu, orai arte ez zelarik hoietarik bihi bat ere ageri: Santxo azkarra, Etchahun, Berterretxe, Xikito, De Troisville, eta abar.

Arrotzen ganik hoinbertze mailegatzea eskualtzale zombaitek gaitzetsi dute aberzaletasun-eskas bat bezala: guk nahiago dugu hortan ederretsi Xuberotarren idekidura.

Zer nahi den, pastoral baten eraikidura erras bakuna da. Hastean, *aitzin perediku* batean, ekaiaren laburpen bat, aditzalek konprenitzeko gisan zer gertatuko den. Gero xehe-xehea gauzak heldu dira neholako batasunik gabe, noizetik noizera artetik satandantza batu edo ibilketa batzu emanaz. Bururatzean, *azken peredikia*, ikusien bildumarekin, entzulek ez ahanzteko.

Oro bi puntuko bertsu edo berset libroz erranak dira, mintzaire hanpatu batean, erdarazko hitzen beldurrik gabe, iduri eta arrozkeria horrek edertzen baizik ez dutela.

Funtsak erakusten du beti ongiak gaizkiarekin deraman gudua, nahiz azkenean, Jainkoa lagun, onak irabazle ateratzen diren. Erran gabea, tzarrek debruak dituzte sustatzaile.

Pastoraletan agertzen dira segur handimandiak: errege, printze, aita saindu, apezpiku; bainan berdin ermita, eskale, artzain, eta heien inguruan aingeru eta satan-kume zombait. Nahiz maiz aipatua den, Jainkoa ez da behin ere ikusten, ez eta Jesusen begitartea ere.

Teknikaz zer erranen dugu?

Antzoki edo teatro-lekua bakun-bakuna dela, taulada huts bat, bazterrik gabea. Zolan oihal handi bat, eskuin gaixtoen atea, ezker onean. Erdian arte bat, zombait aldiz aita-saindu eta aingeruentzat. Zombait kadirra. Oihalaren gain-aldean, soinulariak.

Ohar huni: gaixtoek ez dute nehun urdinik, ez eta onek gorriarik. Gaixtoak sartzen edo ateratzen direnean, musika berezi batek laguntzen ditu; onak ere berenaz lagunduak dira.

Urratsak ez dira oro berdin: erregek badute beren liturgia, bertzek berena, eta onak ala gaiztoak diren arabera, oraino jestuak bertzelakutzen dira.

Guduak jeneralen artean iragaiten dira. Bi lerrotan emaiten dira elgarririk buruz. Hasten dira desafioka, laidoka, eta «batalla»ren airea musikariek botatzean, gurlariek dantzatzen dute beren gudua, elgarren ezpatak tankeran joz.

Antzoki lau kantoinetan zaintzaleak baitira armatuak, batek airean zizpatiro bat emaiten duenean, neskatxa zerbitzari batek oihal bat hedatzen dio lurrean, hilen den soldaduari, erortzean, ez dakizkion bere arropa baliosak fundi.



Guduak ardura handizki apailatuak dira. Etsaiak zaldiz heldu dira antzoki ingururat, eta taulen gainekoak kanpokoekin badituzte elgar-hizketak.

Bertze hainitz berezitasun balitazke altxatzeko, bainan biziki luze loake. Pastoralen ikusteko tirria piztu baginu irakurlen baitan, ez lizateke gaizki!

\* \* \*

Xuberoan izan dituzte lehenago irri-egiteko pastoral batzu. Eraiki-dura bertsua dute, bainan funtsa arras bertzelakoa. Gaiak biziki ausartak, mintzairera gordinskoa, han-hemenka zikina ere. Ez da harritzeko aspal-diskoan bai prefetek, bai auzapezek, debekatuak baitituzte. Hoge-ta-hiru kopia zahar gelditzen dire, linguistikari buruz ikertu behar litazkenak. Euskara hobea dute pastoral handiusek baino, nahiz arruntagoa.

\* \* \*

*Arrasateko Gabon-antzerkia:* Orok badakigu pastoralak Erdiaroko *ministerio* deitu eliza-antzerkien ondokoak direla. Teatro hori Europako eskualde gehienetan bizi izan da, gero eta pasarte tzarrez nahastekatuago. Apezek eta herrietako buruzagiek kondenaturik eta ohidurak galdurik, emeki-emeki iraungi da, doi-doia hanhemenka zerbait orroitzapen utziz, Oberammegauen edo. Xuberon bezala.

Euskal-herrian pastorez kanpo badea haren hatzik? Iduri luke baietz. Hemezortzigarren mendean, Barrutia izeneko eskribau grabar batek (1682-1759) Arrasaten ondu zuen euskeraz «Acto para la Noche Buena». Izena erdaraz ukaiteak ez gaitu harritu behar. Pastoral batzuek ere frantsesezko titulua dakarte: *Les quatre Fils d'Aymon, La Prise de Constantinople* eta holako.

Gaia Jesusen sortzea du, beraz elizakoa: bainan Ebanjelioari josiak zaizko, hein bat polliki, hameka xehetasun alai edo hunkigarri, dantzak eta kantuak barne. Gainera, harat hunat garamatza erdi-komedia horrek, Betlemetik Arrasaterat, Herodesen urtetarik Fernando gogo-ilunaren egunetarat. Oro abilki antolatuak eta urtuak daude, maisu-lan batean bezala.

Barrutiak, euskera-mordoikoa erabilia gatik, (zonbaitek orduan uste baitzuten española euskeratik sortua zela!) obra ederresgarria egin du, Pastoraleri nausi dena.

Nekez sinesteko zaiku, antzerki bikain hori —euskerazko hoberenarentzat jo baitute norbaitzuk— bet-betan sortu dela aita-amarik gabe. Badu kanore, giro hartan, aintzinekoak ukan zituela, ahulagoak segurki, bainan errege-bidea nolazpait ideki ziotenak.

## FUNTSEZKOAK

Orai arte aipatu dugun herri-literatura gehiena jostakina zen, gai handiak zerabiltzalarik ere.

Bi hitz labur bederen hartze dituzkete funts gehiagoko gure kantika, hitzaldi eta gutunek.

Ez dituztea ondorio baliosenak ukan, gure arbasoen kulturari eta mintzairari buruz?

Eskual kantikek girixtinoen arimak hazi dituzte. Hiru mendez obra ttipi hoien biltzale hainitz izan da, zor handienak dauzkiegularik Inchauspere, Hiriart-Makola, Daranatz, Laharrague, Donostia, Vegel eta gain-gaienetik Gabriel Leroxundi aita beneditanoari.

Abesti horiek, nahiz bertze hizkuntzetakoan gai eta sendimendu ber-berak dariozketen, nortasun bat derakuste: ez dute heiek bezanbat hasperen eta zinkulina guri botatzen. Gizonki, neurri gehiago dadukate, fedezko erakaspena lirika-oldarrari nausitzen zaiolarik. Ez dituzte zainak inarrostean, ez nigarrak jauzarazten, bainan gogoa argitzen, nahia onerazten, bihotza izariz hunkitzen. Banago aski hurbildik izan diren ikertuak.

Bainan gorago ezar ginezazke gure lehenagoko apezan predikuak.

Heien igandetako hitz-ñoa bazen zerbait gure herrietan; arteko solas-bide bikainetarik bat. Haurrak elizatik sartzean, galde egiten zitzaizkien erran zuen jaun erretorak; gizonen ostatuan, haren piko eta erasiak onesten edo gaitzesten zituzten, bi baso arnoren artetik; iturrian eta lats-harrian emaztek ere aipu zituzten haren ele pollit edo biperdunak.

Alabainan prediku hoitan aditzalek jende xehearen hizkuntza bera entzuten zuten, apurño bat apailatua naski, bainan bere egun guzietako gatz eta lilurez, ez den mendrenik gabetua.

Duela hoge-ta-hamabi urte dei bat egin ginuen, ez zenez norbait hasiko apeztegi apeztegi ibiltzen, apez zenduen predikuketa. Izan omen zen abiadura zerbait, bainan ez zuen iraun. Orai berriki atseginez irakurri dugu xede horri lotzekotan zaizkola gazte zombait. Jainkoak lagunt ditza-



la. Ezen, gure iduriko, lan horiek abantail gehiago derakarguke, ipuin eta kantuek baino, ez balitz ere hizkuntza jakitatearen onetan baizik.

Elizaz kanpoko *hitzaldiak* askoz bakanagoak izan dira. Bizkitartean aspaldi danik baliatu dituzte bai politika-biltzarretan, bai euskaltzaleen bilkuretan, bai laborarien arteko solas-aldietan; eta —hau bernia dugu— irratietan.

Hoitzaz ere uste dugu on lizatekela arta hartzea.

Euskaldunen arteko *gutunak* ez dira literatura handian sartzen. Zorigaitzez hainitzek ez dute erdaraz baizik idazten, nahiz azken denbora hanttan emendatzen ari diren euskerazko gutun egileak. Konprenitu duteke, gure etxeko mintzairak baduela, guretzat segurik, Axular handiak aipu zuen, eta erdarek ez duten «zapore» edo «gozo» bat.

## PASTORALEZ

Pastorala hitzak latinean du bere erroa; artzain edo abeltzainari eratik guzuz erraiten ohi zen Erromanoen egunetan; geroxago eliza-gixonen erran eta urratseri ere izen hori eman izan zaie.

Literaturan, olerki batzuk menditarren eta baserritarren bizia gorai-patzen baitzuten, horiek ere pastoral deitu zituzten. Gisa berean, hama-seigarren mendean, Montemayor, Torquato Tasso, Guarini eta heien jarraileen antzerkiak.

Hemen Ziberotarren pastorez mintzatuko gana, eta berehala dugun erran, ez dutela ahaidetasun izpirik doi doia seinlatu dugun teatroarekin, izena baizik.

### A. Aintzinekoak

Egia erran, ez dakigu, lekukotasunik ez izanez, ea Euskaldunek antzerki modu zerbait ukan duten Ziberoko pastoreak sortu baino lehen. Baina itxura guzien arabera, hauk Frantziako teatro xaharretik jalgi dira. Hasteko titulu gehienak frantsesez ezarri dituzte eta asko, «moralité» edo «mystère» bezala aurkeztu.

Bi hitz, aintzineko arrotz horietaz, hobeki erakusteko nola ziberotarrak beretu dituzten eta hein batean berritu.

Frantzian, bertze toki hainitzetan bezala, teatroa paraliturgiatik hasi zen, Ebanjelio pasarte batzuek bakar batek irakurtzeko orde, bizpahirulau erraile galde-ihardespenna ari baitzuten, erakuspenari bizi gehixea-go eman nahiz.

Baina, handik laster, elgar-hizketa horiek hedatu ziren, luzatu, ihakinez emendatu, hitz eta jestu arruntez itsustu, halatan non ez baitzitazken gehiago elizan jalgi: «miracles» eta «moralités» direlakoen ordua izan zen, XII, XIII eta XIVgarren mendetan.

«Mystère» deitu antzerki mota XV ganen mendean agertu zen. Izen horrek ez du batere «mixterio» erran nahi. *Ministerium* hitzetik heldu da, emankizun eta omenaldi adiarazten duela.

Emankizun horietan, gertakari bat oroit-arazten zen elgar-hizketaz: gaia bi Testamentuetarik edo Sainduen bizitzatik hartua zen, gutiz gehienetan.



Antzerkia zortzi silabako neurtitzetan idazten zuten, bertsuek bi puntu baizik ez zituztelarik: pasarte lirikoak kantatzen ziren. Hitzaurre atean ateangaia aipatzen zuten eta aditzaileri ixil zedin eskatzen. Lana bera egunka zatikatua zen, egunak zaukalarik emankizun baten erran ahal zitaken bertsu saldoa. Zenbait «mystère»k egun parrasta bat bazirauten. Noizik behin hamarretaraino.

Aipa ditzagun teatro hortako berezitasun handienak. Dena miragarriri da: Jainkoa, Ama Birjina eta Sainduak orotan dabilta; batzutan norzere dituzte Zuzentasuna, Bakea, Egia, Urrikalmena.

Nahas-mahas jalgitzen dira pasarte hunkigarri eta irrigarriak: irri egin-arazteko, arrunkeria guziak on zaizkie: ikusleen alegeratzeko agertzen dira mandatari bitxi, tirano, itsu, morroin ausart, eta Satan ber-bera, maltzur, trufari eta orotarik ikaragarriena.

Antzokia herriko plazan eraikitzen zuten taulaz, emankizunak irauenen zuen denborako. Zenbaitek erran du antzokiak bazauzkala hiruzpaulau estaia edo etxe-mail. Ez, joka-lekua hein berean zegoen, baina frango luzea. Baziren ezker eta eskuin egoitza andana bat, eta haien artean ibiltoki zabal bat. Jakin behar da memento berean zerbaitek gertatzen ahal zela egoitza batean, eta bertze zerbaitek bertzean. Jokalariak iragan zitazken, behar arau, leku batetik bertzerat.

Nor ziren antzerkilariak? Nehor ere ez zen teatrotik bizi ordu hetan. Antzerki muntatzaleak karriz karriz oihukatzen zuen zer xede zaukan eta, edozein izan ziten, parte hartu nahi zuten guziak biltzen zituen: ehunka ateratzen omen ziren borondate onekoak, bai trapan urrurik agertzeko, bai eta eralgieri buruz puntxatzeko. Zaldun ala bilaun, langile ala arlote, deneri ohore zitzaie josteta hortan baltsatzea. Alta bada bertsu-alde luzeak bazituen gogoz ikasteko antzerkilari bakotzak; jauntziak bere gostuz behar zituen zuzkitu: eta batzuetan segurik zer nahi oinaze pairatu, teatroan martirarena edo berdin gaixtagin zigortuarena egiten zuelarik: ezen ez ziren alegiazkoak, emaiten zizkioten lantza-sistak, makiladak eta ukabil-kaldiak.

Aditzale eta ikusleak ere arduratuak ziren, apailatzen ari zen jai handiaz: apezek, herri-gizonak, anaitasunez diruz laguntzen zituzten arizaleak. Ikuskizuna zerabilaten arte guzian, hiria hutsa zen, saldegiak hetsiak eta auzapezak debekatzen zituen indar-landk oro.

Jendeari laket bazitzaion ere antzerki-mota hori, nekez erran daiteke, irakurlearentzat badela bertsu horietan miresteko edertasun hainitz: luzekeria eta nabarkeria aspergarri dira frango laster, are gehiago pasarte oies eta morrokoz emokatuak direlarik. Aitortu behar dugu, mende hetan

jendeak ez zirela biziki minberak, ez ofentsaerrexak. Baina XVI garren mendean, literatura berria sortzearekin, hein batean gizartea legundu eta xukundu baitzen, buru zenbait bederen jazarri ziren Frantziar, «mystère»ren aurka, jasangaitz zitzaizkiela. 1548ko hazilaren 17an Pariseko Parlamentak debekatu zituen gai sakratuzko antzerki horiek oro, profanoak haizu uzten zituelarik, garbiak eta onestak izanen ziren ber.

Parisen betikotz itzali ziren «mystère» direlakoak; baina probintzietan aintzina jalgi zituzten, behar orduan bertze izenik emanez. Tragediak eta pastoralak modan baitziren eta on-hartuak, Euskal Herrian eta Biar-non bederen izen horietaz jauntzi zituzten, nahiz antzerki mota horietarik biziki urrun izaki.

## B. Ziberotarren Pastoralak

Ziberon, noiz sartu ziren «mystère» deitu antzerkiak? Iduriz, Lepantoko itsas-gudua baino lehenago. Gudu hortan (1571) Turkoak garaituak izan ziren, Europako bidea zerratzen zaielarik. Ordu arte Turkoen beldurrez ikaran zauden bazterrak, eta girixtinoek ez zuten kasik etsai handiagorik amesten. Mendebal huntan liburu eta kantuek basa huts, sordeis eta higuinarrizatzauzkatzen.

Aldiz, Lepantoko garaitzatik landa, Frantziako eta Italiako literaturatan Turkoen alderako izialdura ez zen bakarrik eztitu, baina arras itsabasi. Turko gaizoak irringarri bilakatu ziren, eta komedietan «turkeriak» 1578a baino lehen agertu ziren, orduko Jean de Léry idazlea lekuko.

Ziberoko pastoraletan Turkak arrunt gaitzetsiak dira, etsai gaixtoenen lerroan ekarriak, aspaldiko denboretan bezala. Horrek, gure ustez, erakusten du Euskaldunek beren lehenbiziko maileguak berantenez egin zituztela XVIgarren mende erditsutan, non ez ziren geroxeago «mystère» zaharrez baliatu.

Dena den, Ziberotarrek ez zituzten frantsesak hertsiki kopiatu. Antzerki arrotzak beren gisala antolatu, bakundu eta errextu zituzten.

Hasteko eta bat, nahiz Pastoral gehien gaia gaizkiaren eta ongia-aren arteko gudua den, funtsean Jainkoaren eta Deabruaren artekoa, «mystère» zaharretan bezala, ez da Ziberon sekulan ikusten taulen gainean ez Jainkorik, ez Jesusik, ez Ama Birjinarik. Izaitekotz, zenbait aingeru eta zenbait satan. Artetik erran dezagun, agertzen zaizkun satanak ez dira mamu itsusi ikaragarri batzu, baina mutiko lerdan, jantzari xotil, soi-



neko ederrez jauntziak: elea dute bakarrik ausart eta bihurri; jende onen tentatzeko eta gaizkiegileen sustatzeko. Bake, Zuzena, Egia eta holako izaitze astratoak ez dabilta behin ere gure teatroan.

Aldiz, ikusten ohi diren mundu huntako pertsonaiak iharri dira eta mota guzietakoak: errege, erregina, jaun eta andere handi, aintzindari, aita-saindu, apezpiku, mezulari, nagusi eta sehi, langile, laboran, artzain, jakintsun, azti, ohoin, jende hiltzale, preso-zain, zigorkari, eskale, eta nik dakita bertze nor!

Bana bertze, pastoral batek berrogei-ta-hamar bat pertsonaia eskatzen ditu: urrun gaude «mystère»ek behar zituzten ehun, berrehun, bortzehunetarik, nahiz hainitz den gure herri ttipientzat.

Alabainan, orain berriki arte, herrika egiten ziren Pastoralak. Herri batek bere gain hartzen bazuen pasterala, herrikoz herriko muntatzen zuen, bertze nehungo laguntzarik gabe. Eta arizaleek oro gizonki ala oro emazteki izan behar baitzuten, asma daiteke ez zela errez, herrian mutil edo neskato ziren arrotzak, parada hortarako herritartzat balin bazauzkaten ere, andanaren biltzea.

Kanpotar bakarra zen errieta, pasterala fornitzen eta erakusten zuen gizon ikasia: errieta ez da bekan baizik eskolemaile, zenbait aldiz gertatu izan den arren.

Antzokia taulaz eraikitzen dute gunexabal batean, okasione hortarako, jar-leku andana bat eratxikiz aditzaleentzat. Lau kantoinetako trapa hiru aldetarik idekia da, osoki hutsa, aintzin-aintzinean eskaler ttipi batekin: zola oihalez zerratu da, hiru ate dauzkala, erdian erregena, eskuin onena, ezker gaixtoena. Hiru ate horiek ordaintzen dituzte «mystère»etako egoitzak, eskema huts gisa. Onen ate-gainean heien ikurrina, koroa xuri batekin; gaixtoen ategainean mogiaraz ditaken kartonezko «idola», bandera gorri batekin.

Oihal hortaz gorago, soinularien ohantzea. Hortik txürülak lagunduko ditu Satanen dantzak, eta bertze musika-tresnek gaineratiko aireak oro, bereziki «aux champs» girixtinoen sar eta atera-aldientzat, «Marie, trempe ton pain» turkoentzeat, eta «batalla»ri dagokona.

Girixtinoen atean ez eta heien jauntzietan ez da gorria haizu; ez eta urdina turkoenetan.

Erran dugun bezala, antzokia berenaz hutsa da: ez du neholako lekurik itxuratzen: orotakoa da. Behin izan ditake Enperadorearen jauregi, gero Turko buruzagien egoitza, ondoan aita-sainduaren sala-handi, handik laster oihan, ixtant baten buruan gerla toki edo presondegi edo errege-bide edo ohoin-zilo, eta berriz ere turkoen edo girixtinoen gazte-

lu, edo eliza, edo sorgindegia: hots, nor ere baitira arizaleak eta zertan ere ari baitira, heien leku bilakatzeko da antzokia. Funtsean aditzaleek arizaleen eletarik asmatu behar dute gauzak non gertatzen diren, eta noiz.

Bainan nola iragaiten da pasterala?

Jendearen biltzeko, arizaleek munstra egiten ohi dute, hots: ibilketa bat bidez bide, soinua lagun, hiru konpanietan: handimandiak karrosan, girixtinoak oinez edo zaldiz, turkoak berdin, satanekin.

Herrian gandi itzulia egin-eta, teatro aintzinerat heldu dira, eta eskaletarik igaiten agur-magur hainitzekin: urdinak pausuki, gorriak abreki; luzegi litake xehetasun guzietan sartzea.

Aintzin-peredikü batean kantari batek emaiten du pastoralaren laburpena, erditik eskuinerat, eskuinetik erdira, erditik ezkerreara ibiliz, gibeletik entseiniariak eta bi ezpatadunek segitzen dutela.

Arizale guziak oihalaren gibelean egonen dira, eta zoin bere aldiari agertuko, soinuak deiturik.

Errieta, bere paperak eskuan, antzoki zolan izanen da, beltzez bezi, xingola bat seinale, eginkizunen kudeatzeko, soinularien gidari eta behar orduan arizalean orroitarazle.

Lehen bi aldetarik triatezain bat bazagon xutik arma eskuan, jendeen ixilarazteko xo eta xo-ka, bai eta tiro bat airean adiarazteko «batallan» norbait hiltzeko mementoan.

Pasterala gertaldi hainitzez egin da.

Gertaldi bat hasterakoan, teatroko mixkandisek ekartzen dituzte antzokirat hartako behar izanen diren kadira, mahain eta bertze zerak: mixkandisak dira neskatxa batzu *xerbützari* direnak, baina ez *arizale*.

Orduan soinuak deitzen ditu gertaldiko arizaleak: aterako dira zoin bere atetik, urhatsean, musikari jarraikiz, eta lerroan emanen bazterrean, bakotxa haiduru dagolarik mintzatzeko aldia etorri arte, mintzatzeko beharko baitu teatro erdirat agertu.

Egia erran, ez da nehor mintzatzeko pastoralan; denak berset-ka kantatzen dira, eta beti ibiliz: aingeruak dira bakarrik mugitu gabe aritzen eta oititz bat emaiten dutenak.

Bainan ibiltze horiek ez dira nola nahikoak, bersetaren neurkadaren edo eritmoaren arabera egiten dira, eta neurriaren markatzeko arizale bakotxak kana edo makila bat badu eskuan eta hartaz lurra joz aldi bakotx adi-arazten du pondua.

Bertzalde jartze eta ibil-inguruak arras desberdinak dira erregetarik eta jende xeheagoetara, hai eta girixtinoetarik turkoetarat, are gehiago satanetarat, hauk xingilika ari baitira, dantzatzen ez direnean. Balitake har-



taz hainitz erraiteko. Kasik, pastoralaren legeak lekizkeen batek, arizalearen egon eta ibil-moldetik, ezagut lezake, zein alderdiko eta zein gradoko den.

Arizalea, bere erraitekoak erran-eta, bere bazterreko lerro hartarat itzultzen da eta han dago gertaldiak dirauno; bere lagunekin baten sartuko da bere atetik, soinuak joitean.

Orduan mixkandisek husten dute taulada eta satanek beren dantza emaiten dute «Bon voyage, cher Du Mollet» kantuak duen airean. (On da jakitea Pierre Du Mollet hori XVI garren mendean bizi izan dela).

Azken denbora hauetan Sataneri ez deiete kasik dantza baizik uzten: lehen, parte gehiago hartzen zuten, gaixtoak lagunduz, onez trufatuz. Uste dugu, zenbait aldiz, askoren gustuko, ozarkiegi ari zirelaketz, erriente mututu dituztela. Ez zitzaie gelditzen türk hilen ehorzteko kargua baizik. Ez dea gutixko?

Pastoraletako gertakarietan ikusleak biziki laket dituzte guduak eta arras-biltzeak.

Guduari batalla erraiten zaio. Bi moduz egin ditake. Gehienetan etsaiak bi lerrotan emaiten dira bisian-bis tauladan, bizkarrez sahets-bazterrerri. Lerro urdineko aintzindari bat jalgitzen da gorrieri buruz ahapaldi gaixto bat botatzen deiela joan jin batean, ezpata keinatuz. Gorri batek emaiten dio errefera jestu basa batzuekin eta «hul!» eginez zerrien uxatzeko bezala. Hiruzpalauetan elgar laidostatu-ta, soinuak jotzen du «batalla»ren aire berezia, eta dantza iduriko urrats batzuekin, musika segituz, ezpatak kurutzatzen dituzte neurritz dirrindatuz. Norbaitek hil behar badu, mixkandisek mihise bat hedatzen dute, hila haren gainerat eror dadin soinekoak funditu gabe, eta triatezain batek tiro bat igortzen du airean, heriotzearen seinale. Eta abar...

Bertze batzuetan, handizkiago iragaiten da «batalla». Alderdi batek beretzat dauka antzoki guzia. Bertzea zaldiz heldu da tauladaren setiatzerat. Ahapaldiak oraikoa kanpotik barnera eta barnetik kanpora aldizkatuz doatzi, ez baita batere itsusiago. Gero zaldun batzu, zalditik jautsi-ta, eskalaretik igaiten dira oxtian bezalako guduari lotzeko.

Pastorala-egilek, jendeari kausitzeko, gertaldi bat pasarazten dute, alegia mendiko bazkaleku batean: hor aurkitzen dire arresak beren artzainekin. Ardiak abilki iganarazten dituzte antzokirat, beren joare pullitekin. Artzainek bisitatzaileak ongi hartzen dituzte, behar orduan argitzen, eta beti ahalaz algeratzen kantuz eta xahako ukaldiz.

Zenbaitek uste izan dute arres-biltze hortarik heldu dela «pastoral» izena: bainan ez zaiku batere iduri.

Antzerkia beti kantu eder batek bururatzen du. Lehen *Te Deum* kantatzen zuten. Aspaldiskoan uskarazko kantore bat emaiten da bi bozetan segurik.

Ondarrean *azken peredikia* jaliko dute, *aintzin-peredikia* egin zen bezala, ixtorioa laburtuz, hutsez barkamendu eskatuz, kontseilu on bat emanez eta orori afari on bat opatuz.

## Santa Grazi

Pastorala zaharretan gaiak atera dituzte Bibletik, Sainduen bizitzetik, literatura grekotik, erdi-aroko kantore eta nobeletarik, eta erdi-asmatu ixturietik.

Arras berriki sort-herriko gaiari lotu zaizkie: Duvoisin kapitainak eta Hiribarren apezak egin zituzten lapurtarrez *Marie de Navarre* eta *La guerre basque*, bainan ez ziren egiazko pastoralak; Clement d'Andurainek, Justin de Menditte apeza lagun, izkiriatu zuen *Uskaldünak Ibañetan*, bainan ohiko legeri jarraiki gabe (1906).

Pierre Bordaçarre (Etxahun-Iruri) hasi da zinez herritar gaiez pastoralaren hazten: *Etxahun* (1952), *Matalaz* (1955), *Berterreix* (1956), *Santxo Azkarra* (1963), *Le comte de Tréville* (1966), *Chiquito de Cambo* (1973), *Pette Bereter* (1973).

Zazpi pastorala horietan norbait zen aipu bururen buru.

Orai Aita Juhañe Casenavek ontu duen antzerkian herri batez izanen da solasa. Hain zuzen, Santa Grazi, Basabürü Ibar-exkerrekoaz. Urdaix zuen leku horrek lehengo izena, eta elizara ekarri ziotelarik Grazi sainduaren erlika, hunena hartu zuen.

Toki zabal patartsua, dena hosingin, arroka eta erreka, hiru muga joiten dituena: Biarno, Arragoia eta Nafarroa. Gaineratik Xiberotik arras desegune delarik, ez da harritzeko horko jende ere poxi bat apartekoa baita, bai askaziz, bai jitez, bai euskalkiz.

Duela hamalau mende sartu zen Euskal Herriko edesti edo ixtorian herri berezi hori. Erronkarirako bide hertsu bat iragaiten baita horko harkaitz latz batzuen artetik, Nafar-alde pasatzen ziren asko jende leku hortan barna.

Hain xuxen badakigu, 635ean Arimbart, Dagoberten jenerala ateka horietan garaitu zutela Euskaldunek, eta berdin geroxago Aba-El-Rahman, 732ean, Poitiers-tik ihesi heldu zelarik.



Bederatzigarren mendean, Santiagorako beilak bultatu zirenean, Ziberon gaindi ere pelegrin zer nahi hasi ziren pasatzen. Urrundik jiten baitziren, usu nekaturik eta eriturik aurkitzen-eta, frailek heientzat bide bazterretan eraiki zituzten aterbe batzu: gisa hortan sortu ziren Ospitalepia, Urdiñarbeko ospitalia eta Urdaixekoa, hau deitu baitzuten Ospitale gañia. Etxe huni zatxizkola eliza bat eman zuten eta frailetegi bat. Han Abadia bilakatu zen eta abade baten manupean baziren kalonje andana bat, otoitz egiten eta pelegrin artatzen ari zirenak.

Abadia horren inguruan eta kasik itzalpean bildu zen egiazko herri bat.

Abadia horren ixtorioa 1085etik harat aipa ditake gora-behera hainitzekin 1725eraino.

Oraiko eliza hamaikagarren mendekoa da, eta segur ikustekoa. Hartaz ere balitake hainitz erraiteko, eta jadanik asko liburutan aipatua da.

Parropian izan dira zenbait apez ezin ahanztekoak: hala nola Harri-xabalet, Arrambide, Etxekopar, Etcheverry, zoin bere dohainekin.

Kondatzekoak litazke Jeanne d'Albreten denborako erlisione-gudukak, Landatarren eta Barnabiten kontrako auziak.

Eta zertako ez Erronkariko jendekin hain luzaz Santagraztarrek ukan dituzten har-emanak, ala kontrabandan, ala artzaingoan, ala gasnagintzan?

Alta Santa Grazi herriko patroinaren erlika bera ez dea gai jakingarria? Ezen hexur saildu hori, Zakozatik ukana, galdu zen eliza erretzean, berriz eskuratu, Atarratzen norbaitek ebatsi Madalenako profesioetik etxerakoan, ohoinak itzuli, erreboluzioneko gaixtaginek suntsitu, eta Zakozatik bertze bat Baionako apezpikuak ardietsi.

Berdin gorestekoak litazke tokiko ohidura, jai eta jostetak, orroitzu Hardoy pastoral-errient famatuaz.

\* \* \*

Egia erran, Juhañe Casenavek egin daukun pastoralak ez du Santa Grazi herriaren ixtorioa bururen buru erakutsi nahi ukan. Haren xedea izan da oraiko Santa-Graziren aipatzea, zertan den eta nolako etorkizunari doaken.

Berrogei-ta-zerbait antzezlarri elgar-hizketan ari dira. Adi-arazi beharrez herrian non zer den onik, edo hobetu beharrik; bazter ederrak gores-ten dira, ba eta gune lanjerosak aitortzen; erraiten zaizkigu uhaitzen, ihi-

ziaren, kontrabandaren abantail eta atseginak; ez haatik ixiltzen makurrak eta atsegabeak.

Aditzaleak beti zerbaiten haiduru egon ditezen, Satanek elgarrekin apailatzen dute nahaskeria zerbait, herritarren arteko bakea galdu beharrez. Horrela Juhañe Casenavek itzultzen deie debrueri pastorala zaharretan zuten tentatzaile kargua eta ez daude dantzari huts. Aspaldion beba ginauden noiz mintzaraziko zituzten tusuri horiek. Horra beraz, gure iduriko, urrats bat ona.

Bada haatik zerbait berririk pastorala huntan. Eta hori deitzen dute gibel-soa.

Zineman usu baliatzen dena da: norbaitek gogoan duen aspaldiko orroitzapen baten erakusteko, agerpena hausten dute, eta lehen pasatu zen gertakaria orai agitzen balitz bezala emaiten dute ikusliarren bixtarat.

Gisa ber-berean Santa-Grazi antzerki huntan gibel-soak egiten zaizkigu, eremaiten gaituztenak, konparazione, Jeanne d'Albreten edo berdin Dagoberten denboretarat.

Galde egin dugu bertzalde nor onen atetik jaliko den eta nor gaixtoenetik. Erantzuna hauxe izan da: Santagraztarrek onenetik, bertze guziak bertzetik!

Manera oroz, gauza berria izanen da: Santa Grazin Santagraztarrek berek beren xokoko euskaraz Santa Grazi goretsiko dute, eta ukanen dute merezi duten ikusliaralde haundia.



## EUSKAL-IPUINAK

Aipatzera goazen lan hunek baluke liburu oso baten betetzekoa. Ez dugu hemen emanen erran litazkenen laburpen bat baizik.

### GIZONAREN AMETS BEHARRA

Orok dakiguna: gizon gehienak mundu hontako biziari kiretskiño bat aurkitzen diote, eta nolazpait, gogoz bederen, ihes egin nahi diote ametsetarako munduetarat murgilduz.

Ez dute hortarako ahanz-gailu eta zora-galdu eskasik: batzuk arras ohoragarriak, hala nola lana eta otoitza; bertze batzuk higuingarriak, hala nola edari eta drogak; eta hirugarrenekorik, bienarteko zonbait, hala nola jostetak.

Josteta-moduen artean berexiko ditugu idurimenezkoak, hala nota kantuak, teatroa eta ipuinak. Gaiez segurik hiru gauza horien arteko mugak ez dira berez-errazak. Askotan iturburu ber-berak dituzte. Xuberoan eta Lapurdin hasteko, berrehun bat urtez sartu dira eta etxez-etxe saldu Frantziatik heldu ziren liburuxka axial-urdirin herrikoak.

Troyes eta Tolosako *Bibliothèque bleue* hortarik jalgi basa-ixtorioak hazi dituzte berdin pastoralak eta ipuinak. Adibidez *Jean de Calais* pastoralak eta baxenabartarren Ixabelen gertakarien kontua ahaide hurbilak dira. Halaber *Genevieve* pastoralak eta Lapurdiko *Marie Valentine* ipuina. Zenbait ipuin bestalde kantu bilakatu direnak edo antzerki gisa itzuli? Orroit *Berretretxez, Orreagaz, Santxo Azkarraz, Ehun dukat-ez*.

Baina geldi gaiten ipuinen eremuan. Non bizi izan dira?

Uste dut bartz bizitegi ukan dutela Euskal-Herrian:

— *Supazter xokoa*, afal-ondoetan familia biltzen zelarik su-garren aintzinean.

— *Mahain-ingurua*, bazkal artean, bataio, komunione, ezkontza, ogi-joite (gari-jotze) apairu luzeak bazirelarik.

— *Ostatua*, bereziki hartaz ase zirenean musulariak ixtorio bitxiaren nork konda hasi-eta.

— *Eskaratzeko edo selairua*, arto-xuritze aratsetan, hauzoa, elkarreratzen zirelarik, lanaren arintzeko ez bait zitekeen mutu egon.

— *Ihiztari-bilkurak*, hor, emazte ez haurrik ez izanez, ixtorio gazi gizen, gordinak haizu bait ziren.

Egungo egunean ipuin akademiak horiek galtzera doatzi, bizimodu zaharrak itzal-araz, irratia eta telebista orotan sartzen diren ber.

Ikertu nahi baditugu, nondik bil?

Oraino han-hemenka entzun ditazke, eta uste dut ez direla denak bilduak, hurbiltzeko ere, bereziki Xuberokoak. Hetaz behar litake axolatu.

Baina *corpus* bat nahi baluke norbaitek apailatu, hatzeman ahal lezazke idatzi-ta aldizkari askotan barreiatu, bereziki mende bat eta erdi huntako aldizkari, almanaka errebista, astekari eta egunkari batzuetan.

Halere ez da, beharrik, lan guztia egitekoa. Bilduma baliosak badira eta biltzaile handien izenak a-be-de-ka huna zein diren:

Pierre d' Anjou  
 Marie Ariztia  
 Xalbat Arotxarena  
 Azkue  
 Julene Azpeitia  
 Barandiaran J.M.  
 Barbier Jean  
 Bilbao Felix  
 Bitaña  
 Carpenter andrea  
 Cerquand  
 Claveria Carlos  
 Elissalde Jean  
 Elissanburu J.B.  
 Etxeberri J.B.  
 Ghiese  
 Goizueta J.M.  
 Irigarai Aingeru  
 Kirikiño  
 Lekuona M.  
 Leon Leon  
 Linazasoro Iñaki  
 M. Monteiro Mariana  
 Muxika Gregorio  
 San Martin Joan  
 Thomasset





Uranzu  
 Urbel  
 Urruzuno P.M.  
 Vicendoritz  
 Vinson Julien  
 Webster W.  
 Zabala Antonio  
 Zatarain Anbrosi

Nor edo nor ahanzi dudala edo ahanzi banu, barka bekit: ez dut erdainuz nehor bazterrerat utzi, eta gogotik luza nezake ipuin biltzaile horien xerrenda.

## EUSKAL IPUINAK ZENBAT DIREN OROTARA

Ez dakigu xuxen erraiteko. Ipuindegia hainitzetan ipuin berak edo beretsuak bilduagatik, ez-berdinak baizik ez kondatuz, erran daiteke milaz goiti badirela halere: hamabi ehun bat gutienez, edo dirudienez. Jakina: ez ditut barre ezartzen, merezimenduz beteak badira ere, izan ditzen edozoin herritakoak euskaraz hitzez-hitz itzuli erdal ipuinak, nahiz batzuetan baduten gure hemengokilakoen ahaidetasun zerbait.

## NOLA KLASATU EUSKAL-IPUINAK

Azkuek bi taldetan ezarri zituen: luzeak eta laburrak. Berexkunde hori ez zait hanbatekoa. Gai bera labur ala luze ditake. Bi kondatzaile eder ezagutu ditut gaztaroan: Guichou apeza eta Leon Barbier, Jean Barbieren anaia. Guichouk ipuinaren giharra ematen zuen hitz gutiz, bizi-bizia. Leon Barbierrek ipuin ber-bera iraunaraziko zeutzun xehetasunez, ez dakit zenbat denbora. Zer beharko zen bada, ala Gichourena laburretan ezarri eta Leon Barbierrena luzetan? Ez du kanorerik.

Jean Barbierrek ere bi talde nahi zituen: alde batetik ixtorio-mixerioak eta bertzetik bertze guztiak. Laketago zait zatikatze hori Azkuereana baino. Haatik ez zait batere itsusia Zerbitzarik proposatzen zuena: lau ipui mota: amesgarriak, lazgarriak, altsagarriak eta jostagarriak. Funtsean, ipuinek darozketen sendimenduetarik jujatzen zituen.

Nihaurrek behar banitu klasatu, bortz mota handi berex nezazke:

Lehenik: paganoak  
 Bigarrenik: basa-giristinoak  
 Hirugarrenik: basa-ixtorioak  
 Laugarrenik: amets hutsezkoak  
 Bortzgarrenik: irri solasak.

Erran gabe doha zati bakoitzak balauzkela kapitulu andana bat. Adibidez, ipuin paganoetan euskal mitologiako izaiteek balukete, zoinek bere kapituluak: bai lamiak, bai Marik, bai hunen semeek, bai basa jaunandereek, bai bertzeek.

Gisa berean, Kapitulu bana basa-giristinoetan hartze lukete Testamentu zaharrak. Testamentu berriak eta Sainduen bizitzak, euskal-ipuinek eratziki deitzen sineskerien eta mirakuluerien gatik.

Basa-ixtorioak ere baluke zombait kapituluren betetzekoa, dakigularik nola egiazko gertakariak jendeen oroitzapenean ezinago aldatzen diren: aditzekoak dira gure kondatzaileen ahotik, ez bakarrik erromatarren aroko pasakizuna, baina aro berrikoak! Aipa dezadan Zesar, ala Karloman, ala Santxo Azkarra, ala Napoleon, ala Hitler, ez duzue aise asmatzen ahal zer berri harrigarriak aterako daukitzueten!

Bertze talde handietan, kapituluak nortzuka edo jende-motaka berex nezazke. Adibidez hor gehienik aurki genezazke:

Errege-erreginak  
 Buhameak  
 Medikak  
 Sorginak  
 Apezak  
 Soldaduak  
 Sakristauak  
 Juje eta Hauzilariak  
 Kontrabandistak  
 Ihiztariak  
 Indianoak (amerikanoak)  
 Zozoak  
 Atso gaiztoak  
 Ostalerak



## NONDIK ATERA DITUGU IPUIN HORIEK ORO?

Horietatik hainitz ez dira baitezpada Euskal-Herrian ondoen pare sortuak. Ehunka aspaldi danik lur huntako eskualde guztietan gaindi kurri erortzen diren toki bakoitzean itxura berezi bat hartuz.

*Encyclopedie de la Pléiade* deritzanak badauka hiru tomotan munduko literaturaren ixtorioa. Hartan ohar ditake ipuinek harrigarriko eremua eduki dutela borts mila urte huntan segurik. Baina miatzen baldin baditugu ipuin bilduma handiak, hala nola *Dictionnaire des contes populaires*, *Bibliothèque bleue des XVII et XVIII siècles*, *Die Marchen der Weltliteratur*, *Kondjahn Mono-gatari*, eta bertze, aitortzera behartuak gara ipuin-beretsu keta ederra kausi ditakeela nonahi, nehork ez dakielarik nori nori dituen ebatsi edo mailegatuak. Adibidez guk Axularrez erraiten baitugu ere itzala galdu zuela deabruaren atzaparretan utzirik, alemanek eta italianek gauza bera kondatzen dute bertze zenbaitez; zeruan zaldiz sartu zenaren ipuina ezagutua da Errusian ere; *Disciplina clericalis* liburuan hatzeman ditut zuek Amezketako Fernandori eta guk Gameko Axigarri eratziki balentriak. Ez da dudarik: populu guztiak itsaso berean ari izan dira arraintzan, gero arrainak bakoitzak bere gisa apailatu baditu ere mahineko.

## EUSKAL-IPUINEN ZENBAIT ITXURA

Mitologiari buruz bazter ditzagun bizpahiru gezur. Pio Barojak sardetzen dauzku Thor, Aitor, Maitagarri euskal sinesketan: ez ditut behin ere gure ipuinetan aurkitu, ez-eta Urtzi famatua ere. Piok ez omen zuen federik baina Xaho profeta baitan nola ez? Gure xaharrek ez zuten fata edo hadurik aipatzen, nahiz Europa guztian bazuten horiek arrakasta.

Aldiz lamiak baziren ausarki gure alegietan, hetaz ez delarik mila urte huntan bertze nehun oroitzapenik gelditzen.

Bertze xehetasun bat: bildu diren euskal-ipuinetan behinik behin, ez da lizunkeriarik. Arruntak, gordina eta atrebituak bai, baina ardurenean frango pulliki erranak, sano-sanoki, sendimendu bihurrik gabe.

Mintzairaz den bezainbatean, ez da egiazko legerik: kondatzaile bakotzak badu bere euskara eta bere jeinua. Etxeko eta herriko hizkuntza baderabila, dakien neurrian ala mordoilo, aditzaileei kausitu nahiz. Kon-

datzean, edergailu guti: han-hemenka atsotitz bat edo bertze; konparazio bat edo bertze, arrabots edo zarata-hitz batzuk jostatzeko ateraldi bakar batzuekin.

Moldatzeari buruz, ohidurak badira:

Hastean, adibidez, honelako erran-bidez balia ditake:

- «Bazen behin gizon bat...
- «Askotan munduan gertatzen den bezala...
- «Xantxun zenak kondatzen zuen, baizik-eta...
- «Saski huntan zazpi arto-buru gelditzen baitira, etxe batean

baziren zazpi anaia...

- «Aldi batez bi senar-emazte...

Bukatzean ere badira ohiko erran-bideak:

- «Hala bazan ez bazan, eman hori kalabazan...
- «Ontsa bizi izan baziren, ontsa hil ziren: hortan fini da ixtorioa.

- «Egia bada sinets, gezurra bada ez sinets. -
- Geroztikako berririk ez dut ukan.

Ipuin tartean hirukoa eta zazpikoa maiz agertzen zaizkigu:

— «Bidean heldu ziren hiru mutiko, edo hiru soldado, edo hiru neska, etab.

- «Asmatu behar hiru egia...
- «Atea hirutan jo behar...
- «Hitz bat hirutan errepikatu...
- «Gerlan ibili zazpi urtez
- «Familia batean zazpi ahizpa
- «Sagar-ondo batek zazpi sagar izaki...
- «Herri batek zazpi eihera...
- «Etxe batek zazpi leiho...

Epeak ere gisa berezi batez markatzen dira:

- «Semea etxera itzuli zen urte eta egun baten buruan...
- «Handik zortzi egunera karta igorri zuen...
- «Eri hainitz hiltzen dira pheratu-ta bederatziurrenean...



*Ororen buruan gure ipuinek zer salatzen daukute gure aintzinekoan gogoraz?*  
Aitor dezagun norbaiten jujatzeko haren ipuinen ikertzea ez dela naski biderik xuxenena...

Baina tira!

Ipuinen argitarat jende xehea nik urrikalgarri daukat. Ohartze eta jakitate gutikoa agertzen zait; oro axal eta ilunbetsu ikusten zituela lidurike.

Jendeak eta gauzak gaingiroki azaltzen zituen: gehienetan ezin jakin Karlomanen jauregi ederrak zer zuen bada hain ederrik, edo Ortzaizeko sorgin itsusiak zer hain itsusirik! Xehetasunik ez!

Izan zadin lurraz, izarrez gorputzaz, eritasun ala sendagailuez, ipuinetan bizi ziren oraino erdi-aroko ustekeriak.

Erlixioea ere ahal bezalako: erdi pagano, erdi giristino, dena sinesteria.

Ametsak labur: diru puxka baten biltzea, ase on baten egitea, ez jateko finez, bainan jaki gizen ausarkiz.

Mundua hiru partetan ikusia: handi-mandiak, gaiztaginak eta populuxehea. Bitxi da ez bait dira inoiz nehoiz burgesak agertzen. Erregeerreginak gehienetan errespetuz inguratuak. Gorteko jaun-andereak bizkarkin maltzur eta gaiztotzat edukiak. Jende beltza, buhame, ohoin, sorgin eta holakoak, madarikatuak, salbu fortuna egin-eta.

Miseria, gosetea, izurriteak, gerlak aipu dira, zergak ere eta hauzolanak; bainan oro ezinbertzeak zaizko kondatzaileari, hots! halabeharra. Ez du iduri ezeria huntarik ateratzea asmatzen ere zukeela, gure aintzinako populuak. Kirets eta nagi zagon, herrestan bizi.

Oro har, ipuin xarrek ihes-bide zirelarik, banago ustegabetarik ez zirenetz lo-behar!

Barkatu iritzi ilun horrekin bukatzen baitut ene lanttoa.

## AMODIOZKO KANTUAK LAPURDIN BAXENABARREN ETA ZIBEROAN

Aditzale adixkideak, agur!

Bilintx handiaren goresterat deitu gaituzuelakotz, hemen gauden bi lapurtar hauiek benetan atsegin dugu, eta eskerrak diozkagu Donosti-Aurrezki-kutxari.

Erran gabea: Miguel Pelay Orozco jaunaren hitz goxoeak barna hunkitu gaituzte, baitakigu idazle bikain horren liburuek dakarkioten omen zabala.

Bilintx, ororen iritiz, euskal maite-kantari famatuena izan da, aipatu baititu ez berteen bihozkadak, bainan ber-berenak, bere amodio gosegarriak saminki oihukatuz, lotsarik gabe, halere urguri, bigun eta samurbera zegolarik.

Nahi ukan digute eskatu gure ipar-bazterretako amodiozko kantuen berri eman diezazuegun, haren ohoretan, nahiz ez diren naski Bilintxen hein berekoak, batzu herabetsuagoak izanez, bertzeak bipertsuagoak. Gure aldetako bertsulariek ez zuten, Elizanburuk salbu, ez Aguilera-ren, ez Heine-ren, ez Becker-en ezagutza mikorik. Ez ziren alabainan hiritarrak, baserritarrak baizik: eskola guti zuten, eta Cafe Orientaleko lagun ikasiak ez ziren heien ostatu arruntetarat jausten.

Laster ohartuko zarete bi gogo-moldeen arteko makurraz. Kantua musikarik gabe, motz eta hotz legoke, bereziki hitza eta doinua elgarreki-lako asmatuak izan direlarik. Poetek batu ekeiak ez litazke behin ere berexi behar. Nihaurek, neure boz kakolarekin, ez bainezaken deus ere kanta, galde egin diot Roger Idiart jaun adixkideari laguntza poxi bat. Ugaria ardietsi digu. Hari eskerrak pentsatzen dut ene hitzaldia ez dela motelegi izanen; alderantziz ukanen dituela berenaz eskas lituzken bizia eta alaitasuna.

## GOGOETA LARRI ZENBAIT GAINGIROKI

Aspaldiko errana da, berenaz kantua bihotzetik jalgitzen dela eta bihotzetara hedatzen. Izan ere, kantu gehienak amodiozkoak dira, maita-



gunez gorets dezaten Jaungoikoa, aberria, itsasoa, lurra, etxea, ala jendeen arteko atxikimendua.

Baina egun, hemen, jendeen artekoa baizik ez dugu aipatuko, gizon-emazten artekoa bakarrik, ezkontzarako bidetakoa; ezen, gure euskal kantu herrikoietan ezin aurki ditake Meleagro edo Sapphoren oiharzunik.

Oixtion erran duguna: gaia mugatu digute Zibero, Baxenabarre eta Lapurdiko abestietan. Badugu nahikoa: alabainan, gure ipar-alde hortan, amodiozko kantuak gaindizka baditugu. Asko bildumetan aurki ditazke. Biltzale nasaienak izan dira Francisque Michel, Sallaberry Maulekoa, Charles Bordes, Azkue, Donostia, Barbier, Dufau, L. Dassance, Onaindia. Nihaur ere ari izan naiz bilatzen eta publikatzen. Bainan erran dezaket badela oraino multxo bat agertu gabetik.

Abesti horiek molde hainitzetakoak dituen. Ezen heien musika biziki desberdina da:

— doinu zenbaitek erdi-aroko usaina badakarkete; - bertze batzuek hamazazpigarren mendekoarena;

— parasta batek salatzen digute lehen eta bigarren erromantismo giroetako jendeen bihotz eria;

— eta azkenean nola ez aitor, han-hemenka zenbait aire arrotz berrien kutsua?

Hainbertze melodi desberdinekin, ez bertsuen eta ez neurtitzen egiturak ez ditazke elkarren iduriak izan. Kondatu ditut 24 bertsu mota eta 16 neurtitz mota; baditake ez nitzaien deneri ohartu.

Literatura-moduez gauza bera erranen dugu:

— zenbait kantu ipuin itxuran emanak dira;

— bertze asko bakar-hizketa moduan, alegia norbait bere buruaz bere buruari mintzo:

— batzuetan *maitalea bere maiteari* mintzatzen zaio, hunen erantzunik gabe;

— gehienetan *elgar-hizketak* dira gizon gaztearen eta neskatxaren artean, bakotxa bertzearen zinezko amodioaz segurtatu beharrez.

Bixtan da maitaleen egoerak, sendimenduak eta erranak noiz nola-koak direla eta kantu batetik bertzetara arras alda ditazkela. Argitasun larri hoik eman ondoan, xeheki ikertuko dugu gure kantuen arabera zer den amodioa, nun pizten den, zerk hazten, nola mintzatzen, zerk trabatzen, zerk hausten, nola ezkontzarat heltzen.

## 1. ZER DA AMODIOA?

Gure kantuetan ez du fama onik bana-bertze. Batek dio:

Amodioa zoin den zoroa mundu guziak badaki.

Bertze batek deitzen du «sukar malina»:

Eri nuzu bihotzetik, erraiten dautzut bi hitzez:  
Sukar malinak hartua nago, zu ez izan beldurrez  
Otoi, otoi, zuk senda nazazu hil ez nadin xangrinez.

Asko maitale auhenka ari dira, zozotuak bezala dabiltzala, amodioa dela kausa, loa eta lana galdurik beren maitea beti gogoan:

Egun oroz, goizetan, arratsetan.  
Beti nago pena doloretan.  
Ezin dezaket jan, ez eta ere edan.  
Ez dakit zer dudan:  
Gaitz handi bat da ni baithan  
Amarratu nau bet-betan  
Ez naiteke ni bizi gisa hunetan.

Eta huna bertze mutiko baten deiadar samina:

Plañu niz bihotzetik:  
Gaitza zer dudan ez dakit,  
Trixezia batek harturik!  
Enüke axolarik,  
Balitz erremediorik  
Ene gaitza senda ahal lironik;  
Ezta mündian barberik, bat beizik  
Ene gaitza zertarik den ezagützen dianik:  
Eta hura berantetsirik  
Baniagozü, gaixoa, trixterik!



## 2. MAITALEK NUN EGITEN DITUZTE EZAGUTZAK?

Mutiko batek aitortzen du elizan ohartu zaiola neskatxa bati: musika «Si j'étais roi» opera-puska batetik hartua zuen Elissamburuk:

Igande bat zen ikustean  
Nik aingerua lehen aldikotz:  
Haren itxura bihotzean  
Geroztik hor dut eta betikotz!  
Meza zen ari aldarean,  
Belauniko zen otoitzean.  
Gero behatuz zeruari  
Agur ezti bat egin zuen  
Aingeru bere lagunari  
Ordutik maitatu nuen...

Badira, ehorzketa batzuetan edo berdin hil-harrietan elgar aurkitu baitute:

Bere aitaren hobi ondoan lore aldatzen ari zen;  
Errespetuki alde hartarat ixilka hurbildu nintzen;  
— Agur, Katixa, huna non noizbait bakarrik zaren aurkitzen:  
Aspaldi danik ene bihotzak zaitu kartsuki bilatzen.

Maizago, lehen eleak merkatu, feiria, dantza edo ezkontza batzuetan gertatzen dira:

Ortziraletan duzu Garruzen merkatu  
Ene maite pollita han nuen kausitu.

Bertze kantu batek dio:

Mariluxen ezteietan, biak mahain berean,  
Jan-artetik elgarri so plantatu ginenean,  
Sentimendu bat piztu zen kolpez gure artean.

Hirugarren batean hauxe aurki ditake:

Azken bestetan egin nituen izarraren ezagutzak.

Askotan iturri inguruetan mutiko gaztek atxemaiten zituzten emazte gaiak. Orai ura etxerat heldu zaie. Huna neska batek kondatzen duen ixtorioaren hastapena

Goizean goiz jeikirik argia gaberik  
Urera joan ninduzun pegarra harturik  
Jaun xapeldun gazte bat jin zautandotik  
Heia nahi nuenetz urera lagunik...

Erran behar dugu bertze buruz-bururik gerta zitakela. Ohartuko zirezte gure amodiozko kantuetan gauak bere ilargi-izarrekin leku handia badaukala.

Alabainan hainitz gizon gazte maiz gauak gauari amoros dabilta, neska batzuen leihotarar harrizka botatzen, heien iratzartzeko eta heiekin amultsuki mintzatzeko. Askotan heien aitamen ixilik, bertze batzuetan nehoren beldurrik gabe.

Noiz behinka neska etxetik ateratzen da mutikoaren bidera, neskak edaria ekartzen duela, mutikoak kokil edo bixkotxa. Mutikoa nunbait zain dagolarik eta neskak opor egiten, erraiten ohi da mutikoaren gatik «lastoa jan» duela, hots, janari idorra. Behar da ohidura hori ezagutu, kobla hunen ulertzeko:

Ene bihotz gaixoa etentzera doa:  
Ezin jasan dezaket bardako laidoa,  
Maiteak jan-arazi baitzautan lastoa.  
Bera dut deitoratzen, ez haren amoa!

## 3. ZERK DITU NESKA-MUTIKOAK ELGAR GANA- TZEN?

A) *Itxurak*

Huna mutiko baten ustea alaiki kantatua:



Gizon gazteak ezkontzeko behar ditik lau gauza:  
 Lehen-lehenik iduria, alegera bihotza,  
 Dirua frango sakelan eta bizitzea ez lotsa.  
 Horietatik hiru baditut, laugarrena dut falta.  
 Bai iduria badut eta alegera bihotza:  
 Dirurik ez dut, bainan ordainez bizitzeaz ez lotsa!

Bitxi bada ere, euskal kantuetan ez dute neskek aipatzen mutikoaren itxurarik, hiru kantoretan xoilki haren «ile horia»!

Gizon gaztek aldiz maiz aipu dute maitearen kanpoko kanorea: gorensten haren begiak, begitartea, ezpainak, esku xuriak, boza, eztitasuna. Bertzerik ez.

«Maria» deitu kantuan Elissanburuk xehetasun gehiago badakarzki. Nahiz ez duen Bilintzek bezalako emazte-pintura edo marraski luzerik.

Aztal biribil eta zangar hertsia,  
 Eskuaren beteko zango bihia,  
 Ttiki-ttikia  
 Golgo bat aberatsa, lerden gerria,  
 Erne begia:  
 Nolako panpina den, horra Maria!

Mariak baratzean badu berea,  
 udan eta neguan lorez betea  
 Errek'arte  
 Bere loren artean erdi-gordea,  
 Gaixo maitea,  
 Bera da pollitena, hango lorea!

Euskaldun bertsolariak nahiago izan dute erran bakarrik anderez pollitak, ederrak, xarmagarriak, maitagarriak, xuri-gorriak direla, sinbolo zenbait eratzikiz: *hegztin*, *argzari* eta *lore*.

Hegaztinetan aipatuenak dira: usoa, urzapala, arroketa, eperra, ainarra, errexinoleta;

Loretan: lilia, arrosa, julufria;  
 Zeruko argizarietan: izarra, iguzkia, ilargia.

Sinbolo horiek Chahok, Peillenek eta berezikiago Haritschelharrek ikertu dituzte, xuxen berexi nahiz bakotxa zeri dagon.

Haritschelharrek berak bere dotorgorako liburu nausian hamabi horrialde handi bete ditu gai hortaz. Ez nitzazio hemen tiletez tilet jarraitzen ahal, hitzaldia luzegi bailoakegu.

Haritschelharren zuhaitz aberats hortarik huna bizpahiru aldaxka bakar.

Izarra zer da? Segur argi distirant lilluragarri bat da, gauilunbeen erdian; bainan han nunbait zeruzolan itzatua, urrun eta hotz. Izarizena badoako beraz neskatxa eder xoragarriari, maite duen gizon matearen aintzinean burgoi eta handius dagolarik, gibelkor eta etsigarri, hots, ezin hurbildua, bere baitan hetsia.

Lorea, berriz, landare atsegin, lurrean erroak egina, kolorez begien xarmatzale, usainez bururat emaile, berenaz bil-errega, nun hesi batek inguratzen ez duen, edo arrosa bezala elorriek gerizatzen. Lorea beraz ongi erraiten zaio maite pollit eztiari, ez duen ber mutikoarekilako heraberik erakusten, nahiz kasu zenbaitetan aitamek hurbildik zaintzen duten.

Hegaztin edo xoria, aldiz, eskuaren beteko izaite bizi, bigun, beroa, kantari alai eta hegaldari xarmanta, hala beharrez belatxari edo ihiztariari ihes egiten dakiena. Itxura dezake ezin hobeki maite boz ezti, jite gurbil, bihotz beratza, maitalearen saretarat bil dadin ala ez.

Hegaztinetan, oilandak itxuratzen du gaizki ibili den neskatxa:

Oilanda gazte moko fier bat gure herrian badugu:  
 Hegalpetik lumaño bat gaixoak galdu ez balu,  
 Mundu hunetan ez zen izanen harentzat aski estimu.

Uso apal edo uso-tortoila aldiz erraiten zaio neskatxari, gizon gazteak bere gisa uzten duenean bakar-bakarrik bihotz-minez etsiturik:

Urtxapalaren malürra  
 Galdüz geroztik laguna,  
 Trixe da beti ere bere bihotzetik:  
 Ezpeitü egündano maitatü bat beizik  
 Maitatü bat beizik.

Errexinoletak edo urretxindorrak, alderantziz, adi-arazten du ongi bururatzen den amodio osoa, maitasun zorionez betea.

Xori errexinoletak ederki kantatzen.  
 Bazter guziak ditu xoratzen



Bard' arratsian  
 Sasi batian  
 Biga baziren:  
 Eder ziren,  
 Xarmant ziren  
 Manera oroz  
 Eta elgarren hainitz agrados.  
 Bat arra zuzun eta bertzia emia.  
 Ez mirakulu parekatzea!  
 Han lehen ere  
 Dudarik gabe  
 Ikusi ez balu,  
 Arra hura  
 Ez zer joanen  
 Sasi hartara,  
 Emia ez balitz jin bid'erdira!  
 Eta orduan berean, nuntsu zer emia  
 Sasi handian barra sartuia?  
 Hor apaindurik  
 Ta lumaturik  
 Bere papoa,  
 Kukurusta  
 Harroturik  
 Jarri zenean,  
 Umez orroitu zen, ber'ohantzean!

#### B) *Arrazoinak*

Gizon gazteak maitearen biltzeko zer arrazoin ateratzen dion.  
 Batek etxea du gogoan, eta etxekandere baten beharra, barneko  
 lanen kudeatzeko eta familiari alaitasun berri baten ekartzeko:

Aitarik ez dut eta ama ere zahartu:  
 Norbaiten beharra ere etxian badugu;  
 Zuk hala plazer bazindu, nahi zinduzket zu;  
 Ene desira zer den orai badakizui!

Bertze batek bere ontasunez egiten du espantu, hetan truk neska  
 erosi nahi balu bezala: aipatuko diozka Ameriketarik ekarri omen dituen  
 urre, zilar, diamant saskitarak; bere lurretan dauzkan zazpi eiherak; nun-  
 bait eraiki dituelako jauregi ederrak, eta abar.

Adibidez:

Nik badituz mortuetan ardiak artzainarekin,  
 Itxasoan hamar untzi beren mariñelekin,  
 Kataluñan hamar mando zilar monedarekin.

Askotan gizon gazteak deitoratzen du amodioak emaiten dion osa-  
 sun gaixtoa, eta maitea otoizten du sendatzale bezala, urrikal dakion bere  
 ezin-bertze hortan. Jadanik entzun ditugu auhen eta barber-galde horiek.

Zenbaitek itzul-mitzulirik gabe aitortzen dituzte beren gorputz-gri-  
 nak:

Landan eder iratze:  
 Behi ederrak aratxe:  
 Zu bezalako politetarik desir nuke bi seme.

Gutiz barka!

#### 4. AMODIOARI GERTATZEN ZAIZKON TRABAK

Maitasuna nolazpait sorturik ere, aurki dezake bere bidean eragoz-  
 pen eta oztopo.

Frangotan burasoek beren haurra nahi dute norbaiten ganik urrun-  
 du, odola edo arraza dela kausa. Hori entzuten dugu Agotaren kantuan:

Atzo norbeit izan düzü ene ait'ametara,  
 Gük elkar maite dügüla haien abertitzera.  
 Urrunt-araztez elkar ganik fite ditin lehia.

Osagarria ere zenbaitetan estakuru ederra dute, gustukoa ez dutena-  
 ren baztertzeko:



Aitak dio semeari:  
 «Utzak, utzak, neska hori:  
 Zendako duk etxen hori beti delarik hain eri  
 Utzak, utzak neska hori, gostarik ere zer nahi».

Maizago fortunaz dute axola:

Alaba, ago ixilik:  
 Ez dun Jakesen beharrik:  
 Sakelan ez din dirurik, ez irabazteko lanik.  
 Nahi duna bizi barurik, pilda txarrez beztiturik?

Aitamek, kantuen arabera, zer nahi pentsatzen dute beren alaba maite duenaren ganik berexteko.

Konparazioe, herritik hastantzen dute. Huna Arbonako neska baten bertsua:

Ez dut nere baitarik nik Arbona utzi:  
 Donibane huntarat aitak nau erautzi;  
 gutarteko lehia ez du hotz-arazi.  
 Nere griñak, maitea, zurekin dagotzi.

Lehenago komentuetan ere neskak gaketzen omen zituzten, xede beretara: adibidez, huna amoros batek bere maitearen aitari hertsatzen dion kobla:

Aita jeloskorra,  
 Zuk alaba igorri  
 arauz ene ihesi  
 komentü hartara!  
 Ar'eta ez ahal da sartüren serora:  
 Fede bedera dügü,  
 Alkarri eman tügü:  
 Gaiza següra da!

Halere ez dira burraso guziak beren haurren hain trabatzale agertzen.

Entzun ditzagun bi ama alaba elkar-hizketan:

Ama, begira-zazu leihotik plazara:  
 Ni bezalakorikan plazan ha ote da?  
 Lai, lai, lai, tra la ra la ra lai!  
 Begiak erne ditut, bi zangoak arin  
 Hainbertze dohainekin ez nauke mutxurdin!  
 Mutikoen artean itzul-inguruka,  
 Gizon-geitzat baduzket dotzenan hameka.  
 Heldu den primaderan arropa xuritan  
 Edera izanen naiz mahain sainduetan.  
 — Haurra, ahal badaite, hala izan bedi:  
 Lehen gure aldi zen, orai zuen aldi.

Gure euskal kantuetan, amoresek elgarren artean maiz badituzte gora-beherak: hotz-aldiak eta bero-aldiak aldizkatzen zaizte; sendimentu goxoenen artetik, gazteak aise agertzen dira idurikortsu; ez fida maitearen ele ederreri; ez sinetsi nahi, bainan halere kasu egiten haren kontra entzun erran-merraneri; hortik hasarreak eta gero berriz baketzeak: jos eta una, urra eta jos.

Ez da harritzekorik: gure kantu xaharrak sortu tiren denboretan, gizon-gaiak eta emazte-gaiak luzaz egoiten tiren ezkontzaren haiduru.

Kantu batek dio:

Juramentu eginik duela bortz urte,  
 Holakorik ez nuen zure ganik uste...

Bertze batek:

Zazpi urtez beti jarraiki zait ondotik,  
 Erraiten zautala: ez dut bertze maiterik.

Hirugarren batek:

Nik hitza atxiki dut zazpi urtez geroz  
 Erreztun huni beha egun ta gau oroz...

Bortz-zazpi urte hanixko da. Anartean gauza frango pasa zitaken, eta elgar erasiatzeko parada hainitz. Huna aharra ttipi bat:

— Prima ejerra,





Zütan fidatürrik,  
 Hanix bagira  
 Oro tronpatürrik!  
 Enia zirenez erradazü bai al'ez;  
 Bestela  
 banoa  
 Desertiala nigarrez urtzera!

— Desertiala  
 jun nahi bazira,  
 Arren zoaza,  
 Oi, bena berhala!  
 Etzitiala jin harzara ni gana,  
 Bestela  
 gogoa  
 Dolütüren zaizü, amoros gaixual!

— Nitan etsenplü  
 nahi dianak hartü  
 Ene malürarak  
 parerik ezpaitü  
 Xarmagarri bat nik beinian maitatü  
 Fidatü,  
 Trunpatü...  
 Seküla jagoiti ikusi ezpanü!

— Mintzo zirade  
 arrazu gabetarik  
 Eztüdala nik  
 zur'amodiorik;  
 Zür beno lehenik banian besterik  
 Maiterik,  
 Fidelik,  
 Horrez eztereitzüt egiten ogenik.

Entzun dugun kantu hortan, bertze askotan bezala, leialtasuna, fideltasuna da bereziki aipu.

Fideltasuna ez dute frantsesek gure euskaldunek bezala ulertzen. Frantsesek emazte ezkonduari galdegiten diote fidel egoitea, eta heien arrangura handia da ezkondu ondoan adarrak ez ukaitea.

Gure herritarrek aldiz eman hitzari, amodio hitzari fidel egoitea neskata bati galdatzen diote.

Oharpen hori lehentze aipatu duena da Peillen jauna, mila arrazoinekin.

Zonbait aldiz entzuten da neskata bere buruarekin ezbaian ari, bi gizonen artean batto hautatu beharrean:

Ai, ei, ai, ei, ai, eta  
 hau da dolorea!  
 Bi maite üken-eta  
 etxakin zuiñ hauta:  
 Batek dizü txapela,  
 bestiak boneta.  
 Txapeldün hori düzü  
 oi ene bihotza!

Bertze batzuetan mutikoak lehia gehiegi erakusten du, bere maitearen ganik fagore kutun batzu ardietsi nahiz, eta aditzen du erantzun:

Hire ahalkiak badik bere malezia.  
 Uste düka nizala herenegün sortia?  
 Gaixki enplegatü dük hik hire mihia  
 Eta izpiritia:  
 Ni nahi naianak  
 Elizatik landa ükenen dik eskia.

Bertze batek berdintsu dio:

Diozun bezala maite banuzu,  
 elizaz feda nezazu;  
 elizaz feda nezazu eta gero zurea nukezu.

Kantuetan mutikoaren ganik jalgi ditzake maitearen bortxatzeko mehatxu gogorrek ere, nahiz neskatxak badakien nola deplauki ihardok.



Zer nahi den, eztabada amoros horietaz bertzerik gertatzen zitzaien noiz behinka bibita edo buruz-buruen karietarat, kantore zahar batek salatuko digun bezala:

— Mendiak bete belarrez, begitarreak nigarrez:  
Lan eginaz urriki dut, bainan probetxurikan ez!  
Orai hemen nagozu sabeletik minez.

— Ene maitia, zer duzu? Zerk holakatzen zaitu zu?  
Ez da denbora luzia zirela penetan sartu:  
Plazeraren ondotik, desplazera duzu.

— Ogiak dira burutu, artoak ere jorratu.  
Primaderan egin lana udazkenerat agertu:  
Ene maitenoari... gerria loditu.

Oraino gizon gazteak bere aitasuna aitortzen duelarik, paso... Bainan ez bide da beti hala gertatzen Arrosa buketaren kantuak salatzen digunaz:

Arrosa buketa bat uztailean sorturik,  
Igorri izan nion jaun hari goraintzi.  
Landarea nuela haren baratzetik;  
Otoi begira zezen nitaz orroiturik.

Uste izan bainuen atsegin zukela  
Bere landaretikan ukanik buketa,  
Gibelat itzuli du, nahi ez zurea,  
Landarerik emanik orroitzen ez dela.

Lili ederra, ongi etorri zarela!  
Nik ez zaitut utziko jaun harek bezala,  
Freskorik bai haziko nere bularrean  
Deitzen zaitudalarik haren izenean.

## 5. AUSARKERIAK

Ohartu zirezte zoin polliki adi-arazten diren gauza horiek oro, urrundik bezala, hitz-erdika. Maitalen arteko linburkeriak ez dira ardurenean xeheki aipatzen, salbu-eta laidozko edo trufazko kanta batzuetan, tobera-munstra eta holako nausa-bideen karietara. Etxahun Barkoxeren obretan kausi ditazke zenbaitzu: orduan ere sinbolo batzuez erdi-estaliak daude ahalgekizunak, *arrain*, *aingira*, *hegazterren-isatsa*, *hegalpeko luma* aipatzen direlarik. Gehienetan zirtoen jeinu jostagarriak haizatzen bezala ditu esondatu zarpaikeriak, hego xuriak hedoi beltza ohiltzen duen bezala.

Nork ez du ezagutzen Etxahun zaharraren lumatik ateraia den Maria Solt eta Kasteroren ipuina?

Maria Solt eta Kastero,  
Bi amoros zahar bero,  
Hirur-hogoi-hamarna urtetan hartu die amorio  
Kastero jelostu gero, Maria Solt ezari kanpo.

Maria Solt dua nigarrez  
Izorra dela beldurrez  
Barnets-Bordako anderiak kontsolatü dü elez:  
Emazte zaharrik üküpü agitzen eztela ez.

Maria Soltek arrapostü:  
— Santa Elisabet badüzü:  
Saintü zahar bateganik üküpü agitti düzü;  
Kastero ere bada saintü, hala nizan beldür nüzü.

— Kastero ez düzü saintü,  
Sobera burhauti düzü:  
Elizalat juan eta taharnan egoiten düzü.  
Kastero dena gatik saintü, Maria Solt, antzü zira zü.

Horrek ez du erran nahi ez dela euskaraz aurkitzen ahal, kantu gizen gordinagorik. Egun egunean ahantzixeak dira. Lehen, bakar batzu bazi-ren Frantziako kazernetan usatu kantore zikinatarik guti edo aski aldatuak. Ez dut uste behin ere publikatuak izan diren. Funtsean, ez zuten merezi ere, ene gustuko.



Ezagutuena zen Baxenabarreko xoko batzuetan hitz hauiekin hasten zena: «Zer ari zira, amaso, hola beti guri so?». Kondatzen zuen nola atso baten baratzean eta haren leiho-pean bi neska-mutiko parekatzen ziren: bertsuetan ez zen poesia izpirik. Ez dut haren kopiarik atxiki. Halere, ez baita hemen umerik, etxenplu gisa, Ogiegile andere baten kontrako bertsu batzu irakurriko dauzkitzuet, barkamendu galdeginez heien ozarkeria gatik.

### **Bolanjera edo andere okina**

Guti gostarik bildurik, sosak baditu okinak:  
Baditu, aitortu daizkit, ez du lotsarik kokinak.

- Diru hoik nundik ditutzu, anderetan xarmentena?
- Meraren moltsa joritik, usu heldu baita hunat.

Soldado ergelak ere jin dira labe huntara  
Bainan gerlariak baino nahiago dut jaun mera.

Jaunxkilek ele pollitez nahi ninduten xoratu;  
Ele pollitek ez dautet bihotza nehoiz hunkitu.

Fraile bat ere jin zautan lili buketa eskuan,  
Bainan lorez asetzeko ez nintzan sortu munduan.

- Ni, anderea, ez nuzu ez jaun mera, ez soldado,  
Ez jauntto, ez eta fraile, bainan xoilki okin bero.

- Erran duzu «okin bero»: zer diozu hitz horrekin?
- Anderea, jitez nuzu jende amorosen okin...

— Ez dut nehoiz egun arte hitz bitxi hori entzuna:  
Nola ofizio hortan daramazu zuen lana?

— Lagun har banindezazu, artoski orra nezake  
Zure labore maitea, segur kontent baitzintazke.

Gauaz ere hor nindaikete beti zure zerbitzuko,  
Labe haga esku-pean behar orduz labatzeko.

— Zuk bederen badakizu ozarki adi-arazten  
Ene bertute flakotik zer duzun igurikatzen.

Halere nahiago dut ene betiko jaun mera,  
Ixil-ixila baitaki nola ni diruz ohora.

Horra nola bolanjertsa asetzen zaikun ohorez  
Okastaturik nitzaio kolpez itzuli bizkarrez!

Ihizi onak biak ere!

## **6. DESPEGIDAK**

Horiek hola, kantu hainizetan ikusten dira maiteak, elgar ezin adi-tuz, elgarretarik berexten, nigarra begian edo hasarrez. Huna nola Mila-frangako neska batek despegitzen duen bere ohiko gizon gaia:

Arrosak eder botia, ederrago du lorea:  
Lehen bertzetan ibili-eta, orai niri gortea?  
Zoazkit begien bixtatik, parabolez betia!

Holakoetan, neska balinbada baztertua, herraz eta gorrotoz urrun-tzen da, mendekatzeko xedearekin, mutikoari lore pozoinatuak igorri behar badiozka ere. Gizona bidalia izan bada, zenbait aldiz lehen egunetan mindurik dago, hiltzerat ari dela iduri.

Bainan gizon gehienek ez dute burua galtzen, ez eta maite izanaren alderako malezia handirik atxikitzen.

Arruntarrak kantatzen zuen:

Amodioa zoin den zoroa mundu guziak badaki;  
Nik maiteño bat izaki-eta, bertze batek eramaki  
Jainko maiteak gerta dezala enekin baino hobeki!

Hori da hori, karitatea!



## 7. EZKONTZA

Beharrik, ez dira amodio guziak hausten, ez itzaltzen. Gehienak ezkontzarat heltzen dira, lege den bezala.

Bainan gazteak ezkonduz geroztik, gure euskal kantuak ez dute gehiago heien amodioa guti baizik aipatzen.

Izaitekotz, eztaietan errespetu handirekin kantari on batek jaun-andere esposak goستن ditu, Ohitz, Ligueix edo Etxahun Irurikoaren bertsu famatu batzuek.

Huna Ziberon maizenik emaiten diren kobletarik zenbait:

Oihan beltzian zuiñen eder den ostoa berdia jeikiten:  
Han entzün dütüt egün goizian txoriak kantüz erraiten,  
Bi bihotz gazte amodiak egün dütüla jüntatzen:  
Boztariotan sartü niz eta orai hasten niz kantatzen.

Espus-espuser, ororen partez, uhure eta goraintzi:  
Egün düzien amodiua bizi zideno ez ützi!  
Nahigabetan parte har eta plazerak ez berantetsi:  
Irus izate ederrenian nahi dügü ziten bizi.

Espus jaunari ele bat bera, bürrian dezan edüki:  
Laguntto horri amodiuz beti bihotza eraiki;  
Zaharraguer uhure eta haien abiser jarraiki,  
Familiako bake hun baten gozatzeko alkarreki.

Espusa gazte baten erhian zuiñ eijer den erraztünal!  
Harek beitiu mutil gaztier: «Etzitaiela ingana:  
«Senar hun baten edireiteko egün üken düt fortuna,  
«Hari emanik bihotza oso, bai eta gaztetarzüna».

Euskal-herrian, orotan bezala, badira ezkontza hautak, bertze batzu onak edo bederen jasangarriak. Bertsulariek bakean uzten ohi dituzte.

Hargatik, familietan zerbait eskandala gertatzen zelarik, lehenago koblak ateratzen zituzten.

Adibidez, itsusi zaukaten gure arbasoek, etxeko nausia, etxeko andereak gaizki erabiltzea.

Berrondon holako zerbait pasatu zateken duela ehun bat urte, ezen bertsu hau gelditu da orduz geroztik:

Berrondoko anderia emazteki zilarra:  
Kraxturutik baderama beldur gabe senarra.  
Jats-ukaldika berotzen dio, hotz ez dadin bizkarra!  
Etxe hortan gurtzen zaio oiloari oilarra.

Ez nuke deusetan hitzaldi hau bukatu nahi familia dohakabe baten orroitzapenarekin. Hobe dugu Garaziko senar dohatsu baten bozkarioa elgarrekin entzutea, opatuz Euskal-herriko bihotz guzietan, maitasunari esker, bizi dadin bakezko alegrantzia oso bat:

Ene andrea, andre ttipia  
Bainan emazte garbia:  
Xoriak sasia  
Eme kantatzian  
Bozkariotan da  
Ai ene andre ttipi-ttipia  
Gu guzien iguzkia!

Jaun andere aditzaleak, erranak erran, eta gaizki erranak barkatu.  
Gau on!



## Mattin Irabola pertsulari zenaren orhoitzapenetan KOBBLAKARIEN LEGEA

Askotan galdegin daukute zerbait lege bazenetz koblakari berrien gidatzeko, ala zerutikako dohain batek behar zituenetz nolazpait argitu, berotu eta kantarazi.

Gaztean nihaurek bilhatu izan dut liburuetan bezala pertsulari xaharren solasetan ere; eta deus argirik ezin atxemanetz, kantu ederreneri lotu naiz, heietan kausituko nuela, nehun kausitzekotz, nolako helbideak hartu behar diren neurthitz onesgarri zombaiten ontzeko.

Bi hitzez erran ditake koblakari bati baitezpadako zaizkola jeinua eta jakitate. Jeinua, jiteak emaiten du, beraz Jainkoaren ganik heldu da. Jaki-tatea, parte jitetik, parte ikhastetik.

Azken puntu han baizik ez dugu hemen hunkituko: nehorri ez deza-kegu guk dohain berezirik eman; bainan xoilki zombait xehetasun, zombait konseilu xume, sortzetikako dohainen azkartzeko, laguntzeko eta ahalik hobekiena baliarazteko.

## GEIA

Koblaka hasi baino lehen, behar da geia hautatu. Ez da sekulan jiten dena jin abiatu behar, hartzen den bidea ezagutu gabe.

Gei guziak ez dira berdin egoki. Badira gei lizun edo zikhin batzu, eskualdun batek bethi bazterrerat utziko dituenak, bere buruaz axola izpi bat balinbadu segurik. Badira bertze batzu biziki arruntak, aditzaleen gogo-bihotzak herrestan daramaztenak, sekulan hegal-ukaldi batez goititu gabe. Primetan sari guti holako geiek.

Bertze batzuek aldiz hari gehiago badute: *Jainkoa* bezain gei aberatsik badea? Haren handitasun, zuzentasun, ahal, onezia, bethikotasun, eta bertze dohainak, nork aski aipha?

*Mundua* ere, ithurri gaitza da koblarienzat: batek haren ederrari dagolarik gain-gainetik miresten du; bertze bat harritua dago zoin gogorra den lurra gizonari buruz, zoin aise lehertzen duen eta ehorzten, zoin konpreni-nekhea den.

*Heriotzea* berdin, hitz-pide nasaia: bata hiltzeko menturak ikharatzen; bertzea bozkariatzen, zorionaren pheskizan; batek bizi hau deitoratzen; bertzeak zerukoa nahiago...

*Amodioa* da bihotzen hunkitzeko kantagei hoberenatarik; ez dea *amodioa* oren arteko lege handia? Aldaska frango badu zuhaitz horrek: Jainkoaren aldeko maitasuna, herriaren aldekoa, etxekoen aldekoa, ezkongeiena. Eta aldaska bakotzak zombat osto ez? Batek amodioa bozkario gisa ikhusten, bertze batek atsegabe gisa?...

Bai horrek dira lau gei nausienak: Jainkoa, mundua, heriotzea, amodioa; eta erran ditake nolazpait sartzen ez diren kobla moltxo batek ez duela deusik balio. Ez dugu erraiten lauak sartu behar direla, ez; bainan bat ala bertzea. Horren eskasean, neurthitza murriz-murrizta dago, bate-re hedadurarik gabe, hertsu eta soil.

Koblakari xaharrek bazakiten lege hori: *Ura* eta *arno*a goretsi behar zutenean, berehala bathaioaz eta mezzaz orhoitzen ziren, Jainkoaren ganat nahi baitzuten urbildu beren koblakaldea. *Gerlaz* mintzatzeko, herio beltza heldu zitzaienten ezpainetarat eta gerlariek etxean utzi esposaren amodioa. Eta zernahiren gorestekoko, ez ziozkatena munduko zernahiren gorestekoko, ez ziozkatena munduko lili, xori eta izarreri maileatzen beren iduripenak?

Erran gabe doa erre izan behar dela ikusteko hautatu geia koblakariaren ahaliari neurtua denetz eta aditzaleen gostuari. Nork nahi ez du edozoin suiet hartzen ahal, eta, biziki ontsa onturik ere aditzalek ez badute onhartzen, alfer lan egiten du.

## MUGAK

Geia hartuz geroz, behar da mugatu. Alde guzietarat luza baladi, jo harat, jo hunat, deus hauturik gabe, aiererat eta itsurat, nehundik ere ez litake eder koblakaldea.

Hoberena beraz xede edo mugen finkatzea, jakiteko nundik has, zertarik burura, eta nola antola arteko mami balios hura. Hastapenak munta handia du: harek emaiten diozkate kobleri beren abiadura, usaina eta ozentasun berezia. Gaizki abiatu lasterkaria ez da aise heltzen; hala-hala makhur hasi den neurthizlaria. Azken hitzek ere hainitz erran nahi dute: ezen aditzaleen beharriek horiek dituzte hobekienik atxikitzen. Ontsa laster eginik ere, ondar urhatsetan behaztopatzen den zoin-lehenkariak ez



du so-egileen onesmenik ukaiten. Bazkarietan berdin, arno eta jateko bikainenak azkenik.

Arteko koblak bi buruetakoeri emanak izan behar zaizkote: xapela eder, zapetak eder, eta soinekoak fildan, ez litake gisa. Bertzalde kantuak ez luzegi molda: hein bat behar da orotan eta aditzailea ez da neholaz nakaiztu behar.

## PERTSUA

Izariak hartu eta geia hautsi ondoan, dendariak josten du jauntzia. Halaber koblakariak pertsutan ezartzen ditu bere erran-nahiak.

Hortako, aire bat hautatzen du suietari asurtia. Ez dira alabainan denak edozoin gauzentzat egoki: heriotze bat ez ditake *Ai, ei, ai mutilak* duen musika jauzikari hartan jenderi konda; ez-eta xakur baten odolgi-ohointza *Lurraren pean* delako airearekin. Bakhotxari berea.

Aireak berak ponduak emaiten ditu. Huna nola diren gehienetan moldatzen.

Arruntena eskuaraz 13 pikoetakoa. Har dezagun konparazione:

1 2 3 4 5 6 7 1 2 3 4 5 6  
Mendian zoin den eder) ( epher zango gorri.

Bi zathitan ezarria da: lehenik 7 piko, geldaldi bat eta gero 6 piko. Beha ondoko pertsueri: berdin eginak dira:

*Ez da fidatu behar) ( itxur eder horri.*  
*Ene maitea ere) ( bertzeak iduri:*  
*Niri hitz-eman eta) ( gibelaz itzuli...*

Hamabortz piko dituztenak ere badira.

1 23 4 5 6 7 8 1 2 3 4 5 6  
Adios ene maitea) ( adios sekulako.

Hemen geldialdia zortzigarren pikoaren ondoan emaiten dute.

Pertsurik ospatsuena, 18 pikoekilakoa. Huni bi geldialdi ezartzen zaizko: 5 + 5 + 8.

1 2 3 4 5 1 2 3 4 5 1 2 3 4 5 6 7 8  
Lurraren pean) ( sar nindaiteke) ( maitea zure ahalgez.

Beha berdin huni:

*Ume eder bat) ( ikusi nuben) ( Donostiako kalean.*

Kantu gehienetan lehenbiziko pertsuaren araberakoak dira bertze guziak, eta huts handia litake hamahiruren orde piko gehiago edo gutiago ezar baladi.

Behin norbait hasi zen:

*Mendian zoin den eder epher zango gorri:*  
*Nik emanen dautzuet holako baten berri;*

Bigarren pertsua makhurra zuen, 13ren orde 14 piko baitzituen; eta segidan kantatu zaukun:

*Manera ederrak ditu ba gure Marik,*  
*Nahiago bainuke balu funts hoberik.*

Lehenak 13 pondu baditu, bainan geldialdia gaizki emana: 8 + 5, 7 + 6en orde.

Berdin makhur loake bertze aire batzuetan 5 + 5 + 8 behar-eta, 6 + 4 + 8 ezartzen balitz.

*Ainhara pollita, norat zoaz zalhu-zalhua zeruan?*  
*Ala hegoko horri-aldetan norbait baduzu gwardian?*

Lehen pertsua ez da ona, nahiz pollita den; bigarrenak ez du erraitekorik.

Ene ustez ponduak xuxen zathitzea eta izariaren begiratzea da pertsuari doakon lanik baitezpadakoena. Gauza ederrak erranik ere, mainku-airean atheratzen badira, ez ditake prima handirik irabaz.



## KOBLA

Erran dugu nola neurritz edo pikoze berdindu behar diren pertsuak. Ez da aski. Pertsuak behar dira koblatu: pertsuen koblatzea edo —zonbaitek dioten bezala— doblatzea da heien berdin bururatzea.

Gure mera xaharrak nigar onik ein du,  
Bere xarpa maitea nahiz berriz bildu.

Bi pertsu hoik koblatuak dira, biek du daukatelakotz azken pikoan. Kobladura guziak ez dira berdin aberats ez eta zilhegi. Hitz bera ez ditake berarekin kobla. Horra zergatik kantu hunek eskas emaiten duen:

Igande astelegun elgarrekin dire.  
Lan eginaren arras adixkide dire.  
Trufan eta musikan bertzez ari dire.

Hiru dire horiek ez zaizkit eder batere. Holako neurthitzek ez dukete nehoiz saririk hartze.

Hala-hala biziki ahul zazikit kobladura sobera ahaide batzu: *aitari*, *amari*, *haurrari*, *muthilari*, edo *aldata*, *hartu*, *makhurtu*, *galdetu*, edo *erraiteko*, *jakiteko*, *joaiteko*, *jiteko*...

Aldiz ahaidegorik gabekoak onak zaizkit, hain aberats eta ozen ez izana gatik: *eman*, *harrian*, *dezan*, *buztan*, edo *bethi*, *itzuli*, *aitari*, *sasi*, edo *egon*, *zion*, *on*, *oixtion*...

Bainan hobe ahaidetasunik ez izan eta beharri ozenki bethetzen badute: *aitari*, *urtikari*, *ari*, *sari*, edo *argitu*, *baditu*, *apetitu*, *zitu*, edo *uko*, *flako*, *sartuko*, *zaizko*...

Erran gabea, ahaidegoa handiago, eta ozentasuna betheago behar da... Maldata, galdata, aldata, kaldata, ederki heldu dira elgarrekin, nahiz ondarreko tu horiek hari berekoak diren.

## MINTZAIREA

Kobla ederren egiteko ez da aski geia eder izaitea, pertsuak ongi eginak eta elgarri moldez koblatuak. Mintzairea gota atxiki behar du neurtez hiltariak. Lehenik hitz apha kazkarrak utz ditzala bertzendako; gauza ziklinak ez ditu aiphatuko, edo neholaz aiphatu gabe ez baditu uzten ahal, polliki eta inguruka mintzatuko da hetaz:

Igande ilhuntez batez etxe alde zoala,  
Erroz gora erori zen Santsin zabal-zabala.  
Izarrak nihon ez ditu ikhusi han bezala.  
Ilhargia ferekatuz gan zen gan berehala.

Ez dea ederki heldu ilhargi hori?

Beraz mintzairea garbi ukhan dezala koblakariak. Bai eta aberats. Hitz hainitz behar dira, elgarren bethekoak, gauzen erraiteko: zeren pertsuaren izariak eta kobladurez ez dituzte nola nahikoak hartzen ahal: noiz nola, horra legea. Behin, *Lili bat ikhusi dut* delakoaren airea harturik, koblakariak erranen du:

Aingeru baten pare duzu arpegia.

Hartu balu bertze aire bat, eman dezagun *Santsin-ena*, erranen zuen:

Aingeru batek bezala duzu begitarte.

Gogoazaldu eta hautu nasaia, ez da holakorik pertsulari on izaiteko. Bainan kasu! Eskuaraz ari den koblakaria ez dadila othoi frantseserarat lerra, bere hizkuntza eder ustez:

Orai deklaritzen dut mundu hunen bixtan;  
Ez dut abandonatzen esperantza zutan;  
Moiunik balinbadut bihar aratsean,  
Bisita eginen dut zure kartierean.

Eskuaraz erran zitakeien:



Egun erraiten dautzut denen aitzinean,  
Ez dutala etsitzen batere zu baithan.  
Ahalik balinbadut bihar aratsean,  
Aurkituko nizaitzu etxe-ingurutan.

Ez dut uste hanbatekoak diren lau neurthitz xuxendu hauk; bedere-  
bederen eskuara gehixago badute. Dena ere on.

Bertzalde kasu egiteko litake hitzaldeak ahal bezain legun izan dite-  
zen. Soinu bera maizegi edo hurbilegi aurkitzen delarik, gogor emaiten  
du, beharria nakaizten du. Huna bertsu zahar zonbait. Erradazue ez dute-  
netz, funtsetik landa, truskil aire bat.

Bihotz zaharrari etzaio ohartzen  
Neskatila arin gogo gaztekoa:  
Hari ari zaio begia argitzen,  
Norbait baitu orai gazten artekoa.

Ez dea irringarri hoinbertze *a a, a a, bait bait, hari* ari eta *goga* bitxi-  
ren kausitzea?

Ez dut utziko kobla hauien egitea  
Erran gabe emazte hunen bertutea.  
Nehork ez du ukhatzen harekin dotea  
Dela laster urtzeko irriskuz bethea.

Hemen ere baliteke erraiteko hainitz: *ko ka, e e, u u* eta *er ur irri...*  
Eztitasun gehiago galdegiten dute behar bezalako neurthitzek.

## EDERGAILUAK

Bainan orai artinoko konseilueri jarraikiz ez uste izan Elissamboure  
bezanbat izanen àrela. Koblak ederki eginak izaiten ahal dira, batere  
ukhan gabe bihotza johan daukun su edo hats berezi hura.

Hats hori, jeinuak edo jiteak emaiten du; su hori, odolak phizten.  
Halere badira ederbide batzu denek baliatzekoak, ahal denean segurik.

Bata da koblaren azken pertsuari zirtoaren eratkitzea. Aditzalea  
dilindan daukazu ondar ponduraino. Aiduru dago, zertarat deramazun;

eta bozkarioa jauzten zaio, bet-betan agertzen zaiolarik uste gabeko athe-  
raldi pollita, edo ditxo irringarria.

Etsenpluak kantu zahar guzietan badira:

Xoriñoak kaiolan  
Tristerik du kantatzen:  
Duelarik han zer jan, zer edan,  
Kanpoa du desiratzen,  
Zeren, zeren  
Libertatia zoinen eder den...

Beha berdin kobla hunen bururapenari:

Gazte-gazte gan nintzan herritik kanpora:  
Estranjere aldean pasa det denbora,  
Herri-alde guzietan toki onak badira;  
Bainan bihotzak dio: «Zoaz Eskual-Herrira».

Edo huni:

Amodioa zoin den zoroa mundu guziak badaki;  
Nik maiteño bat izaki-eta beste batek eramaki;  
Jainko maiteak gertha dezala enekin baino hobeki!

Bertze ederbide bat da pertsuen argitzea eta phiztea, itzuli berri edo  
iduripen batzueri esker.

Haltzak ez du bihotzik,  
Ez gaztanberak ezurrik,  
Enian uste erraiten ziela  
Aitonon semek gezurrik...

Edo:

Sagarra lore-lore denbora denean;  
Gazteak hankak arin soinu denean...





Ala:

Uri ondotik hosto-pean  
 Ikharan dago gaixo lantxurda...  
 Haize gaixtoak ematean,  
 Lohi beltzerat eror beldur da;  
 Maitea, zutaz orhoitzean,  
 Beldur bera dut bihozean:  
 Garbia zare, bai behautzu  
 Lohirat eror, zuk aingerua...

Iduripenak jaunzten eta airatzen dute kobtakaldea, gogoetak hedatzen dituztelakotz geiaz haratago eta, alegia deus ez, hunkika bezala berriz hartaritzen, nekhadurarik gabe eta, erran behar bada, atseginekin ere gehienetan.

## AZKEN HITZA

Huntan geldi giten egungo.

Aholku zonbait eman ditugu koblakari gazteen laguntzeko. Badakigu haatik ezin jarraikiko zaizkotela tiletez-tilet, luma eskuan ariko direnean baizik.

Gogoak eman arau bero-beroa koblatu behar delarik, legeak nahi eta ez zabaldu behar dira: orduan pertsuak hitz sobera balinbadu, airea luzatzen diote; eskas balinbada, laburtzen. Hots! ahal bezala...

Bainan segur gira astiki ar liteken neurthizlariak, denbora poxi bat eman ez luma-lanari, eta gero kantuari trebatuz, kobla ederrik egin leza-keela.

Agian Elizanburuk, Otchaldek, Zaldubik, Dibarartek, Mattinek eta bertze koblakari handiek ondokoak izanen dituzte!

## ERESIAK HAMABORTZGARREN MENDEAN

BERRIKITAN aipatu ditugu emazte-mindurien bertsu edo dolamen bitziak.

Eskual-literatura zaharrak andere handi batzuen **eresiak** badakarzikigu. Latinez **elegia** zitaken kobla molde hori.

Andere horiek ez ziren dirutan artzen, ez eta bertzen kondu. Bainan orduko usaia baitzen, beren etxetako gertakariak kantuz goersten edo gaitzesten zituzten, okasione handietan.

Kantu berezi hoik gehienak galdu dira, salbu orhoitzekoak ziren kobla batzu.

\* \* \*

Segur naiz irakurtzale zonbait bederen jakin nahiak direla nolatsu iragaiten ziren eresia-emaite horiek. Ez dakit **Alos-torre**a bezalakorik baditaken, gauza horren konpreni-arazteko.

Beltran Perez de Alos, izen hortako dorre edo jauregiaren jabe zen. Bietan ezkondu zen. Lehen ezkontzatik ez zuen izan alaba bat baizik, Usua, dena ama, hots, prestua eta saindua. Bigarren emaztea ez zen arras berdina. Senharrira, Espainian gaindi Moroan kontra ari zelarik, Belea erraiten zioten jaun batekin ez zen ongi ibili: bastart bat sortu zaioten; eta Beltranen hobeki enganatzeko sinetsarazi nahi izan zion haurra Usuarena zela.

Beltran ohartu zen bazela ixtorio-mixterio zerbait etxekoen artean, eta arats batez erori zen, alegia supituki hila.

Kutxan etzan zuten jauregiko sala haundian eta zaldiz ekar-arazi zituzten ahaide guziak, gaubeilaren egiteko, usaian bezala.

Kutxa idekia zen. Inguruan tortxo handi batzu eman zituzten pizturik. Eta gau-beilari guziak belhaunikaturik hasi ziren hilaren arimarentzat othoitz egiten, aho batez, elgarrekin.

Bainan geroxago hiletan aldia ethorri zitzaieten: beilari bakotxak behar zituen bere sendimenduak kantatu. Memento handia, zeren heriotzearen aintzinean husten baitzaizkoten zonbait bihotzak, eta ikaragarriko segretuak ere salatzen baitziozgatzen elgarri.



Andere xaharrek eman zituzten lehenbiziko eresiak: dudarik gabe hila laudatu zuten, zaldun eta gerlari famatua zela, aita ona eta senhar paregabea.

\* \* \*

Usua xutitu zen azkenik, eta huna zer kantatu zuen. Zonbait hitz berritzen ditut, orok ongi konprenitzeko.

«Etxe eder, leiho gabe huntan, ez naiz sartu zazpi urte hautan, eta zortzigarrenean, neretzat zorigaitzean, Aita Beltranen hiltzean.

«Ama-andre nerea nitaz bi erdi egin zenean, mila oilo hil eta ezkaratzean, zazpi zezen korritu ere enparantzian: ni ere banindagon lumatxoan artean, eta nere ama andrea urhe gortinen artean.

(Hots, sortu zenean, besta handiak egin zituzten)

«Gero, Bidania guzian, bat zen erhorik eta zororik: Aita-Jaun nereak hura senhartzat eman zautan, bainan ez nezake truka hobiagoarentzat.

«Aita-jaun nereak niri eman zautan gaitzuruka dotea. Ama-andreak ere ixilik bere partea.

«Lehen gauean begi-bihotzak loaren menean, bai eta berriz ere bigarrenean; hirugarrena iragan baino lehen ongi alegeratu zinen, Alos-torrea, heldu zelakotz ni baitan semea.

«Alos-torrea! Bai, Alos-torrea! Alos-torreko eskaler luzea! Alos-torrean nindagonean iruten, Bele beltzak kua, kua leihoetan! Handik jeiki eta urhe kiloaz jo nuen. Bainan handik laster berri gaixtoak jo ninduen.»

Orduan Belea deitu zaldunak erran zion:

«... ixil, ixil! Ama-saltzale alaba! Ez da hori zuk erran beharra!»

Eta Usuak aintzina:

«Ixil, ixil, zaldun odol txarreko gaztea! Are gutiago zen zuk, egin beharra!» «Ahizpa ederrak hor daude, ederrik eta galantik, erhi ederrak erhaztunez beterik, ez daukatela mantoetan zilorik; are gutiago begietan nigarrrik!

«Ama-andreari ere bai alegantzia dario; nere bihotzari bakarrik mindura-dario!

«Afta-jaun nerea Gaztelan zenean, ixil askorik sortu zen Alostorrian semea; eta ixilagorik dago bakean hazten, Zarauz aldean, gure familiaren desohorean.

«Ai hau mindura beltza. Ai nere ahalgea! Alabak nigarra eta aitak lur hotza! Zeinek lohitu zaitu, zu, Alos-torrea! Ai, nere Aita maite-maitea, hiltzea ongi egin duzu, Aita-jaun maitea!»

\* \* \*

Diote, Usuak kantua bururatu-ta, Beltran jalgi zela bere kutxatik, eta ezpataz hil zituela emaztea eta Belea.

Zonbaitek ez dute uste Beltranek hilarena egin zuela, bainan egiazki hil zenean pasatu zela Usuaren xuriketa hori.

Banago zer begitarte egin zioteten ahaidek!

Zer nahi den, orai konprenitu-duzue zer zitazken **eresiak**.



## BERNAT ETXAPAREKOA

ESKUARAZ eginik ezagutzen dugun libururik zaharrena, Eiheralarreko erreter batek egina zuen eta agertu zen Bordalen 1545ean. Aphez garaztar hortaz biziki gauza guti dakigu, ororen buruan. Berak bere izendeiturak ez zituen bethi berdin izkiriartzen: behin irakurtzen dugu «Bernard Dechepare», gero berriz Bernat Echeparecoa» eta «Bernat Echapare». Noiz sortu zitaken eta noiz hil, orai arte ezin dugu jakin.

Haatik Jose Maria Huartek Nafarroako paper zaharretan kausitu du, 1518 garren urtera gabe aphez hori Donibane Garaziko bikario jeneral zela, eta buruzagiek goresten zituztela bai haren bertuteak, bai haren dohain handiak.

Bainan Eihalarren bizi zen eta hortik gidatzen zuen Garaziko eskualdea, elizako ekaietan.

\* \* \*

## XVI. MENDEA

Haren liburua, oixtion erran bezala, agertu zen hamaseigarren mende erditsutan, Bordaleko Lehet abokat jeneralak athera-razirik. Lehet hori eskualduna zen ethorkiz, itxuren arabera Sarako Lehetekoa.

Liburuari titulua latinez emana zitzaion: *Linguae Vasconum Primitiae*, hots, «Eskualdunen mintzaiaren hastapenak».

Antzin-solasean Etxaparek dio eskuarak ere bertze mintzaierek bezala baduela aski kalipu liburutan agertzeko, eta behin abiatzeraz geroz eginen duela bide. Orai arte azkenetarik baitzen, ilunbean gordea, nork jakin ez denetz gaur goiti lehenetarik argitarat jaliko?

Hots, gure aphez garaztarrak ez zuen herabe izpirik.

Esperantza ere zuen haren liburuxka berriak emanen ziotela Eskualduneri bai gauza seriosen, bai eta bertze batzuen eskuaraz aipatzeko gogoa eta gostua.

\* \* \*

Izaitez, 52 plama badauzka liburuak, 1159 neurthitzekin.

Hiru sail erlisioneari doazko: arras seriosak dira, jakitate sendoz orhatuak: Ama Birjinari dagozkion bertsuak ederrenetarik eta hunkigarrienetarik dira.



Bainan horra nun segidan hameka amodiozko kantu heldu diren, zombait frango ausartak, denbora heietako modan, jendea orduan orai baino arruntago baitzen, edo bederen solasetan egungoegunean ez bezain kilika eta minbera. Haatik ez du den gutienik emaztea erdainatzen, gora dauka haren ohorea.

Gero irakur ditake **Mossen Bernat Etchaparere cantuya**. Hemen bertularia pleini da etsaiek bildu dutela Biarnorat eta han preso altxarazi. Haren erranetarik ez da ezagun ez zoin ziren etsai horiek, ez zergatik preso eman zuten.

Huartek bildu paperetik iduri du Etchepare apheza politikan ez zela Jean II Nafartar erregearen alde: Nafarroan sartu espainolen alderdia bazaukan, eta alderdi huntakoek ezar-arazi zuten Garaziko bikario jeneral, Mendicoagaren orde.

Hortik egin da opinioea Jean II.garrenak mendekioz preso eman zukeela Pauen. Bainan ez da hortaz den mendreko frogarik: ez dakigu ez nungo presondegian zen, ez eta zoin arrazoin ez do estakuruz ezarri zuten itzalean.

Kantu borren ondotik bi dantza-airetan bi bertsu-aldi emanak dira eskuararen eta Garaziren ohoretan:

*Heuscara, Heuscara,  
ialgui adi campora!*

Echeparen liburu horrek izan zuen bigarren edizioe bat Rouen-eko Adrien Morront baitan.

Orai berriki arte ez ginakien holakorik: Oihenarten paper batzuetan ikasi dugu, ez du hain aspaldi. Haatik ezin erran XVI garren mende azkenean jali zenetz Rouen-eko liburua, ala XVII garren hastetsuan.

Geroztik, galdu da liburua, eta Parisen ez da xahar bakar bat baizik, mirakuluz bezala salbatua.

Hartarik edizioe berriak egin dituzte, 1847an, 1874an, 1893an, 1933an eta 1966an.

Jakintsun handi hainitzek ixtudiatzen dute Echepareren liburua, zombaitek hor den eskuararen gatik, bertzek haren poesiaren amodioz.

## ZER DAKIGU LEIZARRAGAZ?

Lapurdiko Beskoitze herrian bazen Mendizelaia deitu larregain abertsean etxe eder bat, Leizarraga erraiten zitzaiona. 1944ean lehertu zen, orai haren lekuan ez baitira gelditzen harri-lauza bakar batzu baizik: bertzeak bide harriztatzen baliatu dira.

Egoitza hortan, menderen mende, Liçarrague edo Lissarrague ize-neko familia hainitz sortu dira. Eskual-herrian eta Eskual-herriatik kanpo ere norbait izan diren gizon zombait eman dituztenak.

Ezagunena naski Leizarragako Joanes, egun, 1971ko uztailaren 4ean goersten dugun eskualzale zaharra.

Barzelonako Protestanten Carta Circular delakoan Juan Mirena Olaizola jaunak dionaz, Joanes hori sortu zen 1506an edo nunbait han. Eta zendu, hamazazpigarren mendeko lehen urtean.

Laurogoi eta hamabortz urteren bizi, bada zerbait.

Hain bizitze luzeko gizon batez iduri luke baginukeela zer nahi erraiteko. Zorigaitzez, orai arte bildu ahal izan diren hamaseigarren mendeko paperek ez daukute utzi Leizarragaz berri guti baizik.

Hasteko, ez dakigu haren arbasoen ez aita-amen izenik.

Ez dakigu zombait urtetan bere burua apez-gai senditu zuen, ez eta nun zuten eskolatu.

Haren liburuetarik ezagun da bakarrik etxeko eskuararen gainerat, funski ikasi zituela latina, greka eta frantsesa. Espainolari ere baditake ohartua zen, urruntxago ikusiko dugun bezala.

Jakes Bela famatuak bere Tablette-tan salatzen dauku Leizarraga Lapurdiko apez katoliko jakintsu eta kartsuenetarik izan zela. Haatik ez da nehun ageri zoin herritan izan zen bikario edo erretor, ez eta zombait urtez.

Hain guti erran dezakegu noiz nola lerratu zen Protestanten sinestarat.

Luthertiarren hatzik ez dugu hemen gaindi kausitzen mende hartako berrogoi lehen urtetan. Handik goiti ordean, bai, erlisione berriaren hedatzaileak ikusten dira ipar-Eskual-herriko jauregietan, apeztegiatan eta burgesen etxetan ibilki; buruzagiak eta handimandiak nahi dituzte lehenik bildu, gero jende xehek aiseago jarraikiren zaiotelakoan.

Horrela biltzen dituzte beren saretara, berzeak bertze: Bidaxuneko Agarramont, Makeako Belzuntze, Meharineko jauna, Xuberoko Sponde,



Belapeyre, Zalgiz, Bela familiak, baieta zombait apez, gehienak Xubero-aldekoak.

Jaun horien guzien buru, Agarramont ahaltsu eta amorratua, Jeanne d'Albret erreginaren laguntzale kartsua.

Theodore de Bèze-k bere orroitzapenetan, nahiz ez duen izenik emaiten, aipatzen ditu zombait ministro eskualdun Geneve-n eskolatu eta moldatuak: sort-herritik urrun atxikitzen bide zituzten ixtant bat, bereziki erretor ohiak. Calvinen erakaspenez hazirik, gogobihotzak arras berri eta bero zakizkioten.

Ritter Paueko ixtoriotzale jaunak uste du Leizarragak ere, Eliza katoliko utzi ondoan, Eskual-herritik lekuak hustu zituela norapait.

Bainan, nun ere kokatu baitzen, han berdin etsaiak aurkitu zituen: Testamentu berriko aintzin-solasean, Jeanne erreginari berak aitortzen zion preso eman zutela, eta orduan jasan penez orroitzean, buruko ilea lazten zitzaiola.

Nun, noiz, zer pairatu zuen, ez du salatu.

Ez guri galda ere nola atera zen delako presondegitik, ala etsaiak joaiterat utzirik, ala berak gisa bat edo bertze ihes eginik. Badakigu halere 1563an Lapurdin zagola. Urte hartako martxoaren 14ean Paueko Sinodak (erran nahi baita Protestant buruzagien biltzarrak) hauxe zion hitzez hitz: «Lapurdin bizi den Leizarraga jaunari mezutuko zaio hunat etor dadin, Testamentu berriaren otoitzen eta Katiximaren eskuaralat itzultzeko; eta, nahi badu bere burua (ebanjelioari) osoki eman, bere eskualdean edo Baxenabarren minixtro izaitera prestatzeko. Eliza-kontseiluko gain izanen da haren mantenatzea, Erreginak nahi duen ber hura hunat etortzea».

Leizarragak aitortu zuen, baizik-eta Biarnorat joan aintzin azpitik zaukaten gogo-arranguretan bizi zela, ez jakinez naski bide onari lotu zitzaion ala gaixtoari. Biarnon, itxuren arabera, bakea aurkitu zuen alde hortarik.

Bizkitartean ez omen zen aise menturatu Testamentu berriaren itzultzerat. Huts egin beldurrez duda-mudan egin-eta, behin entseatuzen; bainan, laster etsiturik, lana utzi zuen bertze batek egin zezan.

Baziren alabainan hor gairi protestant eskualdun idazlariak. Huna nundik dakigun hori. Begi atxikitze higenauten harat-hunateri, Espainiako erregeak ezarri zituen barrandariak ipar-eskual-herrietan. Barrandari horiek Madrillerat igortzen zituzten ikasi berriak. Heien gutuneri esker badakigu hedatzen zirela, eskuaraz, Luthertiarren liburuxka batzu. Damurik ez baitzaiku hetaik batto ere eskuetarat erori!

Heien itzultzaleak, nor baziren ere, ez bide ziren on, handiagoko lan bati lotzeko.

Agarramunt, Belzuntze, Meharine jaunek eta zombait adixkidek Leizarraga hazkarki sustatu zuten, ez etsitzeko; eta berriz egundainokotan hartu zuen bere saila, jo eta ke zeramala. Bi urteren buruko eginxea zuen.

1565eko maiatzaren lehenean, Oloroneko Sinodak erabaki zuen Leizarragak handik goiti eskuratuko zituela berrehun libera, ministro donadok bezala, ez baitzen bera ere ezkondua. Eta izendatu zituzten lau minixtro eskualdun, haren lanaren begistatzeko eta behar orduan xuxentzeko.

Lauetarik biga segurik xuberotarrak tiren: Landetcheverry Undüreiñekoa eta Tartas Sohütakoa, Etcheverry, «Petit basque» erraiten ziotena, kostatarra zen, Donibane Lohizunekoa. Laugarrena, Tardets, ez dakigu xuxen nungotarra zen, deituraz xuberotarra iduri lukelarik.

Lau so-egile horiek pagatuak izanen ziren lan horrentzat: eta lanak iraunen zioteno, ez zuten beren elizetan predikatzerik izanen igandetan baizik.

Ondoko irailaren 5ean, Salbaterreko Sinodan, Etcheverryk eman zuen Testamentu berriaren berri. Ala funtsez ala moldez lana hautuzkoa zaukan. Bilkurako minixtroek hitz eman zuten beraz haren ager-arazteko dirua.

Bizkitartean, eskuara toki orotan ez berdin izanez, bartz lagunek eskatu zuten lanaren arra-hunkitzea Eskualdun gehienek ulertzeko gisa. Biltzarrak on-hartu zuen eta erabaki begistatzaleak eta Leizarraga aintzina ordainduko zirela Elizaren dirutik.

1566an eta ekainaren 5ean Nay-eko Sinodan nasaiki aipatu zuten Leizarraga, baizik-eta Jainkoak dohainez bere zuela, eta grazia hoieri esker Jainkoaren ospea bere eskualdean aise aintzin-araz zezakela. Ikusi behar ere, ez zenetz Nafarroarat berdin igorriko. Xede horren gatik bagaude ea espainola ere ez zakienetz, nahiz orduan eskuara orai baino hedatuagoa zen Nafartarren artean.

Ondoko urtean, 1567an, Leizarragak Pauen minixtro-gaien etsaminak pasatu zituen eta minixtro egin zuten, apirilaren 15ean Bastidarat izendatzen zutelarik.

Bastida (erdaraz La Bastide-Clairence), bere portu ttipiarekin, Baxenabarreko herri bat zen, frango ttarroa, kaskoin kofoin bat, nahiz (paper zaharrak lekuko) Eskualdun hainitz ere bazaukan.

Hiru minixtro protestant baziren hirixka hortan, zeren zen Lapurdiko muga-mudan eta bertzalde Bidaxuneko Agarramonten gerizapean.



Gainera, Beskoitzerik ez urrun, toki hauta zateken minixtro berriarentzat.

Bastidarrak jende maltsoak ziren. Izanik ere erlisionez bi artalde, elgar jasaiten zuten hisiarik gabe. Bainan ordu arte herriko eliza, katoliko xoilan eskuetan baitzen, Erreginaren manuz erabaki zen handik aintzina izanen zela bai katolikoen bai protestanten zerbitzuko, tenoreak aldizkatzuz.

Horti sortu da fama Leizarragak berak egiten zituela Bastidako elizan bi zerbitzu: batto katolikuentzat meza emanez, bertzea protestantentzat kultua segurtatuz. Bainan, Haristoy zenaren eleak eletei, ez da nehun deus holakoren frogarik.

Tardets izan baitzen bortz urtez Bastidako lehen minixtro, haren lekua eman zioten artzain berriari. Bizkitartean denbora batez ez zen Bastidan iragan ager-itzalka baizik.

Roxelan bazuen aski lan, hantxe bere eskuarazko liburuak inprimatzen baitzizkaten Hautin baitan, eta hango nehork eskuararik ezjakin.

Liburuak erran dut eta ez Liburuak. Ezen, Testamentu berriaz bertzalde ager-arazten baitzituen, datxizkola edo berex, bertze dotzena bat obra.

Horiek oro —mila plamaz goiti— agertu ziren urte berean, 1571ean.

Paueko Sinodak orduan erabaki zuen Leizarraga alde bat jarriko zela Bastidan.

Handik bi urteren buruan, urriaren 13an Sinodak itzuli ziozkan 50 eskudo, Hautin jaun inprimatzaleari aintzinatuak. Bertzalde 335 libera-iguzki xahutu zituzten Roxelan, orotaratu heldu baita: oraiko 10.000 libera berri, frantses dirutan.

1574ean Paueko Sinodak igortzen diozka hiru mutiko, Tartas, Landetcheverry eta Tardetsen semeak (minixtro gai gisa dudarik gabe), Bastidan harekin eskuararen ikasteko. Bagaude ez ote zen izan eskual ikastolan lehen-lehena!

Denbora berean Sinodak batzorde batzuen gain emaiten zuen Testamentu berriaren hedatzea: hedatzailek berrin lanaz kondu emaitetokan.

Ez da ondikotz nehun ageri nork zonbat saldu edo banakatu dituen, ez eta orotaratu zer keta izan den irarkolak aterarik.

Egia erran, bi jalgi-aldi edo edizioe izan direla uste dute liburuak batzuetan hitz zenbait ez baitira bertzetan bezalakoak. Bainan nola jakin zenbanakoak izan ziren jalgi-aldi hoik?

1575etik aintzina protestanten paperetan ez dugu Leizarragaz deus hain berezirik ikasten. Bastidan bizi zela, bai: artetan sinodetan agertu zela, ere bai; eta l'Antique eman ziotela izen-goitia.

De Thou famatuak Thumeri adixkidearekin egin zion bisita bat, gizon bikain bati bezala, eta ordainez minixtro zaharrak present eman zion bere Testamentu berria. Hori gertatu zen 1582an.

Leizarraga 1598an oraino mundu huntan zela frogatu ditake, bertze xehetasunik gabe. Bainan nun noiz nola hil zen, ezin erran, lekukotasun eskasez.

1602tik harat segur gira ez zela Leizarragarik; haatik ez dakigu nundik atera duten 1601ean zendu zela.

Dakiguna da, Bastidan erlisione berriak ez zuela biziki iraun: 1625ean ez zen minixtrorik ere gelditzen.

Zer nahi den, Leizarragaren eskuarazko obra hor dugu, arbasoen mintzaira zaharraren lekuko. Jakintzunentzat ez da abantaila tipia, René Lafon jaunak erranen dautzuen bezala.

Berant bada berant, egun bederen denek eskerrak diozkagu bihotzaren erdi-erditik. Nik segurik bai...



## AXULARREN LIBURUAZ

Jaunak eta andereak.

Haurrean bazkari egiterat berant heldu ginelarik, aitasok erraiten ohi zaukun «berant jinak mahain-petik xixtu». Hemen ere orobat ditake. Biz-pahiru gizonek gai bertsuaz mintzatu behar dutelarik, azkenari gertha dakioke, erraiteko deus berririk gabe gelditzea; eta beldurtzeko da, bertek jada aipatuak errepikatuz, azken horrek bere aditzaileak asper eta unha ditzan. Ene kasua da, bainan ez zaituztet luzaz enoatuko. Bertze aintzin-solasik gabe goazen laburzki Axularren liburuaz.

## IXTORIO

Liburu horrek fama txarrak ukan ditu. Kondatu dautet Urruñan gerthatu aspaldiko ixtorio bat: Olhetako gizon bat hilhurrana, elizakoak hartu beharra, eta arras eskuetarik joana, aphezari nehundik salatzerat ezin menturaturaz, bazuela gazte-gaztetik ohe lastairaren azpian gordea, sorginkeriazko liburu bat. Herioa hor heldu, arima hortzetan eta, azkenan deliberatu zen ikaragarriko bekatu horren aithortzerat, eta eskuetar eman zion jaun bikarioari, etxean erretzeko, pentsa zer? Axularren GEROKO GERO zahar bat, bipiek erdi-jana. Giza-gaizoa! Irakurto izan balu, ohartuko zen ez zaukala sorginkeria izpirik liburu horrek.

## BI AINTZIN-SOLASAK

Huna zer den liburuan. Sailari lotu gabe, Axularrek bi aintzinsolas emaiten ditu:

Lehenik «gomendiozko karta» bat Bertran d'Etchauz Turs-eko Jaun Artxapezpiku baigorriar zenari: adixkide eta ongi egile handiaren orhoitzapenak erreberitzen ditu, eta bere liburua haren geriza-pean igortzen du jendeen arerat, orotan onetsia eta onhartua izan dadin. Bide nabar Etchauztarren balentriak goresten ditu bereziki Higenauten kontrakoak eta azkenean, berak dion bezala «hemengo aldia egin hurran baitu», ez du lehia bat baizik: berak ere bere adixkide zenaren zorionaren ardiestea. Lerro-aldi guziz hunkigarria.

## XVII. MENDEA



Bigarren aintzin-solasa irakurtzaileari: nola hartu duen GEROaren moldatzeko xedea: bera baino egile hobetik aurki zitekeelarik, nehorik ez hasi nahi-eta, bera ahal bezala lotu dela sailari; lanaren hutsak ez direla eskuararen gain eman behar, eskuarak ez duelakotz hortan hobetik. Artek hehetasun zombait emaiten ditu izkiriatzeko moldeaz, bai eta jakinarazten, aphailatu dituen bi zathietarik ez duela lehena baizik ager-araziko, huni jendek zer begitarte eginen dioten ikus artean.

## OBRA BERA

Obrak alabainan bi parte ditu Axularren gogoan:

— lehenbizikoan emaiten du aditzera zenbat kalte egiten duen luzamendutan ibiltzeak egitekoen geroko uzteak.

— bigarreanean kidatzen du eta aitzinatzen, luzamenduak utzirik, berehala bere eginbideri lothu nahi zaikana.

Liburua irakurtuz aise ageri ditake nor-nahiri, kapitulu guziak ez direla behar luketen lekuan. Nola behar litazken ondozkatu eta elgarri jarrik-arazi, ez da argi-ere. Inchauspe zenak bere gisako segida batean ezarri zituen, baina bertze arrimurik asma ditake.

Gure iduriko, lehen parte batean Axularrek erakusten dauku zertako ez den luzamendutan ibili behar:

Lehenik, geroko uzten den konbertsionea mentura txarrean delakotz; alabainan geroa ez da gure eskuko, geroago eta nekezago da onerat itzultzea.

Bigarrenekorik, gure bekatuzko estatuak zeru-lurrak isten ditu. Hirugarrenekorik, bekatuan egoiteak dohakabe uzten gaitu: alabainan bihotza doluminez dauka bekatoreak; bekatuan higatu denbora galdua du; eternitatea galtzen du; ez du ezagutzen bertutearen gozorik.

Zathi hortarik jalgi ditaken xedea: kofesatu behar da eta ongian iraun.

Bigarren zathian xehe-xehea ikertzen ditu lau bekatu nausi: alferkeria, zin egiteko usaia, hasarrea, eta lohikeria. Bakotxaz erraiten du nolako ondorioak dituen eta nola ditaken garait.

Itxuren arabera. Axularrek bere lana bururatu balu, bertze jaidura gaixtoak ere jorratuko zituen —behinik behin, gezurra eta ohointza—, eta naski bertuteak ere goretziko.

## MAMIAZ EDO FUNTSAZ

Den bezala, GERO liburua ederra da, joria, aberatsa, jakitate handikoa: liburu sainduz bertzalde, lauetan hogoi eta zenbait jakintsun aipatzen ditu, girixtino ala pagano, heien latinezko ahapaldiak nasaiki lerrokatzin dauzkula. Mendea, egia erran, halakoa zen. Greziako eta Erromako zuhurtziari itsutuki emana, Ebanjeloaz ez aski orhoitzerainokoa. Behar baino Axularren liburuari itzal bat altxatu, haren denborako kotsu hori litake: girixtinoaren bizitzea ez du alde batetik baizik erakusten.

Bizia zer den galdeari ihardets dakioke bi gisaz segurrik. Bizia da hiltzerat geramatzaten indarri ihardoekitzea, edo Bizia da gure izaitean bethi bat iraun-arazten gaituen indar bat.

Bizia, hala da, gudu bat da, gaitz guzien kontrako gudu bat. Bizitzekotz, eritasunak oro behar ditugu garhaitu. Arimak ere, bizitzekotz, bere jaidura tzarrak behar ditu zapatu edo azpitik eduki. Lan hori Axularrek ederki erakusten dauku, Stoiko guziek bezala. Baina bizia ez da bakharrik eritasun edo kotsu-eskas bat. Bada zerbait handiago; eta gorputza ez baita garbituz eta purgatuz hazten, bai ordean janez eta edanez, orobat arimak bekatutik begiratzea ez du aski, Jainkoa baithan behar du bildu bere hazkurria othoitzaren eta sakramenduen bidez. Harritua nago zoin guti aipu duen Axularrek othoitza, zoin guti komunionea, kasik batere ez grazia eta Izpiritu-Sainduarekilako batasuna. Harek eta hura bezalakoeke uste bide zuten gizonak bere baitharik hel zitakeela bertuterat, eta bertute horren gainerat Jainkoak gero hupatuko zuela saindutasuna. Baina ez diogu Axular zaharrari laidorik eginen, orduko predikari gehienak hortan baitziren, eta oraino ere zombait ez baitira iduripen makhur hortarik kantitu. Beharrik Aita Iraizozek eman baitauku liburu bat ona: ARIMAREN ZUZENBIDEA, eta Domingo Irigoienek bertze bat oraino hobe: BIZI, irakaspen hoien zuzentzeko.

## MINTZAIREAZ

Zer nahi den, harrigarria eta miresgarria da nola Axularrek eskuarlat itzultzen dituen zaharren erranak, soineko berri bat bezala emaiten diotela eta kasik begitarte berri bat. Eta nola ez ditu heien ahapaldiak





berak ontzen ala atsotitez ala aspaldiko hizkuntzez, ala zirtoz, ala ditxo, ala iduripenez, ala bere baitarikako oharpenez?

Solasa bizi-bizia doako, alde guzietako hitzez betherik, birazka edo hirunazka uztartzen dituela. Bethi xuxen doako, bethi argi, bethi gozo, gogo bihotzak atzemaiten dituelarik eta beharriak ere xoratzen. Ez du irakurlea den gutiena unhatzen. Alabainan ez derama urhatsa bethi berdin: batean hurritzen zaio lasterra, bertzean lehiatzen: hemen hatsa luzatzen zaio, hantxet laburtzen eta trenkatzen. Ez dakit zertako oldartu zaizkon berrikitan erasiatzale batzu, baizik eta ez dituela hitzak aldi guzietz orde edo arrimu berean josten. Iduri-eta eskuarak behar duen bethi ozka bere-tan ibili, treina berdin-bidetan bezala, nehoiz nehorat zeiharkatu gabe. Jainkoaz othoi bego eskuara den bezain xotil, zume eta zalhoin.

Baditake han-hemenka zombait hitz erabili dituen eta zombait gertakari kondatu, oraiko predikariek arruntegiz edo arrotzegiz baztert lezaketanak: bainan, oro har. Axularrek hartze ditu eskualdun guzien eskerrak eta goresmenak, gain-gainetik ohoratu baitu Eskual-Herria eta geroko idazleri erakusi baitiote, eskuara asmu eta gogoeta gorenen argitzeko edo aphaintzeko aihar eta gei dela.

## ARNAUD D'OYHENARTEN HERIOTZAK 300 URTHE

ARNAUD d'Oyhenart handia Gipuzkoan edo Bizkaian sortu balitz, segur naiz aurthen besta eder andana bat eginen zituztela haren ohoretan. Baditu alabainan hirur ehun urthez xuxen hil dela Mauletar idazleri jakintsuna.

Ez da agian berantegi hartaz orhoitzeko: abendoan bederen ez othe lakioko apaila goretsegunto bat Maulen, hor sortu baitzen, edo Donap-haleun, hor bizi izan baitzen berrogoi urtez eta hor hil?

Anartean bi hitz zor diozkagu naski kazeta huntan ziberotar famatuari.

\* \* \*

Aita Oyhenart-tarra eta ama Etchart-tarra izanki familia onekoak ziren Amaud eta Jacques d'Oyhenart bi anaiak, hamazazpigarren mendean.

Jacques, zaharrena, Nafarroako kantzeler-kontseilaria zen, Donap-haleuko Jeanne de Vidart andrearekin ezkondua, beren haurretan bi aphez ukhen baitzituzten.

Amaud, Jacques baino ezagutuagoa, 1592an sortu zen: gain-gainetik eskolatu zuten burhasoek, eta Bordelen ederki ikasi zuen Dretxoa. Laster abokat pasatu zen.

1623an, Ziberuko jende-xehak beren «zindika» edo deputatutzat hautatu zuten, ez baitzen naski aitoren-semetarik. Aphezek eta aitoren semek beren zazpi ahalak egin zituzten hautu hori hauts-arazi nahiz, bainan Oyhenartek kargua atxiki.

\* \* \*

Zindika-kargu hortan ez zen lo egoitekoa.

Bere sort-herriaren eta herritarren intresez arras grinatua zen. Zer-gak eta legarrak nahi zituen ttipitu; haatik gaizkigilen amandak emendatu, alde batetik zuzentasun gehixago izan zadin, eta bertzetik nolazpeit behar baitziren halere herriko sos-kutzak bethe. Neholaz ez zuen onhartzen



jendeen ez herrien lurak aitoren semek, edo gobernadorek, edo erregeak bere zitzaten. Hortan Matalasen ideietakoa zen, eta ez Treville-enetakoa.

Bertzalde Biarnesek eta Baxenabartarrek aise bahitzen omen zituzten Xibero-mugetako arres eta kabaleak. Oyhenartek zonbat auzi ez du gidatu, Xiberotarren alde, arres eta kabale horiek turna zakizkioten!

Paueko Parlemantean buruzagiak kexu ziren abokat nahasi horren kopetaz, eta heien manuz Donaphaleutarrek arrestatu zuten eta preso eman, Ziberotarrak soberaxko gerizatzen eta berotzen ere zituelakoan. Halere laster libratu zuten, eskandala gogorra baitzen holako gizon baten bahitzea, eta bazterrak, jabaltzeko orde, sumindu baizik ez baitziren.

Hortik beretik ageri ahal da jende xeheak ez zuela hain hautu txarra egin!

\* \* \*

1627an Donaphaleurat ezkondu zen Jeanne d'Erdoay, aitoren alaba alargun batekin: hunek berrogoi bat urthe zituzken, baina fortuna ederra. Lur noble batzuen jabe egin baitzuen ezkontza horrek, Oyhenart sartu zen noblen erronkan, aitoren seme izan balitz bezala.

Nafarroako Parlemantean onhartu zuten abokat gisa, Pauen; eta geroxago Bordalekoan ere sartu zen, Gramont-tarren ontasunen begirale nausi zelarik.

\* \* \*

Oyhenartek, bere zindika eta abokat lanez bertzalde, denbora hainitz bazeraman ixtudiatzen eta izkiriartzen. Latinez, frantsesez, espainolez eta eskuaraz izkiria zezaken; italianoa eta greka aise irakurtzen zituen.

Latinez eta frantsesez hainitz lan, eta lan luzeak, utzi ditu izkiribuz. Damurik, barreatuak baitira! Pariseko «Bibliothèque Nationale» delakoan 29 liburu badira haren eskuzko paperetarik, Duchesne, Baluze, Fonds franjais, eta Clairambault bildumetan.

Aucheko Seminarioan ere haren paper moltxo bat bada. Gainerati-koak luzaz Donaphaleun egon dira Oyhenarten ondoko familia batzue-tan, baina Paul Labrousche zenak bildu zituen eta orai Paueko liburutegi haundian altxatuak dira.

\* \* \*

Berak ager-arazi zituen: latinez liburu bat Nafarroaren dretxoez, bai eta Eskual-herriko bi parteen ixtorio bat, *Notitia Utriusque Vasconiae*, eskuaraz erran-zahar bilduma bat, eta berak eginikako bertsu-andana bat.

Erran daukute «Gure Herria» errebitan laster agertuko dela haren *Art poétique basque*, Donaphaleuko Michel Barbaste jaun medikuak bere etxean aurkitua.

Aizinadun batzuek behar lituzkete ikertu oixtion aipatu paperak, ikusteko ez denetz agertzeko balios litaken bertze lanik.

\* \* \*

Horiek hola Arnaud d'Oyhenart Donaphaleun bizi izan zen bere emaztearekin. Hau hil izan zitzaion 1653an. Eman ziozkan hiru seme: Gabriel ukan zuen premu eta ondoko; Pierre apheztu zen eta Behauzeko erretor izan; Jacques jesuistetan sartu.

Bera 1667an hil zen, ez dakigu zoin egun ez zoin hilabetez. Baina iduri zaiku nolazpait markatu behar ginukela haren hiltzeko hiru-ehunga-rran urtheburua.



## BERRI ON BAT ESKUAL-LITERATURA MAITE DUTENENTZAT OIHENART HANDIAREN LETRA BALIOS BAT

Allande Oihenart (1592-1667) abokat jakintsun Mauletarra fama handiko gizona da bere dretxo eta ixtorio lanen gatik, baina halaber hitz-zahar biltzale eta eskuarazko bertsu edo neurthitz ontzale gisa.

Haren koblatzeko moldea ez zela bertze koblariena, aise ohart ditate edozoin irakurtzale, *Ot-en gaztaroa* deitu liburuari lotu orduko. Baina ez ditake errexi xila zoin diren jarraitzen zaioten lege bereziak.

1665ean aphez lapurtar batek izkiriatu zion jakin beharrez nola eginak ziren haren neurthitzak. Eta maiatzean egin zion ihardespina, 28 plama handi bethez.

Letra horren lehen idaz-aldea Donaphaleun zagon Oihenarten ondoreen eskuetan, eta Michel Barbaste jaun medikuari iduritu zaio ez zela letra hori ehortzirik utzi behar. Atsegin dugu, eskualzain batzuek ager-araziko baitute.

Oraitik erran dezakegu Oihenartek baztertu zituela koblakari frantsesen legeak, eta ibili zela italiano, espainol eta latinen ondotik: metaka emaiten ditu heien liburuetan kausitu kobla-mota guzien etsenplu desberdinenak.

Gero aipatzen ditu eskualdun poetak, eta hemen ere bada nun zer ikas.

Segur Mossen Bernard d'Etchepare Eiharalarrekoa irakurria du. Baina salatzen dauku bi ager-aldi ukan zituela Etcheparen liburuak: behin jalgi zela Bordelen, Francois Morpain baithan, Lehet abokat «saratarrari» eskaintza batekin, hori denek ginakiena, baina geroxago Rouen-en atera zutela Adrian Morront-en lantegian, huts hainitzekin: holakorik ez ginuen haatik nehun irakurtu, orainokoa.

Gero Oihenartek goesten du Aita Haramburu «cordelier»etakoa.

Ondoan salatzen du Donibane Garazin bazela hamaseigarren mende erditsutan (1565) Jean d'Etchegaray deitu koblari bat: «*Artzain gorria*» izendatu pastorala bat izkiriatu zuen, hiruzpalau aldiz hiri hortan eman zutena, eta bertzalde liburu baten bethe bertsu.

Berdin jakiten dugu bertsu ontzale arthosa zela Arnaud de Logras Utziateko «prior» eta Amikuze-Oztibarreko Bikario Jenerala.

Etcheberri Ziburukoaren bertsuak ez zituen biziki maite; baina emaiten dauku haren lanen berri. Eskutan erabili ginituen aphez horren *Manuala*, *Noelak*, *Elizara erabiltzekoa*, baina Oihenartek aipatzen dauku behin ere bazela entzun ez ginuena. *Egunoroscoa*. Eta goستن ditu haren eskutikako *guthun*, *hiztegi* eta «*conjugaison*» eskuararen erakaspide bat.

Hortik beretik ageri da zoin den premiatsua eskualzaleendako letra zahar horren agertzea.

Eskerrak bihotz-bihotzetik Barbaste jaun medikuari.



## BERNARD GAZTELUZAR OLERKARIA

(1619-1701)

XVII garren mendean, Ziburun Gazteluzar deitu asko familia bazen. Heietarik hiru apez segurik atera ziren, orduko auzi-paperetan aipatzen dituztenak.

Batto zen Bernard Gazteluzar, gaur poxi bat ezagutarazi nahi ginuden euskaldun poeta.

Damurik haren bizitzaz berri guti baitakigu. Lapurdi-Ziburun sortu zen 1619ko martxoaren 12an. Jesuistetan sartu 1640an.

Paben hil, 1701eko apirilaren 15ean.

1656an predikari eta arima zain kausitzen dugu Baionan: hiri hortarat Jesusen Lagundiko buruzagiek igorri zuten hirur lagunekin, hor behar zutela finkatu Jesuista-etxe berri bat, ikastegi batekin, eskualdean erroak egitekotan.

Bainan orduko burgeseria, Baionan, jansenisten aldekoa zen osoki, eta ez zuen jesuistarik nahi bere herrian.

Gazteluzarrek bere lagunekin bilatu zuen hiritik kanpo, bainan auzo-uzoan, uraz haraindiko egoitza eder bat, «Begoigne» erraiten ziotena.

Ez zuten luzaz gozatuko leku xarmant hori.

Hor ere Baionako burgesek hurbilegi zauzkaten jesuistak, eta jende xehea berotu zuten, «Begoigne»ko gain hartarat trumilka igan zedin, «fraisle madarikatu» horien aizatzeko.

Oste batek iragan zuen zubi handia, makila eta sardez harmaturik, eta jesuista dohakaberi jazarri, dena oihi eta harramantza. Lau lagunek behar ukan zituzten berehala lekuak hustu. Aita Gazteluzar orroitu zen kaperan zaukaten Sakramendu Sainduaz eta nahi ukan zuen errespetuz eliza baterat ekarri. Gizon batzu ordean lotu zitzaizkon bultzaka eta tiraka, ostia zonbait erortzerainokoan. Bessugue deitu apez baiones batek atera zuen herstura hortarik: hartu zion osti-untzia eskuetarik, eta katedralerat ereman, jendea debotki kantuz jarraikitzen zitzaiola.

Hori gertatu zen 1657ko maiatzaren lauean. Jesuistek, etsiturik, utzi zuten Baiona, bai eta hiri hortan kokatzeko xedea.

Aita Bernard Gazteluzarrez bildu ahal ukan dugun gertakari bakarra da, haren liburuaren agertzetik landa.

1686an Paben agertu ziren haren *Eguia Catholicac salvamendu eternalaren eguiteco necessario direnac*.

Liburu horren argitaratzea haizutu baino lehen, Baionako apezpiquak eta jesuisten Guyenne-ko buruzagiek bi euskalduni eman zeeten irakurtzerat: bata zen Baxenabarreko: Aita Basilio Orzaiztar kaputxina; bertzea jesuista: Aita Jakes Oihenart, hain xuxen Amaud d'Oihenart fama-tuaren semea, beraz Xuberotarra.

Debozinezko liburu hori ez zen batere bertzeak bezalakoa. Fun-tsean, huna nola Gazteluzarrek aintzin-solasen aipatzen duen bere lana:

*Denbora hautan, haiñtzek haiñtz liburu eder argira eman tuzte; ezta bada hau, bertzeak baño edertagoa; baiñan nola berze gauzetan bezala, debozioanean gustu diferentak baitire, iduritu zait haiñtz deboten artean, bazuek huntan gustu hartuko dutela, guztiz mariñel debotak; eta, hek printzipalki konsideraturik, deliberatu dut liburu hunen egitera: erranen baitute batzuek, «bizi zenean oroitu zen bere seiñalleak emanik joan baita», Ezen nola plazer hartzen baitute latiñez Elizako himnoen kantatzeaz (segur naiz) atsegin gehiago izanen dutela beren eskaraz errateaz, aire berean eskaraz eman dut; eta gañerako bertsuen airea komunzki guztiek badakite.*

Liburuak badauzka 503 orrialde: 98 orrialde prosa edo hitz-laxoz; 405 neurtitzez.

Nahiz bere Abisuan Gazteluzarrek ez dituen aipatzen zazpi parte baizik, zortzi baditu:

Lehena: Krixtauaren eginbideak.

Bigarrena: Jesu-Kristo.

Hirugarrena: Penitentzia eta Eukaristia.

Laugarrena: Andre Dena Maria.

Bortzgarrena: Gizonaren lau azkenak.

Seigarrena: Patroin sainduak.

Zazpigarrena: Bizibidez.

Zortzigarrena: Dotrinaren laburpen bat.

Gai horietaz ohartzearekin, artegatuak zarete beharbada, ea zerbait poesia sor ditakenetz eta lora hazi horietarik.

Boileau XVII garren mendeko kritikalarri frantsesak, nahiz girixtinoa zen, ez zuen uste erlisionea uztar zitakela literaturarekin. Erlisionea sako-negi eta seriosegi zitzaion: literatura aldiz axalegi eta arinegi!

Bizkitartean Dante Italian, Juan de la Cruz Espainian, Claudel Fran-tzian, bertzerik ez aipatzeko, lotsarik gabe ari izan dira sineste-gaiez beren olerkien hazten eta aberasten.



Ez dut neholaz erran nahi gure Gazteluzar «jaunen jaun» horien heinekoa dela, hurbiltzekorik ere. Bainan ez da gutiestekoa, ez balinbada ere orrialde guzietan berdin gora hegaldatzen, eta ez badu beti distira beraz argitzen. Horrek ere alabainan bere aldiak izanki.

Aitortuko dugu «didaktiko» gisan azaltzen ari zaikularik zer diren sakramenduak, edo meza nola entzun, ez gaituela hanbat kilikatzen, ez eta biziki inarosten. Bainan ez dago ildo horietan murgildurik, geroxago ikusiko dugun bezala. Halere orroit gaitezen norentzat ari zen bertsutan: ez baitezpada ikasi handientzat, bainan Lapurdiko itsas-arrantzaleentzat: heien menerat ez ote zuen jautsi behar, gero heiekin polliki-polliki zeru alde igaitekotan?

## ITZULPENAK

Oixtion irakurri dugun bere aintzin-solasean, poetak erraiten zaukun elizako himnoak euskaraz itzuli zituela, latinez zituzten aire eta neurri beretan. Egia erran, bederatzi kantika baizik ez ditu antolatu latinezko neurriari jarraikiz.

Hek dira:

- *Ave, maris stella.*
- *Dies irae, dies illa.*
- *Lauda, Sion, Salvatorem.*
- *O filii et filiae.*
- *Pange, lingua, gloriosi.*
- *Sacris solemniis.*
- *Veni, Creator Spiritus.*
- *Verbum supremum prodiens.*

Bertze bederatzi ez dira latinezkoen neurrian moldatuak; beraz ez ditazke kanta beren aire jatorrean, bertze batean baizik.

Hek dira:

- *Adoro te devote.*
- *Deus, tuorum militum.*
- *Fortem virili pectore.*
- *Jesu, corona celsior.*
- *Jesu, corona Virginum.*
- *Memento, salutis Auctor.*
- *O gloriosa Virginum.*

— *Salve, Regina.*

— *Sub tuum praesidium.*

Bortz kasutan Gazteluzarrek latinezko kobla bakotxa euskarazko kobla bakar batez itzuli du. Hori gertatu zaio *Dies irae*, *Lauda Sion*, *O filii*, *Stabat* eta *Verbum supremum* kantuetan. Bertzetan bi euskal-kobla ezarri ditu latinezko bakarraren orde.

Adibidez, huna *Ave, Maris stella*-ren lehen bertsurua:

Ave, maris stella,  
Dei Mater alma  
Atque semper Virgo,  
Felix coeli porta.

Hitez-hitz, itzul ginezake hunelaxe: *Agur, itsasoko izar, Jainkoaren Ama ona, beti Birjina eta zeruko ate dohatsua.*

Gazteluzarrek bi bertsutara hedatu du bertsu bakarra. Huna nola:

Agur, darotzugu,  
Jainkoaren ama,  
Itsasoko izar,  
Gure erresuma.

Errezibi zazu  
Zeruko gortean  
Guk egiten dugun  
Otoitza lurrean.

Ohartu zarete itzulpen hortan aipatu gabe utziak direla hiru ideia: on (*alma*), beti Birjina (*semper virgo*) eta zeruko ate dohatsua (*felix coeli porta*). Ordainez, poetak bere baitarik eratziki du «gure erresuma» bigarren koblako ideia guziekin.

Labur-luzaka horrelaxe jokatzuz, itzul-lana errexten bide da; bainan himno xaharrak alde batetik galtzen duena, ez da batere segur bertzetik beti ordaintzen zaiola, nahiz noizik behinka ongi eror dakioken.

Gure iritzi apalean, itzulpen-mitzulpen horiek ez dira bana-bertze Gazteluzarren poesiarik hoberena.

Haren jeinu berezia datza izaitzez, berak hautatu uste gabeko gai ohargarrietan hai eta bertsegintza oparoan.

Bi pondu horiek aipatuko ditugu hemendik harat.



Jakina, irakurriko dauzkitzuet han-hemenka Gazteluzarren neurtitz edo olerki-zati batzu, ene erranen argitzeko: otoi, ez harri entzunen duzuen hizkuntza herrikoiaz. Gure poeta ez zen batere garbizalea: euskarak latinetik hartu hitzek ez zuten den gutiena losatzen. Bere aroko ohi-durari bazerraion, gu gurekoari bezala.

## APARTEKO GAIAK

Jesu-Kristoz mintzo zaikun kapituluaren asiera edo hastapenak iduri du epopeia klasiko baten abiadura.

Orroit zarete Iliadan irakurturik:

*Ménin aiede, thea, Pélēiadeó Achilēos*

Jainkosa, kanta-zazu Achileus Pele-ren semearen haserre.

Odüzeian:

*Andra moi ennepe, Mousa, polytropon*

Musa, aipa zadazu gizon bihurria.

Eneidan:

*Musa, mihi causas memoria...*

Musa, emazkidatzu gogora gertakari hauien hastapenak.

Halaber Gazteluzar ere musaz orroitzen da olerkiari lotzerakoan. Bainan musa profanoa urruntzen du toka, zerukoari zuka dei egiten diolarik.

Huna pasarte famatu hori:

*Urrun adi, Parnaseko Musa zahar profanoa;*

*Eta zu, zato, zeruko Musa berri dibinoa.*

*Jesu-kristo gure Jauna ekar bezate bihotzek;*

*Iturriek Ur Saindua; Fruitu bizia haritzek.*

*Adio, Febus; hire etxe, hire itsaso guztia*

*Ez zarete aski, hiltzeko ene egarri handia.*

*Errazu, zeruko Musa, nola erdi den Birjina,*

*Nola duen Iainko haurrak izatu lehen eguna.*

*Errazu nola egün den gizon, zeruko Jainkoa*

*Eta nola Iainko egün, gizon gu bezalakoa.*

*Nola Dabiden kastatik gizon egün den munduan*

*Egundaiñotik Iongoiko izatu zena zeruan.*

Holako sarbide guti dateke debozinezko liburuetan.

Artetik erran dezadan, norbaitek aditzera eman du Gazteluzarren liburua mitologia paganoz emokatu zela. Uste ukaiteko da jaun horrek ez duela ordu hainitz higatu *Egia Catholicac* irakurtzen. Bertzenaz ohar-tuko zen Febus eta musa profanoa ez direla agertzen oixtiko pasartean baizik, eta badakizue nola diren bixtatik aurdikiak.

## APARTEKO GAIAK

Bainan, hastapen hortaz bertzalde, bada liburuan nun zertaz harri.

107garren plaman konparazione, Jesusen errenkurak establian aipatuak direlarik, sortu berriak, olerkari erromantiko bilakatu balitz bezala, oihu egiten deie Betlemeko harpeari eta arkaitzeri, heien ezitasuna gortsiz, gizonen bihotz idorrez denbora berean pleinituz.

112garrenean Ama Birjinak Jesus bere haurra agurtzen du; bainan bere egoera bereziaz durduzatu, dudamudetan dago, ea haizu zaionez zeruko Nausiaren bere bularrari kontra tinkatzea; ea sehaska batean ezarri behar duen ala aldare baten gainean; ea eskaini behar dion insensua ala ditia...

114garrenean, Gazteluzarrek nahi du adiarazi Andre dena Mariaren graziazko zoramena eta nola alegantzia hortan bazter guziak itxur-aldatuak agertzen zaizkon.

126garrenean, horra artzain-artzaintsak harpe saindurat etorriak. Artzaintsek nahi dute Bildots dibinoaren ganat hurbildu haren adoratzeko; bainan kilo gisa haren kurutzua gerrikoan sartzen dute haren ilea irun beharrez eta hartzen dituzte haren itzeak ardatzen orde, haren grazia liho berrizat baliaturen zaielako esperantzarekin...



159garrenean, entzuten dugu Madalenaren auhenaldia, Jesusen gorputz hilaren aintzinean flakatzerat doalarik.

185garrenean, bekatorea da mintzo, Jainkoaren hasarrez balditua.

269garrenean, Ama Birjina azken hatsetan, agoniako tortxoa eskuan, hamazazpigarren mendeko ohiduren arabera. 297garrenean, elgarraren ondoan aipatuak dira salbagarri gisa Jesusen odol preziatua eta Ama Birjinaren esne sakratua.

Gizonaren lau azkenen kapitulu luzean (pp. 316-410) bertze munduaz, zonbat bertsu lazgarri!

Aldiz 266garren plaman zer hitz ezriak Ama Birjina Jesus haurraren erakusten duen erretaula baten aintzinean.

317garrenean hiltzen ari den gizon batentzat otoitz durduzagarria.

295garrenean, auzi bat uste gabekoa: «ala den ederrago Jesus haur bezala bere amaren besoetan, ala gizon bezala Aita Eternalak landatu gurutzean».

105garrenean bekatoreari galdatzen zaio planta dadin Betlemeko harpearen eta Galbarioko gurutzearen artean.

370garrenean, aitoren seme batek amodioz emaiten du azken hatsa, Leku sainduen bisita egin ondoan.

431garrenean, nola ez mirets Frantses Xabieren azken orduak, Sanzian-en, Xinari buruz itzulia, sukar-ametsetarik ere arimen salbatzeaz orroitu!

Zazpigarren kapitulan badira gogoeta saindu andana bat asko jende-motaz: erretor, apez, ezkongai, kargudun, aitoren seme, ihiztari, soldado, mediku, erakasle, tratulant, itsasturi, aberats, erromes, laborari, artzain, langile, espos, burraso, gazte, xahar. Gazteluzarrek badaki nortaz zer erran, itzuli-mitzuli maneratsu zonbait gora-behera.

Huna zonbait olerki, irakurleak ikus ahal dezan nolakoa zen gure jesuistaren jeinua.

### AITOREN SEMEA

Zer progotxatuko zaizkigu ohore superbioak?  
Zer ponpak, faza, urre, plazer, eta zer palazioak?

Tresor horien klartasunek begiak tie argitzen  
Eta bihotzak xarmaturik bana-loriez iluntzen.

Zer progotxa ahal dakiket printze guztien gloria?  
Hirien, eta Probinzien diru-errenta handia?

Zer handiasun ahal duket irabazteaz Mundua?  
Eta jaun puxant izateaz, baldiñ ezpadut Zerua?

Zer popluen ikaratzeaz armaden arrabos-pean!  
Guztiei lege egiteaz lurrean eta urean?

Zer izanen dut, emateaz milla jende burdinetan!  
Baldiñ esklabo behar banaiz ifemuko zepoetan?

Handi guztien Erregea, munduko Buruzagia!  
Ah! inspira diezadazu humilitate handia!

Inspira on faltsoen herra, plazer hatsen desplazera.  
Egiatzko aberastasun eta plazereren desira!

### IHIZTARIA

O Salbatzaille dibinoa, indazu zure grazia;  
Ene sarea bete zazu, bete ene ihizia.

Ez utz munduko saretan sartzera ene bihotza  
Eta ez haren plazeretan galtzera ene gorputza.

Ez nazazula abandona mundu hunen oihanean,  
Hemen nabilla ihizian animalien ondoan.

Ez dut antsia zer atzeman, otsoa edo orkatza,  
Asko dut, zuk hartzen baduzu fiñean ene bihotza.

### DOKTORA

Ah! ez segur, eztiat maite doktrina urguillutsua;  
Fazatia duk; eta jende itsuen gida itsua!



Nik maite dudan doktrina duk itsuen argitzaillea,  
Faltsokeriak kasaturik, makurren xuxentzaillea.

Jesus adora, Jesus maita; maita gurutzeko pena;  
Ene gloria horra zer den eta zer ene doktrina.

Doktor egiñik, gurutzetik ziarokuk predikatzen;  
Lege saindu huntaz giatik galbarian eskolatzen.

### **MERKATARIA**

Munduan orai hari gaituk xuxentzen eman-hartuak;  
Huna kontuen egiteko plumak eta libruak.

Irakurtzen hari nauk beti, eta beti eskribatzen;  
helas! ordean har-emanik, nik ez, zerukotz kausitzen!

Hañitz aldiz egiña gatik hañitz biaia handizki,  
Eta egiña gatik hañitz sal-erosi dohatsuki.

Milla on doblatua gatik, izana gatik mundua,  
gauza guztiak galdu tiat, baldin ezpadut zerua.

Adoratzen zaitut humilki, Jesus merkatari ona,  
Arren beira diezadazu zuk erosi Ontasuna.

Zure odola izatu da hura erosi duena;  
Nori sal ote niozoke hainbertze gusta zaitzuna.

Helas, urrun diezadazu bekatuaren kutsua,  
Abarizia, inbidia, injustizia itsua!

Zer ere guri baitaroku presentatuko munduak,  
Galtzetik begira tugula zeruan tugun tronuak.

Perla hura guk erosteko ematzigun on guztiak  
Guztiak ere eztituk deus izana gatik handiak.

Ezen huna nola ditudan zeruko onak sinesten;  
Emana gatik nahi dena, merke direla erosten.

### **BIRJINA AMA MARIA BERE JESUS HAURRAREKIN ERRETAULA BATEAN PINTATUA**

Ikusten duken haurtxo hau duk gizona eta Jainkoa!  
Eta haurtxo hunen Ama hau Erregiña zerukoa:  
Posible da beraz munduan ikustea pinturarik  
Pintura handi hau den baño handiago daitekenik?

Erregiña Birjina hau duk munduaren ilargia,  
Eta Jainko gizon haur hau duk munduaren iguzkia:  
Posible da beraz munduan ikustea figurarik  
Figura argi hau den baño argiago daitekenik?

Birjina Ama Andre hau duk arrosa bezain ederra.  
Haurrak, lilia bezain xuri, iduritzen dik izarra:  
Munduan beraz posible da ediretea gauzarik  
Gauza dohatsu hau den baño dohatsuago daitenik?

Birjina Amak ziadukak besoetan bere haurra;  
Elurra zirudik Birjinak, Haurrak zidurik elurra!  
Posible da beraz munduan ikustea pinturarik  
Pintura xuri hau den baño xurago daitekenik?

Haur hunek tik ihortziriak erabiltzen hedoietan;  
Dostetan hau bera hari duk Ama baten bularretan:  
Munduan beraz posible da ikustea espanturik  
Espantu eder hau den baño ederrago daitekenik...

Ama humil bat duk Birjina, Jainkoaren gidaria  
Amari Jainkoak ekartzen zioz obediencia:  
Posible da beraz munduan ahal daiten pinturarik  
Pintura eme hau den baño emeago daitekenik?





Eznerik baizen eztuk Haurra, guztia ezti-eztia;  
Ama ere haurraren gisa ezti-eztia guztia.  
O Jainko ona! Posible da pentsatzea figurarik,  
figura ezti hau den baño eztiago daitekenik?

Haur hau ber bera izatu duk guztien Salbatzailea;  
Birjina haurtxo hunen ama gure ungi-egillea:  
Jendeak, posible da beraz ediretea molderik,  
Molde glorios hau den baño gloriosago daitenik?

### **SAINT BERNARD ABADEA**

Saindu debota; eta saindu, Jainkoa maite duzuna,  
Bernard, Lurreko aingerua, edo Lurreko gizona.

Zuri zarozkitzun Jesusen Ama Birjina handiak  
Hustu bere bularretako iturri ezne eztiak.

Erregiña hark berak zuri egin zarotzun grazia,  
Idozkitzera emateko ahoa betez, egia.

O saildua; ala zuk izan indar handia zeruan!  
Etziñen bada tipiago hil baño lehen munduan!

Zuri zarozkitzun prestatu Jainkoak indar handiak;  
Garaitzeko agertzen ziren ifernuko heresiak.

Oraño zuri zarozkitzun isuri bere argiak,  
Guri ezagut-arazteko munduaren tronperiak.

Mundu gaixtoak armatzen tu bere dituen puxantzak;  
Gure arimak xarmatzeko, eta galtzeko gorputzak.

Bañan guztiarekiñ ere nausi zaitu ezagutzen;  
Eta hala guztietan du nahia konplitzen.

Zuri dagotzu bozkarioz prelat guztien balderna;  
Zuri Erroma, munduan den hirink printzipalena.

Munduak ere deitzen zaitu egiaren sustengua;  
Eta zientzia handien urrezko iturburua.

O Saint Bernard bitoriosa, arren, nazazu fabora;  
Zure erramu triumfantez, otoi, nazazu ohora!

Horra nola etsaiak diren ene kontra preparatzen  
Eta nola darozkidaten flexak usu aurtikitzen.

Zurekin esparantza dut hemen triunfa handia,  
Gero zeruan izatekotz Jainkoa ganik gloria.

Bitartean zuri darotzut ofritzen ene bihotza!  
Ene bihotz guztiarekiñ halaber ene gorputza.

Trofea bat nahi darotzut egiñ zure izenean;  
Zuk bezala izena duen presunaren bihotzean.

### **SAINT FRANZES XABIER INDIETAKO APOSTOLUA SANZANGO IRLAN...**

Sanzian deitzen den irla da eremu urrun batean.  
Leku arroka billuziez eta hareaz betean.

Kantongo hiri famatua dakusa alde batetik;  
Halaber itsaso zabala dakusa bertze aldetik.

Saint Xabier apostolua harat etorri zenean,  
Huna zer erran zuen hiltzerako orenean.

«Fiñean bizi izatu naiz! Ahalkearen handia!  
Deusik egiñ gabe joan baitzait ene bizitze guztia!

Bagadek oraino burua ebaki balerotate!  
Edo Fiirandeko jendek sutan erre banindute!

Idukak, iduk, Herioa, hire ezpata zorrotza;  
Egozten dik Xinak lurrera bere murailla bortitza!



Bañan non naiz? edo zer diot? zer kutaless biluzia!  
Zer diot gate, presondegi? Zer burreu? Zer su bizia?

Hunelako heriotzea eztuk jende guztientzat.  
Bainan geraut, fama handi eta martir noblentzat.

Laxo bati ezpaitarozkit ofrituko herioak  
Sainduak merezi dituzten zepetroak eta koroak.

Bañan kutalessak ezpadu ene odola isurtzen:  
Eta ezpadu su handiak ene gorputza erretzen,

Ezperen Barbaroen irlek hilik naute ikusiko,  
Paubreziak eta elurak martir naute kausituko.

Jainkoa banu predikatzen presondegian sarturik,  
Libra nezake zenbait gizon deabruen gatetarik.

.....  
Jaiki behar dut; kitatu nau jadanik ene sukarrak.  
Huna Xina: «idekitzen tu bere Portale ederrak».

Bañan ago, Franzes Xabier: lurrik asko duk kurrutu;  
Geldi adi, gagero geldi: urik asko duk pasatu.

Hire begira ziaudezek sainduak hiri sainduan;  
Hire begira Jainko Jauna aingeruekin zeruan.

Jadanik higuindu zitzaion bere xarmekin mundua;  
Jainkoa ardiatsi nahiz desira zuen zerua.

— «Ikus-azu ene eskuiña, o ene kreatzaillea!  
Zure gurutze saindua dut guztien salbatzaillea!

Faltak garbi diezadatzu zure odol zurrutetan.  
Dolu dut: Jesus, har nazazu zure izar ederretan».

.....  
Horra nola ilki zitzaion gorputz eritik arima;  
Eta nola ediren zuen Jainkoaren erresuma.

## XVII. MENDEKO IOANNES HARANEDER FRAIDEA

Beti bada zer ikas euskal literaturan. Aldi huntan nahi dautzuet  
laburki salatu badirela bi Haraneder, eta ez bat bakarrik orai arte uste  
ginuen bezala.

Goazen ikus laburzki nola ikasi dugun berri hori.

Euskal eliza-liburu maizenik agertu dena da *Exercicio izpirituala*. Vin-  
sonek bere Bibliografian laurogoi edizione aipatzen dizkigu: zaharrena  
1716koa, berriena 1888koa. Egia erran, Vinsonen lanaz geroztik bertze  
edizione zenbait agertu dira, hala nola 1910ekoa, 1919koa, 1922koa, eta  
1937koa. Orotarat 85 edizione bederen.

Bainan badira XVIIgarren mendekoak ere, Vinsonek bere bidean  
aurkitu ez zituenak.

Berriki bizi naizen Seminarioko euskal liburutegian eskuetarat lerra-  
tu zait liburu zahar itsusi funditu bat: titulurik ez, asko orri eskas.

Barnea doi-doi miatu orduko ohartu naiz *Exercicio izpirituala* zela.

To! huna besta aldakorren zerrenda! 1690etik hasten da, eta 1717an  
bururatzen. Beraz Vinsonek aipatu edizione zaharrena baino zaharragoa  
dut hau.

Ba bainan noizkoa?

Hain xuxen, gelditzen den lehen orri-aldean, bada gutun bat, liburu-  
eskaintza bat, zorigaitzez ez osoa, eta bertzalde ez ulert-errexeta, bazterre-  
tako hitz edo letra batzu falta izanez.

Beharrik garbiki emana baita lehen agurra. Hauxe irakur ditake:

TARBEKO ENE  
Jaun Ipizpicuari  
Erregueren estatu privatu  
Conseilluan Conseillari,  
eta Artusko abadeari  
JOANNES HARANEDER  
Fraideac baquea eta  
Ossasuna



Pentsatzen duzuen bezala, artxibo eta liburu askotara jo dut argiketara: laguntzale jarri zaizkit Mangin, Goyheneche eta Romatet jaun ixtoriozaleak.

Eta huna zertaratu gaituzten gure ikerpenek.

Arthous-eko abadetan ez dira izan Tarbeko bi apezpiku baizik, biak izen-deitura berekilakoak, biak euskaldunak: Salvat Diharce, osaba-ilobak.

Zaharrena, Axular apeztu zuena, 1601ean hil zen. Gazteena 1648an.

Joannes Haraneder fraideak lehenago behar izan du egin bere gutuna.

XVIIIgarren mendean orok badakigu izan dela Donibaneko apezbat Joannes de Haraneder deitua. Nebun ez du bere burua fraidetzat eman. 1740an bururatu zuen *Testament berrearen* bere itzulpena, eta 1749an *Philotea* ager-arazi.

Oixtiko fraide hura izan balitz, ehun urteak ausarki gaindituak zituzken. Ezen fraide horrek, berak dion bezala, bere liburuaren «birberritze-ko» mementoan, frango xahartua iduri du. Dio dela «flako eta nigarti, ecin balia oinez, escuez eta berze partez, norbaitec helduric baizen», ez duela-rik «borondate bezanbat botere».

Zer bilakatuko zen handik ehun urteren buruan?

Bixtan da beraz bi Haraneder konda ditzakegula gure literaturan.

Baina zer pentsa oixtion aipatu dugun bestea aldakorren xerrendaz (1690-1717)?

Eskuetan dugun edizioena XVII garren mendeko azken urtetan jalgi dela, lehenagoko aintzin-solasarekin, argitaratzaleak besta aldakorren saila bere denborakotuz. Gure ustez, liburu horren hirugarren edo berdin laugarren ager-aldikoa dugu hainbertze lan eman daukun *Exercicio Izpiritual* zaharra.

Ez dakigu halere ez noizkoak ziren edizioe horiek, ez eta zoin ordenakoa Haraneder fraidea.

Gauden beha, ea nonbaitik argi zerbait aterako den.

## XVIII. MENDEA



## PIERRE-GUILLAUME DE LA VIEUXVILLE

(1682-1734)

P.-G. de La Vieuxville aitonen semetarik zen. Arbasoetan izan zituen Markes, Duke eta Pareak Frantziako erregeen aholkatzale eta zerbitzari. Bera ez zen batere ohoregose. Elizari osoki emana zen, Aita Sainduaren osoki meneko.

Fleury Kardinale minixtroak Baionako apezpikutzat hautatu zuela, La Vieuxville jauna Nantes-ko kalonjeen buru zagon, 1728eko Martxoan. Parisen sagaratu zuten ondoko Aboztuaren hogoian. Ez zen Baionarat etorri 1729eko Ekainean baizik.

Anartean bilatu zituen tokatzen zituzkon diosesako berriak. Ez ziren hoberenetarik.

Druilhet apezpiku zenak hogoi urte iragan zituen Baionako elizaren buru. Gizon bihotz onekoa zen, otoitzekoa, fede sainduz betea, baina jansenisten izurriak kotsatua zuen eta ez zuen gemenik aski, ez bere buruaren xuxentzeko, ez bere meneko apezzen bide onean gidatzeko. Gisa hortan baziren bai hirian bai eskualdean bereziki kalonje, fraile eta erretor zaharretan apez moltzo bat Alesandro zazpigarrenaren sineste-araua ez onhartu nahiz, Eliz-Biltzar nagusi bati hel egiten ziotenak eta Unigenitus buldari beren izena eman nahi ez zutenak.

Baionara gabe, apezpiku berriak, arartekoz, entseatu nahi ukan zuen bere apez guzien bide onerat biltzerat. Gehienak jarraiki zitzaizkon, bereziki apez xehe eta errentadun xumeak. Kalonje eta kargudunetan hainitzek eza erran gabe gerorat luzatu zuen beren ihardespina.

Apezpikua diosesan sartu bezain sarri, ibili zan herriz-herriz apeztegi apeztegi, berak bere begiz gauzen eta jendeen berri biltzeko. Ohartu zen apez askoren ez jakinaz eta Katixima eskasaz. Gai ez zireneri debekatu zeien kofesatzea, predikatzea eta haurren eskolatzea.

Buru gogor batzu gutun zigilatuz (lettres de cachet) urrun-arazi zituen Euskal-herritik. Orduetik gogoan hartu zuen bi Katixima berri ager-araziko zituela, bata girixtino argituentzat, bertze arruntentzat, bai frantsesez, bai euskaraz.

1733an argitarat eman zen euskaraz *Baionako Diocesa Bigarren Catechima* = 467 orrialde; 1) Apezpikuaren manamendua; 2) Erakasleeri zenbait ohar; 4) 28 kapitulu; 5) letaniak; 6) meza laguntzeko modua.

Nork itzuli ote du Katixima hori frantsesetik euskarala?

Bere Bibliografian Jon Bilbaok aipatzen du Gratien de Haroztegy (Vol. IV, 213). Ez du haatik erraiten nundik jakin duen berri hori.

Dubarat eta Daranatzen *Recherches sur la Ville et sur l'Eglise de Bayonne*, tome II, Bayonne-Pau 1924, izen hori aurkitzen da lau aldiz (590, 591, 617 eta 618 orrialdetan, Sarako apezek Axularren egunetarik haste, Baionako kalonjekin ukan zituzten diru-auzien karietara.

Hor agertzen zaiku Gratien de Haroztegy Sarako erretor bat, «docteur en théologie» tituluarekin: La Vieuxville eta biak baketiartzat emanak zaizku eta ez batere soskaritzat. Onez onean nahi dituzte gauzak antolatu. Baina ez du liburu hortan katiximarik aipu.

Aldiz, Pierre Haristoyen *Les Paroisses du Pays Basque pendant la période révolutionnaire* (tome I, p. 239) gehixago argitzen gaituzte. Sarako erretoren zerrenda, hauxe irakur daiteke, frantsesez:

«1729-1752, Gratien de Harosteguy, né vers 1695, gradué, nommé curé de Sare en Mars 1729, très estimé de son Evêque. On croit qu'il est le traducteur du Grand Catéchisme de La Vieuxville, rendu en très beau basque de Sare».

Haristoyek ez du erraiten hola dela, baina hala uste dutela baizik. Ez du lekukorik aipatzen.

Jakingarri liteke ea Ion Bilbaok bertze iturbururik aurkitu duen.

Ez dugu zilatu ahal izan ea Gratien de Haroztegui hori Jean Haroztegui Axularren anaiaren ahaidegotik zenetz, ez eta sortzez Saratarrak zirenetz.

Badela oraino ikasteko hainiz.

\* \* \*

Zer nahi den, César Duvoisin apezak dion bezala (*Vie de M. Dague*, 1861, p. 108): «ce double catéchisme manquait dans le pays, et il a rendu un fort grand service pendant près d'un siècle entier». Hots, Lapurdi bi katixima horien beharretan zen eta laguntza handia egin dute kasik mende oso batez.

1814ean edo 1815ean, Akizeko Katixima sartu zen euskaraz Baionako diosesa berrian.

Eta Mgr. d'Astrosena, 1823an.



## SARAKO JOANES ETXEBERRI MEDIKUA

(1668-1749)

### NOR ZEN

Sarak fama handia izan du aspaldi danik eskuara maite dutenen artean. Askok eskuararen herri-nagusi egin dute, horko mintzairean egin izan baitira hamazazpigarren mendetik hunat hainitz liburu eta hainitz bertsu. Axular, Materre, Harizmendi, Haranburu, Diharassary, Janbattit Elizanburu, Agostin Etcheberri, Dithurbide medikua, horra izen batzu, Sara gain-gainetik ohoratzen dutenak.

Egun, nahi ginuke goreski hemezortzigarren mendean Sarak eman duen bertze eskualzale bat: JOANES ETCHEBERRI medikua.

Gizon bat zen, 1668an sortua, ez dakigu haatik zoin etxetan, orduan bortz etxek segurik Etxeberria baitzuten izena Saran, eta heien berexteko argitasunik ez baitugu.

Eskolak, iduri duenez, Paueko jesuitetan hartu zituzken, eta medikutzeko erakaspenak Frantziako Tolosan beharbada, nun ez den Montpellier-en.

Medikutu-eta ezkondu Issasgarateko Mariarekin eta haur andana bat izan zituzten, zortzi segurik bai.

Saran bizi zen, baina Saratik kanpo ere bazuen lan, bereziki mugaz haindiko Beran. Beratarrekin bazuen tratu bat sinatua, euri edo atheri, edozoin erik deituz geroz, Berarat joanen zela lehenbai-lehen, egunaz bezala gauaz ere.

1716an egoitza Beran finkatu zuen, hor gaindi baitzuen eriketarik gehiena.

Bainan, haren omena biziki urrun hedaturik, handik sei urtheren buruan Ondarribian kausitzen dugu, eta geroxago Azkoitia. Hor ereman zuen bere gaineratiko denbora, hogoitalau urthe, eta hil zen 1749an, nahiz ez dakigun ez nun, ez-eta zoin egunez, 81 urthetan.

Motrikon bazuen seme bat mediku, Agostin deitzen zena, hameika haur segurik hazi zituen.

## ZER EGIN DUEN

Baina Joanes Etcheberri aipatzen baitugu, ez dugu baitezpada gores-ten haren medikuntzaren gatik, bainan bere eskuarazko obren gatik.

Gogoratu zitaion behar zituela bere eskualdun herritarrak lagundu eskolatzen, eta bereziki auzoko mintzairen ikasten: frantsesa eta espaino- la zituen oroz gainetik erakatsi nahi. Bainan aise ohartu zen bi mintzaire horiek hobeki konprenitzen direla latinaren medioz, latinean baituzte beren erroak, bai batek, bai bertzeak.

Eta horra zertako hiru liburu preparatu zituen:

Lehena: *Eskuararen hatsapen edo hatsapenak*;

Bigarrena: *Eskuarazko hatsapenak latin ikasteka*;

Hirugarrena; hiztegi bat: hiztegi hortan eskurarazko hitza eman zen lehenik, gero haren itzulpena latinez, frantsesez eta españolez.

Eskualdunerri eskaini ziozkaten hiru obra horiek «Gomendiozko karta» batean. Karta edo guthun hori liburuxka bat zen, eta Lapurtarri erraiten ziozkaten bere xedeak. Pentsu zuen alde guzietarik herritarrak ariko zaizkola liburu galdeka, jakitatez gose-hamikatuturik.

Orduko Lapurtarrak ez ziren, ez, harek uste zituen bezalako jakin- tsun-nahiak, hurbiltzekorik ere!

Frogarik hoberena, orai kondatuko dautzuedan gertakaria.

## BILTZARRAREN EZA

Ordukotz Joanes Etcheberri medikua mugaz haindian bizi zen. Beran; bainan halere hemengotarra zen, Saran etxalde bat bazuenaz geroz.

Lapurdiko aferak Uztaritzeko biltzarrak gobematzen eta kudeatzen zituen. Eta biltzar hortan elgarretaratzen ziren herri guzietako buruzagi lehenak, hots, auzapezak edo heien ordainak.

Joanes Etcheberri bere seme Agostin igorri zuen Biltzarrari buruz bere hiru liburu-gaiekin, heien ager-arazteko, laguntza zerbaiten galdez.

Dolhabide jaun zindikak eman ziozkaten paper horiek oro irakur- tzerat Uztaritzeko erretorari eta Pierre Distiart Heraitzako apezari. Biek erran zuten lan baliosa zela, eta imprimatzea merezi zuela.



Imprimatzaleari galdetu zioten zonbat zen gostako ageraztea, eta ihardetsi zuen iru mila libera. Orduan medikuak jakin-arazi zuen, hiru mila libera aintzintzen bazaizkon, ederki atherako zela.

Hiru mila liberak ez zituen emaitza gisa galdatzen, baina mailegu edo prestamu gisa, geroxago itzultzekotan.

1727ko hazilaren 28an Biltzarreko lagun guzietan ihardetsi zuten ezetz, ez zutela neholaz liburuaren ager-arazteko laguntzarik egin nahi.

Nago zer gerta litaken egungo egunean, Lapurdiko auzapez guzietan biltzar batean, gisa bereko galde bat egin baladi eskuarazko liburu baten alde!

Balio luke entseaztea, ikusteko ea lekuan lekuko jakitatearen onetan ager litakenetz orduan baino kar gehixago!

## GALDU ETA ATXEMAN

Zer nahi den, Joanes Etcheberri medikuaren liburuak, laguntza eskasez, ez ziren argitaratu.

Galdu ere ziren osoki ez nehork ez zakien zer bilakatu ziren. Daranatz jaun apezak ez bertze zonbaitek mende hunen hastapenean iker-aldi asko egin zituzten paper horien ondotik, Lapurdin gaindi, baina alferretan.

Julio de Urquijo eskualzale suharrak suerte hobea izan zuen 1901 eko egun batez Zarauzeko komentuan paper zombaiten ikusten zabilalarik, Aita Frantsiskanoek erakutsi ziozkaten eskuz izki riatu liburu-gai bateu, eta nor harritu, hura harritu. Berehala ezagutu zuen Joanes Etcheberriren lana zela. Haren loria!

Frailek gogotik maileguz eman zioten paperketa hori. Oixtion aipatu hiru liburuetatik bat haatik eskas zen: hiztegia.

Bertze biak hor ziren, zombait plama salbu, eta Julio Urquijok bortzpa-sei urthez zer nahi iker-aldi eginik, 380 plama in-quarto dauzkan liburu handi batean ager-arazi ditu Etcheberri medikuaren eskuarazko gomendiozko karta, atxeman bi lanak, eta zer nahi xehetasun bai haren biziaz, hai haren obraz. Lan gaitza eta baliosa!

## ERAKASPEN ZONBAIT ESKUARAREN DOHAINEZ

Zer da bada Etcheberri medikuaren irakaspena eskuaraz den bezenbatean?

Haren arabera Tubalen arrazakoek atxiki zuten eta hunarat ekarri eskuara. Beraz mintzaira ZAHARRA da eta hortako bereko errespetagarria, aspaldiko hainitz orhoitzapen begiratzen baititu bere hitzetan.

Hasteko, eskuararen izena bera nundik heldu da? Eskutik Eskuara, zer da eskuaren abilezia baizik? Lehen denboretan jestuz mintzo ziren gure arbasoak, eta gero ohartu, mihia oraino eskua baino zaluago zela. Baina eskuaren izena atxiki eskua delakotz gizonarentzat tresnarik aberatsena eta oro konda beharrena.

Bai eskuara zaharra da, baina denbora berean ZUHURRA, dena neurri eta izari, eta hemen Etcheberrikeri merezi du hitzez hitz aipa ditzagun haren oharpenak.

*Joseph Escaligerok dio: «Españolek izkuntza hau darabilaten lekuetan ditzuten dute vasuena (erran nahi baitu eskuara): ez du barbarotasunik, ez hortz-karraskarik, ez eta zinturrezkorik. Da hagitzen emea eta ezta, eta dudarik gabe hagitzen zaharra, eta Erromarrak etor zitezken baino lehen leku hetan usaian zebilana».*

Halatan beraz eskuarazko mintzairak ez du behar izan luze, zeren hitz luzeak fastikatzen eta penatzen baitu entzuten dagoena...

*Laburregi mintzatzeaz ere huts egiten da, zeren halako mintzaira baita eska eta eskergabea...*

*Mehegi mintzatzea ere ez da eskuararena: zeren hala mintzo direnak baitira mihien puntaz, eta ezpainak bilduz, ustez-eta, frantseseko mintzairan bezala eginez, ederkiago mintzo direla eskuaraz; baina huntan enganatzen dira, zeren eskuarak galdegiten baitu naturalki eta libreki mintzatzea, ezen eskuara eta eskualdunak bethi izan dira libertatearen maitatzaileak eta bilatzaileak. Eta hala hunelako erran diteke Eskritura Sainduak dioena: «sobera edoskitzen duenak, esnea edoski behar-bidean odola edoskitzen eta iresten duela». Dio oraino bertzalde: «Etzaren hain hertsia!», handik ez dakizula gerta Jeronimo Sainduak aingraz erraiten duena: «Zenbatenez ere aingira eskuetan gehiago herstuko eta juntatuko baituzu, hanbatenez lasterrago joanen eta eskapatuko zaitzu, eta handik zure arraintza galdutuko duzu».*

*Mintzaira lodiegia ere ez da ongi heldu eskuararekin, hala nola j eta x lodiki erraitea Arabiarrek bezala.*

*Mintza naturalki eta lañoki, batere apaindurarik eta bernizadurarik gabe.*

Beraz Etcheberri medikuak zehurtzia berezi bat atxemaiten dio eskuarari.

Dio bertzalde bat dela, nahiz herritik herrirat badiren diferentzia ttipi batzu, eta dauka mintzaira bat biziki garbia dela: aitor du segurki eskuaraz ere derabilzkgigula hitz berri batzu espainolak eta frantsesak bezala, baina



hitzen josteko manera hain da bertzelakoa, nun hortik beretik ezagun baita baduela etorki bat auzoek ez dutena.

## AXULAR ETA SARA

Bainan badea nehor bertzek baino hobeki erakats diezakeguna, nola den xuxenik eta ederkienik erabiltzen ahal eskuara?

Gure Saratar medikuak uste du baietz, eta huna haren ihardespena:

*Nor erranen dut dela, nik orai bilatzen dudan Aitzindaria eta Buruzagia, baizik Pedro Axular gure Erretor famatua, eta ospe handitako hura? Egiazki Eskual-herrian hau da bakarra, hanbat autoren liburuetan zauntzan gauzak arantze-petik atherarik bezala, eta teologiaren mami hautua bildurik, eskuaraz ederkienik argitara eman darokuna. Halatan beraz baderraket eskuarazko Autoretarik, hau dela Aintzindaria, Buruzagia eta lehena.*

Axularrez hamalau plama baditu bero-beroak eta ezin hobeki itzulitatuak.

Gero zazpi plama bethetzen ditu Sarako eskuararen laudorioez. Ez omen du urguluak akulatzen, bainan eginbide xoilak:

*Ene eginbidea da. Sara ene sort-lekuaz eta Laburdi ene herriaz mintzatzea.*

Bitxi bazaiku bitxi, Etcheberri medikuak biziki urrun bilatzen du Sara izenaren iturburu loriosa. Dio Abrahamen emazte eder hura eta Tobiasen esposa deitzen zirela Sara, erran nahi baitu «Andrea» edo «Prinzesa».

Eta huna segida:

*Bi arzoinez daritzat herri huni hain izen hautua eman ahal izatu ziotela. Behinik behin bere paraia eta toki arraia eta arinaren kariaz. Eta bigarrenekorik bere eskuara garbiaren edertasuna dela kausa, zeina hain handirozki baita laudatu ez xoilki Laburdin, bainan bai oraino Espainiako eta Frantziako bertze Eskual-herrietan ere.*

Eta arrazoinekin aipatzen ditu Saratik athera diren izkiribatzaile famatuak.

## LABURDIREN IZENAZ

Gero Laburdiren izenaz oldartzen zaio Oihenart Xuberotarrari. Hunek errana zuen Lapurdi zela Uztaritze eskualdearen izena, eta izen

horrek erran nahi zuela *lapur-toki*, hots, *ohoinzilo*, lehenago zer nahi arrotzaile kausitzen omen baitziren itsas-bazter hautan!

Medikuari biziki gaitzitzen zitzaion erran horiek, eta berak zaukan lapurrek ez zutela deus ikustekorik egiteko hortan. Haren arabera, *Laur-ur*, hots lau ibaiek eman zioten Laburdiri bere izena:

*Eta arrozoin hunen zimendua eta funtsa da, zeren baitago lau uren artean finkatua eta hedatua: jakiteko, Bidasoaren, Charakariaren, Errobiren eta Atturriren artean. Badakigu Bidasoa heldu dela Baztango ingurumetan Espainiako aldetik, eta bereziki Erratzuko eremuetan sartzen diren ithurrietarik, zeina, iragaiten delarik Biriaturtik Hendaiera, itsasoan sartzen baita. Bigarrena da Charakaria. Hau Sarako eta Urdazubiko eremuetan sortzen da, handik iragaiten da Senperera, gero Azkaina, eta azkenean Doni Joan Ziburuetara, eta han itsasoarekin bat egiten da. Hirugarrena deitzen zen da Errobi edo Nibi, zeina jausten baita Izturiztik Itsasura, handik Kanbora eta Uztaritze, eta azkenean Baionara. Laugarrena deitzen da Atturri zeina heldu baita Bidachuingoa aldetik. Beraz lau unen artean dagoenaz geroztikan, kanore du Lehenbiziko hatsapenean Lena eman ziotela Lau-ur-di.*

Gisa hortan Lapurtarren ohorea salbatu-eta, Etcheberri mirikuak erakusten du eskuararen arbutzaileak, berak direla arbutziagarriak. Era-kusten du eskuara ongi ikasiz geroz ideia guziak aise adi-araz ditazkela gure mintzaire xaharrean.

*Ez da eskuara hitzetan erran nola eremuz baita eskas eta labur. Eta hala ez dute ez eskuara hobenduri eta faltaduri egin, bainan bai bere buruak, zeren diren lazoak eta artha apurretakoak, sortzeak emanikako hizkuntzaren ikhasteko.*

## DEI BAT

Eta azkenean dei bat egiten dio Eskual-herriko gazteriarri frango luzea. Huna hastapena:

*Gogoetan nengolarikan egun batez, zer perpaus hautatuko nuen gure gazteriarri aipatzeko, gogora zitzaitan, hei gehienik agrada ahal dakioketen gauza dela gerla; zeren jende gazteak, eta bereziki eskualdunak, bere baitarik emanak baitira gudura eta gatazkara. Eta nola gazte eman behar baitzaie hekien dispozizioari dagokan enplegua, hartatik bada nik-ere hautatu dut hei hemen aipatzeko... gerla!*

*Ordea behar bada boztuko dira, ustez ezen gonbidatzen tudala Marteren suzko eta karrezko joko eta habarrots izigrietara. Ez! zeren nihork gonbidatu gabe berak baitira hartara asko emanak. Bainan deitzen tut Minerbaren dosteta ezi*



*eta kanta-alosien bidez enoriantziaren kontra egiten den gerla ohorezkora, eta bat-bederak batere arriskurik gabe hainitz abantail eder ardiets detzakenera.*

*Hau da gerla eder eta miragarri hutsa, zeinetan jakintsunak nahi baitu gizona altchatu eta abantailatu...*

Hots. Sarako medikuak eskualdun gazteak akulatzen ditu mintzaire arrotzen ikasterat, baina eskuara atxikiz jakitatearen zimendu bezala. Denbora berean sustatzen ditu ongirat eta ez diote gordetzen zerutikako grazia gabe ez doazkela urrun xede hoberenekin ere.

Bainan, gazte ala adineko, deneri emaiten dauku jastatzerat eskuara gozo ospetsu bat; eta, nahiz berrehun eta berrogoi-ta-hamar urte iragan diren Etcheberrik liburu hoik izkiriatur geroztik, ez dute hain zahar ez eta hain arrotz emaiten eta mila plazerekin irakur ditazke.

**ALFONSA RODRIGUEZ  
JESUSEN KONPAÑAKO AITAREN  
GIRISTIÑO PERFETZIONIAREN  
PRATIKAREN PARTE BAT HEUSKARALA ITZULIA,  
HEUSKARA BEZIK EZTAKIENENDAKO**

1782an Avignon-en, Antoine Aubanel-bainan agertu zen liburu hori, ekaldeko Baxenabartarren euskalkian.

On da jakitea Frantziak 1801ean Aita Sainduarekin egin zuen *Concordat* deitu antolamenduaren aintzineko Iparreko Euskaldunak, hiru zati-tan bereziak zirela elizaz. Ziberotarrak Oloroneko apezpikuaren meneko zauden; Lapurtarrak eta mendebaleko Baxenabartarrak Baionakoari er-  
txikiak ziren; eta ekaldeko Baxenabartarrak Akizekoari. Hauien eskualdea deituan zen Akiztar Nafarroa, «La Navarre acquoise». Hartan zauden Amikuze, Landibarre eta Oztibarre. Apezpikua Akizen zagon, baina Euskal Herrian bazen beti lekuko bikario jeneral bat eta ofizial bat; asko-tan apez berak zauzkan bi kargu horiek.

Aipatzen dugun liburuak ez du salatzen nork egina den. Baina Maurice Harrietek hitz hau idatzi ditu Uztaritzen dugun ale bateko lehen orrialdean: «D'après certaines personnes qui les ont connues, les auteurs de cet Abrégé de Rodriguez furent un curé d'Ibarre, nommé Lopez et, en collaboration avec lui, l'approbateur lui-même, Philippe d'Abense, vicaire général d'Acqs».

Nor ziren bi lankide horiek?

*Les Paroisses basques pendant la période révolutionnaire* izeneko liburuan, Pierre Haristoyek salatzen dauku Lopez hori sortzez Jutsikoa zela, Jean Etcheberri Jutsitarraren herritarra, eta hunen gatik jakina zuen Lopez Iparreko erretor saildu bat izan zela, aizina zuelarik herriko xaharrentzat galtzerdi egiten ari zela, eta Iparreko elizan ehortzi zutela. Ez dakigu noiz sortu zen ez eta noiz hil. Marc de Philippes d'Abense delakoaz xehetasun gehixago badugu:

Hubert Lamandek bere *Armorial*-ean Xiberoko aitoren semetzat emaiten dauku, Omize-Gañeko familia batekoa. Abense-tarrak izan ziren Sorrapürüko jaun. Lukuzeko aitorekin ere ahaide ziren, XIII mendean Nafarroako erret-biltzarretan onetsiak.

Marc d'Abense hori ez dakigu noiz sortu zen ez baina Jutsin hil zen 1780ko Ekainaren 24ean eta kalostrapian ehortzi zuten. Clément Urruti-





behety jaun mirikuak Oztibarre xaharrari buruz aurkitu dituen dokumentu balios batzuetarik eta Haristoyen liburuetarik haxe jali dugu:

1. Marc d'Abense Jutsiko erretor izan aintzin, Auch-eko diosesean zela Nogaro-ko kalonje.
2. 1766an Amikuzeko eta Oztibarreko ofizial zela.
3. 1767an Akizeko apezpikuak izendatu zuela Bikario jeneral.
5. Hil zela Erreboluzioa hasi baino lehen eta Donaixtiko Jean d'Eyherabide erretora haren ondoko izan zela, bai Jutsiko apez bezala, bai Bikario jeneral eta ofizial kondu.
6. Marc d'Abense horri zor zaizkola Jutsiko apeztegia bere inguramen ederrekin. Artetik erraiteko hemezortzigarren mendean herri horrek *Jutsia* zuen izena eta ez *Jutsi* motz-motza.

## SUSTATZAILEAK

Alfonsa Rodriguez liburuan den aitzin-solasaren egileak aitortzen du maiz gutiziatu duela Euskaldunentzat erdarazko obra miresgarri horren euskaralat itzultzen eta eratzikitzen du: «gure bi jaun apezpiku handiri, Suarez d'Aulan, eta Charles Auguzta Kieni (sic) uken dizit ohoria mintzatzeko gutizia hortzaz, eta biek-elgar arimen Salbamendiaren dako obra balios bat zatekeela heuskarala itzultze hori segurtatu nizie, eta erran untsa eginen niela haren eitia».

Louis Marie de Suarez d'Aulan (1697-1785) Avignon-en sortua eta apeztua, Cevennes-tako protestanten artera misionest zenbait urte iragan-eta, bere sorterrriko kalonje eta kofesor-nagusi zagon 40 urtetan, noiz-eta-ere Akizerat apezpiku izendatu baitzuten. Diosesa hortan 36 urte iraun zuen, ongi hainitz eginez. Bere euskaldunak ez zituen ahanzten. Heientzat 1750an amikuztarrez agertarazi zuen katixima bat, 1770ean emendatu zuena. Geroztik ere liburu hori bietan segurik ateratu da eta 1815ean Mg. Loison-ek berriz eman zuen argitara ekialdeko Baxenabarrentzat, Akizetik berexi zituztelarik. Suarez apezpikuak kargua utzi zuen 1772an eta Avignon-en iragan zituen bere azken 13 urteak.

Haren ondokoa izan zen Le Quien de Laneufville euskalduneri bizi-ki atxikia, haren letra batzuek erakusten duten bezala.

## BI HITZ ALFONSO RODRIGUEZ JESUITAZ

Alfonso Rodriguez *Prática de la perfección cristiana* liburuaren egilea, Valladoliden sortu zen 1526an.

Han-hemenka irakurri dugu ez zela izan fraile xoil bat baizik, atezain arunt bat, bainan Izpiritu Sainduak bereziki argitua. Ahantzi bide zuten kondatzaile horiek Salamankan ere ibilia zela eskolatzen eta jesuitek berek apeztu zutela. Heien lagundian hogoi urtetan sarturik, frailegai etxetik lekora, bere kideko gazteri hamabi urtez kristau morala erakutsi zioten.

Gero Andaluziako Montilla hirirat igorri zuten, jesuitagaien maisu; bertzalde, lagundiko etxe guzietan hamabortzetik bederen egin behar ziren hitzaldi izpiritualen emaitako lana leporatu zioten. 30 urtez bete zituen eginbide horiek. Ez bazen ere goi-teologiako erakaspak sakonetan murgiltzen, orok ziotenez, arimen ezagutzeko eta gidatzeko jeinu bikain bat bazuen.

1593an lagundiak Erroman izan baitzuen bere bortzgarren biltzar nagusia, Rodriguez harat deputatu igorri zuten: hor ere erakutsi omen zuen zuhurtzia handi bat. Erromatik itzuli-eta Cordoban ezarri zuten prefet izpiritual kondu, jesuiten arimez arta hartzeko eta bere hitzaldi saindueri jarraikitzen.

Orduan buruzagiek galde egin zioten bil zitzan eta ordena hainberzte urtez apailatu zituen erakaspak izpiritualak, liburutan agerazteko.

1606ean Sevillan arkitu baitzen probintziako biltzar nagusiko, buruzagiek manatu zioten hiri hortan geldi zadin bere liburuaren argitaratze emaitako. 1609an lan horiek izan zuen bere lehen ageraldia.

Rodriguezek zahararo nekagarri bat ukan zuen, ezindura oso batek harturik. Sainduki hil zen 1616eko Otsailaren 24ean.

## ALFONSO RODRIGUEZEN LIBURU JATORRETIK ITZULPEN ETA LABURPENETARAT

Rodriguezek gazteleraz idatzi zuen bere lana eta ukan zituen hizkuntza hortan elementia bat ager-aldi. Laster itzulpenak jalgi ziren latinez, italianoz, alemanez, anglesez, polonenez, flamanez, greko berriz, hongresez.

Zazpi itzulpen agertu ziren frantsesez: lehena Port-Royal-eko janse-nistek jalgi zuten, ongi baliatu eta azkartu baitzituzten obra hortan kausi



ditazken garrazkeriak. Régnier-Desmarais frantses akademiako idazkari jakintsuak (1675-1676) itzuli zuen *Pratica* mintzaire eder batean: nahiz ez zen bera jansenista, utzi zituen ximenki gaztelarak zauzkan pasart bortitz eta gogorak. Ondoko ager-aldi batzuetan apez moltxo batek eztitu eta legundu zuten Régnier-Desmarais horren itzulpena.

Jesuita eta bertze elizagizon zenbaitek frailentzat eginikako liburu hortarik nahi ukan zuten girixtino xehentzat on zitazken aholkuak atera eta lan arinagotan ager-arazi. Frantsesez hiruzpalau laburpen segurik argitaratu zituzten. Eskuetan erabili dugun Rodriguezen lan osoak badauzka 1397 orrialde. Hiru zatitan berezia da. Zati bakotzak baditu 8 sail eta sail bakotxa kapitulu andana batez osotua da: laburrenean badira 7 kapitulu, luzenean 32. Orotara konda ditazke 315 kapitulu.

Euskarazko itzulpenak ez ditu 466 orrialde baizik 74 kapitulurekin.

Aitzin solasak aitortzen dauku baliatu direla Lopez eta Abense laburpen frantses batez, hunek 600 orrialde baizik ez zauzkanaz geroz. Beraz laburpen baten laburpena da. 1609ko liburutik hanhemenka pasarte batzua hautatu dituzte eta zortzi sailetan antolatu:

- Bizi izpiritualaren estimuaz, 10 kapitulutan.
- Jainkoaren presentziak, 7 kapitulutan.
- Otoitzaz, 17 kapitulutan.
- Komunione Sainduaz, 7 kapitulutan.
- Meza Sainduaz, 2 kapitulutan.
- Umilitateaz, 8 kapitulutan.
- Jainkoaren borondatera egoiteaz, 6 kapitulutan.
- Garbitasunaz, 11 kapitulutan.
- Jujamendu arinez, 6 kapitulutan.

## LIBURUAREN FUNTSAZ

Bixtan da, hainbertze ager-aldi, agerpen, eta laburpen ukan duen Rodriguezen liburu jatorrak funtsezkoa izan behar zuela eta hortik jin zaio bere arraketa. Euskarazko haren aldaskak ere bildu du ipar-alde huntan bere famatxoa. Georges Lacombe zenak salatu zaukun (Gure Herria, 1931, p.69) bi itzulpen ukan dituela Lopezen laburpenak, batto lapurtarrez, bertzea ziberotarrez. Damurik ez dira nehoiz argitaratu eta ez dakigu nun dauden gorderik.

Seguraz ere balio handi bat atxemaiten zioten gutarteko arimen one-rako eta bertuteen kulturako. Alabainan teoria soberarik gabe erakaspen sendo bat bazekarren mintzaire bakun batean; Liburu Sainduen eta Elizako Aiten erranak, konparazione errex, adibide bizi eta ixtorio sustagarri-riz apainduak eta arinduak zauzkan. Egia erran, egungo egunean zenbait pasarteri garratz eta mutxi aire bat kausitzen deiegu: kontseiluzko baizik ez diren aholku batzua aisegi manamendutzat damazki; ez du erakusten nola mailez-mail aintzina daiteken ongi osoari buruz, kolpez hartara hel-tzen ahal balitz bezala; ipuin batzua dakarzki frango zaharkituak.

Halere, oro har, liburuak badu gogoeta sakon hainitz eta eginkizunik aski edozoin mendetako arimentzat.

## HIZKUNTZARI BURUZ

Lopez eta d'Abense itzultzaileen euskalkiari buruz bi ikerlan baizik ez dira agertu orai artinokoan.

1948an Ch. Boudak idatzi zuen: «Les formes respectueuses du verbe mixain» (*Euzko-Jakintza*, II, pp. 595-615).

1967an A. Lizartzak: «Apuntes léxicos de la traducción bajonavarra de Alfonso Rodriguez» (*Anuario del Seminario de Filología Vasca*, I, 98-162).

Ez noa lan horien errepikatxera. Hasteko aditzaren irabioaz ez dut hitzik erranen Charles Videgainek baitauka txosten bat gai hortaz apaillaturik. Ohartaraziko dut bakarrik liburu guzia zukako moduan idatzia dela. Eskualde hortako bertze idazlek eztabadaka erabili dute beren aditza. Ikus *Akizeko katixima*, Ibarlako Salaberryren *Ebanjelioa*, Jutsiko J. Etcheberriren *Almanaka* eta lau liburuak, Bertrand Erdozaincy-Etcharten *Michel Garicoitsen* bizia.

Huna bakarrik gaingiroko zenbait pondu, xehetasun gehixago hartze luketenak:

A) Ortografia txarra da, ezinago nahasia: u eta ü ez dira ongi berexen eta ez ere s eta z; zenbait aldiz t-ren orde l aurkitzen da; behargabeko letra batzua sartzen dira han-hemenka (cerbitzchatu, mintcatzceco); eta hitz berak orrialde batetik bertxera idazkera desberdinak jasan behar ditu.

B) Liburu hortako euskalkia (Abense jaunaren gatik ote?) Ziberoko berezitasunez emokatua da: *-tasunen* orde *-tarzun* dakar: *xahutarzun*, *ezti-tarzun*, *balioztarzun*, *ernetarzun*, etab... *-kinen* orde *-ki* xoila: *arrazoin handi-reki*, *gar ainitzeki*, *huneki* eta *hareki*. *-tze*-ren orde *-te* infinitibo batzuetan:



*erorte, egorte, ekarte, ezarte, irakurte, jalgitte, ebiltte* -eñen orde -er datibo pluralen: *anaier, gizoner, guzier, oroer, buruer*, eta... -tik-en orde -ti xoila ere kausitzen da: *zeluti, nunti, herriti*. Hitz hainitz aditz batzuen sustraietatik atera dira, u atzizki batez jauntzirik: *aipatzetik jalgi dute aipü, kargatzetik kargü, hautatzetik hautu, atakatzetik atakü, pagatzetik pagü, debekatzetik debekü*, etab... Izen batzu ber-berak dira Xiberon eta ikertzen dugun liburuan: *eki-argizagi, korpitz, belar* (kopeta), *hazkurre, axuri, ühaitz, Jinko, gozaita, goxama*, etab... Adjetiboak ere: *xahu, satsu, ütsü, orhit, ehi, erhez, txipi, seint, seindü, erpil*, etab... Partizipio zenbait berdin: *üken, gogatü, ahabi, erramarki, arrerosi, jardiretsi, batü* (aurkitu), *debetatü*. Adberbio batzu ere: *elga, ezi, eziez, belauriko, heben, bena, bezik, aldikal, jitez, llabür, aurtemein*, etab... Noiztenka hizkuntzaren azkar batzu aurkitzen dira: *beharci behar dici*-ren orde; *beharu, behar düziren* orde.

C) Bainan Lopez eta Abensen euskalkiak zor handiak badiozka ere Xiberoko mintzaiari, hainitz kidetasun gelditzen zaizko bai Garaziko bai Lapurdiko hizkuntzekin.

## JOSKERA

Gehienez joskera bertze euskalkienarekin ados da gure liburua.

Bizkitartean hauteman daitezke han-hemenka berezitasun zenbait.

Huna erakusgai gisa perpaus ohargarri:

- *Nahi bada* eri den jinen düzü (aunque, quioque).
- Salba nadin *ber*, eztizit axolarik (caso de que, pourvu que).
- Gorputzaren gazki tratatuz (genitiboa partizipioaren osagailu).
- *Nehork* uste badu bekaturik gabe dela (nehor = norbait).
- Beldur izan behar düzi suge *zaharraren* (genitiboaren iraulpena).
- Jinkoak *detsala* hautü huna egin nezan (opazko modua).

## AZKEN HITZA

Barkatu otoi txosten hunen luzca. Uste dut halere erran gabe utzi dudala asko gauza. Balio luke norbaitek tesina bati lot lakion Lopezen eta Abensen hauziaren osoki xuritzeko.

## EGIATEGI: EUSKAL BIBLIOGRAFIAREN OSATZALE

Ondarreko *Euskera* aldizkarian Aita Casenave Harigile urgazlearen txosten eder eta jakingarri bat irakur daiteke, hemezortzigarren mendeko Egiategiren euskarazko esku-idazkiez.

Pasarte batean aipatuak zaizkigun filosofo xiberotarrak begiraenean zauzkan zenbait euskal-liburu.

Euskal-bibliografiari buruz iduri zait ekartzen daukutela zenbait argi berri.

Hasteko, badakizue *Exercicio izpirituala* izeneko eliza liburua 1716etik 1937rat 83 aldiz bederen argitaratua izan dela. Orai arte Vinsonekin uste ginuen obra hori sortua zela 1716ean. Bainan huna nun *Egiategiri* eskerrak jakiten dugun, *Pedro Argain* baten obra dela eta 1686ean agertua. Idazle horren izenik ere ez ginakien.

Aipatzen dauku bertzalde 1642ko liburu bat: *Marinelaren egnbidiaz* eta egilea ere izendatzen: *Saro de Laburtarena*. Nik segurik ez ditut bertze nehun kausitu ez titulu hori ez deitura hori.

Oihenart handiaren *Gaztarua* neurtitzetan norik ez zuen ezagutzen?, bainan *Egiategik* erakasten dauku agertu zela ere 1664ean poeta beraren *Zahararoa neurtitzetan*.

Haatik hutsean atxemaiten dugu *Geroko gero* argitarapena 1641eko-tzat emaiten duelarik alabainan. Axularren liburuaren ateratzeko hiru baimena emalek 1642an izenpetu zuten norik bere ageria edo *Gero* argitarapenak 1643ko urtegarrena badakar. Baditeke Egiategiren eskuzko xifrea ez den xuxen irakurtu.

Casenave jaunak, idazle eta obra horietaz Egiategiren irakurgaietan aipu ditu Chourio, Joanes Etcheberri Ziburukua, Beriain eta Joanes Leizarraga. Bainan aitortzen du bertzerik ere badirela izendaturik.



## NORI BURUZ EGIN ZEN «MAITIA NUN ZIRA» KANTU XAHARRA?

ESKUARAZKO kantu gehienak norbaiti buruz eta zerbaiti buruz egonak izan dira; baina nahiz kantuak iraun dezaken biziki luzaz jendeen aho-mihitan, ez du maiz horrenbertze irauten bertsea sor-arazi zuen gertakariaren orhoitzapenak.

Luzaz egonak gira gogoeta, nundik jina zen «Maitia, nun zira» kantu pollita.

Airea, hasteko, arras arrotza iduritzen zitzaidan, usaiaz kanpoko izarritan emaiten baitu bertsea: 6, 7, 7, 12, 7, 7, 6 hizkirekin.

Eta bertzalde Limoges-ko kantu xahar bat entzun dugu radiotik arras aire berarekin.

Baginauden ea hitzak ere nunbaiko, bertsu arrotz batzuetarik itzuli zituztenetz eskuaralaz, oraino berrikitan «La paloma» eskuaraz hein bat polliki antolaturik aditu dugun bezala.

\* \* \*

Bainan Jaurgain zenaren lan batzu ikertzen ginituelarik, han hatxean dugu argi poxi bat, eta pentsatu behar ginuela «Herrian» aipatu.

Beraz Jean Jaurgain ixtoriozale ziberotar famatua Atharratze ondoko herri batean bazabilan J.B. d'Etchandy bere adixkidiarekin: 1884 edo 1885 urthea zitaken. Kausitzen dute laborari eder azkar bat, hiruetan hogoi eta hamar urthez goitikoa. Elheketa basten dira gizon xaharrekin, eta solasa lerratzen zaiote kartiereko kantoretarat. Orratzetik hari, galde egin zioten bazakienetz noiz eta noren gatik onturik izan zen «Maitia, nun zira».

Ihardetsi zioten: «Jauna, gazte nintzalarik, entzün dit erraiten, orai ni beña zahar zen emazte bati, khantore hori lehenago eginik izan zela Undürüneko prima batentako!» Ustez-eta Espese ondoko Undürüne herriko primua batez mintzo zitzaiola, Jaurgainek markatu zuen argitasun hori, bainan ez zuen pentsatzen aurki zezakela deus xehe-tasunik.

Bainan Mauleko notari-paper xaharretan, handik hogoi bat urtheren buruan horra nun kausitzen duen uste gabetarik Hauze-Undürüneko prima baten ixtorioa.

Itxuren arabera, ixtorio hortan da aipu dugun kantuaeren ithurburua. Hauzeoko jauregian Pierre d'Undurein ezkondu zen 1700eko agorriaren 25ean Sibaseko Marierekin. Bi aldetarik aitoren seme-alabak ziren. Ezkontza hortarik ez zuten ukan haur bat baizik: Jeanne. Haur hori Hauzeoko elizan bataiatua izan zen 1701eko azaroaren 9an: goxaita izan zen Jean de Sibas kalonjea, amaren anaia, eta goxama Jeanne d'Undurein, aita-ren ama.

Ziberuko aitoren alaba gehientsuak bezala Jeanne gaztea Oloroneko komentu batean altxatua izan zen. Orduan Oloronen bi komentu baziren, bainan pentsatzeko da Ursulinetan ezarri zutela, haren izeba Françoise de Sibas, hango superiora izana baitzen.

Hain etxe oneko neskatxa ezkontzeko adinetarat heltzearekin hartaz asko gizon gazte agradatu zitazken. Orogen artetik hautatu zuen Lahüntze Barrecheko Michel de Reyau, aitoren seme eta parlemanteko abokat plantakoa.

Bainan hautu hori ez zitzaion gustatu Hauze-Undürüneko Jaunari. Bere baimena errefusatu zuen, eta, kantoreak dionaz, alaba berriz komentuan ezarri.

Huna Michel-en auhenak, bertsulariaren arabera.

Maitia, nun zira?  
Nik ez zütüt ikhusten,  
Ez berririk jakiten:  
Nurat galdü zira?  
Ala kanbiatü da zure deseña?  
Hitz-eman zenereitan,  
Ez behin hai berritan,  
Enia zinela.

Jeannek arrapostu:

Ohikua nüzü;  
Ez nüzü kanbiatü  
Bihotzian beinin hartü:  
Eta zü maitatü.  
Aita jeloskor batek dizü kausatü:  
Zure ikhustetik  
Gehiago mintzatzetik  
Hark nizü pribatu.



Michelek berriz:

Aita jeloskorra!  
 Zük alaba igorri,  
 Arauz ene ihesi,  
 Komentü hartara!  
 Agjan ez ahal da sartüren serora,  
 Fede bedera dügü:  
 Alkarri eman tügü,  
 Gaiza segürra da.

Jeanne deliberatua da: huna haren azken hitza:

Zamariz iganik,  
 Jin zazkit ikustera,  
 Ene kontsolatzera,  
 Aitaren ixilik.  
 Hogei eta lau urthe batizit betherik:  
 Urthe baten bürían,  
 Nik ez diket ordian  
 Aitaren axolik.

\* \* \*

Mauleko notaripaperen arabera, kantoreak erran bezala iragan ziren guziak oro.

Jeanne d'Undureinek bere 25 urtheak konplitu zituen 1726eko azaroaren 5ean, eta berehala Ozazerat Jaurgain deitu kusi batzuen ganat joan zen. Handik notariz igorri ziozkan aitari hiru errespetuzko gutun: batto abendoan, bertzeak 1727ko urtarrilaren 13an eta otsailaren 7an.

Otsailaren 3an, Ozazen, Méharon-Gourdo notariaren aintzinean, ezkontzako ageria sinatu zuten Michel de Reyauk eta biek. Handik zontbeit egunen buruan egin zuten elizako itzulia.

Kantuak Unduruñeko jaunari erran-arazten diozka hitz hauk:

Alaba diener,  
 Erranen dit orori:  
 So egidaziet eni,

Beha en'erraner:  
 Gaztetto direlarik untsa diziplina:  
 Handitu direnian,  
 Berant date ordian:  
 Nik badakit untsa.

Paperen arabera, aitak barkatu zion alabari: funtserat-eta Jeanne gai-  
 zoa ohorezki ezkondua zen.  
 Orduan egin kantoreak baditu 240 urthe!



## PIERRE TOPET-ETXAHUN

(1786-1862)

Jean Haritschelhar jaunak lan handi bat egin du, hamar bat urte iraun diona, Pierre Topet Etxahun koblari famatuaz eta haren obrarekin.

Bi liburu gotor ontu ditu eta Bordelen, 1969ko uztailearen 8an, sei jularik erabaki dute segur hartze zuela «dotor» titulua, gain-gaineko aipamen ohoragarriarekin.

Lehen liburua agertua da: «Le poète souletin Pierre Topet Echahun» eta Baionan salgai da «Musée Basque» etxean.

Hemen eskuaraz laburpen bat nahi ginuke ager arazi, eskualdun hainitzi J. Haritschelhar gure adixkide jaunaren liburuaren irakurtzeko tirria eman nahiz.

Manexez egiten dugu laburpen hau. Xiberotarrek barka dezagutela. Berdin entzun dugu Altzurukutar batek lan bertsu bat egiten duela Etxahunen eskuara xotilean.

## XIX. MENDEA

### GAZTE-DENBORA

PIERRE TOPET sortu zen 1786ean, eta itxuren arabera buruilaren 27an, Barkoxe-Etxahunian. Aita Jean Topeta, Barkoxe-Topeteko seme zen; ama, Engrâce Sieur, Etxahuneko prima. Usaia xaharraren arabera etxearen izena emaiten zakoten etxeari, eta beraz Etxahunekoeri Etxahun.

Pierre, gero poeta bilakatu beharra, ez zen segur familiako haur bakarra: bazituen hirur arreba (Marie-Anne, Catherine eta Marguerite), bai eta hirur anaia (Joseph, Jean eta Jean-Pierre). Bera bigarrena zen haurridetarik, gehiena Marie-Anne.

Mutiko horren lehen urteak zer izan ziren? Ez ditake deus ere jakin, haren kantuetan salatu berrien medioz baizik, eta aitortuko dugu ez zaizkigula beti sinets-errexak. Dionaz, bai haurzaroa, bai gaztaroa izigarri dohakabe iragan zituen: aitetamek ez omen zuten sortzean onhartu, ez zuelakoan aitaren eiterik; bastart baten pare ekartzen omen zuten etxeko guziek, amodiorik gabe, artarik gabe, azkurri onik gabe; aldiz erdainatzen



zuten, joiten, hil zadin ere desiratuz. Eskolan gauza bera: lagunen gaixtakeriak jasan behar, nehor ere bere alde ukan gabe.

Hamar urtetan, nahiz osagarriak ez duen hanbat laguntzen, lanerat behar du: aintzina laidostatzen dute eta gaizki erabiltzen. Bertsuetan erranen arabera, ez zituen etxen kausitu hiru presuna baizen, urrikaldu zitzaizkonik: amañi, 1803an hil zena; mutil bat; haren hezteko manua ukana-gatik, polliki eskolatzen zuena; eta Marie Rospide deitu neskatoa: hau Larraintarra zen eta bi gaztek elgar maitatu zuten. Gerorago neskati-la pobrearen amodioa aipatuko duelarik Etxahunek, Marie Rospide ukanen du gogoan, nahiz behin ere ez duen haren izenik salatzen nehun.

Gauza batek artegitzen gitu. Pierrek bere kantuetan bere aitetamak, zikintzen ditu egin-ahala: aita auzilari zikoitz bihotz gabetzat dauka, herrak derabilena; amaz dio itsuski: «amak idor bihotza bai eta thitia». Bizkitartean Pierre dute biek primutzat hautatu eta ez Marie Anne, hau zelarik bada adinez gehiena. Gure iduriko bada hor xuxen ez doan zer-bait.

## AMODIOA ALA PRIMANTZA

Topeteko osaba, Pierren aitaxi edo goxaita, frango aberatsa zen. Haurrik ez baitzuen, 1804ean bere ontasunak ordenuez utzi ziozkan Jean Topet bere anaia Etxahuneko nausiari. Bereziki hiru etxalde: Topet, Champagne eta Arbispe. Arartekoz horiek behar zaizkon heldu Etxahuneko premuari, amaren dotea zen Bedekaraziarekin. Gisa hortan ezagutzen ditugu kobletan aipu diren «bortz etxalde» famatuak.

Bainan premu-gaiak Marie Rospidekin bazaukan amodioa aintzina-tuxegi zen: 1805eko otsailaren 27an Jean Rospide ttipi bat sortu zen Etxahunian.

Pierrek nahiko zuen neskatoarekin ezkondu. Etxekoek ordea zioten, desohorez ere, ez zela holakorik behar; hauta zezala: ala maitea, ala primantza.

Hamahiru ilabetez ez adituarena egin zuen, ustez-eta denborarekin bazterrak jabalduko zirela. Ba, zera... Huna nun mehatxuak obratzen hasten diren: 1806eko apirilaren 16an goxaitak ezeztatzen du bere lehen-biziko ordenua eta bere ondoko osotzat izendatzen Joseph Topet, Jean Topet-Etxahunen hirugarren semea.

Aldi huntan bertsulari gaztea ohartzen da ez dela probetxurik: ez baditu Etxahunia eta Bedekarazia ere galdu nahi, bertze hiru etxaldeak bezala, amor eman behar du: bihotza erdiraturik, Marie Rospide bere haurrarekin uzten du alde bat. Gutik ere egin zuen ez baitzuen Etxahunek fin gaixto egin memento txar hortan.

Orduantsu ontu zituzken *Urtx'aphalaren* kantuak, bi amorosen despeitze etsigarri samina aipatzen baitute. Haren lehen bertsuetarik ditazke.

## EZKONTZA ETA ETXEKO TIRA-BIRA

Etxekoek «neskatila pobrea» baztertu-eta ez dute Pierre hortan utziko: bortxatuko dute Engrâce Pelentorekin ezkontzerat: andere hori urtez zaharragoa zen gizon-gaia baino, bainan Etxahunerat amodio guti ekartzen bazuen ere, haren dotea polliki estimatua zen: orduko 3.415 libera, heldu baita oraiako 12.977 libera berri. Elizan ezkondu ziren Barkoxen 1808ko buruilaren 27an.

Handik hemerezi urteren buruan Etxahunek kantatuko du:

Hogei eta bi urthik bethe egünin,  
Emazte bat hartü nin ene zorigaitzin:  
Erraiten ahal beitüt zereki zeitan jin,  
Ene ürkhä bülhürä gorderik altzopin.

Ez da batere segur familiako tira-birak eta pena handiak haste hasetik gertatu zirela. Gauzak emeki-emeki nahasi, makurtu eta gaizkondu zitazken. Dena dela, Barkoxeko merian diren paperek erakusten dute menaiu hortan sei haur sortu zirela 1808tik 1821 arte: Engrâce (1809), Marie (1811), Joseph (1813), Catherine (1816), François (1819), Pierre (1821). Engrâce hil zitzaioten bi ilabetetan eta Catherine bi urtetan.

Bainan itzul gaiten egitekoetarat.

1809an Topetian hil da goxaita aberats hura, eta haren ondoko Joseph Topetek, 1813an soldado joan aintzin, eskuzko ordenu bat egiten du, bere ontasun guziak Pierre bere anaiari uzten dituela. Poetaren atsegina! Bainan ordenua ez da baliatzen ahalko; ezen Joseph ez da Napoleonen gerletarik itzuliko, eta ezin frogatuko dute hila dela: legez bada, orde-nu batek ez du deus balio, haren egilea ofizialki hilez geroz baizik.



Bertzalde goxaitaren ordenua atakutzen dute azken hunen anai-arrebek.

Pierre arras kexu da. Haren arabera aitak ez ditu etxeko intresak aski fermuki begiratzen. Eta noiz nahi familian diru-aharrak pizten dira. Azkenean elgarren arteko hasarrea hainbertzetaraino sumintzen da, nun 1817an poetaren aita, ama eta haurrideak, Etxahunia utzirik, Topeterat joaiten baitira ihesi, goxaitaren alarguntsaren ondorat. Etxahunian menaiu gaztea bera egonen da.

Ondoko urtean Topetian hilen da Etxahunen ama bere etxetik kanpo. Heriotze horrek zati-araziko du Etxahuneko ontasuna, poetari ez baitzaizko lurretarik geldituren erdiak baino gehixago baizik.

Azen ontzeko, 1819ko apirilaren 16an, Donapaleuko Tribunalak, eskas ttipi baten gatik, ezeztatzen du goxaitaren ordenua, Josephena ere ondorioz desbaliotzen duelarik.

Orai arte aipatu ditugun urtetan Etxahunek bertsu hainitz ontu ote du? Haritschelhar jaunak erakutsi du Eihartze eta Miñau kantu irriegin-garria 1813ko dibortza faltsu baten karietarat sortu zela. Bainan noizkokoak diren ezin xilatuzko bertze kantore batzu, baditake urte-alde berekoak diren.

## BORTZ URTE PRESO

1820-1821 arte hortan, itxuren arabera, gure Etxahunek ez zukeen kantatzeko gogo handirik.

Ezinago zen kexu, idurikor eta oldarkari.

Aiher zitzaion emazteari: hau diru-aharretan ez ten haren alde emaiten; bainan bazen bertzerik, serioagorik: Engrâcek gobernu txarra zuen Jean Hegiaphal auzoarekin. Senharrak nahi ukan baitzuen «konbertitu» (ez dakigu nola), andrea mendekatu, bi ilabete konbertitzailea preso atxikaraziz. Egia erran, Etxahunen kantuek baizik ez dute preso-aldi hori aipatzen. Orai arte nehun ez da agertu horren frogarik.

Aiher zitzaion (bixtan da) Hegiaphal ñapurrari.

Aiher berdin, asko arrazoin edo estakuruz, hainitz jenderi: aiher, ba; bainan (ondikotz!) bortitz, hasarrekor eta borrokari. Azkenean galernak norapait zalapartatu behar.

1821eko urriaren 26an, Eskiulako Benoit Goyhenex Chope delako batekin astaña-tratu batez hasten da hizketa; eta, beroan bero, ez dioia

haizkora-ukaldi bat bularrean emaiten? Zauria zarrapo bat baino gehiago da: sarraski itsusia. Etxahun preso hartzen dute eta Donapaleuko presondegirat eremaiten, doi-doia zombait egun Pierre familiako azken haurra sortu aintzin. Akusatua da ez bakarrik hil-xedez, bainan ohointzaz eta diru-urhe faltsu bat kurri-arazi nahi izanik.

1822an «Kaxotik» haren ihes-egitea, ezar ditake, nahiz ez dakigun xuxen ez noiz eskapatu zen, ez eta zombait denbora egon presondegitik kanpo. Paperik ez da argi gitzazkenik. Jendek, gure iduriko, hainitz emendatu dute eskapu-ixtorio hori.

Berriz hartu-eta, badu kanore garrazki erabili duten zaintzalek, bere bertsuetan saminki arranguratzen den bezala.

1823ko abendoaren 30ean Paueko Asisetan kondenatzen dute lehenik bi urte beharko du preso egon, eta gero bertze bi ustez polizak begi atxikiko dio. Dei egiten du, ez da probetxurik: gaztigua oso dago, eta presonera Lot-et-Garonne Eysses-etako «Centrale» delakoan sartua. Presondegiko paperek ez dute aipatzen ez haren oldartzerik, ez eskapu-entsegurik, ez bertze deus ere jakingarririk.

1826ko otsailaren 11n, Eysses-etarik Etxahun ateratzen dute, bainan ez libratzen. Gakopean daukate behin Pauen, gero Donapaleun: hemendik joaiteratu utziko dute 1827 hastean, ezin baitituzte haren gain ezarri hobenak egiztatu.

Denik ere, bi urteren orde, bortz urte atxiki baitute preso, ez da harritzeko barne guzia kedar, kirets eta mingatx baitzuen, sekulan baino minberago.

Bere kantuetan ixilik dauka Goyhenex-ekilako behar-gabea. Pazientzia eskasa aipatzen du, inpiztatzeleen lana ere bai; bainan oroz gainetik batzutan aita, bertze batzutan emaztea akusatzen ditu, haren preso-denbora luza-razirik. Erran behar du lekukotasun izpirik ez dela kausitu ele hoiene alde. Etxahun, bere zorta ezin konprenituz, aieruka ari bide zen bakar-bakarrik bere buruarekin. Eta nork daki? Beharbada federik hobereanean.

## XOXOTEKO ZUBIA

Pierre Topet etxen ez izanez, haren emaztea, ongi egin ustez eta lege-gizonak aholkatu, ari izana da lur trukatzeko eta lur saltzeko. Senharrak dauka tratu txarrak izan direla, etxe-galgarriak; bertzalde Engrâcek ez





du auzoarekilakoa hautsi eta gizonak akusatzen du bederen haur bat ezkontzaz kanpo kontzebiturik.

Erasia horiek gaitziturik, Engrâce Pelentok uzten du senharra eta ihes-leku bat atxemaiten bere ahizpa baten etxean, Barkoxen berean: bi haur eremaiten ditu berekin.

Bertsularia Etxahunian egoiten da bertze bi haurrekin, egoitza-parte batean Ibar bordariak bizi direlarik.

Etxahun erhotua bezala da, dena oihu eta mehatxu, bazterrak izitzen dituela.

Hainbertzenarekin, 1827ko maiatzaren lehenean gertakari ikaragarri batek inharrosten du Barkoxe guzia: aratseko hamarrak irian, Oloroneko feirietarik itzultzean, Dominique Etchegoyen, Xoxoteko zubian, handizki kolpatua da, hurbil-hurbildik keinatu xixpa tiro batez.

Ez dakite nork tiratu duen.

Bainan famak berandu gabe Etxahun dela dio: gaizki ikusirik, Hegiapal mendekioz hil nahiz, adixkide hobengabea funditu duke. Etxahun durduratzen da, ihesari emaiten, ahal bezala gordetzen.

Ondoko urriaren 23tik 24erako gauean suak sunsitzten du Hegiapal-en borda bat, aldean duen belartegi batekin.

Berriz ere jendea jelosten da Etxahunen eskua lan hortan ari izana dela. Hanbatenaz nun koblariak ilabete beraren azken egunetan Larrañe-ko artzaineri kantu bat kuriosa eman baitiote: kantu hortan hain xuxen bi lerro hauk adi ditazke Hegiapali buruz:

Bestek eraman derik hik behar kolpia,  
Bena kübera dirok orano hartzia.

Denen arabera, bi lerro hoiek salatzen dute tiro emailea. Justizia bera, ateraldi horren gatik, deliberatzen da Etxahunen arrestatzera. Aintzintzoan gelditu zen haren jaukitzetik, auziari buruz zeri lot ezin atxemanez.

Berehala kontrako lekukoak sortzen zaizko onjoa bezala; zuhaitz eroriaren inguruan haizkolariak tole; aldi batetik bertzera, jujen beren arabera, akusatzailek soberaxko emendatzen dituzte beren kargak. Hots, ezagun da hainitzek ez dutela gogoan Etxahunen lehertzeko xedea baizik.

Sei ilabete egoiten da preso, eta orduan Deffis jujearen ohoretan ontzen du kantore bat; alabainan haren ganik esperantzazko ele goxo batzu ukan zituen.

Eta huna, 1828ko agorrilaren 18 eta 19etan, Paueko Asisak. Jendeketa gaitza auzi horren aditzeko.

Etxahunek badaki zeri dagoken: inperkadoreak galdeginen du haren kontra ala hiltzea ala galeretako pena bizi guzikotz. Ez da jostetarik. Bainan bere buruaren jabe da osoki. Galdeka, arrazoinka, irriz edo hasarre-erantsiz lekuko etsaiak durduzaturik eta hats-bahi ezartzen ditu, batzu bertzeen ondotik. Jujeri buruz plantaturik, adi-arazten diote zombait herratsuk eta gezurtik elgar berotu dutela haren galtzeko. Hainbertzenarekin norbaitek gutun bat ekartzen du, hogoi bat Barkoxtarrek sinatua, baizik-eta Etxahun gizon lanjerosa dela eta herri guzia haren beldur; otoi, jujek ez badute ere haren kondentatzeko biderik atxemaiten, bederen, bakearen gatik, ez dezaten libra.

Jujek azkenean erabakitzen dute ez duela hobenik. Haritschelhar jaunaren liburuan auzi hau xehe-xedea kondatua da, paper ofizialak berme: 35 plama luze horiek ez dute gatz eskasik: irakurtzen hasi-ta segidan bururatu gabe ezin utz...

## PETIK GOITI

1828ko agorrilaren 20ean Etxahun libratua da. Barkoxen ez dira denak kontent. Herrirat itzuli-ta, herritarrez ez diote egiten «hunkijin». Gehienak gibelaz itzultzen zaizko. Badoa arren Urdiñarberat, han ez duela arazik kausituko hainbertze etsaigo. Han ontzen du 1829an *Kantoren kantatzeka*. bertsu hoitan musikatzen du Omize-gañeko ezkontza bitxi bat, orduan elepide asko eman zukeena. Han zitakeen oraino 1830ean, Belhaudiko borthian kantorea egin zuelarik artzain batzuen ez-axolkeria hain polliki zirikatuz.

Anartean entseatzten da egiteko xahar batzuen onez-onean antolatzerat bere etxondoaren berriz osatzeko eta joritzeko xedearekin. Aita hil zitzaion 1831ko buruilaren 28an. Handik laster deliberatu zuen Erromarat joanen zela beilari: preso zelarik egin botu bat nahi zuen konplitu. *Bi berset dolorusik* kantu hunkigarria ordukoa da: bertsulariak deitoratzen ditu bere hutsak, kontseilu onak emaiten; nasaiki barkatzen, bere haur eta ontasunak Alcat Barkoxeko auzapezari gomendatzen: fedezko eta bakezko kantorea, bat balinbada.

Sei ilabete iraun zuen beila horrek, 1832ko apirilaren 26ean Etxahun Ziberon baitzen, itzulia. Gauza guti dakigu beila hortaz. Paperak galdurik



maiz arrestatua izan omen zen arlote gisa. Nunbait berak 55 presondegia aipatzen ditu. Ez dea hanixko? Nimes hirian ospitalean hiltzer ere omen zen. Zer nahi gisaz, presan itzuli zen bere hurrez eta ontasunez arta artzekotan.

Erromaratekoan erakutsi sendimentu ederrak urtu ote zaizkonetz etxeratekoan? 1832ko agorrilaren lehenean Clérise inperkadoreari letraz galdatzen zion emaztea nunbait gakoan sar zezoten poxolutik.

Bizkitartean urri ondarrean Etxahunerat biltzen da, etxekoekin bizitzeko eta, oroz gainetik, dretxoz bereak bezala estimatzen dituen ontasunen kobratzeari lotzeko.

Haritschelhar jaunak bere liburuan emaiten dauku haren tratujokoen berri: nola ari ten egun goxotik, biharamunean gogorretik; behin anaia bat kideztat hartuz bertzeen garraitzeko, gero kidea berrituz behar arau; batzutan gauzak krik eta krak zeramatzala, bertzeri hatsaren hartzeko eperik utzi gabe; bertzetan luza eta luza parada onaren haiduru. Ez gira gu hemen sartuko auzilari tematsuaren zimardika bihurrietan. Aitor dezagun ongi jalgi zela gostaia gosta: hamar bat urterik barne, biltzen zituen ontasun gehientsuak batetatuak tiren haren eskuetan, Jeanek beretu Topetia salbu.

Iduri duenez, urte hoietan Etxahunen fama xuritutzea zen. Jende handi hainitzak atsegin dute harekin elekatzea, hala nola Deffis presidentak edo Clérise inperkadoreak. Ontarazten diote *Bere bizitzearen kantorea*, 49 bertsutan; *Mundian malerusk* berriarazten, *Desertuko ihizik* bilakatzen baita; eskatzen diozkate berset pollit batzu *Ernest Legouvé* Pariseko idazlari famatuarentzat.

1832an, *Gaztalondoko prima ateratzen* du, dena izpiritu xorrotx eta mendekio.

1841ean, *Udoyen* auzia dela karia, Donapauleko jauneria laudorioz loreztatzen du.

Urte bereko ekainaren 21 ean Sohutarat deitua da «de Rouillan»en ezteietara; ezkont-kantore xarmant baten emaitako: *Sohutako ezteietan*.

## ERORIKO DEITORAGARRIA

Petik goiti hortaratu-eta, zertako behar zuen Etxahunek huts izigarri batean erori?

1841eko uztailaren 20ean, Nabarregose-ko notari baten etxera agertzen da, Joannes Ihitsar deitu kideko batekin: hunek dio Jean Topet dela, Etxahunen anaia. Onez-onean antolamendu bai sinatzen dute bi alegiazko haurridek, baizik-eta Jeanek Pierre bere anaia gehienari uzten diozkala Topeteko hamasei partetarik hamahiru.

Zer uste zuen dohakabeak, anaia arrunt xoroa zela, ala bera biziko zela hura baino luzazago? Nork jakin?

Ametsak amets, ondoko urtean Topeteko Jeanek jakin zuen berri eta anaia jujetara jaukitu.

Koblariak bazakien kasu txarrean zela: lekuak hustu zituen eta Espainiarat ihes egin: orduan ibili zitakeen «Sen Jaken», beilari; bainan beila hortaz ez da oraino aurkitu orhoitzapenik.

1843ko maiatzean, Paueko Asisek xuritu zuten Nabarregoseko itsuskeriaren auzia: bi hobendunak ez baitziren agertu, kondenatu zituzten hamarna urteren galeretara.

Lehen ondorioa: kondenatuen ontasunak bahitzen dituzte. Etxahunia enkantean emana da. Beharrik Joseph Topetek 1845eko otsailean aitarren etxea berrerosi baitzuen.

Handik laster, Etxahun sartzen da berak hautatu desterrutik, bi urtez goiti Espainian egonik unatua, edo (nork daki?) Frantzia ahantzia duketela ustez.

Bainan ez dute ahantzia. Jandarmek biltzen dute; eta, 1845eko agorrilaren 11 n, Pauen da itzalean.

Zazpi egunen buruan Asisak dira. Jujen aintzinerat heldu da, aspal-diko beilaren trastu bitxienak soinean: xenila, manta-labur, pordoin, kulu-bitxo, maxkur, arrosaio luze, ez du deusen eskasik.

Auzi-tartean egiten du xoxoarena, bere ezinbertze eta penak hatsapasaka kondatzen, oro oihiu, oro jestu: aditzaileak irriz; bainan, teilatua xilo dukelakoan, urrikalduak.

Ororen buru: jujek pena jausten diote hiru urteren presondegitar. Urrun da jadanik hamar urteren galeretarik!

Bainan Etxahuni iduritzen zaio oraino hobeki atera ditakela. Dei egiten du «Cassation»-erat. Suertez huts bat atxemaiten dute Pauen egin auziko paperetan: sinadura bat ahantzia. Eta horra nun afera Mont-de-Marsaneko Asisetarat igorria den, han berriz juja dezaten. Hazilaren 7an Etxahunek Paueko komedia emaiten du berriz ere, polliki emendaturik. Ez du denbora galdu. Aldi huntan jujek bi urtetara laburtzen diote gaztigua.

Hasian hasi, zertako ez mentura bigarren dei bat? Oraikoan ez dute hutsik kausitzen. Bi ilabetek finkatuak dira abendoaren 20ean.



1846eko otsailaren 24ean Etxahun Eysses-etako presondegian sartzen da, hogoi urte baititu hortik ateratu zela!

Bi urte eraman ditu hor, ixtoriorik gabe.

Etxen, anartean, batasuna ari zaio gero eta gehiago desegiten. 1847ko azilaren 3an emazteak, bere ontasun propioak salbatu nahiz, ardiesten du legez berexirik izan dituen bi esposen ukantzak.

Abendoaren 20ean, bere gaztigua bururaino pairaturik, Etxahun azken aldikotz ateratzen da presondegitik.

## HERRIZ-HERRI

Hemendik aintzina Etxahun, erreka-joa, desohoratua, erdi-eskale biziko da, trixtezia handian.

Garindañen anaia bat bordari jarria baitzuen (Jean-Pierre), hunek berekin hartu zuen 1848an. Zorigaitzez, 1850eko udan-egun batez, bi anaiek aharra gorria ukan zuten elgarren artean, eta bordariak poeta kanporat manatu.

Etxahunek atxeman zuen aterbe herri hortan berean, selauru-xoko bat alokatuz. Gau batez norbait jin omen zitzaion jazartzerat, puska askoren ebasterat, eta bertsulari xaharrak begi bat galdu zuen borrokan. Haren arabera, Jean-Pierren semea, Pierre bere semetxia zen oldartu zitzaiona. Jujetarat jaukitu zuen.

1851eko otsailaren 28an Paueko Asisek ez diote Pierri ilobari hobetik ezagutuko: osabaren fama ez doake onduz.

Bainan zen bezalako auzilari tematsua izanez, tribunaletako paperek erakusten dute, Etxahun maiz ibiltzen zela jujetan, bere haurren ganik gero eta haz-pentsione joriagoak beharrez. Paper hoierei esker jakin ditake nola herriz-herri zabilan herratua. Aurkitzen dute, konparazione, Mendikotan, Santa-Grazin, Eskiulan. Azken leku huntarat 1856eko abendoan jin zen, Pierre bere seme gaztenarekin dotzen-erdi bat urte iragan baitzuten: alta, iduriz, lehenago ez zuen bere haurtzat ezagutu nahi ukan.

## KOBLARIA

Orai, irakurlea, nahi bide duzu jakin, Ziberorat itzuliz geroz, ea koblaka berriz hasi zenetz Topet-Etxahun.

1848an berean ontu zuen *Ahaide delizius huntan*, bere bizitzeaz egin duen kanturik hunkigarriena: nahigabea iragan berrien ondotik gogobihotzak goratzen eta ezitzen zaizko; gauza bertsua gertatu zitzaion Etxegoyenen auzitik lekora *Bi berset dolorusik* izkiriatu zuenean. Ez da beraz harritzeko bi kantorek elgarren eite baitute.

Bainan koblakaria, bizitzeko, entseatuko da zombait kanturen saltzerat.

Bertzeak bertze:

— 1848an *Heglus* senhar-emazten heriotzeaz;

— 1849an *Chaho* deputatu-gaiaren alde;

— 1850ean *Renaud* deputatuaren ohoretan;

— 1852an, naski, *Idaroki olha*, artzain batzuer eskerren emaiteko; *Leille*, ixtorio arrunxkoa.

— 1853an Abbadieren sariketako igortzen du *Montebidorat joaileak*; saria ez ukanik garrazki zafrazten ditu *Bi bertsetan egitez*.

— 1854an *Amodio gatik* izkiriartzen du, Etchandi hiltzalez mende-katuz.

— 1855ean Mrg. Lacroix, *Gure jaun apezkupia*, lilistatzen du;

— 1859an *Barkoxeko eliza* kantorean herriko erretorari jazartzen zaio, jaunen alkitik meza denboran ilki-arazi duelakotz;

— 1860an *Musde Tiraz*, Eskiulako erretoraren aldia da, kofesatu baititake xila noiz egin zituzken.

Haritschelhar jaunak hurbildik eta barna ikertu ditu Etxahunen kantoreak, mintzairaren aldetik, musikaren aldetik, koblen ontzeko moldearen aldetik, gaien aldetik, eta abar, argitan emanez zertan den bertsulari xuberotarra usaiari jarraiki, eta zertan bere jeinu bereziari. Bada hor zer ikas.

Halere pondu batzu gelditzen zaizku duda-mudan. Ez jakin, nola Etxahun hasi izan zen koblaka; ea Barkoxeko xahar batzuek eskolatu zutenetz (eta zoinek) —ala bere baitarik lotu zenetz, ohiko kantu ezagutuerei ohartuz, heien arabera bereen moldatzeko. Ez jakin ere, bat-bateko bertsularia zenetz, aintzinetik deus apailatu gabe ar zitakena— ala pausuki, astiki ari zenetz bere bertsuen lantzen eta ontzen, jenderi kantatu baino lehen. Iduri du modu hori zela harena. Bere koinataren etxean apairu txarra eginik, bertsuak ez ziozkan etxeko andereari lekuaren gainean adi-arazi. Berak koblak batean dio, etxerakoan xakur batek ausiki zuela, eta:

Etxera hel eta kolpia sueñatu nian;

Gero aldiz hoiek kopiatü nütian;



Ohiala juan,  
Logale beinintzan,  
Jeiki argi azkorrian,  
Hoién khantatzera, arrebari bortha aitzinian.

Aizinaxka preparaturik, aise dira haren bertsuak hain bildu, tinko eta beteak; hitz alfer guti, luzagai gutiago; eta ateraldia tiroa bezala heltzen bere jo-buruat.

Segur, denek opa ginezake oraino etxe-xokoetan kausi balezazte Etxahunen hainitz eta hainitz kantore, Haritschelhar jaunak bildu berrogoi eta bien emendatzeko.

## AZKEN HITZ

Orai burura dezagun Etxahunen ixtorioa.

Pierre haren semea 1861ean hil-eta, bertsulari xaharra Eskiulatik joan zen eta Etxahunian Josephek hartu zuen, azken egunak etxondoan pasa zitzaiz. 1862ko urtarrilaren 17an girixtino hil zen, 76 urtetan.

Ez bide zuen amesten ere, egun batez, bere kobleri esker, gorespen handienak ukanen zituela; hasteko, 107 urteren buruan, J. Haritschelhar jaunak Uniberzitatean sar-arazi du, eta Barkoxtarrek ezin ederkiago berri-tu diote hil-hobia.

Hil-hobiko lauzak Etxahunen bertsu hau ekartzen du:

Khantore hoiek huntü nütin Unhürritzeko olhetan,  
Errumarat juiten nizala erraiten beitüt hoietan.  
Maleruski ni hil banendi bidaje lazgarri hortan,  
Ziberuan khanta-itazie, ene orhitzapenetan.

## NOR ZEN CAMOUSSARRY

«Herrian» argitaratu ditugu zombait bertsu zahar, Camoussarry bate-nak, eta bertze zombaitño ere baditugu ager-araztekoak. Irakurle batzuek nahi lukete jakin menturaz nor zen poeta hori. Dugun erran sortzez Ziburuko zela.

Munduratu ethorri zen 1815eko otsailaren 17an, eguerditan, «Pocalet» karrikako 117an. Aita zuen 33 urteko marinel bat, Martin Camoussarry; eta ama Marie Mourguy, 28 urte zituen. Jean eman zioten izena.

Bizkitartean eskuen artean ditugun bertsu-paperean J.P. Camoussarry ekarria da.

Noiz ohartu zen aphezteko deiari, nun egin zituen eskolak? Orain arte ez dugu bildu argitasunik.

Dakiguna da, apheztu aintzin, urthe bat iragan zuela Larresoroko Semenarioan, erakasle gisa (1838-1839).

Apheztu bezain laster bikario izendatu zuten Donibane Garazirat: 1839-1842 ekartzen du Daranatzek: «L'Eglise de Bayonne» liburuan.

Bainan Camoussarry gaizoak ez zuen osagarrik. Biriak eri zituela dio Francisque Michel-ek.

Zibururat itzuli zen bere ama alargunaren ondorat eta han hil, «Pocalet» Gantato baitan, 1842ko agorrilaren 21ean, goizeko bietan.

Utzi zituen bertsu batzuek haren lagunak hainitz estimatzen zituzte-nak.

Camoussarry, egia erran, ez zen bertsularia, bainan, bai poeta edo zombaitek dioten bezala «olerkaria». Erromantiko aroan handitua, ez da mirakulu haren gaiten ageri baita auhenetarako ixurki bat. Bertzalde bere burua eri-handi ikusiz aise zitzaion bihotza ilhantzen eta kobla samintzen.

Nork edo nork emaiten hala balauku argi gehiago Camoussarry zenaz eta haren bertsuez, gogotik ager-araz ginitzazke... bildu guziak ala kazetan ala bertze nunbait.

P.S.— Joan den astean, kaier bati fidaturik, ezarri ginuen 1842ko urtarrilean hil zela aphez gaztea: meriako paperek frogatu daukute ez dela aise fidatu behar edozoin paperi. Esker mila Louis Dassance jaunari, lagundu baigitu huts horren xuxentzen.



## ANAIK BEZALA

Liburu Sainduak dio: «Anaiak anaiekin  
Zein goxo den bizitzea!»  
Bainan anaia bat zer den nola dezaket jakin?  
Hortan da ezinbertzea.

Mundua hasi zeneko, Adam-Ebaren seme,  
Horra Kain eta Abel.  
Lehen odol ixuria ez othe dugu berme,  
Anaia zein daiken Krudel?

Geroxago Jakobekin Esaturen aldia,  
Dilista-merkatu txarrez!  
Gehienari primantza zein eder ebastea  
Aitari eman gezurrez!

Gaixtoen umeak gaixto, zure haurrak, Jakobe,  
Etziren zu baino hobe.  
Desertuan saldu zuten, herraz hekiek ere,  
Beren anaia Josepe.

Ondoko urthe khiretsak Dabiden jauregian,  
Absalonek hilik Ammon!  
Eta Adonias zure anaia nola zen gan  
Mundu huntarik, Salomon?

Horra anaiak zein faltso izan ahal ditaizken:  
Odol bera ezta aski.  
Bihotzeko fede berak detzake, lehen azken,  
Zinez haurride atxiki.

Jaungoikoaren baithan da finkatzen fede hura,  
Nonbait xutik egotekotz;  
Bihotza ez bada heltzen amodio hartara,  
Badagoke huts eta hotz.

Zeruko Aitaren seme xintxo leial gaudeno,  
Oi etsi ez dezagula!

Bizitzen ahalko gare alegre eta sano,  
Bethi anaiak bezala.

Gutartean arrotzik ez, junta gaiten elgarri,  
Joloskeriak utzirik.  
Anaia lagun, anaiak gaztelua iduri:  
Ez du nehoren beldurrik.



## BORYEL BERTSULARIA

(1792-1879)

«Auspoa» liburutegiak zenbaki bikun bat atheratu du, 212 plama dauzkana, eta atsegin handirekin irakurri dugu J.M. Satrustegui jaun apezaz moldatu liburu baliosa.

Arnegin egon ginen denboran, zonbat aldiz ez dugu «Boryel» bertsolariaren izena aipatzen aditu? Bainan ez ginituen haren berriak ongi ikasi. Oraiko obra huntan gehienak argi et garbi ezarriak dira, behar diren froga eta berme guziekin.

«Boryel» sort-etxetik zaukan izena, eta izen hori jadanik 1428an usatua zen Luzaiden etxe horrendako.

Manez Etchemendi hor sortu zen. Ama etxeko alaba zen, Maria Josefa Larralde. Aita Pedro Echamendi, Reklusako semea: hunen aita Mendibekoa. Manez mundurat ethorri zen 1792ko urtharrilaren 7an.

Herriko eskolan zerbait ikasi zuen. Bainan eskola baino jeinu edo zentzu gehiago bazaukan: hargintzan eta zurgintzan partikularra omen zen.

Ezkondu zen Arnegi-Baxoko Juana Harriet batekin, eta ukan zituzten segurik bi alaba eta bi seme. Migel Ondarla Axinean bizi izan da ezkonduta, Francisco Azkarate Ferranyoinean, Ana Josefa etxan ezkondu zen behin Eiheralareko Arrosagaray batekin, gero Gortari batekin. Bainan lehenbiziko ezkontzako deitura gelditu zaiote Boryaleko jenderi. Hortik heldu da askok Arrosagaray deitu baitute bertsulari famatua, Echamendi zelarik haren egjazko deitura.

Bertsularia 1879ko maiatzaren 30ean hil zen, 86 urthetan, Don Nicolàs Polit Luzaideko bikario zelarik.

Satrustegi jaun apezak 21 kantu emaiten ditu liburuan, «Boryel» famatuarenak. Heietarik biga haatik (*Ene izpiritu*a eta *Sortuz geroz*) ez gira batere segur Luzaidekoak direla. Aldiz uste dugu Baxenabarren bazirela kaieretan Boryelen bertze kantu batzu, liburuak ekhartzen ez dituenak.

Nork edo nork balitu, othoi igor dietzagula «Herria», 8, rue Jacques-Lafitte, Bayonne, edo berdin xuxen: Don J.M. Satrustegui, pârroco, URDIAIN, Burunda, Navarra (Espagne).

Atseginekin irakurri dugu kantu bilduma hori, bere argitasun guziekin.

Mila goresmen Satrustegui jaun apezari.

## PIARRES IBARRART

(1838-1919)

Koblari handi bat aipatzerakoan, zertako ez ezar, aintzin-solas huntako lehen harri, bertsu xahar eta zuhur hau:

Lanho eta ilhuntze gizonen bizia!  
Haztamuka gabiltza hil-arte guzia!

Bethi Baigorriko xantre zenaren biziak haste-hastetik emaiten dauku argi baino itzal gehiago.

Izena *Pierre* zuela paperetan, ez da dudarik: bainan badakigu ahaide-adixkide guziek *Piarres* erraiten ziotela bai Jatsun, bai Baigorriin. Izengoitiz haatik *Bettiri*.

Deituraz eztabada gehiago baditake. Jatsu herriko sortu-berrien liburuan *Dibarrat* ekarria da: elizakoan eta esposarioan *Ibarrart*: arbasoen hil-harrietan berdin: eta haren bi sinadura ikusi ditugu guhaurk Ibarrart hitzarekin, hastapeneko D hura gabe.

Horra zergatik Piarres Ibarrart deituko dugun lan xume huntan. 1838ko otsail goiz batez sortu zen, zortzi orenetan. Bainan ezin jakin zoin egunez. Duhalde jaun auzaphezaren arabera otsailaren 15an zen, sor-eguna: Diron jaun erretoraren arabera 13a.

Dena den, Migel Ibarrart bere aitaso xaharraren etxean jin zen mundurat, Jatsu-Ithurraldian: egungo egunean ez da egoitza horren ez haatik, ez geldikinik, ez orhoitzapenik. Burdin-bidearen egiteko aurdikia zuten, elizaren azpiko Piarres-tchimpienearen begian, orai «tunel» ttipi-ttipi bat den toki hartan.

Ama, *Jeanne Ibarrart*, Migelen alaba gehiena, 33 urtheko xuritzaille bat zen. Aitarik ez da aipu.

Bathaioan *Pierre Baratciart* aitatxi zen. Dominika Ibarrart amaren ahizpa amatxi.

Gauza guti dakigu bathaiotik eta esposatu artinoko haren goiti beheitez: ontsa altxatu zutela eskolan eta katiximan ibili zela bai: ez haatik ez noiz ez nola jalgi zitzaion koblaka artzeko dohain berezia.

Ahaideak diotenaz, ttipi-ttipia zelarik oraino, etxekoek mahain baten gainerat hupatzen zuten, eta han gogoratzen zitzaizkon zirto eta athermal-diak kantatzen zituen bertsu-ixuran emanik, aditzale guzien jostagarri!



Geroxago ostatuan behar zen trebatu eta bertze bertsolariekin norbait bilhakatuz: orduko famatuenak ziren *Etchahun* xaharra, *Borddale*, *Athilla*. *Otchalde* adintsu zen Ibarrartekin eta biziki laket zuten buruz-buru artzea. Hemezortzi urthetan Donapaleon kantatu zuen *Eliza-besta*.

Soldado igorri zuten *Montelimar* hiri goxorat: zazpi urthe egon zen aintzindarien manu-pean. Hango jaun batzuek haren boz ospatsu ederrari oharturik, nahiko theatrorat gidatu, zer nahi irabaziko zuela. Irri egin zioten sudurrerat: bizi modu hori harroxko eta erhoxko bazaukan. Soldado-denboran lan-arte luzeak baitziren, ederki baliatu zituen, bai liburu irakurtzen bai erdararen polliki erabiltzen.

Sort-herrirat itzuli-eta zapatain jarri zen.

1867ko hazilaren hemeretzi *Marianne Darré* deitu kusi batekin ezkondu zen: esposarioan *Marie* ekharria gatik. Marianne zuen izena: senharrak 29 urthe zituen, haren lagunak 31.

Piarresek ez zuen baimenik galdegin kusiarekin ezkontzerakoan: ezkontza ez zen bali: ondoko urthetan ikasirik sakramendurik gabe zirela, berriz itzuli biak elizarat, makur horren xuxentzerat. *Garnier* jaun erretorak benedikatu zituen heien agintza berriak. Marie eta *Jeanne Darré* zituztelarik lekuko.

Kabalkada batez, Baigorriko gaztek galdegin zioten jin zadin Baigorriat bertsu egiterat. Tobera-mustra hori apailatu zuten, holetan, erretor etxeari hurbil-hurbila. Leiho gibeletik ba omen zauden beha erretor-bikarioak, bertsulariaren boza lilluragarriaz harrituak. Orduan *Barnetche* zen erretor eta *J.B. Etchegaray* bikario: hau *Jatsu-Etchelekukoa* zen, eta jendekian Ibarrartekin: geroxago Lekornen hil izan da. Zer nahi den, bi aphezak galdegin zioten nahi zuenetz Baigorriin xantre sartu. Baietz, eta Jatsu alde-  
rat utzirik Baigorriat fin zen bere zapatain-tresnekin, eta emaztearekin.

Xantregoa 44 urthez atxiki zuen. Nola ez zion atxikitzen Ondar-urthetan (lau lerro hurbil zituelarik), boza higatu, erkastu eta kraskatu bezala zitzaion: halere aintzina ari zen kantuz, marraka dardarikatsu batean! Nola utz, alabainan, hain maite zuen eliza xaharra? Eliza horrekin bat egin zen: hartan zituen errotik finkatuak bere orthoitzapen hunkigarri gehientsuak, haurren bathaio, komunione eta gaineratikoak: seme bat ere bazuen, hor, eliza horren itzalpean ehortzia.

Halere bihotzeko eritasun batek ondarra inharrosirik, deliberatu zuen pausatzerat joaitea eta alabaren gana bildu zen. Baionarat hor hil izan zen 1919ko maiatzaren bortzean.

Azken egunak grinan iragan zituen: suhia gerlan zen lau urthe hartan. Piarres Ibarrarti etsigarri zitzaion hain luzaz bakarrik gelditzea hiru

emazteen sustengu: alaba eta bi alabaso zituen bere geriza-pean. Hala iduri. Egia erran, heiek zuten maite-maiteki arthutzen eta sustatzen.

Emaztea Baionan hil zitzaion 1917ko uztailean: hunen azken urtheak biziki hitsak izan ziren: gaixo Marianak ezagutza galdua zuen: ez zen deusetaz orhoit; etxeakoak ere ez zakien nor ziren. Aise asma ditake Piarresen bihotzmina hain zen bera goxo, maithagarri eta arthatsua.

Hiru haur izan zituen, hiruak Baigorriin sortuak: alaba bat eta bi seme.

Alaba, *Anna*, oixtion aiphatu dugun hura.

Bigarren haurra: *François*. Maulerat igorri zuen eskolazterat soldado-aintzindari nahia baitzen; zorigaitzez eritasun batek zehartu zuen ofizio hortarik; Chilerat joan zen Mocoçain-tarrek; handik hiru urtheren buruan, hil zen ttipian bildu gaitzetik, 21 urthetan. Mocoçain-tarrek beren etxeokoen hil-hobian ehortzi zuten Coronel deitu herrian.

Hirugarren haurra: *Jean-Léon*, Baionan «préposé des douanes» zen eta itxura guzien arabera on zitakeen ozka gorenatarat heltzeko. Bainan soldadogotik lekora, huna non marranta tzar bat gaixtatzen zaion, zombait ilabetez xahutzen duelarik: 25 urthetan ehortzi zuten Baigorriin.

Dolu horiek biziki barna zaurtu omen zuten Piarres Ibarrat, eta denbora batez ez zuen kasik nehoi elherik egiten. Ordainez, gauaz, loa ezin bilduz, jeikitzen zen eta luma harturik izkiriatzen ari zen, petrolazko krisailu baten aldean. Edo bertzenaz esku-argia erhien puntan, elizalate bazoan eta hil- herrietan othoitz egiten zuen semearen hobiari buruz.

Emaztea harritua zagon manera hoieri!

Xehetasun horiek erakusten dute naski zer gizon zen Piarres Ibarrat: ordu ditake bi hitz erran ditzagun ere koblakariatz. Gazte-denboran bertsulari gisa abiatu zen besta, zintzarrots, toberetan. Hitza aise heldu zitzaion, piko aiseago, diotenaz. Ez zen ozar atrebitu hetarik: itsuskeria hastio zuen. Bainan ez uste izan horrengatik koblari idor samina zela: ez, hurbiltzekorik ere: jostakina zen, irri-gura; eta zaharrak orhoit dira haren athermaldi bakhar zombaitez.

Bide nabar doala hemen batto. Tobera batzuen karietara, Ibarrat ekar-arazi zuten Jatsutik Kanboko emazte bertsulari gazte baten lagun. Biek bertsutan behar zituzten «sujeten» ihakinak egin. Ibarrartek andrea bildu beharra zuen sei edo zazpigarren bertsuan. Zazpigarrena aspaldion emana zen, ba eta hamekagarrena ere, eta bertsularisak amor ez eman nahi, «*komentuan sartuko dela, serora beharra dela*» eta holako.



Ibarrartek ez zakien nola athera atheka hortarik: bet-betan oharturik bertularisak gerri nasaia zuela, edo norbaitek ohart-arazirik, huna non andreari kobla hau botatzen dion burutik behera:

Komentuan sartzea zer xede saildua!  
 Hoberena golkoan daukazu, gaixoa!  
 Hango borta hertsia da ontsa zaindua.  
 Birazka han sartzeko nun duzu gogoa?

Aldi hortan mututua omen zitzaion emaztekoa, jendea karkailaka irriz ari zelarik, ethendua!

Haatik bertze aldi batez, berriz ere jabeldu baitzitzaion Ibarrart bertularisa berari, estakuru bera altxatuz, emaztekiak ixil-arazi zuen, hemen ager-arazteko on ez den bertsu izigarri batez; Piarresek nahiago izan zion azken hitza utzi, bere burua hari beretik ariz desohoratu baino.

Xantre sartuz geroztik, ez zen gehiago plazetan agertu, are gutiago toberetan. Barnetche jaun erretorak debekatu zion. Adixkideen artean, bazkaltierren alegaratzeko, ala bathaio ala ezkontza egunetan, ari zen zonbait aldiz koblaka, arnoa lagun.

Bainan bere bertsu aipagarrienak etxen eginak ditu, astiz eta asmuz, luma eskuan. Zonbat garhait-sari ez du hola irabazi zoin gehiagoka handietan?

Zonbait bakhar nun eta han moldatu gogoak edo bihotzak eman arau. «*Michelengo zubia*» nork ez daki zer kariaz ontu zuen? Mocoçain jaun bikarioa zubi bertan arraintzan ari omen zen egun batez: barurik, hameka orenetako mezaren haiduru: bet-betan arrain batek ausikitzen du amua eta hain xuxen aize-ukaldi borthiz batek kentzen dio xapela: hau urean sartzen da eta aphez gaixoa bere kanaberaz ari da xapela gelditu beharrez. Ondikotz urak baderama han harat... lastoa bezala. Mocogainek kondatu zion Ibarrarti gerthakari xume hori: «*Errazu, Bettiri, egizu zonbait kobla ene xapelaren ohoretan*». Bettirik (bertsulariaren izengoitia zen) orduan egin zituen orok dakizkigun kobla pollitak.

Bere zapatain-tegian laket zuen kantu xaharren errepikatzea, bereak bezala bertzeenak ere: ondoan ikus eta adi zitzaizkon pika eta xoxo, Ibarrartek bilduak eta eskolatuak: hurbiltzen zitzaizkon beldurrik gabe eta huxtuka-huxtuka irakasten ziozkaten aire-firurika berri batzu.

Koblaria xori-hegaztinekin hain elhaire izaitea ez da batere harrigarri.

Bururatzeko, huna zonbait lerro. Etchepare jaun miriku eskualzaleak ezarri zituenak «Buruchkak» deitu liburuan. Ibarrartez mintzo zen: «*Ezagun da zer koblari den: erran nahi dut hoberenatarik dela, ez baita orobat Eskualherrian nehor nausitzen zakonik, non ez diren Elissamburu eta Zalduby. Gozoak dira haren bertsuak: asetzen daukute beharria: ez datxikite elhe alferrik: baditeke ez duten bihotzari min egiten atseginarekin edo beren argiaz lilluraturik uzten izpiritua: bainan hunkitzen gitzute gure gizontasunean, jende gehienak bide hortaz hatzemaiten dituztelarik. Irakurle hanitz baduke horrela Ibarrartek ttipietan, bierrarteoetan, eta bertze hainbertze bederen adixkide».*

Ez dugu uste egin ditakeen laudorio zuzenagorik!

Eta orai nola utz aintzin-solas luze hau, gure eskerrik minenak bihurtu gabe lagundu gitzuten guzietan: bereziki aipatuko ditugu:

Madama Daubagna. Piarres Ibarrarten alabasoa.

E. Istiart jaun adixkidea. Jatsuko zaharrak mintzatu eta bertako paperak ikertu dauzkuna:

L. Dassance, eskualzaleen jaun buruzagi suharra.

Hainitz xehetasun zor diozkategu, aipatu dugun koblakari handiaz.

Liburu xume hau irakurtu-eta, agian gazte zonbaitek beren baitan hats berezi bat sumatuko dute, berek ere bertsu eder ospatsuen ontzeko.

On da aintzinekoen gorestea: hobe, heien urhatseri jarraitzea.





## DUVOISIN KAPITAINAZ OHAR PURRUXKA BATZU

Duvoisin Kapitainari (1810-1891) euskal-literaturak leku nasaia emaiten dio. Aipatzen dutenak iturburu beretatik atera baitituzte beren berriak, zenbait gertatu zaie huts beren errepikatzea. Txosten huntan nahi nituzke zenbait agertu. Erran behar dut, nihaurek ere huts horietarik asko egin ditutala ene idazkietan, geroztikako irakurgai batzuek poxi bat argitu naute; eta beharbada txosten huntan makurra xuxentzen ahal-ko ditugu. Ez uste izan hargatik harritzeko berriak entzunen ditutuzela: xehekeria zenbait baizik, ez zaizkizue salatuko.

### Izen-deiturez bi hitz

Liburu gehienetan Jean Duvoisin errana zaio. Bizkitartean Hiriart-Urruty kalonjeak *Manex* emaiten zion itzen ttipizat: Larresoroko eskola paper guziek *Jean-Pierre*, eta aduanakoek *Jean-Baptiste*.

*Duvoisin* deitura ere ez da denetan berdina idatzia. Semenarioko dokumentuetan *Duvoisin* ekarria da. Nola nahiz idaz dadin, Albert Dauzat hizkuntzalari zenak zaukan *Le Voisin* nehun ez zelakoan, hitz hori *Jeku-izen* bat zela etorkiz. Frantzia-eskualde ainitzetan herri askok dakartena, eta geroxago deitura bilakatua. Zenbaitek hauteman dute abizen hori ez zela euskarazkoa eta nola kapitainak bere burua nafartzat eman zezaken, ezin ulert.

Duvoisinek berak argitu izan du bere errana. Kondatzen zuen, baizik-eta 13garren mendean, Tibaldo lehenak, Nafarroaren errege sartu zelarik, Xanpañatik berekin ekarri zuela bere erresumara *Du Voisan* (bi hitzetan) izeneko zaldun soldado aintzindari bat: Hau Nafarroan alde bat kokatu zen, familiatu, eta haren leinua mendezmende, ezkontzaz-ekontza, arras nafartu.

Aita amaren aldetik ere, nafarra zela erran zezaken; Marie Goroztarzu ez zena bada Baztandar leinu batekoa? Nola ez orroitz Goroztarzutar horietan eskual olerkari bat izan dela Jean de Goroztarzu apez (1829-1858). *Orhiko xoriaren* kantua egile xarmanta, bai eta *Eliza-bestarena*?

Gure kapitainak anaia bat bazuen, bortsu urtez zaharragoa, *César* bataiatu zutena. Cezari ez zitzaion izen ospatsu hori batere laket; eta

gehienetan C lehen letra baizik ez zuen ezartzen bere deituraren aintzinean. Hortik gertatu da askok uste ukan dutela *Charles* zela haren izen ttipia, edo C letra horrek erran nahi zuela «capitaine». Horra zergatik apezaren idazki batzu gardan leporatu diozkaten. Adibidez: *Notice sur la chapelle Sainte-Magdeleine d' Ustaritz*.

### Eskola solas

Duvoisin anai-arrebak ez dira behin ere Ezpeletako eskolan ibili. Aitetamak eskolatuak zituzten: aita herriko auzapez eta kantoinako bakezko jule izaki, eta ama Baionako ikastegi batean aski luzaz egona. Baina, bertzalde, Hazparneko komentutik iraultzako legek haizatu serora-erriensa bat Duvoisintarrek bildua zuten etxerat, haren gain utziz haurren argitza.

Bizkitartean, zion Hiriart-Urruty kalonjeak, mutikoak nahi izan zituzten etxetik jalgi-arazi; eta biak igorri zituzten Larresoroko Semenariorat. Hortan ez zen kalonjea ongi jakintsutua izan.

César, hasteko, apez-gai zelakotz, Larresororat igorri zuten; baina ez Semenariorat, hau ez baitzen idekia izan 1820ean baizik; 28 urte hetsia egona zen etxe hori, gobernua ebatsirik. Baina Larresoro *Irigoienean* biltzen zituzten apezgai zombait, eta apez xahar batek eskolatzen zituen. Césarek hor egin zituen bigarren mailako ikasgoak oro.

Haren anaia aldiz Semenarioko ideki-berrian sartu zen 1823ko Urrian, 13 urtean. Ez zen aise etxekotu. Orduko paper zaharrek alfer eta buruzkin egiten dute, nahiz aitortzen duten bazukeela zernahitako hartze eta adimendu, borondate on gehixagorekin.

Bizkitartean, hiru urte gaixto iragan-eta, huna nun bere Laugarren urtean arras bertzelakotua aurkitzen dugun. 1827ko Abuztuaren 27an sari-egona izan baitzen, orduko *Palmares* delakoak salatzen dauku, Jean Pierre Duvoisinek merezi ukan zituela bortsu aipamen eta bere eskolako hoberenetarik izan zela. Zer gertatu zitzaion ba?

César, haren anaia, erriente sartu zen Semenariokoan, eta Jean Pierre haren meneko aurkitu. Erakusleak jakin bide zuen nola bil eta susta aintzin urtetako pottoka bihurria.

Baina, ordutik harat, Jean Pierre horren itzalik ere ez da Semenarioko paperetan. Zer bilkatuz zen, ez dakit batere. Iduriz etxen atxiki zuten aitamena eta serora-erriensaren meneko, lan modu zerbaiten haiduru.



Orduan, denbora pasa, lotu zitzaieken ixtorioari eta euskarari, bi sail horiek ez baitzituen hil artio uztekoak. Bertzeak bertze, buruan sartu zitzaion behar zuela *Fenelon-en Télémaque* liburua euskaralat itzuli. Bainan laister oharturik hitz ainitz eskas zituela, eman zen hitz biltzen, euskal hiztegi baten egiteko.

Aita hil zitzaion 1830ean, eta Jean Pierre deliberatu zen guardetan sartzerat. Ondoko urtean egin zuen urrats hori.

## Herriz-herri

Erran dute Duvoisinek ongi baliatu zuela guardagoa, ofizio hortan ipar Euskal-Herria buru batetik bertzera kurritu ahal izan zuelakotz, alde guzietako euskal hitzak bilduz eta euskalkieri ohartzuz.

Baionako aduana-artxiboetan bil-arazi ditu Duvoisinin berriak:

1831ko Martxoan *guarda xoil* sartu zen;

1832ko Martxoan *brigadier-orde*,

1834ko Martxoan *brigadier*,

1839ko Abenduan *teniente*

— *Guarda xoil kondu*, iragan zituen:

2 ilabete Ligin; 8 Atarratzen; 2 Lasan;

— *Brigadier-orde kondu*.

8 ilabete Heletan; batto Baigorri; 4 Arrangoitzen; 11 Senperen;

— *Brigadier kondu*.

6 ilabete Oletan; 6 Saran; 4 Serresen; 10 berriz Oletan; 9 Latsian; 22 Bidarrain; 5 Harnabalen; 13 Ahatsan eta Kanbon zelarik izendatu zuketan *teniente*

Ikusten duzuen bezala, urte hetan ez zituzten guardak mutxitzerat uzten lekuaren gainean; gehienentzat aldaira horiek ez bide ziren atsegin-garriak; Duvoisinek aldiz ez zituen hastio, bere hiztegi lanean laguntzen zutelakotz.

## Xaho eta Duvoisin

Duvoisin eta Xaho, biak euskalzaleak ziren. Biek euskal hiztegi baten beharra ulertzen zuten, ba eta biek lan horri emaiten zioten beren kar guzia. Jakin nahiz bakotzak, nola bertzeak zeraman bere saila, elgarren

ezagutzak egin zituzten. Hastapen hartan adixkidetu ziren, bainan laster hoztu ere, politika eta erlisione gainean ezin elgar adituz. Egia erran, hiztegi-laneko, Xahok nahiko baitzuen obra bakar bat egin zezaten, baltsan, batek ala bertzeak bildu hitzez baliatuz, xede hori ere Duvoisinek ez zuen on-hartu, eta alde bat elgarretarik urrundu ziren.

1848an Xaho arras barna sartua zen politikan eta bazoan herriz herri, merkatuz merkatu bere ezkertiar ametsen hedatzen. Orduan Duvoisin Heletan zagon, oraino teniente izaki; eta huna Hiriart-Urrutyk kondatzen daukun gertakaria.

Merkatu eguna zen Heletan: arratsaldea. Plaza guzia jendez bete zelarik, hor heldu zaizkie, tipust-tapastean, bizpahiru jaun... dena harro eta larderia: hau zela, hura zela, ... bazter guziak errautsi gogo izan bali-tuzte bezala. Gorenik mintzo zena zen Xaho deitu gizon buru bero, harrabots egile handi bat. Alki baten gainera igan eta, handik zer nahi bazerasan. Legeko liburuak, eta bereziki larre eta oihanen zedarriez mintzo direnak, nahi zituen purrustaka eta erre.

Jende guzia hari so, harritua. Guarda aintzindaria ere han, ixil-ixila, bainan hoberenak golkoan.

Azkenean, ezin gehiago jasanez jauntto haren ahapaldiak, zer egiten du? Biltzen zenbait mutiko gazte. Bi jauziz han ziren oro, jaun arrotz heien inguruan: kantuz eta irrintzinaka plaza guzia inarrosi zuten. Baia eta Xahok lekuak hustu, bere lagunekin.

Ez da erraiteko baizik Duvoisin eta Xaho ez zirela elgarrekin uzta-tzekoak.

Xaho halere ez zitzaion aihertu eta, arartekoz, berriz ere entseatu zen haren biltzerat elgarrekilako hiztegi baten osatzeko. Kapitain berria (1852) ez zen berehartarik kantitzen.

## Duvoisinin jiteaz

Kapitaina tematsua zen eta frango bihurria. Erran dugu, Larresoron ez zutela luzaz erakaslek mana-errexka kausitu. Ez omen zen etxekoekin ere biziki pairutsu: laketago zuen bakarrrik egoitea bere liburu eta pape-ekin familian baino, iduri eta lana zitzaiola munduko gauzarik sailduena eta beraz baliosena. Bakotzak bere gustu!



## Hiztegi-soilas

Jon Bilbaok eta bereziki Haristoyek ederki eta nasaiki ezaguturazi dauzkute Duvoisinen lanak.

Haren euskal hiztegiez zenbait xehetasun bakar, doi-doia.

1971ko *Gure Herria* aldizkarian 188 orrialdetik haste, irakur ditazke Daranatz zenaren argitasun batzu gai hortaz. Salatzen dauku dokumentu batean «British Museum» delakoan nola kausitzen den Kapitainaren Hiztegi *frantses-euskara* hiru liburutan banatua, *Oiergi* hitzarekin bukatzen delarik: ez da beraz osoa, bost-pa-sei letra eskas dituelarik.

*Euskara-frantsesa* aldiz Duvoisinek utzia zuen fitxetan: 12.000 fitxa eta Daranatzek bere eskuz kopiaitu zituen 60.000 lerrotan, kopia hori, dionaz, Azkueri utzi zion 18 hilabetez, balia ahal zezan bere hiztegi handiaren onetan.

Zenbatetaraino Azkuek baliatu duen eta nola, on litake menturaz jakitea Manuel de la Sotak Daranatzek kopia eskuratu baitu, Azkueren lanarekin konparatu ahal izan du. Ohartu da hitz asko baztertu dituela gure Bizkaitarrak: ulertzeko litzateke zergatik: bertzalde han-hemenka zenbait gaizki irakurtuak izan dira; eta itzulpen frantsesa *ez beti ongi* hego aldeko erdaralat *aldatua* izanez, gertatzen da erdara hori frantsesera bihurtuz Duvoisinen lana bietan funditua baitago.

Uste dugu Retana hiztegiaren huts horiek beteko direla eta makurrak zuzenduko.

Egungo aski, eta gaizki erranak barkatu!

## ETIENNE LAPEYRE

(1840-1893)

Lerro hauetan nahi nituzke idazle hortaz han hemenka erran izan diren berriak zuzendu eta osatu, hein batean bederen.

Hasteko, zenbaitek Xalbat Arotzarena kalonjearen nota batzuetarik atera dute *Credo* liburua Martin Lapeyre, Aita Damien beneditanoaren obra zela. Baina liburua berak argitzen gaitu, «Et. Lapeyre aphezak egina» dakarkelarik.

Martin hori Etienne kalonjearen anaia zen, 1842ko abenduaren 4ean sortua: 1868ko ekainaren 6ean apeztua. Hazparneko misionestetan sartua behin eta gero Belokeko komentu ideki berrian. Hil zen 1894ko apirilaren 3an. Harenak dira bi liburuxka segurik: *Jesu Kristo gure erregea da* (16 plama), Baiona, 1889 eta *Kantika ezpiritualak*, (xuberotarrentzat) 16 plama, Baiona, 1892.

Etienne Lapeyre, Azkainen sortua zen 1840eko apirilaren 30ean, Baionan apeztua 1863ko maiatzaren 30ean. Uztaritzeko bikario izendatua 1864eko otsailaren 16ean, ez dakidalarik zer bilakatu zen lehen meztatik ordu arte. Ilabete zenbaiten buruan Baionako «Saint Leon» ikastegian filosofi erakasle eman zuten. 1871ko hazilaren 27an Bidarteko erretoe ezarri zuten.

1889an, osagarri eskasez, kargu hori utzi zuen. Jaufre jaun apezpi-kuak «benefiziado» alki bat eskaini zion. Lapeyrek ez zuen on-hartu. Orduan ohorezko kalonje egin zuten eta «Camp-de-Prats» xahartegiko omonier, Hiriburuko mugan.

Erran dute etxe hortan bizi zela, baina ez da hala. Auzo auzoko «Ricur» izeneko haurtegi zagon.

Bertzalde «Conférences ecclésiastiques» direlakoan buru eman zuten diosesa guziko, hortik beretik ageri baita jakintsun handi zaukatela apezpikutegian.

Oharturik bere mendean «Euskaldunen fedea ari zela flakutzen», iduritu zitzaion gaitz horren iturria erlisioneari buruzko argi-eskasa zela. Gogoan hartu zuen girixtino erakaspén nausiak hiru liburuan xeheki azal-tzea. Batto baizik ez zuen argitaratu ahal ukan. Hura da *Credo edo Sinhesten dena esplikatu* (Baiona, 1891), 438 plama dauzkan liburu gotor bat.

Lau zati baditu:

— Lehenean, erlisione eta fedea aipatuak dira, 8 kapitulutan;



— Bigarreanean, Jainkoa eta Kreazonea, 13 kapitulutan;  
 — Hirugarreanean, Jesu Kristo munduaren salbatzailea 24 kapitulu-  
 tan;

— Laugarreanean, *Credko* bertze artikuluak oro, 15 kapituluetan.

Beraz orotarat 60 kapitulu, bortz orrialdetako aintzinsolas batekin. Funtsezko lana, Elizako Aiten eta teologoen erakaspenetarik aterai, gehienentzat irakur-errex, egun guzietako euskara bakun batean urtua.

Aitortuko dut, 23 urtetan liburu hori lehen aldikotz eskuratu nuela-rik, ez zitzadala hanbat laketu, idorskoa aurkitu nuen, eskola liburu batean parekoa; ene inguruko apezgaiek ere esker guti zioten, latin eta frantses kutsu hanixko hautemaiten ziotelakotz, ala hitzetan, ala joskeran.

Egungo egunean, estakuruak estakurutei, ezagutzen diot, erakaspe-  
 nez bertzalde, jainu, indar, argi eta bizi. Atsegin nuke, oraiko idazleak eus-  
 kara mota hortarat hurbil balite.

Bainan Etienne Lapeyre obra hortaz bertzerik utzi dauku. Bi pre-  
 diku, literatura kondairetan orain arte aipatu gabeak.

Hazparden kalbarioa Arroltzemendi kaskoan eraiki zutenean (1890),  
 Aita Arbelbide misionesten buruzagiak bere ingururat bildu zituen ordu-  
 ko euskaldun predikari hoberenak. Abbadie, Bastres, Belsaguy, Choribit,  
 Lapeyre, Zanzinena, Parropiako elizan, aste batez behar zuten Jesusen  
 Pasioneaz mintzatu. Arbelbidek bakotxari mugatu zion gaia, ez zadin izan  
 berriz haste eta nahasmendurik.

Etienne Lapeyre kalonjeari bederatzi predikutarik bi lehenbizikoak  
 tokatu zitzaizkon. *Jesus Olibetako baratzean* eta *Jesus Judasez saldua*. *Hazpar-  
 neko kalbarioa* izeneko liburuan (Baiona 1892) bi hitzaldi horiek irakur  
 ditazke 17garren orrialdetik 69garrenerat. Artoski apailatuak dira, liburu  
 sainduetarik eta aintzinagoko hizlari aho ederrenetarik haziak, orduko  
 Hazpandarren menerat molde suhar hunkigarriz eskainiak.

Euskal liberaturak ez lituzke ahantzi behar.

Orai xuxent dezagun Etienne Lapeyre horren heriotzeaz ene faltaz  
 hedatu den makur bat. Arantzazurat igorri karta batean ezarri omen dut  
 ez nakiela noiz hil zen, bainan iduri zitzaitala 1930ean itzali zatekela.  
 Harritu naiz Villasanteren Literaturan urtegarren hori irakurtu dutanean,  
 bainakien Etienne Lapeyre XIX garren mendean zendu zela. Berriz  
 inkesta bat egin nuen, eta Harismendy jaun kalonjeak *Bulletin Religieux*-  
 aren bilduma osoa baitzuen, hartan atxeman nuen artikulu bat hemen  
 ezarri ditudan xehetasun askorekin eta Arantzazurat erdaraz (frantsesez)  
 hitzez-hitz bidali. Zorigaitzez Villasanteren literaturatik zenbaitek bildu  
 dute urtegarren makurra, ene bermegoarekin! Penagarria da.

Dugun erran argi eta garbi Etienne Lapeyre kalonjea «Recur» etxean  
 hil zela (1893) hemezortzi ehun eta laurogei-ta-hamahiruko martxoaren  
 23an, bere 53 urteak bete gabe, 52 urte, 10 ilabete eta 23 egun zituelarik.

Ixtripuz hil zen. Errumatismek josia, beso-ukaldi batez nahi gabeta-  
 rik gauaz bere lan-mahaineko krisailua uzkaile zuen eta, sua hedaturik,  
 garrek begitarerat jauzi zitzaizkon, itsuski erretzen zutela. Haren oihue-  
 tarat etxeok etorri ziren eta sua berehala iraungi, garrek ez zioten soi-  
 nekorik hunkitu ere; bainan aurpegiko erredurak, barna sarturik, ez zion  
 barkatu. Laster itzali zen.

Damurik! Adin hartan iduri zait egin zezakela oraino euskarazko lan  
 onik.



## MICHEL ELISSAMBURU

(Frère Innocentius, 1826-1895)

Orok J.-B. Elissamburu ezagutzen dute, kantu pollit batzuen egilea. Bainan Elissamburu-tarretan ez da izan eskualdun izar hakarra. Bertze biga segurik aipa ditazke, bat guarda, bertzea frailea. Denen arbaso xaharra, Baigorriarra.

\* \* \*

Egun bi hitz nahi ginituzke hemen ezarri Michel Elissamburu, ez balitz ere erakusteko baizik, eskolemaile zonbaitek ez dutela eskuara has-tio izan.

Michel hori, Jean-Baptiste famatuaren kusia zen, aita guarda baten semea, Heletan sortua, 1826ean. Herri hortan bataiatu eta kominiatua, Hiribururat joan zen geroxago, aitak harat ukan zuelarik izendazione berria.

Salle-tar fraile erakaslek bazuten orduan Baionan ikastegi bat, orai *Dames de France* deitu magasin haundiaren lekuan. Gure Michel horrat bazoan egun guzietz, eta eskolemailek laster hauteman zuten mutiko ernea zela, bai adimenduz, bai borondatez.

Aitamek nahiko zuten goragoko eskola batzuetara pusatu, bainan frailetzeko deia aditua zuen Michelek, eta hemezortzi urthetan, 1844eko uztailaren 15ean Tolosako fraile-gaien moldaetxerat egin zuen sartzea. Urthe egin zuen othoitz-lanetan, eta gero eginarazi ziozkaten errient-eskolak. Etsaminak ederki pusatu-eta, Akizerat igorri zuten eskol-emaile, han egin baitzituen bere lehen irakasle-urhatsak.

Orduan Frailek ikastegi bat bazuten jadanik Hazparnen. Memento-koburuzagia ona zen eta estimatua, bainan ez zakiene eskuara izpirik ere, eta gogoan hartua zuen ez zitakela ikas. Etsian etsi, jendekilakoa mintzai-re-eskasez ez aski ontsa egin beldurrez, fraile-nausiak galde egin zuen bertze norapeit igor zezaten, eta eskualdun bat eman haren ordain.

Michel Elissamburuk fraile kondu *Frère Innocentius* hartu zuen izena eta hemendik goiti horrela deituko dugu.

Beraz ez zen guti harritu Frère Innocentius 1848an, bere buruzagiek Hazparnerat izendatu zutelarik, 22 urthetan, ikastegiaren kudeatzeko.

\* \* \*

Hazparnen 47 urthe egon beharra zen. Luzaz iraun du herri hortan haren orhoitzapenak.

Erakasle jarraikia zen bere lanari. Goizean goizik jeikitzen zen, lauak eta erdietan. Othoitz egile gaitza zen, eta bertzalde liburu miatzale kartua. Jakintsuna zelako fama ere bazuen.

Haren larderia aipatzen zuten bazterretan, eta gehienek zioten izigarrigogorra zela: haurrak garrakzi bazerabilzkan, goien-barren so eginez, laidoka, pasoka, azote ukaldika. Ez batere gaixtakeriaz, bainan iduri baitzitzaion gizonaren naturaleza ez ditakela hez bortxaka baizik.

Gaixo naturaleza ezinago partida zuen, ez bakarrik bertzetan (hori aise da), bainan bere baithan: bere burua haurrak baino biziki idorkiagozehatzen eta gaztigatzen zuen; lizifrinaz bere ganberan azotaten zituen bere soin-sorbaldak, eta burdinezko gerrikoa bazeraman larruarras.

Orduko sainduen manerak ziren horiek oro, orai nekez onhar ginezakzenak.

Eta denboran berean Frère Innocentius dena bihotz zen, dena maina erientzat, dena emaitza behardunentzat, eta dena othoitz denentzat.

Erraiten ohi omen zuen: «gaztigatzen ez dakienak ez daki zer den maitatzea: amodioz gaztiga ditzagun maitagarriago egin nahi ditugun adixkideak».

«Segur, zion laborari batek, gaztena ona da, bainan karloa sistaduna!»

Eskuaraz bortz liburu ager-arazi zituen: *Framazonak* (1889), *Lehenagoko eskualdunak zer ziren* (1889), *Frantziako bigarren eta hirugarren errepublikaren ixtoria bitxia* (1891), *Joanes Batista dohatsuaren bizia* (1891) eta *Sakelako liburuxka* (1892), hau elizako liburu ttipi bat.

Frère Elissamburuk egun guzietako eskuara zerabilan; ez zuen hanbat aphaintzen; ahotik bezala ateratzen zitzaion lumatik, bero-beroa, bere hats eta elder-ziliportekin. Grazia guti zuen bainan zer indarra!

Gaztigatzeko karrari behar balinbazaio behatu amodioaren negur-tzeko, hitz dautzuet maitexko zituzkela framazonak eta errepublikanoak: zangopean derabilzka, lehertzen ditu, hil-eta ere trufatzen eta musikatzen, erkaitza eta mesprexua merke...

Uste omen zuen alde batetik eskualdunak urruntzen zituela gisa hortan etsai lanjerosen ganik; eta etsaien beren onetan ari zela, hein batean heien gaizkiak marrusketatuz karrakatuz eta ahulduz.



Eskualdun xaharren berriak ez dira hain bizi eta bolboratsu; bainan ez daukute den gutienik aintzineko mendetarat itzultzeko tirriarik phizten.

Joanes Batista Salakoa polliki aipatzen dauku, bainan ez dakit nundik atera duen eskualdun odoleko zela!

Liburuez bertzalde Frère Innocentiusek bertsu batzu egin zituen, ez bakarrik bere elizako liburuan ezarri kantikak, bainan bertze zombait ere. Hain xuxen eskuratu zaizku hiru kantu beren musikarekin «Herrian» ager-araziko ditugunak. Hiruak 1891koak dira: *Toxa*, *Zintha gorria* eta *Ameriketara*.

Frère Innocentius 1895ean hil zen. Erran dute «Eskualdunear» agertu zela artikulu bat errepublikano batek egin, hitz buru hunekin: «Bat gutiago». Ez da batere egia. Hiriart Urrutik ederki goretsi zuen *Eskualduna* astekarian, eta haren obretan ager-araziko baitugu haren artikulu ederra, aski segurik ageriko da.

Bertze kazeta baten ezarri zutenetz deus holakorik, ez dakigu: ez litake mirakulu; ez zuten orduan kazetek nehoen errespeturik.

## «ATHEKA GAITZEKO OIHARZUNAK»

edo «GANICH DE MACAYE» egiazkoaren ixtorioa

G.— Eskuarazko literaturan «roman» edo irakurgaiak badirela bada-  
kit, hala nola Domingo Aguirren *Garoa* eta *Kresala*, Barbieren *Piarres*, Aita  
Lhanden *Yolanda*, Elisambururen *Piarres Adame*, Azkueren *Ardi galdua*,  
Echaideren *Joanek joan* eta bertze asko. Nahi nuke jakin zoin den zaha-  
rena?

E.R.R.— Zaharrena: *Atheka gaitzeko oiharzunak*.

G.— Hau izen bitxia! «*Atheka gaitzeko oiharzunak*!» Nungoa da «*Athe-  
ka gaitz*» hori?

E.R.R.— Ez baitakizu nun den *Atheka gaitza*? Alo! Itsasun ba ahal  
dakizu badela «Le pas de Roland» arrokatarte famatu bat? Erraiten dute  
Roland gerlariak, hortik pasatzeko, zilatu zuela pausu hori. Eskuaraz  
pausu horrek «*Atheka gaitza*» du izana. Ez dakit Roland behinere iragan  
denetz Itsasun gaindi. Bainan xoko hortan kontrabandixtek izan zituzten  
beren balentriak karlisten gerla-denboran, eta hetaz da hain xuxen mintzo  
aipu dugun liburua.

G.— Nork egin zuen liburu hori?

E.R.R.— Bazen Baionan, duela ehun urte, notari kostatar bat,  
Doniandarra: Jean Baptiste Dasconaguerre. Egun batez, heldu zaio bule-  
gorat Makeako gizon zahar bat, lehen aberats izana, eta orai zorrez ithoa:  
hartzedunen ixil-arazteko, bere lurren saltzerat doa eta kontseilu galdez  
jina da notariaren ganat. Izena du Ganix Antxordoki eta kondatzen dioz-  
ka bere biziko gora-beherak: nola zuen gaztean fortuna zerbait egin, bai-  
nan ere nola zitzaizkon irabaziak urtu, jende askori diru presta-emanez,  
hainitzek ez baitzioten pilik ere turnatu. Alta, batzuentzat, muga hortan,  
etzuen bakarrik dirua irriskatu, bainan berdin libertatea eta bizia. Antxor-  
doki ari da xehe-xehea bere ixtorio xaharren kondatzen, eta Dasconague-  
rrek hain ederrak, hain hunkigarriak atxemaiten ditu, non asmu bat heldu  
baitzaio gogorat: ixtorio hoitaz liburua bat eginen du, eta Ganixentzat iza-  
nen da, liburuak emanen duen irabazi guzia: gisa hortan, ez da beharba-  
da bortxatua izanen bere ontasun guzien saltzerat...

G.— Bihotz oneko gizona zitaken Dasconaguerre hori. Bainan nola  
egin zuen bere liburua? Eta ongi saldu zena?

E.R.R.— Frantsesez izkiriatu zuen zarra-zarra hamalau kapitulu  
zauzkan lan bat. Bainan, lege-paperetan usatuagoa baitzen literatura



hutsean baino, hiruzpalau adixkideri galde egin zioten laguntza: hemen labur, han emenda, lerro batzu azkart, bertze batzu legunt, ororen artean obra panpinatu zioten frango polliki.

Titulua eman zioten «Les échos du Pas de Roland» eta irakurleen tirriatzeko, ezarri zituzten hitz hauk tituluaren ondotik: «traduit du basque», hots, liburua eskuaratik izen zela frantseserat itzulia.

Eta huna liburuaren funtsa.

Mila zortzi ehun ta hoita hamairuan gira. Espainiako karlisten lehen gerla da. Mugan bada mogimendu. Diru, arma, jende, zer ez da pasatzeko? Segur, kontrabandixtak ez dira lanik gabe, fidatzen ahal zaieten ber. Heien buruzagietan bada batto, orok laudatzen dutena: Makeako Ganix Antxordoki.

Fama gaitza du eskualde guzian, abila delakotz, bainan denbora berean bere buruaren jabe, dena bihotz eta dena zuhurtzia. Guardekilako gataska baten ondotik, berrikitan Asisetarat (Auzitegi Nausirat) jaukitu dute, armak eskuan atxemanik. Bainan tribunalean Saint-Blancard guarden aintzindariak kondatzen du Atheka gaitzeko errekan zer gertatu den: «Jaunak, kontrabandixtak menditik jaustean, nahi izan ditugu arrestatu. «Halte» oihu guk egina gatik, hek ez ziren gelditzen. Nik Ganixi tiro egin diot eta itsuski kolpaturik erori da. Orduan, haren lagunek, errabiatuak, nahi izan nute garbitu. Beharrik kolpatua xutitu da, bere gerizan hartu nu, erranez: «hau ez hunki», eta harritzeko larderia batekin salbatu nu heien ukaldietarik. Uste dut denek orhoitu behar dugula gizontasun hortaz!» Eta jukek Ganix osoki xuritu zuten.

Holako eskualdun leialari nor nahi fida zitakeen: haren etxea jauregi bilakatu zen, espainol aitoren semez eta kargudunez noiz nahi bethea. Zonbait aldiz galde egiten zioten ez othe zuenez diruketa zerbait mugaz bertze alderat pasatzen ahal. Ez zuen ezetzik, eta berdin biziaren irriskuan eginen zuen zerbitzua. Liburuko bigarren kapituluak kondatua da, nola, oraiko ez dakit zonbat miliun pasatu behar zituelarik, buhamiek Arruntzan jauzi egin zioten sosaz jabetzeko, eta nola garhaitu zituen.

Ondoko kapituluak salatzen dauku Ganixek bere fede kartsuan landaturik zaukala bere zuzentasuna.

Gero hasten da Beira-ko printzesaren ixtorioa Saltzbourg-etik ethorria da Belzunzeko jauregirat: horko jaun bizkondeak eman dio ostatu; bainan Espainian sartu behar du andere gaixoak, han don Karlos bere senharra aurkitu beharrez, urrundik eta arartekotz berriki ezkondu baitira. Bainan manua hedatua da, ez dezatela pasatzerat utz, eta berrogoi-tahamar mila libera hitzemanak dira printzesa arrestatuko duenarentzat.

Orduan Ganixi hel egiten diote, eta Manuel adixkidea lagun, Makearrak bere gain hartzen du printzesaren iragan-araztea. Zaldiz, Heletan barna, kasu eginez, ethortzen dira Ganixen etxerat. Eliza-besta da herrian, eta usaiako libertimenduak egiten dituzte alegeraki, nahiz bazterrak soldadoz beteak diren. Bet-betan, herriko-mutilak abisu bat publikatzen du plaza-aren erdian, baizik-eta don Karlosen emaztea ingurumenetan kausitzen dela, eta sari ederra ukanen duela haren arrestatzaileak. Hoinbertze soldado eta guarda atzarriren artetik ihes egiteko, beharko da jeinu!

Konduaren gaineko, altxatzen da ikaragarriko galerna bat: ximista, ihurtzuri, aize-zirimola, euri eta uholde, aro horrekin ez ditake asma ere ibai eta mendien gaindi eskapatzerik.

Anartean soldadoek preparatzen dute Ganixen etxearen setioa. Bainan printzesa airatu da etxe hortarik eta, emazte bat hil baita han nunbait, haren ahukuaz baliatuko dira anderearen laguntzeko, doluzko kopa batek gorderik.

Gero, Luhosotik harat, ur-handiaren iragaiteak emanen ditu lanak, den zubi bakarra ongi zaindua ditakelakotz.

Bainan penak ez dira fini. Segur Makean soldadoek setiatu dute Ganixen etxea, eta miatu ere barne guziak gelaz-gela, deusik, ez nehor atxeman gabe: eta ez dira guti irringarri aintzindari gaizoak. Alde hortarik ihes-egilek ez dute zeren kexa.

Bainan, Atheka gaitzetik mendian goiti, printzesak zer ez du sofritzeko: patarrak xut dira eta lerrakor. Mementoka ez du gehiago kalipurik. Ganixek eta Manuelek behar dute bizkarrean karreatu paketa bezala. Gaixo anderea erdi etsitua da, eta mugari hurbil-hurbila, horra berriz uste gabeko lanjerra: bi guarda haren bilha ibilki. Hatsa atxikiz, hiru ihes-egilek uzten dituzte arrasetik pasatzen, eta horra, azkenean, mugako errekañoa iragana. Printzesa mugaz bertzaldean da eta, handik frango laster, Amayureko tropa ederren erdian, alegantziazirik handienez aurkitzen ahalko du don Karlos bere senhar famatua.

Finitzean, Dasconaguerrek othoizten ditu irakurleak, ez dezaten miserian utz Antxordoki zaharra.

Horra bada laburzki liburuaren funtsa.

G.— Ongi saldu zena «Les échos du Pas de Roland» delako liburua?

E.R.R.— Ezin hobeki! Bixkotxa bezala. Izan zituen bortz edizioe gutienetik. Dasconaguerrek goresmenak izan zituen ehunka. Hemezortzi apezpikuk onetsi zuten haren obra bertsuak igorri ziozkaten Oxaldek eta bertze askok... Haatik irakurle hainitzek izkiriatzen zioten: «Diozu, Jauna, eskuaratik itzulia dela liburu eder hori. Zertako ez daukuzu bada



eskuarazko liburua ere ageraratzen?» Dasconaguerre gaizoak ez zuen aitortu nahi, ez zela eskuarazko libururik, eta hitzeman zuen lehen bai lehen atherako zela.

Berak eskuara bazakien egun guzietako zurruburuaren aipatzeko aski. Bainan ez zuen eskuaraz izkiriatzeko usaiarik are gutiago mintzaira hortan liburu baten egiteko jeinurik. Xerka ibili zen norik itzuliko zion frantsesa eskuaralari. Lehenik othoiztu zuen Larreguy Senpereko jaun erretor jakintsuna. Sortzez ziburutarra baitzen, haren eskuarak bazukeen Dasconaguerrenaren eite. Lotu zen lanari, bainan laster nekatu eta biderditan utzi. Orduan Larresoron mutiko gazte bat, Guibert deitzen zena, atxemanik, proposatu zion lan bera. Guibertek berritik hasi zuen itzulpena, eta frango urrun ereman. Zorigaitzez, haren mintzaira ez zen kostatarra adixkidek erran zioten notariari itzulpen hori ez zedan argitarat eman. Itsas-hegiko sankristau batek onhartu zuen entsegu berri baten egitea. Bainan ez zuen kausitu. Azkenean Vinson eskualzale famatuari hel egin zion eta hunek lagun hartu zuen Bardozeko erretor zen Martin Hiribarren apezka. Notaria eta bertze biak bederatziz egunez ari izanen ziren elgarrekin, eta xutik ezarri itzulpena.

«Atheke gaitzeko oiharzunak» eman zioten titulua, eta gisa hortan Dasconaguerrek atxiki zuen bere hitza.

G.— Zure iduriko liburu berri horrek zer balio du?

E.R.R.— Aitortuko dautzut biziki laket zaitala eta, Hiribarreni esker, eskual usain berezi bat baduela, nahiz frantsesari jarraitzen den frango urbildik.

G.— Ongi saldu zena?

E.R.R.— Lehenik jalgi zituzten bi mila eta ehun liburu. Geroxago, Ameriketako kazeta batek bigarren aldikotz ager-arazi zuen, bai eta hirugarren aldikotz mugaz haindiko aldizkari eskualdun batek.

Ganix Antxordokiren fama hainbertzetaraino hedatu zen non «Makeako Ganix» edo erdaraz «Ganix de Macaye» eskualdun garbiaren eredutzat eta modelatzat hartua izan baitzen.

Geroxago, trufaz, teatrolariek «Ganix de Macaye» irri-egingarri bat pentsatu zuten, frantses bitxi bat zerabilana.

Bainan orok atxiki behar dugu gogoan, egiazkoak ez zuela zanpantzar-aire izpirik eta ezin ederkiago presentatu daukutela Atheke gaitzeko oiharzunetan.

## J-B. ETCHEBERRY

almanakaren aita (1806-1898)

JANBATTIT ETCHEBERRY Michel Garicoïts sainduaren lehen kusia zen. Ibarre-Ordokian sortu zen 1806eko abendoaren bian. Lau urtetan Ibarlako ahaide batzuek, haurrik ez izanez, hartu zuten semetzat eta beren etxean alxatu.

Hamabi urtetan Janbattit artzain da. Osaba eritzen da eta hiletsian erraiten dio haurrari:

— Apeztu nahi baduk, ordenuz uzten daiat eskolen egitekoa.

— Jainkoaren deia dateke, ihardesten du Janbattitek, entseatuko niz.

Eskolak hasten ditu Donibane-Garazin; segitzen Kanbon, Hiriart jaunaren etxean; bigarren mailekoak Larresoron; filosofia Betharramen; teologia Baionan, itxuren arabera.

Apez ordenatu izan zen 1833an eta Heletarat bikario izendatua. Handik lau urteren buruan, Hazparneko misionest eman zuten eta zazpi urtez parropiatz parropi ibili zen predikatzen eta kofesatzen.

1843an Uztaritzeke serora beltzen komentuan omonier sartu zen, berrogoi ta hamabortz urte atxiki baitzuen ofizioa.

Saindu fama zuen bazter guzietan. Eskualde guzietarik heldu zitzaizkon jendeak edo letrak, diru-galdez, kontseilu-galdez, othoitz-galdez.

Egia erran, saindu baten manerak kausitzen ziozkaten: kukua bezain meharra, barur hainitzen seinale; ororekin goxo eta pazientziaz bete; elizako gizon kartsua; hurbil eta mintza-errega; jite alegera.

Bertsu ontzalea zen, ez izanik ere olerkari (poeta) handia. Adixkideri konplimendu baten egiteko (hala nola Dassance kalonjeari) edo bertze baizu pollikiño kitzikatu beharrez, moldatzen zituen kantuak. Pentsatzen duzuen bezala, ukaiten zituen ordainak, hala nola meza denboran galtzak lurrerat erori zitzaizkon aldi hartan.

Bertzerik izkiriatu zuen omonier onak. Gure iduriko, haren liburu hoberena izan da: *Testament zaharreo eta berrico istoria*; 284 plama bazituen. Agertu zen behin 1874ean, gero 1877an, arrakesta handia ukan baitzuen, arrazoinekin.

1882an jalgi zuen 36 plametako liburuxka bat bere kusi famatuaz: *Miguel Garicoitz aphezaren bizitza*. Hain pollita da, non Narbaitz jaun kalonjeak berriz ager-arazi baitu *Gure herria* deitu aldizkarian.





Nahiz ez dituen sinatuak, badakigu bertze bi liburu bederen haren eskutik ateratu direla: 1863an, *Guiristinoa indulgencien gainean arguitua* (54 plama); eta 1877an, *Maiatzeko hilabete chumea* (160 plama), arras irakurgoxoa.

Halere hartaz mintzatzen zirenak haren *Almanakaz* ziren orhoitue-nik. «Almanakaren aita» erraiten zioten.

Badut entzutea, 1823an hil zen Ulibarri harotz bizkaitar eskualzaleak almanaka baten entsegua egin zuela, bainan ez zuen haren urtekariak iraupenik izan eta bertzalde ez zen hunaindirat hedatu. Ez dugu haren hatzik ere nehun aurkitu.

Beraz hemen gaidikoentzat bederen gertakari berria izan zen, 1848an eskuarazko almanakaren agertzea. Izena zuen: *Eskualdun laborari- adiskidea*. J.B. Etcheberri apezak bera hil artio irauarazi zuen, hogoi-hogoitau plamarekin. Gero ere agerkari hori ateratu zen, 1914eko gerlaradino. Orduan Etchepare bi anaiek apailatzen zuten, polliki emendaturik. Aintzinttoan Martin Landerretzek artatu zuen.

Bainan agertu da anartean mugaz hunaindian bertze almanakarik. Duvoisin kapitainak ateratu zuen urtekari enperadoretar bat (1884, 1885, 1886, 1887), eta agerkari hori bilakatu zen 1888tik aintzina *Eskualdun gazetaren almanaka*. Gorriek (Berdoly eta Vinson sustatzaile) jalgi zuten bere-na: *Almanaka berria* (1879, 1880, 1881, 1881 - 1884, 1885 - 1888, 1889, 1890). Xiberotarrek ere batto muntatu zuten, Iribarne Zalgizeko erretora buru: *Almanak edo Armanak uskara* (1887, 1888, 1889, 1891).

1914-eko gerlatik landa *Eskualdunak* jalgi zuen bere *Almanaka* eta «Gure herria»k *Gure Almanaka*; 1925etik hunat biek bat egin dute, orok dakizuen bezala.

Zer nahi den, orhoitu behar dugu J.B. Etcheberry Ibartarra izan dela hemen orai artio, ez bakarrik *Almanaka eskuara*-ren lehen egilea, bainan iraunkorrena. Harek 49 Almanaka atera zituen. Guk ateratzen dugun 1970eko hau ez da gure 25garrena baizik. Eta oraino ez dugu bakarrik muntatzen. Salatu bebar dugu gure laguntzalerik nasaienak —izenak egi-ten ote duen!— J.B. Etcheberry duela izena, Ibartar famatuak bezal-bezala. Hau Dohoztiritarra dugu, Baionako Ospitaleko jaun omonier maitagarria, eskuarazko liburubalios andana baten egilea. Jainko maiteak eman dezola bere izen-kide zenari bezanbat bizi, Eskuararen onetan.

## JEAN HIRIART-URRUTY

(1859-1915)

Eskuara maitatu, artatu eta ontsa erabili dutenen artean, biziki gizon guti da Jean HIRIART-URRUTY kalonje zenaren heinerat izan denik.

Aldeko ala etsai, ezagutu zuten gehienek aitor zuten. Eskualdunen bihotzetan, eskual-idazle kondu segurik, fama handia hartze zukeela. Bainan, dakigula, nehork ez du orainokoan hanbat aipatu eta goretsi, bide-nabarka baizik.

Huts bat bada hor, eta ez ttipia.

Huts horren betetzen hasteko, 1944ean *Zer eta zer* deitu liburuxka bat jalgi ginuen, 55 plamatakoa, geroxago handiagoko zerbait egitekotan.

Hitza hitz, nehoiz baino hobe baita noizbait, deliberatzen gira gure agintzaren obratzerat.

### Hiriart-Urrutyren bizitzea

Hazparne, Abitueneke apez bat badugu adixkide eta lankide, jaun kalonje zenaren ilobasoa, haren izen-deitura ber-berak dituen: Jean Hiriart-Urruty. Hazparneko Misionesten Buruzagi eta HERRIA astekarian idazle-nagusi izana. Bere osaba-ttiki hura etxekoen erranetarik eta paper zaharretarik ezagutzen zuelakotz, hari zombait lerro galde egin giniozkan, duela 27 urte. Eman zauzkun xehetasunak *Zer eta zer* delakoan hitzez-hitz ager-arazi ginituen (pp. 6-9). Hemen ere betaz baliatuko gira, bainan geroztik bildu asko argitasunez emendatuko ditugu.

1859ko urtean, urtarrilaren 30an, Hazparden, Hazketa-Joanes-ederraenean, Patin Hiriart-Urruty, Joanes-ederraeneko berekoak eta Haurra-Mari Althéguy Larresoroarrak ukan zituzten bi seme betan. Biharamunean berean batai-arazi zituzten. Bati Jean eman zioten izena, bertzeari Dominique. Gure bi haurrek beren lehen ezagutzak, erran baditake, eskualdun kartsu batekin egin zituzten.

Gratien Adéma, orduan Hazparden bikari zenak bataiatu zituen: Jean Hiriart-Urruty, aitaren anaia izan



zuten aitaxi, eta Dominica Althéguy, amaren ama, amatxi.

Mutiko horien aitzinean bertze bat bazen Joanes-ederraenean sortua: Joseph. Horien ondotik, bertze lau jin ziren: Martin, Xemartin, Betiri eta Janpiarre.

Zapetaintzatik bizi ziren Joanes-ederraenean, laborantzaz zerbait poxirekin. Laborantzako gustu handia zuen gure Jeanek. Bainan bazuen bertze ametsik: Jainkoaren deia entzunik, apez egiteari eman zuen errotik gogoa. Etxekoak ez ziren batere harritu; bazen jadanik etxe hartarik apez bat jalgia: Uztaritzen bi urte bikari egon ondoan (1850-1852) Urkudoin zen erretor, han 1873raino bizi beharra. Harek ere ez zuen gibel-arazi bere xedetan! Jean ez balinbazen motako lehen apeza izanen, ez zen azkena ere behar: haren anaietarik biek, Josepek eta Martinek, izanen dituzte semeak apez.

Lehenik ibili zen eskolan Hazparnen, fraiden manupean, eta han ezagutu zuen «Frère Innocentius» famatua, Michel Elissamburu «saindu mokor» eskual idazle bizia.

1872ko urriaren 10ean Jean Hiriart-Urruty Larresoroko Semenariotipian sartu zen laugarrenean.

Latinari lotu zen gogotik, eta pentsu dut frantses horrek ere eman zaizkola lanak, etxen eta eskolan ikasiaren gatik baitzuen zerbaiten beharra. Herritar apez bat ere hatxeman zuen Larresoron, *Hazketarra hura ere Diharre jaun apeza, han eskola emaiten ari zena.*

Mutikoa urtetik urtera beti goiti ari izan zen, bere laguneri gero eta gehiago nausituz: 1873ean ukan zituen sari bat eta bortz aipamen: 1874ean, sari bat eta sei aipamen; 1875ean bortz sari eta lau aipamen; 1876ean, zazpi sari eta bi aipamen; 1877ean orotan lehen jalgi zen.

Larresoron bortz urte egon ondoren, Baionako Semenariot handirat joan zen: han ezagutu zuen Abbadie jaun apeza.

Bere eskolen artetik ez zuen haatik ahanzten bere herria, eta segur gogotik heldu zen bakantza-egunen

iragaiterat. Lanean ere artzen zen, aitaren eta anaien laguntzeko.

Zonbait auzo orhoit dira oraino ikusirik behin anaia gazteago batekin iraulden ari, hura itots-emaile, anaia berjaren gibeletik, behiak ez gibeletikoaen gustura johan, eta bi hitz erran aintzinekoari; ba, bainan jaunari gaitzitu baitzitzakon: akulua, abereak eta berja landaren erdian utzirik, lasterka abiatzen da etxera buruz: bertzea ondotik, lasterka hura ere, lur-ukaldika! Ez dakit nola akabatu zen ixtorioa.

Hasteko, ez ziren sekulakotz samurtu: artetan zenbait koska-bulta balinbazituen ere, beti akort egon zen haurride guziekin.

1881 ean, oraino apezgai zelarik, Larresoroko Semenariot izendatua izan zen eskola-emaile.

Zazpigarrenetik hasi zen, eskolier zituelarik: Désiré Etcheverry, Firmin Saurel, Pierre Bidegain, François Carlos, Paul Mothe, Albert Teillery eta Jean Lissar.

1882ko uda hastean, Ducellier Baionako jaun apezpikuak apeztu zuen. Apeztu-eta aintzineko toki berean atxiki zuten, Abbadie jaun kalonjea zaukala buruzagi.

Huna zertan eman dituen Larresoron bere lehenbiziko hogoi-ta bortz apez-urteak.

1882-1883: mutiko handiak eman diozkate zaintzerat;

1883-1884: laugarrena izan zuen bere gain;

1884-1889: laugarrena eta alemana;

1889-1890: hirugarrena eta alemana;

1890-1901: bigarrena eta alemana;

1901-1907: lehena eta alemana.

Artetik erraiteko, ez dakigu batere nola ikasi zuen berak alemana, bertzeri erakusteko. Larresoron ikasle zelarik «mintzairer bizi» gisa espainola hartu zuen: 1876ean eta 1877ean bildu espainol-sariek erakusten dute sail hortan bazuela gustu.

Sancinenak alemanaren erakastea uztean, Abbadie jaun buruzagiak erakasle gazteari galde egin zioten, gostaia-gosta haren ordain eman zadin!



Erakasle ona omen zen Hiriart-Urruty, laketa, ernea, eta haurrak ez ziren harekin eneatzen eskolan. Bi irri ere bazuketen harekin eginik, gogoia bertze nunbait zuelarik, gertatzen baitzitzaizkon artetan zenbait ixtorio aski bitziak: bizkarretikako bere arroparen orde ilobaren galtzak har, eta holako! Zonbat ez dute kondatzen hura ezagutu dutenek!

Ez gauzke, zahartu-eta ere gertatu ohargabekeria hoietarik bat kondatu gabe. Baionan, katedraleko kalonje zelarik, pentsatu zuen etxeko estaietan bizitegiak bata bertzearentzat ez hartzeko, bere atletik kanpoaldean parasol-untzi baten ezartzea. Bainan behin, adixkide batzuek parasol-untzia jautsi zioten beheragoko bizitegirat. Eliza-nausian ofizioa eman-eta, eskalaretan goiti igaitean, ezagutu zuen parasol-untzia eta, auzoen bizitegian sartu zer, federik hoberenean, bere atea zela ustez. Auzoek pentsatu zuten ikusterat heldu zitzaioleta eta hameka agurmagurerekin saluneratu zuten eta jar-arazi. Kalonjeak ez zioten aitortu ohartu gabe etorri zela. Irri gozo batekin berri zonbait kondatu ziozkaten xehe-xehea, nahiz nahiagoko zuen laneko-mahainean doi-doia hasirik utzi artikulu premiatsu bat lehen bai lehen bururatu!

Itzul gaiten ikastegirat. Saint-Pierre Jaun apezpikuaren arabera, Hiriart-Urruty eskolan noiz nahi, hats bahi, nehun ez zagoken, hitz xuxen edo errar-modu berri baten ondotik, haren xanoak burmurtzi edo auziño batez salatzen baitzuen azken mila-buruan kausitu zuela.

Ateraldi bitxiak ere aise heldu zitzaizkon. Egun batez, eskolier-lan batean zer nahi ele alfer aurkiturik, bazterrean tinta gorri ezarri zion eskual-latinezko jujamendu hau: «sonitus atque voces praetereaue... *tirit!*» Bertze behin, erasian ari zitzaion mutiko handi bati, baizik eta tête hitz frantsesari ez ziola bere azentu-kakoa eman. Mutikoa xutitzen zaio eta hurbiltzen bere kopia eskuan, beheraxko izanik ere, kakoa ezarri duela. Eta orduan erakasleak eskuaraz ahapeka: «Bainan, haurra, nun ikusi duzu grabata ixtapean emaiten?».

Gaztek Larresoron bazakiten, ahulezia ttipi jostagarri horien gatik, Hiriart-Urruty jakintsun handi bat zela eta idazlari gisa nehor guti zukeela parerik. Gora-gora irakurtzeko ere jeinu berezi bat bazaukan, haren ahotik plama eder batek edo kondaira pollit batek dirdira edo soinu berri bat bezala hartzen baitzuen. Bossuet, La Bruyère, Sainte-Beuve, Louis Veillot zituen, diotenaz, maitenik; bainan hetaz bertze asko eta asko idazlari gogoko zituen.

Hain irakurle ona zenaz geroz, ez da harritu behar Semenarioko teatrolari gazten apailatzea laket baitzitzaion: asko urtez bere gain hartu zuen lar hori, bereziki ihaute aintzineko astetan. Apezlagunek erraiten ohi zioten denbora galtzea zela eta bere burua alferretan akitzea. Harek ezetz, ez zela josteta hoitan akitzerik, eta bertzalde bide hoberena zela, bai gazten ezagutzeko, bai heiekin adixkidetzeko, heien arimen onetan...

Bagaude ez ote zuen eskolaz kanpoko apez-lana nahiago eskolakoa baino. Louis Etcheverry jaunari huna zer aitortzen zion 1895eko maiatz egun batez:

Jainkoa lekuko, ene buruaren jabe banintz, ez banitu bizkarrean etxeko zor batzu, —makur ala zuzenez baitaukat lehen bai lehen heien pagatzea eginbide dela—, hor utz nezazke beren gisa latina eta greka, eta biziaren ondarra higa nezake ene sort-herriko gaztez arta hartzen. Ah! Dibildos apezaren fortuna banu! Iduri zait ez nezakela gaizki enplega! Gaixo gazteak! Bai, jokoz gabetuak dira eta berdin maita lezaketen bertze asko gauzaz. Ez liteke menturaz ezinezkoa, bihotz gose eta bizi huts horien betetzea! Aski liteke naski, ixil-ixila apez zonbaiten laidoen iresteko estomaka on baten jabe izaitea! Zer nahi den, balio luke entsatzea. Lehen bai lehen egiteko gauzetarik bat liteke. Baionan, Hazparden, Donibane-Lohizunen, Hendaian, Donibane Garazin, herri jendetsu guzietan. Deusik ez! Deusik ez! Dantzaz bai, zer nahi zinkunari. Bertzerik ez!

Amets horiek gora-behera, ez zion bere erakasle-lanari tiro egiten eta Larresoroko ikastegiari arras atxikia zagon.

Ez zitzaion bihotza guti urratu. Frantziako gobernuak, bertze ainitz ontasan saildu bezala Semenaria ere behin imitioriatu zuenean eta gero alde-bat ebatsi.

1906eko abenduaren 14a ez zuen ahanztekoa. Poliza gizon batek gaixtagin baten pare besotik hartu zuen eta Semenariotik kanpo aizatu. Irakasle eta ikasle, denek behar ukan zituzten lekuak hustu, Errepublikaren eta Libertatearen izenean! Nor harri Hiriart-Urrutyk hain saminki aipatzen baitzituen bere astekarian itsuskeria horiek?

Larresoroko baxiler-gaiak Maule-Agerrerat bildu ziren beren irakaslekin, bertze aterbe bat atxeman arte, han lanean artzeko. Beneditanoak



lege tzar batzuek Frantzitik kasatu baitzituzten, heien komentua hutsa zen Beloken. Harat joan ziren Larresoroko apez eta gazteak, 1907ko otsailean, ortzegun orokundez. Hiriart-Urruty ere Mauletik etorri zen Belokerat bere baxilergaiekin, eta han egon kasik urte bururaino.

Abenduaren 10ean hil izan zen Gratien Adéma, Baionako eliza-nausian kalonje zena. Haren ordain izendatua izan zen Hiriart-Urruty ilabete beraren 25ean.

Baionan aurkitu zuen berriz Jean Barbier, bi urte lehenago Larresoroko Semenariotik bikari joana zena. Justin Mirande jaun apezaren ere han zen: biziki berea zuen hura, berak ttipitik moldatua: eta 1912an Hazparnen erretor sartu zelarik, loriatu zen Hiriart-Urruty. Erretor berria hasi zelarik gazteriaren moldatzen, harendako «patronage» baten egiten, biziki atsegin hartu zuen. Mirandek Haritz-Barre nahi zuen deitu leku hura, baina bertzeari ez zitzaion hori ontsa. Horren gainetik igorri ere omen zakon Hazparneko erretorari zortzi paitako letra bat!

Bere Baionako denboran beti lanean ari zen. Heldu zen haatik artetan Hazparnera ere, bere etxondorat. Ala etxen, ala auzoetan, badu zombait lar ttipi eginik, zombait arbola fruitudun landaturik, xartaturik, artaturik!

1914eko gerla piztu zenean gure kalonjea barra hunkitua izan zen, bainan etsitu gabe, eta neholaz kukundu gabe.

Frantziak gerlari buruz urte haintzen beharra bai, Hiriart-Urruty ibili zen herriz-herri gobernuaren izenean urte-eske predikatzen. Orroik gira nola Uztaritzen nigarra eskapatu zitzaion gerlari gaixoak aipatzearekin.

Nigarrak nigartei, ez zen alfer egon nahi: bere astekariaren bidez, soldadoak eta heien ahaideak sustatzen zituen: apez eskas zirenak ordaintzen, ahal zuen heinean.

Beloken Lohiague jaun apezak erakasten zuen alemana 1908 garren urtetik. Hura soldado joan-eta, Hiriart-Urrutyk zortzi ilabetez egin zuen aste oroz Baionatik Ahurtirako joan-etorria, erakaspén horren emaiteko.

1915ean berriz ere hastera zoan; jin zitzaion urriaren azken astean, eskola bat egin zaukun -eta ez ginuen mundu huntan gehiago ikusi behar.

Hazilaren hastean kasik bet-betan gaizkitu zen. Bere azken letra iloba bati igorri zion: goizeko bi orenetan ari zaiola izkiriartzen, lorik ezin eginez, burua biziki pizu, biziki gaizki duela, ez dakiela norat ari den...

Handik laster, hazilaren 4ean, hil zen. Meza eta gaineratikoak Baionan eman zituzten, eta gero Haz arnen ehortzi zuten, betidanik hainbertze maitatua zuen herrian.

## «Eskualduna»

Erran dugu zer izan den Hiriart-Urruty erakasle gisa, hori baitzen Jaun Apezpikuaren manuz haren apez-eginbidea, kalonje izendatu gabe.

Bainan guretzat Hiriart-Urruty bertzerik ere da: oroz gainetik gores-ten dugu eskual-idazle bezala, astekari eskualdun egile kondu. Haren izena kasik ezin berex dezakegu «Eskualduna»renetik.

Dugun lehenik zerbait erran kazeta horren hastapenez. 1886garren urtera gabe, politika gizonak, kargutara beharrez, boz-keta zabiltzalarik, noizean behingo hosto batzu ager-arazten zituzten, gehienik frantsesez, bainan eskuara poxi bat nahastekatuz, mintzaireri esker Eskualdun boz-emaileak errekiagi bil-ustez. Hori egiten ohi zuten bai «gorri» deitu ezkertiarrek, bai «churi» deitu eskuindarrek.

Bainan «gorriei» gogoratu zitzaizoten artetan baizik ez argitaratu agerkari batek ez zukeela funtsezko ondoriorik gogo-bihotzetan. Eta Martial-Henry Berdoly, Mauleko suprefet ondoak astekari bat jalgi zuen 1886eko agorrilaren lehenean, parte eskuaraz, parte frantsesez: *Le Réveil basque*.

*Louis Etcheverry* Donazaharreko deputatu-gai xuriak pentsatu zuen behar bisian-bis astekari girixtino bat ezarri. Zombait lagun bildurik 1887ko urtarril hastetsuan, heiekin, ateratu zuen ondoko martxoaren 15ean *Eskualduna* deitu astekaria.

Hastapenean, luzez eta zabalez, *Le Réveil* bezain handia zen (48 X 34 zentimetro), bainan 1887ko agorrilaren 15etik harat ttipitu zuten: lau plama zauzkan (46 X 29 zentimetro).

Astekariaren jabea zen Louis Etcheverry, haren gain despendio edo eralgien ordaintzea, eta berriketaren gidatzea.

Bainan atxeman zuen Donibane-Lohizunen aintzineko kartsu bat: *Arnaud Pochelou*. Hunen aita Aiherratik kostaratu zen. Albert Goyeneche



mirikuarekin karrosa-zain bezala. Arnaud ere Aihertarra zen sortzez, bainan laster hartu zituen itsasbazterreko arak. Politikaz xuri amorratua zen. Zango-motz ixtripuz bilakaturik, ez zagon halere lekuaren gainean. Donibaneko herriko-etxean grefiergoa zaukalarik, denbora berean *Eskualduna* arta hartzen zuen. Treinez egiten zuen hortako Baiona eta Donibaneren arteko joan-etorria.

Kazetaren kudeatze hori 18 urtez eremanen zuen (1887-1905).

Lehen urtetan aste guzietz Etcheverry bere nausiarri letraz igortzen ziozkan Eskualdunaren gora-beherak. Letra hoieri esker badakigu nor ziren hastapeneko idazlari eta berriketariak: hala-hala nola emeki emendatu zoazin irakurleak.

Idazlariak ziren: hiru erriente (Daranatz, Curutchet, Irigoyen), bi fraile (Juvénel eta Innocentius), zombait apez (Jaret, Bidart, Ithurry, Berho, G.; Larre, Giron, Dolhagaray, Oyhénart, bi Etcheverry eta Etcheberri bat) ba eta bertze jaun batzu (Duvoisin, Berdéco, Fourcade, Goyeneche medikua, d'Etchandy, Ch. Minjonnet, Hiriart, Nogués, Ritou notaria, Cabillon, Mendiburu, Agu, Etcheverry, Debibié).

Irakurleak 850 ziren 1880an; 950, 1889an; 1200, 1890ean; 1300, 1891an.

Orduan kenka gaixtoan gertatu zen *Eskualduna*. Segur, alde batetik, bazuen zertaz alegera: buruzagia bi aldiz ez zitzaiola deputatu pasatu? Bainan gobernuak, haren gain baitzen orduan apezzen pagatzea, 35 diosesako apezzi kendu zioten urte-saria, bozetan errepublikanoen kontra agertu omen zirelakoan. Hain xuxen, apezpikurik gabe baitzen Baiona, Fleury-Hottot apezpikua 1889an hilez geroz, 1890eko martxoan etorri zen haren ordaina: Mgr. Jauffret, errepublikano famarekin heldu zena, haren familia halakoa izanez. Hastapenean segurik Prefetaren mutil zelako itxurak eman zituen: prefetak galde eginik, Mendekoste bezperagoan hamar erretor eskualduni manatu zioten beren parropiaren uztea eta biharamuneko bertze berri batean kausitzea. Ez zen eskandala ttipia izan. Ordainez, gobernuak apez-sari gehienak itzuli zituen. Louis Etcheverryk nahi ukan baitzuen Hazparden muntatu katoliko biltzar bat, apezpikuak prefetaren beldurrez huts-eginarazi zuen.

Oixtion aipatu hamar apez lekutuatarik zazpik dei egin zuten Erromarat apezpikuak egin zioten bidegabeaz. Aita Sainduak, Mgr. Pujol, sortzez Baionesa, igorri zuen mandatari, apezzen ganik ardiets zezan beren auziari uko egiteko erabakia, eta apezpikuaren ganik zerbait gisaz apezzeri egin kaltearen erreparatzekoa. Apezek onhartu zuten Aita Sainduaren gal-

dea. Apezpikuak bere kontseiluarekin despeditu zuen mandataria, ez zuela arartekorik behar Aita Sainduarekin mintzatzeko.

Aita Sainduak, ikusiz Mgr. Jauffret tematua zela bere apezzen kontra, letra batean erasiatu zuen eta bere gain hartu erakusten hoben gabe zauz-kala apez eskualdunak: Diharassarry jauna egin zuen «ganbarari ixil» eta Mendiboure jauna «ohorezko ganbarari»: biek «monseigneur» titulua ukaiten zuten eta jauntzi berezi baten ekartzeko eskubidea. Meriateguy jaunak eta Hiriart jaunak «misionest apostoliko» kargua izaiten zuten. Apezpikua hasarre-gorri jarri zen eta diosesako agerkarian ez zuen nahi izan holako berririk agitarazi.

*Eskualduna* astekariak piko zombait egin ziozkan bai eskuaraz eta bai frantsesez, 1891ko urtarril-hastean (9-1-91).

Huna Diharce bikario jeneralak altxatu lerro saminenak:

Trixe da erraitea, bainan gure Jaun Apezpikua ere errepublikanoak baizen koleran omen da.

Aita Saindua da gure egiazko aintzindari bakharra, izpiritualako gauzetan, eta ez prefeta, ez eta ere Apezpikua, Aita Saindua ganik separatzen balin bada.

Horra beraz zertaratuak diren beren mihian hainbertze erlisione errespetatzen dugun gizonac; atrebitzen dira orai Aita Sainduaren kontra jazartzea.

Trufa ditela orai, ahal badute, Prefeta eta haren mutilac.

«Le crime de notre compatriote (Mgr. Pujol) est d'avoir été chargé par le Pape d'une mission toute de conciliation entre Mgr. Jauffret et nos prêtres. La mission n'ayant pas trouvé l'accueil qu'elle méritait auprès de notre Evêque, Léon XIII dut accorder lui-même les compensations que se refusait à donner Mgr. Jauffret. Nous ne voulons pas insister sur ce pénible sujet. Nous nous réservons, s'il est nécessaire, de préciser plus tard les graves responsabilités encourues par celui qui a su se montrer si faible vers l'administration civile et n'a trouvé d'énergie que pour frapper nos prêtres, et repousser les conseils du Pape».



Urtarrilaren 11an Jauffret jaun apezpikuak galde egiten zuen lerro hoitako «laidoak» gezurta zitzaten, hamaseieko astekarian. Bertenez irakur-araziko zuen Eskual-Herriko eliza guzietan *Eskualdunaren* kondena-mendua. Preparatua zuen eta begien aintzinean dugu haren kopia. Ber-  
teak bertze, hitz hauk bazauzkan:

«Nous interdisons sous peine de faute grave au clergé et aux fidèles de notre diocèse la lecture du journal *Eskualduna*, jusqu'à ce qu'il ait publié une rétractation dont les termes devront au préalable être agréés de nous».

Louis Etcheverryk erran-arazi zioten Apezpikutegiko jauner berek egin zezaten gezurtamendua, eta hiru lerroz arbuiatu zituzten apezpikua eta Aita Sainduaren kolpatu zituzketen artikulu guztiak.

Hartan gelditu zen auzi hori, denen onetan.

Bainan Louis Etcheverry eta harekilakoak ez baziren ere gehiago Baionako apezpikuaz mintzatzen, Frantziako apezpiku Aita sainduari atxikienez ezin ixilduak ziren: batek hau izkiriatu, bertzeak hura. Eta *Eskualdunak* eskuaralaz itzultzen zituen heien erran bizienak. Kanboko bikario Jean Etcheverry bipilak egiten ohi zituen itzulpen horiek. Bainan Hiriart-Urruty Larresorokoa bildu zuen lan hortarat lagun gisa martxo erditsuan. Louis Etcheverry hain ona kausitu zuen langile berria, non martxoaren 26ean galde egin baitzion letraz, alde bat sar zadin astekariko lankidetan, haren baitan aurkitzen zuela kasetagile handi baten ekaia. 1891eko apirilaren 10ean Hiriart-Urrutyk ihardetsi zion luzeki. Huna gutun horren hastapena:

Jaun deputatua, ahalge naiz berant ihardesten baitiot martxoaren 26eko zure letrari, eta badut beldurra zure esperantzeri are gaizkiago ihardetsiko diotedala. Ene laguntza xumea gogotik ekar nezoke *Euskaldunari*. Prest nago ere ene indarren entseaterat, zure nahien, eta ene esku dudan astiaren arabera. Bainan ene burua sobera ezagutzen dut eta hortako eginbide zait aintzinetik zure abisatzea, ez duzula zeren hainitz ene ganik igurika. Zertako? Huna, ez herabe ba lerabe, egia den bezala. Badut makur bat ezagutzen nuten guziek, hala nola Gaston Larre apezak, aipa ahal lezakezutena:

kazeta-egile ofizioko makur gaixtoena: beti eta denetan luze naiz, luze hasteko, luze bururatzeko, luze ene luzakerien laburtzeko, mila gauzari hunkika, hasi ditudan erdiak bururatu gabe, ez dakit ere zer ditaken aipu duzun «labur izaiteko astiaren aurkitzea». Hori da, hain xuxen, gutienik dakidana. Bainan parada eder bat eskaintzen dautazu: ene bekatu kapitalaren gudukatzea, gure Eskual-herri huntan fedearen eta libertatearen etsaiak gudukatuko ditudalarik: nola ez balia parada bat litzaike zure ganatzea, egun txarren biharamu-nean, burua asmuz beterik, bihotza bero, eskua berme eta zalu. Damurik, horietarik guzietarik ez baitautzut gauza bat baizik segurtatzen ahal: bere herri maite duen Eskualdunaren bihotzarekin, bere Jainkoa eta hunen adixkideak maite dituen apezarena. Asmuez den bezenbategian, erran behar dautzut guti baizik ez dudala eta denak ere beti berdintsuak. Eta zu, hain xuxen, diozunaz, artikulu labur eta desberdinen beharretan! Zuk eta nik aditez baizik ez dugularik elgar ezagutzen, irrisolas batentzat daukat ene «iduripen ederraz» egiten dautazun konplimendua. Egia (nork bere burua erdikus dezaken heinean) hauxe da: ni baitan iduripena aski bizia datekela ohartzeko, bainan ez asmatzeko.

Hemen egiten dautzutan fede-agermenak badu kofesio baten eite, erakutsi nahi baitautzut zer laguntza-mota dakarkezutan, on balinbazaitzu. Eskuperat zerbait itzultzeko onik eroriko zautanean; edo (hobe bailiteke) zuk artikulu-gai xume bat igorriko dautazularik, edo artikulu oso bat eskuaralatzeko; edo berdin liburuxka bat, hartuz laburpen bat egin nezaken; edo zoin-nahi obra erlisioneaz, politikaz, ekonomiaz (laborantza, baratzetaingo, eta bertze); edo zure ustez Eskualduneri laketa litzaioketen kapitulu zombait, entseatuko naiz hobekienik lar borren egiterat, ene ofizioko orenetarik ahalik gutiena hartuz eta bertzetarik gehiena.

Ondoko letretan Hiriart-Urrutyk aitortuko du, ordu arte bazakiela ba *Eskualduna* bazela, bainan ez zuela irakurri hiru aldiz baizik eta etzizaiola hanbat gustatu, beharbada aldi hoitan gaizki gertaturik. Erranen



du ere *La Semaine* astekarian erdaraz ari izan zela izkiriaren, aintzineko boza-denboran; nahiago duela haatik miletan Louis Etcheverry jaunaren manupean Eskualdunentzat lar egin. Bere letretan kontseilu galdeka ari da, bainan bide-nabar, alegia deus ez, erakusten du rola haren iduriko kazetak argitu behar lituzken baserritar irakurtzaleak.

Haren iritziak hamar pondutan bil ditazke:

1.— Irakurlea behar dugu errespetatu, beti gizonki mintzatuz eta ez sekulan goien-barren behatzen baginio bezala, are gutiago haurtzat edukitzen baginu bezala. Baditake, hastean eta beharbada luzaz, ez zaikun sobera fidatuko eta bere hartan itsu-tematua egonen den; bainan ez dugu ez oihuka, ez mehatxuz, ez trufaz bilduko: deusetaratzekotz, jabel gaizkiola arrazoinen eta zentzuz, beti neurritz, egia ez hartu ez ttipitu gabe, funtsezko gaiak erabiliz.

2.— Aipatu behar zaizko lehenik bere egun orotako intresak: bizipidea, laborantza, hazkuntza, diruaren gora-beherak, merkatua, osagarria, etxeko gora-beherak, haurren altxatzea, probetxa dezazken berrikuntzak.

3.— Nahiz kazeta girstinoa den, *Eskualdunak* bakan aipa ditzala apezak: jendea laster pastikatua da apezan dretxoez edo malurrez mintzatzen gizaizkolarik aho beteka edo lerro beteka. Izaitekotz, girixtinoen edo hobeki gizon guzien dretxoak ditzagun aipa: apezan ere heitan barre kausituko dira.

4.— Zer pentsa eskualzale jakitatezko artikuluez? Ez litake batere gaizki irakurtzalek, bereziki gaztek, zerbaite ikas balezate sort-herriko gauzez, baina erakaspene hori funtsezkoa izaitekotz: jakitatea jakintsuneri behar zaio te galde egin. (Hiriart-Urrutyk ez zuen estimu handirik orduko eskualzale gehienez).

5.— Ez eman erakusterat nehork zor daukula deus ere, hedatzen dituzkegun argien gatik: aski bekigu, zombaitek denen artean onhartzen badute noiz bebinka gure errana: hoiek nasaiki ohoratzen gaituzte, ixil-ixila egonik ere.

6.— Etsaieri buruz, ez gaiten ahalaz gure onetik atera; gauden gu; ez ar laidoka; haatik, jazartzen zaizkularik, ihardok, burua xut, espanturik gabe, beldurrik gabe, azkar eta zuhur.

7.— Zonbait adixkidek nahi lukete astekaria handitzea. Ez da gauzarik premiatsuena, mementoan segurik. Haren betetzea eta oroz gainetik ongi betetzea izan dadila gure grina, artikulua baliosez, atsegingarri eta ederki erranez.

8.— Eskuara garbiz izkiria dezagun: horrek ez du erran nahi frantsesetik hartu hitz guziak baztertu behar ditugula; batzutan hitz arrotz horiek, polliki sartzen direlarik, gatz berezi bat badute, bertzek ez lukeena; hortan ere hein bat atxikitzeke dela, bixtan da. Bainan hitzak ez dire mintzaiaren alderdi bat baizik; hitzak nola josten diren elgarri, hortan da mintzai bakoitzaren sekretua. Eskuarazko hitz garbiz, askok, uste gabean, erdal-saltsa izigarria egiten daukute, heien hitzen arri-mua arrotza dela ohartu gabe.

9.— Erdarazko artikulua on batzuek balia gitazke, gure eskuarazkoen aberasteko. Bainan erdarazko lar horiek ez ditzagun hitzez-hitz eskuaralat itzul: gal lezakete erdaraz zuten gozoa edo dirdira, bildu gabe eskuaraz pentsatu lar batek lukeena.

Beraz artikulua frantsesa berriz mami dezagun buruan, gure lumatik jalgi dadin guharen baitarik bezala, herriko kolorez eta usainez berritua, gure mintzaira propia markestu gabe.

10.— Kazetaren egitea bat da: heldu ere behar da. Bila beraz hedatzaileak, ahalaz apezek kanpo. Eskualduna karioegi balinbada, susta ditzagun gure herritarrak hiruz-palau auzoen artean abonatzerat.

Bixtan da Hiriart-Urrutyk ez zituela aholku horik emanen, *Eskualdunaren* arak ez balitzaizko iduritu bere asmu-ametsetarik urrunxko.

Goraxago erran bezala, astekariaren artatzale nusia Arnaud Poche-lou zen: harek zituen artikulua eskuratzen, berexten, askotan baztertzen edo ondoko egunetarat gibelatzen, ba eta bere nahitara guti edo aski xede-



rraturik ager-arazten. Funtsean, harek zituen ere behar-orduan ondorioak jasaiten: auzi, amanda, presondegi.

Hiriart-Urruty ez zen beti kontent artatzale horren lanaz: astekarian erdara sobera kausitzen zuen, erreklama sobera; ez ziren sofri galarrotsak, edo zezen-lasterrak aipa zezazten; ez zuen nahi ere besta-buruetakoko pilota-partidarik aintzinetik aipatzea, fededunak ez zirelakoan josteta horien gatik herriko bezperetarik zeharkatu behar.

Grina handia zuen bertzalde lankide berri biltzeaz: Xuberotarrez ez zakien zer pentsa: Manexen peko ez laket, eta berez bere deus ez egiten! Heiekin ez zena norbait gizon mintzatzan ahal? Bizkitartean, egiari egia zor, langile berriak baziren sortuak, eta ez nor nahi: hala-nola Arnaud Abbadie Kalonjea, Blaise Adéma apeza, Mocoçain apeza, Dolhagaray apeza, Saint-Germain, Dutey, d'Apat, Ch. Harispe, Amestoy, nahiz bortz azken hauk laster hil beharrak ziren.

Bazen bertze elorri bat: 1892an Leon XIII garren Aita Sainduak Frantziako katolikoeri galde-egin zioten Errepublikan onhar zezaten, errepublikano mugetan lege gaixtoeri errexkiago ihardokiko ziotelakoan. Eskualdun erregetiar eta bonapartetiar gehientsuak atsegabetan sartu ziren: ezin irets Erromatik jin zitzaioten aholkua. Larresoroko apez erakasleak, Abbadie buru eta Hiriart-Urruty barne, onhartu zuten dudamudarik gabe Aita Sainduaren ideia. Frango jende jarraiki zitzaizkoten.

Louis Etcheverryk ez zuen luzaz uste izan Eliza politika-bide onetik zabilala. Halere neholako zalapartarik gabe, bereak golkoan, zintzoki, haidorki, aintzina ereman zuen bere saila, bai erlisionearen, bai eskualdun laborarien alde; orduan gizon gutik egin dute harek bezanbat ekonomiaz, eta familiaren eskubidez, jendearen argitzeko: bilkura, hitzaldi, artikulu, deus ez zitzaion aski xede hortarat.

Bizkitartean noizik behinka ez zagon piko bat edo bertze agertu gabe bere astekarian apezpikuak gobernioarekin zituzten antolamendu batzuen kontra. Hain xuxen, 1901eko martxo-apiriletan Mgr. Jauffretrek jalgi baitzuen letra bat *Loi des Associations* deitu legeaz, horren karietarat *Eskualdunak* argitaratu zituen zombait ele xorrotx.

Maiatzaren 12an, diosesako agerkarian (*Bulletin du diocèse de Bayonne*, n° 19 p. 305) hitz hauk ezarri zituzten:

Monseigneur n'est pas sans remarquer les insinuations désobligeantes de l'*Eskualduna* à son endroit.

Il en a témoigné sa surprise de la part d'une telle feuille; ses attaques indirectes n'en continuent pas moins.

Sa Grandeur nous disait qu'il les fallait pardonner, au profit de l'union qui devait régner entre tous les catholiques.

C'est bien peut-être parce que cette feuille s'est écartée de la ligne d'obéissance au Pape qu'elle reproche à l'Evêque de suivre, qu'elle a à émettre les plaintes de l'un de ses derniers numéros.

Nous n'en faisons pas la remarque pour ouvrir une polémique; simplement pour exprimer un regret.

Nahiz (gure iduriko) lerro hoik frango malsoki itzuliak ziren, ezinago gaitzitu zitzaizkon Etcheverry jaunari, eta kolpez nahi izan zuen *Eskualduna* agertzetik geldiarazi.

Alde guezietarik (ba eta apezpikutegetik ere), otoizka jabeldu zitzaizkon; ez zezala holakorik egin; barnegi danik hartzen zuela *Bulletin*-eko oharra; ez zela hortan kondenamendurik.

Etcheverryk utzi zuen *Eskualduna* bizitzerat; haatik bera itzali zen, ez zuela gehiago haren buru nahi.

Asaldu horren ondotik, Renaud d'Elissagaray eman zuten buruzagi. Gizon zuzen eta xuxena zen segurki nausi berria, bainan kalipu gutikoa. Bi urte gabe unatua zen eta ondikotz kazeta ez batere aldarte hobean.

Hain luzaz hainbertze lan egin eta hainbertze pazientzia erakutsi ondoan, Hiriart-Urruty kexatu: deliberatu zuen adixkide zombaitekin astekariari emanen ziola begitarte berri bat, bai eta oldar berri bat, Nicolas d'Arcangues buru... hobeki erraiteko: «eltzearen estalgi».

Louis Etcheverry *Eskualduna* tituluaren jabea baitzen gogoeta zagon aldaira edo berritzapen hortaz, debekatu zioten izen xaharrez baliatzea: agerkari berrian eman zezotela, on bazitzaioten, titulu berri!

*Eskualdun Ona* deitu zuten.

Hegalak hedatu ziozkaten (50 x 32 zentimetro lau plama), eta mamia ere aberastu, denbora berean eskuarari eremu gehiago emaiten ziotelarik.

Lehengo nausien manupetik ateraz geroz, Hiriart-Urrutyk nehori kalterik egin gabe, bere gain hartu zuen astekariaren kudeatzea.

Saltzale eta langile berri keta ibili zen, ez baitziren haren dei guziak beharri eta bihotz gogorretan erori. Hasteko, Xuberotarrak, aspaldiko partez, jin zitzaizkon saldoan, Constantin, de Enditte, Espil, Armagnaguekin. Bertzalde agertu ziren Manex baliox andana bat: Michel Iriart, Julien Héguy, Gombault, Etchegaray, Bidégaray, Etchepare mirikua, Harispe, Landerretche, Lacombe, Daranatz eta holako.





1904eko urtatean astekariak 1.700 erosle bazituelarik, 1905ekoan 5.000 bazituen. Ondoko hiru urten buruan 7.000etarar heldu izan zen. Hori zen, hori, jauzi ederra!

Louis Etcheverry 1907ko urriaren 15ean zendu zen. Haren andere alargunak *Eskualduna* titulua eskaini zioten eskualdun astekariaren egileri bere senar zenaren orroitzapenetan: 1908an *Eskualdun Onak* izen xaharra hartu zuen, izpiritu berria atxikiz eta berriz ere hegialak zabaldu ziozkaten (56 X 38 zentimetro).

Ordutik aintzina, kalonjeturik, Hiriart-Urrutyk bazuen bere astekariaren artatzeko eta panpinatzeko astia. Segur hil-arte bere sailari jarraiki da, lankideak eta ekaiak berrituz.

15 urte astekarian buru eta beharri sartua egonik, zer zion berak lankide hortaz? 1906ko urtarrilaren 6an hauxe izkiriartzen zuen:

Harritzeko da, zenbat behar den ikusi eta entzun egungo egunean; bereziki zure ahalaeren arabera zerbeit onik egin nahiz lanean ari zirelarik, bertzeak bazterretik zuri so, bi eskuak sakelan, ea aitzur ukaldia xuxen emaiten duzun aldi bakotx, ala makur?

Nonbeit hor oraino, geldirik uzten bazituzte, batek eskuin, bertzeak ezker, biraka lotu gabe ooren gogora zer nola egin ez dakizula.

Batzuen arabera, *Eskualdun Ona* barea bezen hila da, eta maltsoa; hortzik ez, etsaiaren ausikitzeko; ez koskatzeko adarrak. Balinbadu ere, bare kurkuilak bezala, sarateraka erabilki adarrak; den gutieneko aize hotzak izitzen. Hots, odolik ez, zainik ez.

Iduri beldurrez ikaran gaudela omen, edo lo. Hotsatu zaitzu mintzo eskuinetik.

Itzul ezker. *La musique change*.

Mihi gaixto, beti kexu, beti orotaz errangura; sekulan deus ez gure gogorakorik. Oro beti makur doazila. Gizon publikoen solas eta urrats guziak makurrerat har. Ez dugu oraikoa.

Hau hemen hola erranikan ere, zagote trankil, ez gira buruko ilei lotzekotan oraino: zer den mende hau? Ja urte lerro bat badu, holako baten berri badakigula. Oro entzun, ahalak hobekiena egin, eta jo, arri, mandoa!

Bainan ez da erraiteko baizik, azken ofizioa dela gurea, nahiz baden leher eta zapart «azken ofizio». Hanbat, alafede baietz!

Orduko kazeta-irakurle zonbaitek Hiriart-Urrutyren artikuluak eztxika atzemaiten bazituzten ere, ez dugu uste egungo egunean nehork, liburu hau irakurtu-eta, deus holakorik erranen duen. Orroitu behar dugu 1889tik 1911rainoko urteak Frantzian guduz beteak izan direla.

Radikalek, «hargin beltzak» akulatzaile, ez diote erlisioneari bakerik utzi: Elizaren ontasanak ken, hilen meza-sariak ebats, fraide-serorak desterra, eskola girixtino zer nahi hets, Aita Sainduarekilako hitzarmenak urra, elizkizunak traba, eskuara debeka, bazen segur katoliko batentzat hasarretzeko arrazoinik aski.

Hiriart-Urruty ez zen berenaz inpiztazale: zuhurki ari zen, ez nahiz irakurleak ez nahasi, ez sumindu, ez ihesi igorri. Bainan erlisionea, ala zuzena, ala eskuara, ala herriaren ona nehork kolpatuz geroz, nehun ez zagoken gure gizona: etsaiari nola ez zion ihardokitzen? Trufa, piko, ausiki, zaharo-aldi, denak on zitzaizkon; eta hari baizik ezagutu ez diogun harrigarriko elasturian bazeraman bere solasa; batean motz eta idor, bertzean luze eta guri: han bil, hemen harro; beti airos, beti bizi; gatz, biper, ozpinak merke; hasarre-bulta gehienek artetik ere irria eta zirtoa iturriaren pare punttakotik bazarizkola.

Idazlearen bizitasun horrek pentsatzerat eman lezaguke errextasun handia bazukeela eskuarazko lanetan. Bainan ez fida itxurari. Huna zer zion berak Louis Etcheverry jaunari 1895eko otsailaren 14ean:

Aitor dautzut hastio zautala ene lanez espantu egitea: egun bakotx, hogoi-ta-hamar eskolier-kopia miatu behar ongi ala gaizki; batzutan hirur-hogoi; bertzalde jakinki, bere erakaspina apailatzen ohi ez duen erakaslea, munduko izpiritu guzia ukanik ere, erakasle hitza bilakatuko dela. Halere gehienek nekatzen nauena, ez dut erraiten denbora gehiena hartzen dautana, bainan errealki, batzutan min egiteraino nekatzen nauena, kazeta da. Lau urteren buruan uste dut aitor dezakezudala, sentikor eta etsituztat emanen nauzulako beldurrik gabe. Gogoz eta bihotzez maite dut lan hori; hainan, zinez, noiztenka ez ditut sobera ez gogoa, ez bihotza. Ene borondate on guziarekin eta artzearen ariaz



ere, ez naiz behin ere helduko, josteta bezala artikulu baten errexki bururaterat. *Risum teneas!* Ene erranak ez dira sekulan jakitatez hantuak!; batzutan ez dautet, ez, indar handirik galdatzen! bainan egunak badira, ene buru gaixoa hasten baitzait zorabiatzen, artikulu luze-txo baten ondarrerat heltzean, bereziki konzientziatzko auzi bat ene gain badagolarik.

Bakan gertatu naiz «Zola zikina» delako artikulu egi-tean baino gisa hortan nekatuago. Iduriko bide zaitzu teologian sartuegi naizela bekatu mortala garbikiegi aipatuz. Ez ahal dautazu maiz hortako erasiarik eginen. Aldi huntan azkar eta zuzen joiteko parada ona aurkitu dut. Zer balio du Zola Indexen dela erraiten, Index hori zer den eta Index-ik badenetz ere ez dakiteneri? Index-ean den liburu bat da Elizari jarraikia den katoliko batek bekatu mortalaren penazpian irakur ez dezaken liburu bat. Hortik abiatu naiz, eta ez dut uste zuhurtziaren mugetarik harat iragan naizen. Egia bortxatu gabe, kontzientzia oraino ez arras makurtu eta ez biziatiuen azkarki inarrosteko grinak ezartzen nau estatu hortan. Lo on batek denak antolatzen ditu, gau batena ez bada, bertzean. Horra bada zertan naizen.

Orai irakurri ditugun lerroek erakusten dute zerk nekatzen zuen Hiriart-Urruty bere kazeta-lanean. Ez zuen, ez eskuaraz artzeak xahutzen; bainan irakurleen behar bezala argitzeak, neke bera ukanen baitzuen erdaraz ere.

Alabainan eskuara ezinago beretua zaukan.

Lapurtarra zerabilan, baxenabarrez arindua eta osatua.

Mintzaira errexa: ahalaz mintzatzen ohi zen orok konprenitzeko gisan, hitz zaharregi ez berriegirik gabe.

Behar-arau sartuko zituen erdaratik mailegatu asko hitz: *jandarme*, *konkurrentzia*, *erretreta*, *promenatzea*, *pipa*, eta holakoak.

Hastiago zituen erdaratik hurbilegi zauden hitz-arrimuk, nahiz huntan ere ez zen Azkue edo Altube batzu bezain hertsia: eskuara ez zuen preso atxiki gogo, ez populuak, ez izkiriant zaharrek nehoiz ezagutu lege tinko batzuen gatetan. Fantasia poxi bat ahal doako Eskualdunari ere eleka ari denean: baten hitz-erdika, bertzean hitza doblatuz, aditza noiz ken eta noiz ezar, hitz batzuen lekua hemen behin antola, gero han.

Hiriart-Urrutyk zumea bezala bazerabilkan eskuara, gogo-bihotzak eta aldarteak gidari.

Eskualtzalekin har-emanetan hasi zen: parte hartu zuen Hendaia (1901) eta Ondarribiko biltzarretan (1902). Azken huntan aspertu zen, ikusirik bozetan ezartzen zituztela gramatika-legeak, bozemaile gisa Arana-Goirik 320 lagun ekarri zituelarik bere alde, deus ere ez zakitenak mintzaira-jakitateaz.

Geroztik Hiriart-Urruty arrunt baztertu zen gisa hortako biltzar guzietarik, baliosago estimatuz egunean eguneko lana, ezen ez jendeen arterat bazkaltiar agertzea. Ez zituen baitezpada eskualzaleen bilkurak gaitzesten: aitor ere zuen bazuketela alde onik, urteak ez balire izan hain hitsak!

Eskularien biltzarretarik urrundu bazen ere, ez uste izan asmu hutsez ari zela eskuaraz, xoriek kantu egiten duten bezala, gaineratiko jakitaterik gabe.

Latina, greka, frantsesa, espainola eta alemana, gramatika lagun, ikasi eta erakastearen bortxaz, bazituzken zombait gogoeta eginik bere aitamen mintzaiari buruz ere. Irakur ditazke, bai astekarian, bai Ithurry zenaren *Grammaire basque* liburuan, gure Hiriart-Urrutyren asko oharpen balios, heien medioz argitarat emaiten baitzuen nola xuxent eskuarazko hizkuntza makur batzu.

Aintzin-solas hunen bukatzeko, iduri zaiku gure boza baino handiago bat adiarazi behar dugula.

Hiriart-Urruty hil zenean, 1914eko gerla bere bigarren urtean zen. Gudu-tokietarik berrikerari moltxo batek igortzen baitzozkatzen *Eskualdunari* hango gertakari handi-ttipien oiharzunak, biziki hunkituak izan ziren kazeta-buruzagiaren heriotzeaz. Heien guzien izenean Jean Saint-Pierre, 1915eko hazilaren 26ean artikulu hau eman zuen astekarian:

Heriotzeaz mintzo ginelarik, azken aldian, eta gerlako hilharriez, ez ginuen uste doluzko jauntzian hoin laster ikusi behar ginuela Eskualdun kaseta hau.

Bihotzmin berri bat, Monge Jaun gaztearen ondotik, urthe labor baten epean, Hiriart-Urruty buruzagiaren galtzea.

Ez dago gu bezalako bati erraitea, zer zor dion Eskualherri guziak, hoinbertze urtez kazeta hunen lan gehiena ereman duenari. Etzen bertzalde laudorio gose, ez eta balakuz asetzen diren hetarik.



Guk baino luzagoz eta hurbilago danik ezagutu dutenek, erran dezakete zoin suhar zagon egundainotik obra humi buruz, egun on edo gaixto, beti sailean lehen. Gure zorra bakarrik nahi ginioko pagatu hein batean, gerla huntako soldadoek, gutaz erakutsi duen grinaz, gure familien sustatzeko beti gogo bihotzak ala zituelakotz, nun zer atzemanen zuen eta erranen, egun dorpe hautan. Eskualdunen bihotzaltzagarri.

«Lanean hil da, lanak hil du». Azken oihua gerla tokira buruz egin du kazeta huntan, ez baitzuen bertzerik gogoan, Eskual-Herrian berri onen hedatzea baizik.

Deiari arrapostu egin nahi ziotenek elgar ikusi dute gerla tokian, eta bihotzean hartu hiltzera zoan buruzagi eta adixkidearen nahia.

Ahalaren araberako laguntza osoa hitzeman dute. Bertze lanen artetik, etzaiote maiz errex izanen oren pare baten berextea, bainan eginen da gerlan gerlako gisa.

Ezagutza hori bederen zor giniola daukagu guziek.

Gaineratikoez mintzatzea ez dauku hanbat bihotzak emaiten, kanoien burumbaren artetik. Bizkitartean, Eskualdun girenaz geroztik, nola ez erran, zer laguntza daukun eman guziera, bere lan jarraikiaz, Eskualdun egoiteko, mintzaiaz ala gogoz eta bihotzez?

Bazuen hortako dohainik beharrena, bera Eskualduna baitzen osoki.

Zaharren hatz onetan ibiltzeari bildu nahi zuen beti Eskualdun jendea, familia, erlisionea, gure mintzai ederra atxikiz ahalik gorena. Gauza berriek ez zuten den gutienik lilurutzen; nahi zituen lehenik bipildu, axal distirant hura kenduz geroz barnearen ikertzeko, ona ote zen ala ergel eta galgarri.

Bista zorrotza zuen lan hortako, izpiritu eme eta zuhurra.

Eskuara mintzaia bazeramen bertzalde berak egina bezala, legun eta garbi.

Mintzaia zaharren berri dakitenek diote baduela bakotzak bere jitea eta ibil-molde berezia, gogoak emaiten duen hura ez baitute bergisaz erranen, bainan bai bakotxaki dohakon molde hartan.

Xuxen eta garbi mintzatze horri gain-gainetik jarraikia zen. Badut beldurra batzuek minbera kausitu dutela noiz edo noiz, eskuara garbia maitegiz. Gertatzen da alabainan gutartean, sigi-saga zombaiten egitea, eskuara, frantses ala kaskoin.

Jauntzi gei poxi bat heltzen zitzaionlarik, behar zuen ikusi nun motz, nun legun, nun egin plegu berri bat, eta gisa hortan berregindurik agertuko zuen.

Zer nahuzue? Obra hunen maitearen maitez ari zen.

Ikusia zuen sortzen eta handitzen, haur xume baten gisa oren gaixto frango iraganik. Lan eta buru haustekak beti huntaz. Obrak beretua zuen. Ordainez obra bere zaukan.

Azken hitzak ere bere kazeta maiteaz erabili ditu, heriotzeraino bere herritarren ona baitzuen bihotzean sartua.

Bertzeak bertze, ez daukagu guk ahantzirik, gerla huntan ekarri daukun sokorri gozoa. Hortaz nuen hasia solasa, zombait lagunenez. Gure otoitzekin, har beza gure agintza, eta gure esker onekin, gure azken agurra.

Eta guk hemen huna haren orroitzapenetan ateratu gogo dugun bildumaz bi hitz.

Hiriart-Urruty kalonjearen baratzetik jaliko ditugu:

I.— *Zenbait aurpegi*. hots, bere kazetan aipatu jaun batzuen egitateaz eta eiteaz eman dituen xehetasunak.

II.— *Dugun atxik eskuara*, Baionako girixtino Biltzarrean (1909) egin zuen hitzaldia.

Ortografia berritu dugu ch-en orde x ezarriz eta konsonanten ondoko h kenduz, gehientsuetan.



## AITA BLAS MENDIONDOKOA

(1873-1914)

Aurten ehun urte, sortu zen euskal-idazlari bat, orai gehienek ahan-  
tzia. Haren orroitzapena nahi ginuke lerro hautan laburzki piztu, GURE  
HERRIA agerkarian luzexagoki apaitzeko bezperan.

Lekorneko eliza-agerien arabera Luka Babaquy 1873ko abenduaren  
20ean sortu zen. Agerrean, Aita, Pierre Babaquy zuen, etxekoa. Ama,  
aldiz, Graziana Arrambide, Baigorriarra.

Sei haurriden zaharrena zen: arreba bat bazuen, Maria, eta lau anaia:  
Jean (cadet), Jean (Menez), Jean Bautiste, Jean Pierre.

13 urtetan ama hil zitzaion, 17 urtetan aita. Beharrik etxen osaba bat  
nausitu baitzen haur hoiien guzien gidatzeko.

Lukak gazterik ikasi zuen irakurtzen eskuarazko katiximan. Hamabi  
urtetan Hazparneko Freretan iragan zituen sei ilabete, ez gehiago.

Eskolatik gelditu-eta, berehala lur-lanari eman zen, osabaren manu-  
pean.

Herrian mutiko serios baten fama zuen: aho garbia, xehea, elizakoa,  
pilotari, pollita, kantaria, etxe onekoa, irakurtzailea.

\* \* \*

Hemezortzi urte zituzkeen, gertakizun harrigarri batek inarrosi zue-  
nean.

Egun xehatzen ari omen zen, iluntzean. Eta horra bet-betan galde  
bat senditzen omen gogo guzia setiatzen diola:

Zer duk mundu hau? Bai, funtserat eta zer duk? Arrunt zurabiatua  
dauka gogoeta horrek.

Lana egiteko izaki, egin nahi nolazpait eta ezin. Azkenean eskuan  
zuen aizkora edo puda bere gisa utzirik, hor hartzen da, dena pentsaketa,  
biziaren nora-bideaz, bere biziaren nora-bideaz.

Ororen buru, berak ez dakiela nola, ideia bat heldu zaio:

— Apez banindadi?

Egunak joan, egunak etorri, ideia ez zitzaion histen, hazkartzen bai-  
zik.

## XX. MENDEA



Etxegarai apeza, Lekurneko bikario hamabi urtez egona, herrian berean erretor izendatu berria zen. Luka ongi ezagutzen zuen. Mutikoa joan zitzaion bere kasuaren aipatzerat.

Abegi ona egin ziola apezak, ez da dudarik; bainan zuhurtziarekin. Adin hortako bokazionea behar zen frogatu. Otoitz eta sakramendueri jarraik-arazi zuen nasai-nasai, bainan deus ere kendu gabe etxeko eginbi-detarik.

Ilabeteak iragan ziren eta Luka egundaino ez bezela apezteko xedetan egoki.

Jaun erretorak pentsatu zuen frugantzak aski iraun zuela eta erranzion gazteari:

— Lehen bai lehen parte emak osabari hire xedetaz.

Osaba ez zitzaion estakuruka hasi ere. Agerretik atera zen jadanik apez bat, Paulino Babaquy. Bidarteko bikario hil zeno 28 urtetan pikotak ere emanik, 1869 ko irailaren 21ean. Zertako ez zen etxe beretik bertzerik aterako?

Osabak ihardetsi zion ilobari:

— Jainkoak zer galdatzen baitauk eta hura egizak. Ene gatik libro hiz.

\* \* \*

Luka joan zen Belokeko Beneditanoen Komenturat. Han mintzatu zuen Dom Agustin Bastres abade famatua: ea hura ere bere komenturat har zezaken, bai ala ez.

Dom Bastres han zagon duda mudatan. Mundutik urrundurik apez egiteko xedea bai xede saindua zitzaion, bainan adina hor izaki eta apezteko eskolak ez ttipiak.

Lukak konprenitu zuen ez zuela jo... behar zen aterat. Lekornerat itzuli zen, soldadugotik landa ikustekotan.

Luka Babaquy Baionan hiru urte egon zen soldadu, 49 garren erremenduan. Serjant gradurat ere heldu zen, eta asti-orduak baliatu zituen eskolatzen.

Baionan ohartu zen bazela kaputxin komentu bat eta bere buruarekin egin zuen:

— Beharbada horiek hartuko nie.

Desarmatu bezain sarri, Etxegarai jaun erretora lagun, harat jo zuen. Kaputxinen buruzagiak bihotz-bihotzez hartu zuen: anaiatzat, hasteko

eta bat, onets zezaketen duda-mudarik gabe, berak nahi zueneko; apezgaitzat, aldiz. Probintzialak erabaki behar.

Babaquy deliberatu zuen zango bat bederen sartuko zuela kaputxinetan, bigarrena ere jarraikiren zelako peskizan.

Lekurnerat joan zen, ahaide-adixkideari agurrak egin beharrez, eta berehala Baionako Kaputxin-etxerat itzuli, geroaren haiduru. Latinaren ikasteko gramatika bat eskuratu zuen eta hartan murgildu.

Baionako buruzagiak hartsuki artamendaturik Tolosatik baia etorri zen. Babaquy on-har zitakela anaiagaitzat bai eta apezgaitzat.

Berehala Luka bidali zuten CARCASSONNE hirirat. Hango komentuan frailegurat heldu zen, BLAS izena hartzen zuelarik.

1899ko irailaren 9an eman zioten kaputxinen jauntzia: ondoko urtean lehen botuak egiten zituen (1900-IX-17).

Millan-ko eskola baterat igorri zuten ikasle-zain bi urtez.

Frantziako lege tzarrek fraileak desterratu zituzten. Tolosako Probintziako kaputxinak Espainiarat joan ziren ihesleku-beha, Burgosetik haratago.

1903ko urriaren 4ean Blas anaiak egin zituen alde bateko botuak eta hura ere Espainian sartu, teologiaren ikasteko.

1906eko martxoaren 31 an Burgosko artzapezpikuaren eskuetarik hartu zuen apez-ordenua.

Buruzagiek deliberatu zuten Baionako diosesako Euskaldunez arloa hartuko zuela. Oiharzunen izanen zuen egoitzar, Legarrean, eta handik joanen zen Behararan predikatzerat, mugaz bertze alderat.

Adorazione, lehen komuniona, erretreta, Heren-ordenako biltzar, orotarat bazuen deia. Laster predikari handitzat famatu zuten bazter orotan, eta galdatu zioten otoi publika zitzan bere prekikuak apezzen zerbitzuko.

Horrela hogoi-ta-lau prediku segurik makina jo zituen eta polikopiatu.

Aldiz, 35 hitzaldiz eman baitzituen HEREN-ORDENAKO ERREGIAREN XEHETASUNAK, liburutan agertu ziren 1914ean.

\* \* \*

1914eko gerla hasi zenean, Aita Blasek ez zituen bere 41 urteak bete.

Nahiz Frantziak desterratua, sartu zen berehala frantsesen oinazetan parte hartzera. Baionako gaztelu berrirat presentatu zen eta soldado laguntzailatzat hartu zuten bere adinaren gatik.



249 garren erreximendua ari zuten apailatzen gudu-tokietarat igortzeko.

Aita Blasek jakin zuen erreximendua hortako Euskaldun eta Landeen artean ez zela nehor apezik. Orduan deliberatu zuen joanen zela heikin eta aintzindarietara galdegin zeien fagore hori. Aise ardietsi zuen eta, diotenez, gerlari gaiek atsegin handia ukan zuten hain lagun goxoa harturik.

Azilaren hogoian joan zen Baionatik 249 garrena eta Aita Blas loria-tua zen lagunaren artean egiten ahalko zuen apez-lanez.

Zorigaitzez apez-lan horrek ez zion luzaz iraunen. Gerla-pezoinetar- orduko azilaren 26an skrapnell bala batek kolpatu zuen handizki, eskuineko sorbaldatik sartu eta biri gain-aldean gelditurik. Orduko gutun batzuek eman xehetasunetan har ditzagun bizpahiru. Bonbardamendua hastean Aita Blas bi lagunekin zen eta hirurak otoitzari lotu zitzaizkon bere alde.

Bet-betan gainerat erortzen eta zartatzen zaie obuz bat. Hiruak hun- kituak dira: kaputxina sorbaldan, bigarrena ixterrean, hirugarrena hil- etsian delarik.

Azken huni oharturik, Aita Blas herrestazen da ahal bezala, hiru aldiz alditxartuz atsoluzionaren emaiteko, hiltzen ari den lagunari.

Berak ere elizakoak ukan zituen Etienne dominikano baten gandik eta eritegi batera ereman zuten, ziolarik: «hobeto zen ni hiltzea, bortz haur alargun bat uzten dituen euskaldun gaiso hori baino».

Ondikotz, biharamungoan, azilaren 29an, Aita Blas gorputz zen.

Ehorzketa ederrak egin ziozkaten, hainitz soldadok inguratzen zute- la haren kutxa, eta bereziki heien arteko hamalau apezek. Marne departa- menduko Fismes herrian ehortzi zuten soldaduen hil-harrietan. Baina hil-harri horiek desegin zituzten gerlatik landa eta gorputzak bertze non- bait ezarri. Ainhoako jaun erretor den Jean Babaquy Aita Blasen iloba, ibili da osabaren hobi berria nun den jakin nahiz, baina ezin du atxeman.

\* \* \*

Haren Obraz, bi hitz bakarrik.

Oixtion iragaitean aipatu ditugu haren 24 prediku eta «*Heren ordena- ko erreglaren xehetasunak*» deitu liburua.

Bonifacio de Ataun Aita Kaputxinak Ameriketara agertu artikulu batean salatzen du, Espainiako gerla hasteko mementoan, Ondarrabiako komentuak bazauzkala Aita Blas zenaren paper batzua, baina ez jakin han egon zirentz. Harat jo dugula asma dezakezue. Zorigaitzez komentu hartako libur-zainak ez du orai arte paper balios horien hatzik ere aurkitu.

Lekarozko komentuak aldiz, mailegatu dauzku 24 prediku poliko- piatuak. Heietan Aita Babaquy azaltzen ditu Jainkoaren lehen maria- menduak, laugarrenaren alartzean gelditzen delarik. Funtserat eta hiru bertute teologalak ditu bereziki ikertzen.

Heren Ordenako erreglari buruz ere predikuak egin ditu eta liburu- tan ager-arazi. Aita Saindua Leon hamahirugarrenak berri- te legea oinarritzat hartuz eta hari hertsia-hertsia jarraikiz.

Berak bere aintzin-solasetan aitortzen du bere Ordenako jakintsu- nek han-hemenka eman xehetasunez baliatu dela; baina ez du bibliogra- fiarik erakusten.

1860etik ordu arte San Frantsesen Heren Ordenaz hamar bat euskal liburu agertu baitziren ez dakigu ea heietarik bato ere irakurri zuentz.

Haatik segur gira euskara hainitz bazuela irakurturik: ezen ez du izki- ribuz ardurenean ez aitaren, ez amaren euskalkirik erabiltzen, ez Leko- nekoa, ez Baigorrikoa; bai ordea Lapurdiko klasikoa. Adibidez, ez du izkiri- atzen NIZ, HIZ, GIRA, ZIRA, ZIREZTE, ZAKON, ZITZA- KON, baina NAIZ, HAIZ, GARE, ZARE, ZARETE edo ZAREZTE, ZAION, ZITZAION, eta abar., zorbait aldiz, arras beka, ZAIZKE ezartzen badu ere ZARETEren orde, edo ZEIE, ZAIOTEren lekuan.

Zer nahi den, euskara herrikoia du, errexa, frango garbia halere bai- nan bere baitarikako hitz berririk gabea. Bi hitz baizik ez diozkagu altxa- tu, hiztegi- tan ez direnak: BEHARREZIA (*gabezia* bezala egina) eta BIOLA, *beihalaren* ordezkoa.

Joskera aberatsa du. Ez da beti beretik artzen. Solasa badaki nota laburt ala luza. Aditza noiz balia, noiz ken. Hitzari zer gisaz gafrantzia eman.

Erakuspenari buruz, ez otoi bila haren predikuetan filosofia bihurri- rik ez teologia goiegirik. Ez da leize horietan galtzen.

Jakin eta nori mintzo den, bere ardurako aditzaileen hein hura aski zaio. Haatik jakitate komun hori maisuki azaltzen du: argiro, bidezki, adi- menduz eta bihotzez.

Ageri du Diharassarry baten eskolako delatua, baina Saratar fama- tuak eskas zuen goxo batek lagundurik. Hiriart Urrutyren eite hainitz baluke, haren bizitasuna eta luma xorrotza balitu, doi bat alegantziarekin. Aita Blasek ez bide zuen bere luma lerratzerat utzi nahi ele jostagarrieta- rat, berenaz gizon plaxenta alegera eta lagunina zelarik.

Damurik gerlak landare Fruitutsu hori erotik moztu baitzaukun Euskal literaturaren kaltetan.



## MAÑEX ETCHAMENDY

(1873-1960)

### AINTZIN SOLASA

Aita Antonio Zabala euskalzainak, jakinki-eta Ezterenzubiko Mañex Etchamendy zenari arras atxikiak ginela, eta haren bertsu andana bat baginituela bilduak, eskaini zaukun, duela zombait ilabete, heien ager-araztea, «Auspoa» bere liburu-sail famatuan.

Berehala on-hartu ginuela, ez duda; segur eskerrik kartsuenak diozkagu eskaintza hortaz.

Gure lanaren bururatzeko laguntza beharretan bait-ginen, Luis Ehu-letche Ezterenzubiko Jaun ertorari dei egin ginion. Ez ginezaken nehor hoberik kausi. Alabainan, herri-etxeko segretario izaki, Mañex Etchamendy biziki hurbildik ezagutua, haren bertsu-kaier bat eskuratua, familia ere ez urrun, ahaidekin hortaz mintzatzeko, argitzaile baliosenetarik izan zaiku eta zor handitan gira haren alderat.

Ezterenzubi Etxarteko Etchamendy jaunak ere bere osaba zenaren asko berri baliosez argitu gaitu nasaiki.

Bertzalde nola ez aipa Michel Mouesca gure adixkide gaztea, makinan ezin polikiago jo bait-dauzku bertsu guziak, inprimeria edo irarkola-koko prest izaiteko gisa.

Orori, bada, gure eskerrik hoberenak.

Eta orai bi hitz, bai Mañex Etchamendy zenaz, bai haren bertsulana.

Garazin, Eiheralarreko ibar zolan bada herri pollit bat: Ezterenzubi. «Xaldainia» erraiten zioten laborari-etxe bat bazen Errobi ibaiaren iturburuetarar deraman bidearen bazterrean. Orai ez da gelditzen etxe horren hatzik ere.

Han sortu zen Mañex Etchamendy.

Huna herriko etxean sortzetako liburuan zer irakur ditaken 1873eko zazpigarren aipamenean:

L'an mil huit cent soixante treize, le vingt du mois de Mai à dix heures du matin, par devant nous, Maire, officier de l'Etat civil de la Commune d'Esterencuby, can-

ton de Saint-Jean-Pied-de-Port, département des Basses-Pyrénées, est comparu Etchamendy Jean, âgé de trente ans, laboureur, domicilié à Esterencuby, lequel nous a présenté un enfant du sexe masculin, né aujourd'hui à deux heures dans la maison Chaldainia de lui déclarant et de Marie Etchebarne, âgée de trente un ans, menagère son épouse et auquel il a déclaré vouloir donner le prénom de Jean, les dites déclaration et présentation ont été faites en présence de Jean Larroundurugaray, cordonnier âgé de quarante ans, et Bernard Arainty instituteur âgé de vingt quatre ans, les deux domiciliés à Esterencuby et ont, les témoins, signé avec nous le présent acte de naissance, après qu'il leur en a été fait lecture, ce que n'a fait le déclarant pour ne savoir écrire.

Le Maire Etcharren.

Lerro horien arabera, Jean Etchamendy sortu zen 1873ko maiatzeko hogoietan, goizeko bi orenetan. Haren aita, Jean Etchamendy, hogoi-ta-hamar urteko laboraria zen; ama, Marie Etchebarne, hogoi-ta-hameka urteko etxekanderea. Aitak ez zakien izkiriitzen.

Eta huna parropiako bataio-ageria:

L'an mil huit cent soixante treize et le vingtième du mois de Mai, en l'église paroissiale de Esterenjuby, je, soussigné, curé, ai baptisé Jean, né hier, à Zaldainenia, de l'union légitime de Jean Etchemendy et de Marie Etchebarne, jeunes sieur et dame de Zaldainenia.

Le parrain a été Jean Etchebarne, oncle maternel, représenté par Jean Etchemendy, vieux sieur de Zaldainenia et la marraine Jeanne Etchemendy, vieille dame de Balentinia lesquels n'ont pas signé pour ne le savoir. F.L. Bourbotte.

Hemen ohar ditake bai deitura bai etxearen izena aldatuak direla (Etchemendy eta Zaldainenia), eta sortzeko eguna ere bai: maiatzaren hogoieta bataiatua izan zela, bezperan sorturik, beraz 19an.

Itxuren arabera, Bourbotte jaunak 21ean egin zukeen bataioa, baina bezperan izkiriatu sortzetako liburuan.



Dena dela, jakiten dugu aitatzitza hartu zutela Jean Etchebarne amaren anaia, baina Jean Etchamendy Xaldaineko nausi zaharra agertu zela haren ordain, amaxi zelarik Balentineneke etxekande re zaharra, Jeanne Etchamendy. Ez zakiten izkiriaren, ez batek ez bertzeak.

Bai herriko bai elizako paperetan «Jean» deitua gatik, etxekoek eta bertze herritarrek ere Mañex erranen zioten. Funtsean, aspaldiko usaia da gure familietan, izen frantses ofizialaren orde, eskuarazkoa ekartzea.

Mañex sor-etxean handitu zen, aita-ama eta haurriden artean. Zortzi haurride ziren: hiru neska eta bortz mutiko. Orroitzapen hobereak atxi-ki zituen egun hetaz. Bertsutan ziona bere ahaidez:

Ez dugu kausitzen guk heiekin  
Bizi egunez hoberik,  
Ez eta heien parerik,  
nahiz ez ginduen mainarik,  
Zeren garen pobretarik.

Hiruzpalau urte ibil-arazi zuten herriko eskolan lehen kominioea egin arte, eta gero etxen lotu zitzaion laborantzari.

Xortean, osasun hazkarrekoa ez izanez, ez zuten on-hartu: soldado-goaz egin zituen koplak, lagunek galdeginik moldatu bide zituen aire-buruka.

Geroari buruz sos puxka bat bildu beharrez hogoi-ta-bat urtetan Ameriketarat joan zen, Wyoming eskualderat.

Hango oihanetan lanean eman zen anaia batekin. Bertze lagun bat ere bazuen Ezterenzubiarra, geroxeago haren koinata beharra. Bi anaiek ezin elgar adituz edo lana bortitzegi kausituz, Mañexek Nevadarat jo zuen, han artzain jartzeko. Bere bertsuetan emanen du bizitze garrantz horren berri; oihan-beltz, desertu, hartz-lehoinen orroa, ohoin basa... ukanen du zer aipa!

1899an itzuli zen Ezterenzubirat, aita-amen etxerat. Emazte-gaia, ez dakigu ea Ameriketarat joan gabe begiztatua zuenetz: kopletan ez du hartaz ere hitzik erran.

Zer nahi den, ezkondu zen 1900ko apirilaren 26an Marie Campo deitu herritar batekin; andre horrek hogoi urte zituen; haren aita-amak ziren Munoineko Jean Campo eta Gratianne Biscaichipy.

Marie ezagutu dutenek diote burudun eta bihotzduna zela, orori ohartua, langilea, hurrekin larderia zuena, fede handikoa. Berrogoi-ta

bortz urtez behar zuten Mañex lagundu biziko gora-beheretan. Zendu zen 1945eko maiatzaren 6an, familia eder bat hazi-ta ahal bezain zuzenki.

Mañex eta Marik ukan zituzten hamar haur:

1) *Jean*, 1901eko martxoaren 7an sortua, 1913ko agorrilaren 20ean hila.

2) *Jean*, 1902ko maiatzaren 29an sortua, oraino Ameriketara bizi dena.

3) *Bernard*, 1904eko otsailaren 7an sortua, aitaren segida hartu zuena eta 1963ko abendoaren 23an itzali zena.

4) *Jean-Baptiste*, 1910eko hazaroaren 3an sortua, Ahatsarat ezkondu eta han bizi dena.

5) *Marie*, 1912eko uztailaren 23an sortua. Pauen hila 1968ko buruilaren 19an.

6) *Pierre*, 1914eko uztailaren 3an sortua, 1940eko ekainaren 2an Ardenetako guduan hila.

7) *Marie*, 1916eko urriaren 10ean sortua. Ortesen serora dena.

8) *Gratianne*, 1919eko maiatzaren 27an sortua, Ortesen serora zelarik 1946eko urtarrilaren 6an hila.

9) *Jean-Pierre*, 1921eko ekainaren 26an sortua, Ezterenzubiri 1924eko martxoaren 16an hila.

10) *Arnaud*, 1924eko abendoaren 28an sortua, Ahatsarat ezkondu eta han bizi dena.

Beraz, orotaraz, zazpi seme eta iru alaba. Hamar haurretarik oraino bortz bizi dira, 1971n.

Oixtion erran bezala, Ameriketako itzulitik landa, Mañex Etchamendy Xaldainian jarri zen eta ezkondu. Baina etxe zahar hartan ez zuten hanbat laketzen. Bertze nunbait egin gogo zuen egoitza.

Hain xuxen, Gilentoinian bazen etxekandere bat haurrik gabea eta, ziotenaz, goiz edo berant bere etxaldea saltzekotan zena. Mañex etxaldea hortaz nahikatu zen, mintzatu zuen jabea eta, ikusirik ez zuela diru aski eroste horren egiteko, deliberatu zuen Ameriketarat berriz ere itzultzea.

Ez zen sakrifizio ttipia!

Marie hiru haur ttipirekin utzirik, Nevadarat joan zen bigarren aldikotz, han lau urte iragan baitzituen (1905-1909).

Hantxet artzain-lanen artetik poxi bat eskolatu beharrez, irakurtzen eta izkiriaren zuten. Eskualduna bururen buru iragaiten zuten heldu zitzaierarik, eta horrela ikusten zituen sor-lekuko berri larrienak. Frantses liburu zombait ere bazituen, eta guti edo aski entseatu zen anglesaren marruskatzerat.





Haren seme gehien Mañex Beloken eskola-lagun bait-ginuen 1912an, orroitz gira angles kanta batzu emaiten zauzkula, aitaren ahotik ikasiak.

1909an gure artzaina etxeratu zen sos zerbaitekin.

Gilentoiniaz nahiko zuen berehala tratua egin. Bainan —nunbaitik ere!— jabeak anaia bat Ameriketara izanki, eta haren baimenik gabe deusik ezin antola. Hura herrirat itzuli arte luzaz behartu zitzaizoten haiduru egon.

Azkenean, 1920ean Mañex jabe sartu zen Gilentoinian.

Hor sortu zitzaizkion bi seme gaztenak, bertze zortziak Xaldainian jin zitzaizkiolarik.

Gizona nolakoa zen? Azken denboretan metra eta hirur-hogoita-hamabortz zentrimetra gorako norbait zen, bilo xuria, begiak urdin, begitarte luzaran, larrua argi, sudurra ez handi ez ttipi. Ez zuen indar gaitzekoa iduri. Itxuren arabera buru-lanetako gisago izanen zen eskulanetako baino, biziak hautua eman balio.

Ez zen halere xoko batean muxitzekoa: zinez laborantza eta hazkuntza gogokoak zituen, eta funtsez heieri emana zen, molde berriak estimatzen zituela.

Ihiztari ernea zen, ala urtzoka, ala erbika, ala berdin basurden ondotik.

Igerikari opa, urpeka bazabilan arraina bezala, arrain-keta. Nahiz pilota-jokoa eder zitzaion, ez zen behin ere bera pilotaria izan.

Libertimendu gisa musean laket zuen eta, diotenaz, ez zen maleziarik gabe.

Salatu daukute «gizon pollita» zela: gogo erne argia, oro zentzu; artetan irriño batekin zirtolaria, gaixtakeriarik gabe; baketiar deliberatua, edo zoin nahigabe ixil-ixila jasaiteko prest, ez nahiz bera zinkurinaz ari izan eta are gutiago nehor ere deusetan bortxatu. Hots, errotik gizona!

Fededun suharra, bertzalde: pentsamendua, elea, bertsua aise lerrazten zitzaizkion erlisione-gaietarar. Urratsak ere bai: bere azken hogoi urtetan segurik, erran daukutenez, ez zuena egun guzietan kominiatzen bere animaren hazteko?

Liburu huntan irakurleak ikusten ahalko du nola Mañexek Ameriketarik apezgaien alde bai sosak bai koplak igorri zituen eta zoin usu luma hartu zuen Elizaren fagore. Mgr. Gieure apezpikuak ordainez esker onezko presentak hel-arazi ziozkan Nevadarat, eta Larresoroko eskolier ohiek makila eder bat (1907).

Horiek hola, nor estona haren familiatik bi serora jalgirik eta 1913an galdu semea apezgaia bait-zen?

Mañex Etchamendy, 1920etik aintzina, bere nahitara «giltzain» jarri zen elizan. Toki batzuetan «Klaber» edo «operario» erran lezakete. Mgr. Terrier jaun apezpikuak hortako medailatu zuen 1955eko maiatzaren 30ean, Ezterenzubiko konfirmazio-egunean. Diosesako zerbitzari on eta jarraiki bezala.

Gizon seriosaren fama egina bait-zioten, ez zuen segur ebatsia.

Bainan «serios» hitz horrek ez du erran nahi ez hotz, ez idor, ez ilun, ez triste. Berak ziona bertsu batean:

Ez naiz irrien etsai ez eta xauxuna,  
Nahiz egin dautaten seriosaren fama.

Familian eta konpainietan alegera zen: ixtorio kondan ez zuen parerik.

Ez zabilan jendetzeari ihesi: Donibaneko merkatua ez zuen deusetan huts eginen; jarraikia zen bilkuretarat: zindikar, biltzar ala bertze. Beha zagon bertzen erraneri; bainan, bere aldirian, ez zen herabe mintzatzeko, sekulan oihurik egin gabe, beti bere buruaren jabe, hala beharrez doi bat arraileria ezpainetan.

Maiz haren ganat bazoatzen jendeak argiketa, abisu onekoa zelakotz; eta denen zerbitzuko.

Ezterenzubiarrek 1929an herriko kontseiluan sar-arazi zuten, eta kontseiluak gero auzapez izendatu.

Ez zitzaizoten dolutu nehoi. Herriaz arta hartu zuen deplauki. Bertzeak bertze, adinekoak orroitz dira egin edo berriitu zituen bidez. Egia erran, gider onak ere bazituen: Giliard, Laplace, Bouret, Luis Inchauspe; eta bazakien nola balia heien adixkidantzaz.

1934etik hasi eta hamar urtez, lagunek hautaturik, Garaziko zindikatean bere herriaren gizon ere izan zen.

1944ean, 71 urtetan, pentsatu zuen kargu hoik behar zituela gazteagoeri utzi: ez zen gehiago presentatu deusetarat.

Auzapez zeno, gauza pollita ikus zitaken Ezterenzubian: elizan Mañex jaun mera giltzain gisa jaun erretoraren mutil, eta herriko etxean jaun erretora jaun meraren meneko, segretario izanez!

Etchamendy gaixoak bere azken hamabortz urteak alargun eta erixka iragan zituen.

«Xaharren min-biziak» 87 urtetan eraman zuen Jainkoa ganat 1960eko apirilaren 28an. Bezperan oraino ezagutza osoan zen, girstinoki oren handiaren beha zagolarik.



## BERTSU-ONTZAILEA

Mañex Etchamendy ez da behin ere tipus-tapas ahotik hortzera bertuka ari izan, gure plazetako bertsulariak bezala. Alde batetik boza ttipia zuen, eta bertzetik ez zen hortako bere buruari fida. Hernandorena jaunak nahiko zuen bildu molde hortarat, baina ihardetsi omen zion:

«Ez segurki, Espainia eta Frantzia guzia saritzat emaiten bazinauzkit ere!» Ez zen hitz hoitan erdeinurik: bertsulariak miresten zituen eta bereziki Xalbador estimu handitan zaukan bere funtsezko ateraldien gatik.

Mañexek bertsuak astiki eta izkiribuz ontzen ohi zituen: maiz gauaz, loa jin artean, asma, eta biharamunean paperean ezar. Zonbait aldiz, bazkal-ondo batzuez eman dituenak aintzinetik guti edo aski apailatuak ziren.

Nun, noiz, norekin hasi ote zen bertsu ontzen?

Parte, odolean zuenetz gaude: Luzaideko Juan Etchamendy «Bordel» famatuarekin (1792-1879) ahaide urrunekoa zela, salatu daukute; egungo egunetan ere Etxamendy-tarretan ez da bertsu egile eskasik, ez Europan, ez Ameriketean. Guhaurek ezagutu ditugu Lamarque kalonje olerkari baionesa, Mañex Etchamendy Buztintzekoa. Ezagutzen dugu Eñaut kantari miresgarria bere dizko berriarekin...

Itxuren arabera, gure Mañexek ez du erakuslerik ukan. Eskualdun kantu andana bat ikasirik, bera ohartu zitakeen nola moldatuak ziren eta bera hasi, denbora pasa, molde bereko bertsu egiten.

Diotenez, Ameriketean, anaiak zonbait aldiz erasiatzen zuen, baizik eta luma aizkora baino hobeki zerabilala!

Zer nahi den, guk eskuratu haren bertsurik zaharrenak 1895eko urte-berriz eginak ziren, hogoi-ta-bat urtetan, eta azkenak 1954ean, lauetan hogoi eta bi urtetan.

Bere bizian ontu kopla gehienak igorri izan zituen aldizkarietarat. *Eskualduna xaharra*, *Euskal-Erria*, *Eskualdun Ona*, *bigarren Eskualduna*, *Gure Herria* eta *Herria* izan ziren argitaratzaileak. Zonbait bertsu bakar agertu dira han edo hemen: ikus *Eskualdun kantaria*, *Gure Almanaka*, *Errepikan*, *Milla euskal olerki eder*.

Lanak bere izenaz sinatzen zituen: Mañex Etchamendy, baina ez beti. Haren izen-ordetan aurki ditazke: *M.E.*, *Mañex Artzaina*, *Bortuko Aitatxi*.

Nahiz erotik garaztarra zen eta bere eskualdeko eskuara ezin polikiago zerabilkan, bertsuetan aise lerratzen zitzaion luma Lapurdiko mintzairerat eta hizkuntzak nahasten zituen. Berdin baliatzen zituen: *maitea* eta *maitia*, *jin* eta *etorri*, *igorri* eta *bidali*; *anderer* eta *andererri*, *zeie* eta *zaiote*, *gare*, *gira*, *grade* eta *gaituzu*, eta holako zonbat! Zonbait aldiz kantak manatzen zion bertsuak; bertze batzuetan ez dugu arrazoinik ikusten: beharbada uste zuen kostatarra ospatsuagoa zela, baxenabartarra baino? Nork daki?

Gaiak ardurean funtsezkoak zituen, prekidu-aireño batekin. Dugun aitoren denboran jendeak suiet gogoetagarriak hainitz estimatzen zituztela, hala nola *Manamenduak*, *Nahi balinbagira hil-eta salbatu*, edo *Larramendiren azken bertsuak*. Kantu serio hoik berdin eztaietan kantatzen zituzten bazkal-artean. Mañexen koplaz ez izanik ere hain idor eta ilunak, hari serio hortakoak dira, baina usu iduripenez, parabola edo ixtorioz apainduak.

Huna haren bertsuetan goraiaturik aurkitzen ditugun ekai handiak: Jainkoa, Sor-lekua, familia, bakea, batasuna, adixkidantza, artzaingoa, laborantza, leialtasuna, nor bere hartan segitzea, biziaren errespetua, urrikalmena, herriaren zerbitzua, ohiduren begiratzea, bertzeak bertze.

Hortakotz haren koplak etxe askotan oraino ere artoski atxikitzen dituzte eskuz kopiaturik edo aixturrez pikatu gazeta-xerrenda batzuetan.

Ez da erraiteko baizik, haren obrak izan duela laudatzaile. Bertzeak bertze, huna nola haren ilobaso Mañex Etchamendy Bustintzekoak bertsutan goretzi zuen 1956eko urtarilaren 26an:

### MAÑEX ETCHAMENDYRI

Airea: *Aire xahar pollit batean hamalau pertsu berri*.

1

Suiet berri baten hasterat  
Oraintxe naiz abian:  
Begizatua ere nuen  
iragan aspaldian.  
Huna zer kasu pasatzen den  
ene izpiritian:  
Bortuko Aitatxi gogo dut  
laudatu en'aldian.



2

Alde batetik maitatua,  
ta bertzetik osaba,  
Laudorioen emaiteko  
zur'illoba gose da:  
Hauk baino hobiak merezi  
zintuzke baitezpada,  
Kontseiluz xuxendu baituzu  
anixko eztabada.

3

Ez baititake uko egin  
sortzezko gustuari,  
Laurogoi urte iraganak,  
ta oraino koblari:  
Mandatu hau egiten diot  
eskualdun jendeari,  
Denek igor dietzatzugun  
agur minenak zuri.

4

Baigaituzu pertsu zuhurrez  
beti zuzen argitu,  
Zer zitaken ongi ta gaizki  
aski untsa garbitu,  
Ez dugu erranen ahalko  
ez dugula aditu,  
Gaizki guzia geroxago  
behar dela patitu...

5

Iragaiten ahal bagine  
mundu huntan sainduki!  
Bainan beti trixteak  
gira zorigaitzez egoki!  
Aitatxi, diozun bezala,  
entsegatuz hobeki,  
Ateak gintuzke zeruan  
behar zabal ideki!

6

Urte berri hastapen huntan  
hauxe zait gogoratzen,  
Ez laike pollit hau ahantziz  
bazintut zu kitatzen:  
Oseba maitea, urte on  
derautzut desiratzen  
Ta graziak ere ardiets,  
zer ba-duzun galdatzen.

7

Laster akabatzen baitzeraut  
koblakako kolpea,  
Nahiz ixilik egoiteaz  
dudan joko hobeia,  
Bi desira kartsu banuzke:  
zu ontsa izaitea,  
Eta zonbait pertsu oraino,  
zureak, ikustea.

8

Pertsulari xaharragorik  
ez baita hemen gaindi,  
Eta hobeagorik ere  
Ez da biziki sendi...  
Desir nuke buruzagiek  
banezate konprendi,  
Zerbait gisaz gorets dezaten  
oi Mañex Etchamendy.

Gainera, 1958an, maiatz-igande batez, Donibane-Garazin, adixkide bertsuzale batzuek bestaño bat muntatu zioten. Bere burua ez ontsa sendituz, ez zen etorri ahal izan bazkarirat. Halere otoan Donibanerat lagundu zuen norbaitek kafeko. Bi hitz xarmantekin Luis Dassance Eskualza-leen Biltzarreko jaun buruzagiak urrezko medaila bat ezarri zion papoan. Medailak alde batean

Ama Birjinaren aurpegia bazaukan eta bertzean hitz hauk: «Mañech Etchamendy Bertsularien Aitasori. 1958». Inguruan ziren bertsulariek



ateratu ziozkaten aldizka gorespenik hunkigarrienak, bereziki Xalbatorrek. Damurik nehork ez bait-zituen mainetofonez bildu.

Liburu huntan, irakurle maitea, zuhaurek jukatzen ahalko duzu zer bertsu sarkorrak ontu zituen Ezterezubiko Mañex Etchamendyk.

Segur Garazi ohoratu du eta eskualdun guziek zor diogu agur handi bat.

## ALBERT LEON

(1883-1953)

Nola egin nituen Albert Léon euskalzalearen ezagutzak nahi baduzue jakin, huna aintzinsolas gisa.

1926an Uztaritzeko Semenari berria ideki zenean, jaun apezpikuak horrat ekar-arazi ninduen erakasle gisa. Urriaren erditsutan Saint-Pierre jaun apezpiku beharra etorri zitzaitan aratsalde batez laguntza-keta.

Ba omen zen Baionako lizean Albert Léon izeneko filosofia erakasle itsu bat euskalzalea. Gizagaixoak asko liburu bazituen Braille idazkeran eginak, baina bere ikerlanetako beharrenak ez ziren molde hortakoak: orduan norbaitek behar ziozkan irakurtu. Etxekoek irakurtzen ziozkaten frantsesez eta ingelesezkoak, baina ez haren andreak ez alabek ez zezozken irakur ez euskara, ez alemana, ez espainola. Katedraleko Etcheverria jaun apez elizazainak egiten ziozkan gaztelerazko irakurtzeak, Saint-Pierre kalonjeak aldiz aleman eta euskarazkoak; baina apezpikuteian bazuen engoitik sobera lan irakur-aldi horieri jarraikitze eta galdetzer heldu zitzaitan ea ordezkatzeko ahalko nuenetz ortzegun aratsaldetan. Ez nezozen baietz baizik erran euskaralat bildu ninduen jaun maitagarriari eta horra ni Albert Léonen itsu-mutil.

Ez zitzaitan batere dolutu. Gizon jakintsun eta ohartzalea zen biziki: irakurriak nola ez zituen, adi-arauka, berak argitzen ala berdin jorrazten eneonetan. Bertzalde alegera zen, dena zirta eta oroitzapen jostagarri. Adibidez, Lévy-Bruhl filosofoaz erran zautan behin: «Lévy Brûle mais n'éclaire pas!», hots «erretzen zuela baina ez argitzen». Itsu baten ahotik hitzak ez zuen grazia eskasik.

Bertze aldi batez, Schuchardt-en eritzi batzu ilunkara iduritzen baitzaizkon, erran zautan: «segur naiz gizon horrek ez duela bere golkoa hustu eta baduela oraino hainitz erakaspenerri jalgi ez duenik. Fantesiazko artikulu batez kitzikatu gogo dut; bere onetik atera-razten badut, joka nezake miresgarriak jaliko dauzkula». Hala hala aipatzen zautan behar zuela Aita Saindua bortxatu Andre dena Mariaren Erregetza erabakitzerat, liburuxka bat eginez «erregetza» horren kontra.

Noizetik noizerat gomitatzen ninduen bere etxekoekin bazkaltzerat eta hor ere ez zen tristeziarik. Haren andrea ere kultura handikoa zen eta mihiazpikoa ongi pikatua zioketen.



Halako batez nausiak galdegin zautan ea Uztaritzen morala erakusten ginuenetz. Nik baietz eta harek berehala:

— Zuen gazteri erakasten ote zaie politeleia?

— Politeleia? Barkatu, jauna, hitz hori ez dut ezagutzen.

— Grekotik ateraia da: erran nahi du, zenbait egiterakoan, hortarako gure xedeen ugaldu eta aberastea. Badakikezu xedek, onak diren ber, gure eginkizun garbiak baliostaten dituztela. Eman dezagun ikasle bat bere idazlanari buruz: nahi badu lehenik bere eginbidea bete; bigarrenik lan on batez erakasleari plazer egin eta nota eder bat irabazi; hirugarrenik nota hortaz etxekoeri kausitu; laugarrenik lanari esker bere etorkizuna apailatu, gero norbait izaiteko ta gizartearen onetan bizitzeko. Ikusten bide duzu ikasle horrek lan bakar batez, xedeak direla kausa, merezimen-  
duak metatu dituela.

Andereak irri on batekin erran zion:

— «Albert! Albert! girixtinotu zinen, baina judu erro zenbait gelditu zaizkitzu: kapital ttipienaz nahi duzu interes handiena bildu!»

Albert Léon-ek pollita kausitu zuen emaztearen arraileria eta aintzi-  
na solastatu ginen alegeraki bertze gai batzuek.

Horra nolako giroan iragaiten ziren gure irakur-aldiak.

1927ko Azaroan itzuli nintzen Tolosarat eta egun batez Albert León etorri zitzaitan *Institut Catholique* ikas-etxerat, bisitatu nahi zuela hiria eta harritu ninduen bere ohartasun handiaz, karriketan gairi. Galde egin nion, astia zukenean, zenbait orrialdetan idatz zitzaizuen psikologiaz zituen eritziak. Ez zauzkitan igorri 1930ean baizik. Ez ditut oraino agor-  
arazi. Bertze aldi batentzat begiratzen ditut.

Ordu bide da berezikiago mintza gaitezen Albert Léon euskalzaleaz.

Bordalen sortu zen 1883an burraso juduetarik. Begietako gaitz batek sei urtetan osoki itsutu zuen: doi doia oroituko da kolore zuria, horia eta ferdea ikusirik.

Halere lehenik etxekoak ere geroxago emazteak beren buruz axolatu gabe, gostaia gosta lagundu zuten eskola handieneri jarraitzea, batxiler, lizentziatu, agregatu gradoak gazte-gazterik iragan baitzuten.

Vendée eskualdeko La-Roche-sur-Yon hiri nagusian, lizeoko filosofia erakasle izendatu zuten. Han eskola egiteaz bertzalde doktoragoa apailatu zuen, bi tesisetan: lehenaren gaia zen: *Les éléments cartésiens de la doctrine spinosiste sur les rapports de la pensée et de son objet*. Bigarrenarena: *Une pastorale basque: Hélène de Constantinople d'après des documents inédits avec textes et traduction*. 1908an agertu zen lehena, 1909an bigarrena. Bigarrena zaiku

hemen aipagarria. Liburu gotor bat da (26-17 cm.), 525 orrialde dauzkana.

Albert Léon-ek eskerrak diozka J. Vinsoni zeren haren liburuek eman baitote gai horri lotzeko asmoa: baina aitortu du Hérelle jaunak laguntza handia eman diola. Bertzalde Baxenabartar Bidegain erri-  
tatek irakurri diozka *Helenari* datzikon eskuz idatzi sei pastoralak.

Huna nola zatikatua den lan hori:

Ehun bat orrialdetan aipatuak zaizku pastoralen iturburuak, idazleak, emaleak, emankizunak eta gelditzen diren idatzen berriak.

Gero *Helenaren* ipuiak egin diren bi liburu aipatuak dira: batto olerki moduan XV mendekoa: «*Chronique Delaine*». Bertzea hitz laxoz egina: «*Le Roman de la belle Hélène de Constantinople*», XVI mende azkenekoa.

Bixtan da bi idatzi horiek dakartzatela euskal pastoralek aipatu gertakari gehienak, nahiz xehetasun batzu bertze nonbaitik atera dituzketen, non ez dituzten euskaldunek berek asmatu.

Gero Albert Léon-ek emaiten du ikertu dituen sei eskuz idatzi pastoralen berri: biga Parisekoak dira; biga Bordalekoak; batto Urđiñarbekoa; bertze bat Baionakoa. Osoena Pariseko n.132 delakoa izanez, haren bidez 76 orrialdez erakusten du nola euskaldunak kondatu duten Helenaren ixtoria. Baina segidan salatuak zaizku bertze idazkietan aurkitzen diren berezitasunak: orotarot 1500 berset baino gehiago aurkitzen dira beren frantses itzulpenarekin.

Azken kapitulu batean ikertua da pastoraletako euskara, bere adizkera zehar eta hitz erdaldunekin; mintzaera eta bertsoarritza ere aztertutak daude beren on-gaitzekin eta askatasun handiarekin.

Hots, nahiz liburu hau agertuz geroz eta Hérelle hilez geroz pastora-  
leak bide berri batzu hartu dituzten, uste dut irakurtzekoak direla Albert Léon zenaren oharpenak, mende hunen hastapenean antzerki euskaldun ohidurez konturatzeko.

Hérelle jaunak Baionako lizeoan filosofia erakasten zuen. Irakas-  
kuntza utzi zuen literaturari lotzeko eta orduan haren ordain etorri zen erakasle Albert Léon Baionarat. Memento hortan euskaltzale batzuek eraiki zuten *Cercle d'Etudes euskariennes* izeneko biltzarño bat. Hor kausitzen tiren Julio de Urquijo, Georges Lacombe, Pierre Broussain, Henri Gavel, Martin Landerretche eta abar. Heietarat bildu ten Albert Léon ere. Hiriart-Urruty kazetariarekin elaire zen eta euskaraz mintzatzeko aukera guziak bilatzen zituen.

Gogotik irakur-arazten zituen euskal aldizkariak eta hizkuntzalarien lanak. Berak ere atseginekin idazten zuen euskal gaiak: etimologiak laket



zaizkon hala nola gramatika auziak. Historiazalekin bila zabilan noiztik jarriak tiren Euskaldunak orai bizi diren lurraldean, edo nola girixtinotasuna sartu zen heien artera. Hemen gaindiko ohiturez ere zer nahi jakin-nahiz zen.

Ikus ditazke haren artikulu gehienak agerkari hauietan:

*Bulletin de la S.S.L.A. de Bayonne*, 1931, 211, 344-350.

*Congrès de l' Union historique*, 1912, 11, 35-52.

*Euskalerraren Alde*, 1911, 174 sq; 207 sq.

*Eusko Jakintza*, 1947, I, 121-144

1948, II, 347-357.

*Gure Herria*, 1921, I, 446-461

1926, VI, 50-56.

1928, VIII, 142-157; 270-280.

1929, IX, 561-573.

1930, X, 33-49.

1932, XII, 524-536.

*R.I.E.V.*, 1909, III, p. 468.

1911, V, 472-493.

1913, VII, 428-438.

1925, XVI, 68-73; 343-344.

*Revue Philomatique de Bordeaux*

1906, IX, 385-409.

1921, XXIV, 62-72.

Albert Léon hil zen 1953an bere alaba baten etxean, bere 70 urtean.

## JEAN ETCHEPARE JAUN MIRIKUA

(1877-1935)

*Buruchka* hauien egile miresgarria hainitzek ezagutu eta maitatu dute. Bainan urtheak badoatzi, eta badut beldurra, galdu berria dugun gerla hunek ezin handiagoko zilho bat idekiko duen lehengo eskualtzaleen eta sortu-beharren artean. Bakea jitearekin, eskuarari lotuko direnek gogotik hartuko duten liburu balios eta zoragarri hau, eta jakin nahiko dukete nor zen Jean Etchepare mirikua.

Heientzat laburzki erran dezagun bada dakigun poxitik zerbait.

Huna hasteko haren sortze eta bathaioaren berri:

Don Joaquin Balaña desservant de la Succursale de Ajo Tugu et Monsalvo, province et évêché de Buenos-Ayres, certifie que le quatorze Mars de l'année du Seigneur mil huit cent soixante-dix-huit, le soussigné desservant a solennellement baptisé et a oint de l'huile et du Saint Chrême un enfant du sexe masculin auquel on a donné le prénom de Jean; il est né le trente un Octobre de l'année mil huit cent soixante-dix-sept, a onze heures du matin, enfant légitime de Jean Etchepare né en France, âgée de vingt-trois ans, domiciliés à Marchiquita. Parrain: D. Juan Dambouriana, né en Espagne, âgé de vingt-un ans, demeurant à Marchiquita; Marraine Doña Jeanne Etchepare née en France, âgée de vingt-sept ans, demeurant à Marchiquita. Je leur ai donné connaissance de leur parenté spirituelle avec leur filleul, ainsi qu'avec son père et sa mère et de leur obligation de l'élever dans les principes de la doctrine chrétienne...

Horra zer irakur ditakeen, espainoletik frantseserat legezt itzulirik, Lekorneko herri-etxean.

Aitaren etxe-ondoa Dona-Isti-Etchegaray zen; egoitza xaharren izena behar zuen Oztibarretik urrun ereman eta barreatu. Sor-lekuari ez zion behin ere Joanesez uko egin: hango eskuara zuen bethi mintzatzten: «mihia etzakon bestetara lerratzen». Bertzalde, ezin ahantz Michel Gari-



coits Ibarreko saildua haurrean ikhusririk; ez bazion ere meza lagundu aldi bat edo bertze, bere herritar famatuari.

Zer nahi den, Etchepareko semea Ameriketara joan zen zombait auzo-ahaidekin, eta Argentinan lanak ontsatu zuen: han berean ezkondu zen andere eskualdun gazte batekin: lehenbiziko haurra, hemen aiphamen dugun Jean delakoa izan zuten: bertze sei jin behar zaizkoten geroxago: Pierre, Gracianne, Marie, Joséphine, Emile eta Julie; bi azken hauk anei-arreba britxiak.

1883an, Marchiquita utzirik, itsasoa iragan zuten; eta Lekorne-Erlandenean kokatu ziren. Orduan sei urthe zituen muttiko gehienak. Bainan Ameriketako lur-zeru bereziak begietarik ezin barnago sartu zitzaizkon jadanik eta hango airea berea beretua zaukan. Erraiten ere zuen: «Ez da deus garbiagorik ene buruan. Askotan banago ere kokatzen duenetz bertzerik. Gogoa bethea daukat orduko zerez. O haurreko egun berriz jinen etzaretenak, zuetarik dut bihotzean nere bizi aphiurak eman daukadan gogorik hobereña!».

Halere laster laketu zen bere herri berrian: haurra ernea zen, deneri ohartua, oro jakin-nahia. Lehenbiziko errieta Pierre Detchessarry izan zuen, bainan J.-L. Dibar-ek utzi ziozkan irakaspenik eta orhoitzapenik sarkhorrenak Lekorneko eskolan: «Les leçons que vous m'avez données étant enfant sont les plus présentes à ma mémoire...» zion aithortzen ixtudiant gazteak goi-ta lau urthetan.

Errietaekin batean jaun bikarioa ere ari zen egin-ahala, gizonttoa zerbaierat hel-arazi nahiz: damurik bedera alde ari baitziren fedezko gauzetan, eta haurra, bereak golkoan, ixil ixila ohartzen. Halere hastapen hartan biziki atxikia zitzaion Etchegaray aphezari; eta hunek ere atxikitzen zion, frango atzarria, langilea eta prestua baitzaukan: lehenbiziko komunionea bederatzit urthetan egin-arazi zion, orhoitzapen gisa emaiten ziolarik «saindua» bat hitz hauekin: «Précieux souvenir pour celui qui reste toujours fidèle à la loi divine». 1887ko maiatzaren 15ean egin zuen Jeanek urhats handi hori eta geroztik «orhoitzapen baliosa» bethi begiratu zuen arthoski, bere biziko ordu goxoena gogoratzen ziozkala.

Handik aintzina bi urthe ereman zituen jaun bikarioarekin latin ikhasten. Bainan begi-beharriak ez zituen bethi latinean. Geroxago kondatu behar zituen urthe hetako orhoitzapen maitagarrienak: kabalak zombatetaraino agradatzen zitzaizkon; nola miretsia zagoen Arroko Kattin; «pobren ama» deitzen zuten etxetiarsa onari; zoin polliki kantatzen zuen aita supazter-xokoan; zer afal-ondo alegera bezain goxoak zeramatzen elgarrekin josteta anei-arrebek. Liburu huntan aurkituko ditutze xeheta-

sun horiek oro. Ez dauku ere gorde ttipian Aguerreko nausiaren ikhusteak itze-egile jartzeko gogoa eman ziola, eta hala-hala Etchegaray aphezaren ikhusteak apheztekoa. Maiz gerthatzen dena ez zuen ofizio bata ez bertzea hartu, bainan hirugarren bat: mirikuntza.

Larresohoko Semenarion 1889ko urrian sartu zen eta laugarrenetik hasi, jaun bikarioari esker. Lehen urthean bi sari ukan zituen: lanekoa eta anglesekoa; bigarren urthean, lanekoa eta hiru aiphamen; hirugarren urthean, bi sari et lau aiphamen; laugarren urthean, bortz sari eta sei aiphamen.. xehetasun horiek erakusterat emaiten dute zer langile zaila zitaken eta aztaparkaria; bethi ari eta bethi goiti, arno ona bezala bethi ontuz... Jakitate guzietarat aise jarri zen, bainan oroz gainetik mintzaira arrotzetarat, izan zadien latina ala anglesea. Hori bethikoa izanen du, eta bere bi onaar urthetan ez ditake erran zoin ontsa ikhasi zuen alemana, lehenxago, hogoita-hamar urthetan espainola hartu zuen bezala.

Haren eskola-emailek eta lagunek gauza bera diote, hiru amodio baikiz ez zituela Larresohon: lana, pilota eta othoizta. Hirueri osoki emana zen eta jarraikia, eta ez «norat haize, harat aise» ibiltzale hetarik. Bere buruaren jabe egon nahi zen eta bere aburuena nausi. Halako jite batek badu alde onik, gizona ez baitu «bethi bertzen meneko» ezartzen. Baduke txarrik ez, bertzen laguntza ez baitio aski preza-razten.

Zer nahi den, biziki ontsa ikhusia zen eta nehor ez zen harritu 1893an «bakalorea»ko lehen haitada gainez-gain iragan zuelarik, gazte-gaztea, hamasei urthetarat gabe, hiru hilabetheren barkamendurekin. Berak ere gora zauzkan Larresohoko irakasleak, bereziki Lilie, Abbadie, Adema, Hiriart-Urruty, Carricart eta Larralde. Geroxago denak betan goretisiko ditu, «eskualde guziko jaunik argituenak» zirela «jainkotiar kartsuak, bainan deus hertsitasunik gabekoak». Bederazka ere nola ez ditu laudatu?

«Apez bat, osoki apezta zena; gizon bat, lurrik gutisko hazten duen bezalakoetarik; eskualdun laborari-seme bat Eskual-herria bere itzalaz hartu duena, laborantza jakintsuen argiez bezanbat bere esku-lanaz goratuz eta maitaraziz; idazle bat eskuara zaharraren mami gozoa hamabortz bat urthez Eskualdunear amultsuki ezagutarazi daukuna; haurren, aitamena, apez lagunena buruzagi zuzen, zuhur bat; aita on bat jende beharrentzat; horra nor eta nolakoa zen Arnaud Abbadie!» Horra,

bertzeak bertze, zombait hitz Abbadie zenaz. Eskualdunear ez zen ather-tzen hartaz hasiz geroz: 1929ko udan lerroalde ederrik ager-arazi du haren ohoretan.



Hiriart-Urruty hurbilago zitzaion, mintza-errexago, eta ondoko urt-  
hetan hunek bildu zuen eskuarazko lanetarat, adixkide eta lankide hartzen  
zuelarik. Miretsia zagoen mirikua aphez onaren gogo zalhoin eta puntta-  
ko erneari.

Bainan, nahiz ez duen behin ere bere liburu eta irakurgaietan aipha-  
tu, Larralde zenaz egona da, azken egunetaraino, orhoituenik: aphez aditu  
eta bihotzduna zen, errotik bere eginbideari emana, gazteen arimez aise  
grinatua. Goizik ohartu zitzaion Etchepare biphilari eta seme bat bezala  
maitatu zuen, harekin bater ikhusketa noizean behin ibiltzerainokoan,  
lan-arte edo bakantza-egun batzuez.

Beraz atseginekin sartu zen berriz ere Larresohon 1893ko urrian,  
filosofiaren ikasteko.

Bizkitartean eskola-urthe bizi guzikotz behar zion arima zaurtu.  
Otso gazte baten gosearekin ausikian lotu zitzaion filosofiari: ilhunbe  
guziak argituren zituelako lillurarekin. Xoko batzu ba frango polliki argi-  
tu ziozkan, hala nola zer gisaz gauzak heltzen zaizkun gogorat, bakhar  
zonbait xuxen-xuxena sentsuek bildurik, bertzeak lekukoak erranik.  
Eremu handiak aldiz orain goibel gelditzen zaizkon, bereziki erlisioneko  
irakaspenak: mixterio horiek xilatu nahiko zituen, adimenduaren gozaga-  
rri, eta ezin! Orduan burutik iragan zitzaion gau batez, behar bada haren  
fedea buru-berokeriaz bertze deus ez zela: menturaz aitetametak has eta  
eskola-emailetaraino, (haur-demborako errient batek salbu), denek hantu  
ziotela gogoa sineste huts bezain alferrez; onez-onean segurki, baina  
halere... Iduripen etsigarri horrek durduzatu, ez zakien norat itzul. Alde  
batetik othoitz maite, erlisione maite, heieri uko ez egin nahi, ez ahal  
zirelakoan oro amets; eta bertzalde arima-zoJan holako ilhun ixil bat,  
bethi zirikan ari zitzaiona: «Ez haurkeriarik, Joanes, othoitz eginez  
hihaurk enganutzen duk heure burua!» Gaixo muthikoa. Ama Birjinari  
hel-ka ari zen ixtant bat eta berriz ere dudak ahoa hesten zion.

Asaldu hoi ondotik filosofo gazteke bakea, loa eta jana galdurik  
ere, ez da harritzeko: herratua bezala zen, egunetik egunerat hitsago eta  
mehatsago. Lagun eta eskola-emane gehienak ez zitzaizkon hanbat ohar-  
tu: ohartu zirenek ere lanaren gain emaiten bide zuten haren akhidura;  
bainan Larralde jaun aphezak, (bihotz kartsu baten begia bezalakorik ez  
baita), laster asmatu zuen bazela nunbait bertze zerbait...

Buruz-buru hartu zuen bada, arrangurak erran zitzen: muthikoak  
kondatu zion bere ezinbertzea, eta eskolemaile onak arthamendatu zion  
ez kasurik egiteko holako tentamendueri: saildu handienek ere bazituzte-  
la; bertzalde liburuari sobera emana zela, jakitatean ez zela barnegi sartu

behar; hobe zuela Eliza Ama sainduari bi begiak hetsirik jarraitzea, nahi  
bazuen segurki bere lehenagoko bake gozo hura berriz bildu. Gutiz  
gehienari aski zaizkoten aholku edo kontseilu horiek, ez zioten Etchepa-  
re beratzari bihotza sumindu baizik: «Zer!» aphezak berak jakitatearen  
beldur Jira bada? Argi galdez doakotenari *begiak hetsirik eta kitó?* Larralde  
adixkideari ez zion hitzik erran holakorik, baina bereak golkoan urrun-  
du zitzaion asko denborarentzat.

Egungo egunean duda batzuk setiatzen duten girixtinoari, ez diogu  
erraiten itsu dadin: galdegiten diogu poxolu duen koropiloa ager dieza-  
gun, ahalaz desegiteko; ez badu ager dezakenik deus, ez badu itxurapenik  
ere halako edo hulako egia baten kontra, ez dakioke argirik eman; iduri-  
pen huts edo sentimendu hutsetik heldu den duda, ihes eginez baizik ez  
ditake suntsi, edo sentimenduak zerbait gisaz berrituz. Erraiten daukute-  
nean: «Jauna, zure arrazoinak biziki ontsa emanak zaizkit, ez diote nere  
adimenduak fitsik ihardesten ahal, baina zer nahuzu, nihaurk ere ez  
dakitalarik zertako bameak ez dauzkit onhartzen», «ez dut uste adimen-  
duari laido egiten diogun», «kasurik ez emaiteko» ihardokitzen dugularik.  
Larralde aphezari ez bide zitzaion iduritu sentimenduak bertzerik bazita-  
kela hunkiturik bere adixkide gaztea baithan.

Etcheparek lanean ereman zuen halere bere Larresohoko ondar urt-  
hea pilotari ere begiratzen ziolarik bere atxikimendua. Baxelier iragan zen,  
eta etxerat joaiteko ponduan Larralde bere azken kontseiluak eman zioz-  
kan luzeki, Jesu-Kristoren imitazionea bertzalde, eta adiorik hunkigarrie-  
nak izan zituzten.

1894ko hazaroan Bordalerat joan zen mirikuntzaren ikhasterat: bai-  
nan mirikuntza ez zitzaion aski: orotarati nahi zuen hedatu, gogo-bihotzak  
aberastu beharrez, denetarik (jasta bederen) baitezpadako zitzaiola; Ale-  
maniako zeretarati bereziki ekharria zen: Haeckel eta Nietzsche bezalako  
batzuen liburu khiretseri lotu zen, bero-beroa, ez baitzuen beharragorik!

Anartean, noizetik noizerati hitz bat igortzen zion Larralde apheza-  
ri; *Conférence de Saint-Vincent-de-Paul* delakoan sarturik, bazabilan behardu-  
nen laguntzerati, girixtino gisa; othoitzari jarraitzen zitzaion; baina,  
emeki-emeki, zer nahi bihotzminen artetik, etsimendua gogoan, fedearen  
haria ari zitzaion mehatzen eta mehatzen, azkenean osoki pikatua zela  
iduritzerainokoan. Ordutik Larraldekilako haria ere pikatu zuen berak,  
salbu *Jesu-Kristoren imitazionea* ezin utziko liburu baten pare begiratzen eta  
irakurtzen zuela. Ordutik sortu zitzaion denek ezagutzen ginion barneko  
ilhundura hits eta ezitia.





Gudu izigarri hoi en artetik mirikutzen ari zen aintzina; eta doktor izateko liburu bat behar baitzuen egin, Eskual-Herriari eskatu zion gaia: *Quelques remarques sur le Joueur de Pelote*. Horra lanaren izena: pilotariaren gorphutz-aldarteaz eta eritasun bereziaz xehetasun ederrik emaiten du.

Lehenik bi hitz erraiten ditu pilotaren on-gaitzez eta hartan artzeko moldez.

Gero joko horrek dituen hamahiru ondorio ikhertzen ditu:

1. nola besoaren harat-hunatek eskuineko sorbalda bertzelakutzen duten eta zer gibelondo heldu zaion bulhar-kaiola edo sahetshetzurreria guziari; 2. nundik errebeslariak besoa galtzen duten, aitzinerat eta airetik ezin joa baitukete; 3. zergatik pilotariari usu bizkar-hezurra doi-doi bat ezker zehartzaren zaion kanpo-alderat eskuineko sorbalda aphalduz eta xutik dagolarik gorphutza eskuineko zangoaren gainerat bermaraziz; 4. nola pilotak bulhar-gain eta beso-ginharrak hazten dituen larrupetik lodigune batzu agertzera inoan; 5. nola luzara sorbalda-ginharrak azkarki makurtzen diren eta pozoinak akhitzetik sortzen. 6. zer aldakuntza ederrak gerthatzen zaizkon besoari, hala edo hula, laster ala emeki higi-arau; 7. pilotariaren esku-mamiko katxo bereziak; 8. erhi ttipiaren makhurdura; 9. esku eskuinaren loditzea; 10. esku-bizkarrean erhi handiaren erhorburuñoa kanpo-alderat poxi bat atheratzea; 11. itzea; 12. partida denboran eskua nola den hantzen eta kasik sorhaitotzen; 13. nola pilotak hotzaren lagun esku-mandoak eta odol-gaixtoak sortzen dituen.

Hots, lan ederra egin zuen hor Etchepare jaun mirikuak. Han-hemenka axalegi zitziola aitor zuen ela zathi bat edo bertze nahiko zuen, astia ukan balu, bamagotik hartu eta argitu. Damurik ezin baitzuen egin. Agian miriku-gai zonbaitek nahiko dute anai gehienaren urhatseri jarraiki. Lahontan gazteak «*Pathologie normale du Pilotari*» ager-arazi zuen, baina bada oraino nun iker eta zer erran pilotariaren gorphutzaz. Zer nahi gisaz Etchepare jauna geldituko da denen hots-emaile eta buruzagi.

Liburuaren aitzin-solasean ezin ederkiago goresten ditu ez bakharririk Eskual-Herriko ohidura eta mintzaira zaharrak, baina hala-hala erlisionea. Zergatik othe? Batere aipatu gabe uzten ahal zuen nehoi laidorik egin gabe, geiak ez zionaz geroz galdegiten alde ala kontra agertzea. Ene gostuko, fedea ahuldu zitzaion, goibeldu, ikharatu, baina ez behinere suntsitu: erlisioneari ez zion bihotzak nehundik uko egiten ahal.

1901 ean lau miriku-nausien aitzinean agertu zuen bere lana. Hek ziren: *Piéchaud*, buruzagia, *Morache*, *Hobbs* eta *Regis*. Liburu onhartu zioten eta gain-gainetik laudatu. Geroztik mirikua zen. Hogoi-ta lau urthe zituen.

Lekornen iragan zituen lau urthe eta Elosu mirikuak Alduderat joan-arazi zuen. Hogoi bat urthe han egoitekoa zen. Laster hangotu zen. Konseiluan hartu zuen eta lau urthez axuantgoa ere ibili zuen (1921-1925).

Ez dakigu ea Bordaleko bere lanen artetik eskuarari ohartu zenetz; baina, bethi, Lekornen amodioz maithatu zuen, eta 1902tik aitzina *Eskualdun* hasi zen bere lerro-alde goresgarrien agerazten. Hiriart-Urruty apheza zuen, haste hartan, buruzagi eta gidari. Ez zen jaun hau punttalakuilo hetarik; zetabe larria bazerabilkan, eta berak segur erranen ez zuen athermal bat baino gehiago badu bere gazetan jasanik. Baitezpadako zitzaizkon gauzetan, jo azkarki: gainerateko gauzetan, odol gaixtorik egin gabe, onhar batzuen nola bertzen aburuak. Haatik frango kilika zen eskuarari buruz. Eskualdunen eskuara nahi zuen, ez erdi-kaskoin erdi-eskuara, zonbaiti biziki eder zaioten mintzaira hartarik. Eskualhitzak, eskual-itzuliak, eskual-usaina: hiruak nahi zituen elgarrekin, ala deus-ez. Lankide gazte bat heldu zitzaiolarik, laguntzen zuen lehen urhatsetan: lerro-aldia gazte horrek igorri bezain sarri, eskerrak ziozkan beroberoa; baina hemendik labur, handik luza, hantxet berriz hitz-ordain bat ezar, lar guzia bertzelakutzen zion, erakusten ziola emeki emeki noiz zer hola erran.

Etchepare jauna laster jarri zen eskuara garbiari; hainitzak ere badaude ez othe zuenetz azkanean garbiegi. Gure gostuko. 1914eko gerla arte, eskuara tink eta garbi bazerabilan, ez batere garbiegi. Askori zail iduriturik ere, ez gira harritzen. Alabainan eskualdun irakurle gehien-gehienak ez dugu eskuaraz erraiten egun guzietako zurruburu arruntez bertzerik deus; eta gai hoitaz goragoko zerbait aurkitzen dugun ber, eskuaraz aphaindurik, berehala arrotz-aire ez balinbazaiku ere, gutiz gehienetan nekhos eta bortxa-kara zaiku. Arropa berriak jasan-gaitz ditugun bezala, hots! Etchepare jaunaren gaiak ez ziren nola nahikoak. Nehor gutik edo nehor ez aipatu gauzetarat biziki lerrakorra zer.

Abbadie zenak ez zuen lur-lana bakharririk berritu *Eskualduna*-ren bidez: eskuara ere norapeit hedatu eta sortarazi zuen, gauza berriari uzta zadin zaharrei bezain ontsa.

Hala-hala gure mirikuak bertze jakitate guzietarat nahiko zuen eskuara hel-arazi. Hortara bermatu da alde eta moldez. Erresumen arteko gora-behera, Frantzia-barneko politika, diruaren gobernatze, jakintsunen asmu berri, etxeko osasun eta ontsa izanaren aldeko konseilu. Eskual-Herriko mintzaira-ohidurez zer-nahi oharpen, noizbait norbait izan diren berri, haren punttakoak zer ez dauku hainbertze urthez begien aintzinerat eman?



Laster ohartu ziren bazterretan, bazela sorturik izkiriataile edo idazlari bat gaitza, hedadura handiko bezain hizkuntza gurbil, xuxen eta aberatsekoa. Nun nor zitakeen ez zuten aise xilatu; bainan, azkenean jakiten ez denik ez baita, aho-mihitan kurritu zuen Aldudako Jaun mirikua-ren famak. Adixkideak ari zitzaizkon: segur ederki zela, nehorik ez bezalako gaiak ezin hobeki argitu zituela; bainan *Eskualduna* iragankorra izakietan, zerbait bazagonik egitekotz, liburutan ezarri behar zituela bere lerroaldi hautuenak: liburuak hau ere bazukeen onik, kazetak ezin onhartuak jasanen zituzkela.

Miriku gazteak sinetsi zituen aholku horiek oro eta 1910ean agerazari zuen liburu bat, *Buruchkak*.

Egia erran, nor harritu? Adixkide eta ahaide gehienak harritu! Liburu hori zuten, bapho eta eder, bainan ezin onhetsizko bi kapitulu hitsekin: batean, aphezen eskoleri ezin aiherrago zagon, baizik-eta erlisione dena ilhunbe dela eta egiazen gordatzale bertzean, ausartzia guziak bilduak zauzkan, itsusienak barre, amodio garbia eta bertze edozoin, berdin haizu emaiteraikoan.

Ahaide-adixkideak, bixtan da, beltzuri egin zioten. Ez zituela bada arima ahul edo minberak nahasi edo zaurtu behar, miriku gazteak etxen bahitu zuen bere liburu ozarra, nehoi bakhar bat saldu gabe. Haatik adin batetako eskualtzale batek doi aiphatzen bazion, hitz-pollit batekin zax! emanen zion present.

Liburu hori, ditaken eskuararik garbienean egina delakotz, nahi izan dugu salbatu: bi kapitulu dohakabeez arindurik eta hitz dorphexko bakhar batez, zen bezala-bezala agertzen dugu.

Anartean *Eskualduna* ez zuen utzia: ixil-ixila bere lanari zagon. Pierre Etchepare bere anai ahhezarekin ager-arazten ere zuen urthe guziez *Eskualdun laborariaren almanaka*; hamar urthez jarraiki zaizko biak sail horri, 1914eko gerla phiztu artio. Almanaka hori, Etcheverry Uztaritzeko serora beltzen omonier xahar zenak abiatua zuen 1848an. *Eskualduna* sortu zelarik, almanaka bat atheratu zuen harek ere. Bi almanaka xuri baziren bada denbora batez, ezkertiarrek noizean behin hirugarren bat — hau gorrasta — argitaratzen zutelarik; 1914etik aitzina bi xuriek bat egin zuten Eskualdunaren itzalpean, eta gure mirikuak bururaino lagundu zuen bere argiez eta bere luma xoragarriaz.

Gerla jin zenean, soldado joan zen, eta bere eginbidea ontsa baino hobeki bethe zuen. Ez dugu bere harat-hunatetan segituko. Bainan ez dugu nehondik ere agertu gabe uzten ahal, irabazi zuen aiphamen ederra:

6- CORPS D'ARMÉE Au Q.G., le 16 juillet 1916.  
Etat-Major Extrait de l'Ordre du Corps d'Amée  
1er Bureau N° 175  
n°- 1218 - R Le Général Commandant le 6° Corps d'Amée  
cite à l'ordre du Corps d'Armée  
1581

Médecin-Aide-Major de 1ere classe ETCHEPARE Jean, du 172 Régiment d'Infanterie,:

«Du 27 juin au 4 juillet 1916, a fait preuve du plus entier dévouement en prodiguant ses soins aux blessés, sous de violents bombardements.— Désigné, quelques jours avant, pour passer dans une ambulance de l'arrière, a demandé l'annulation de cette mutation, en faisant valoir qu'il ne voulait pas quitter son Régiment à la veille du danger».

Pour Ampliation le Chef d'Etat-Major.

Signé: Général PAULINIER.

Extrait conforme notifié au Colonel

Signé: Colin.

Commandant le 171° R.I.

253 BRIGADE

Etat-Major

Le 19 Juillet 1916.

N° 5302

Le Colonel commandant la 253167° Brigade

P.O. L'Officier d'Etat-Major.

(Sceau de la Brigade)

Lagun batzuek nahiko zuten «medaila» ere eman zezoten, eta harrituak zauden zertako bada ez zuen berak galde egiten behar zen tokirat. Begien aitzinean badut letra bat, miriku adixkide batek igortzen ziona Trouville-etik: «Dans la vie militaire les modestes deviennent aisément des sacrifiés. A votre place je ferais valoir... etc.». Bainan aiphamena aski zitzaion: gerla bethean eginbideaz haratxago joanik ere, ez zuen uste espantuarenik bazitakeela.

Gerla horrek jats-aldi bat ona eman zioten lehenagoko duda gehienari. Erlisione-gizoneri zaukan aiherkunde xaharra urtu ez zen bakharrik nahikunde harrigarri baten seinalea, bainan adimendu azkar baino azkarragoko batena; argirik gabeko karririk ez zuen amesten ahal, eta erdaraz



finkatzen zuen erranez: «Le génie de la charité ne va pas sans le génie de l'intelligence». Errex zitzaitan gero erakustea gure sainduak zoin lainoki zauden Jainkoari, gogoz eta bihotzez, fedeari eta graziari esker: «et ce double génie ne s'explique pas sans le mystère de la grâce!». Orduan Pascal ginuen aiphu edo Newman. Hots, ez zuen den-mendren etsaigorik erlisio-neari buruz eta berak erraiten zuen: «Egun guziez ohoratzen dut Jesu-kristo». Nola zuen bada ohoratzen, ez dauku salhatu behinere: baina ohore horren sari, Jainkoak azkenean bereganatu beharra zuen ondarra.

Gerlatik landa, Etchepare Jauna nehoiz ez bezalako kar batekin lotu zen berriz ere eskuarari. Broussain Hazpameko eskualzale suharrak sustaturik, itzuli handi bat egin zuen mendiz haraindiko Eskualherrian barna: gogo-bihotzak bethe zitzaizkon hango argiez, hango lurrez, hango anaiez, eta *Eskualdunak* ager-arazi zituen haren oharpen pollitak. Orduetik bethi hango berri jakin-nahi egon zen, izan zadin politika-berri, ala liburu-berri. Adixkide minak ere egin zituen, hiri hetako jaun eskualdun zintzo eta argituen artean.

Eskuara maite duten guziek bethitik amets handi bat ukan dute: gure mintzaire zaharraren zaintzerat eta joritzerat ar litaken biltzar erne bat: hots, «Akademia» delako bat. Zalduby zenak, Inchauspe zenak eta bertze hainitzek horren galde zuten XIX garren mendean, eta orduetik hunat ere, entzun dira asko dei eta agertu asko xede. Xedeaz bertzerik ukan dute zonbaitek: *Revue Internationale des Etudes Basques* delakoan ikus ditake nola 1914eko gerla-aintzinttoan «Cercles d'études» batzu egin zituzten Baionan, eskuararen barnago-danik ikhertzeko. Erran gabe doa Etchepare jauna ere barne zela. Bilkura horiek Akademia baten abiadura bazuten. Baina abiadura horrek ez zuen segidarik ukan; ez segurik uste zuten bezalakoa. Bidasoz haraindian, Azkue Jaun apheza buru, Eskualzaindia sortu zen halere, hamabi lagunekilakoa: bederlatzi hango, hiru hemengo. Etchepare jauna laguntzaile hartu zuten bakharrrik, gure ustez gehixago egin zukeelarik, segur eta halere.

Bainan tira!... Orobat hor egin zukeen lanak ez zion aizinik edo astirik utziko bertzalde egin duen lanarentzat. *Eskualzalen biltzarra* aspaldiko elgartasun bat da. Badauzka bildurik norbait diren jaun eskualdun gutiz gehienak. Urthehal hoinbertzeko bat emaiten dute diruzainaren moltsarat eskuararen alde baliatzeko, eta, elgarren sustagarri, bazkari bat ere egiten dute uda oroz. Bazkari horrek errar-arazi du asko gaxtakeria. Mihi poxoin batzuek ez dutea biltzarra izengoititu: «bazkaltzaleen biltzarra»? Nork nahi zer nahi erranik ere, badakigu zer ongia egiten duen batasun horrek, dela haurren, dela aphez-gaien bihotzetan. Ez balitz hain itsusi bere

buruaz mintzatzéa, erran nezake gogotik zer diotan zor nihaurrek, nola jaun hoiek berotu nuten eta phiztu gure mintzaire ederraren arthatzerat, eta zer eskerrak diozkatedan orori. Bainan bego bertze aldi batentzat! Dugun altxa bakharrrik Etchepare jauna buru eman zutelarik, ez zela lo egon, bazterrak harrotu zituela, jende hainitz bildu zuela, eta Elissalde apheza lagun, abiadura berri bat eman ziola biltzarraren lanari. Geroztik Dassance jaunak ere aintzin-arazi du puskaz; baina badakit ez dela den gutienik bekaiztuko, erraiten badut, behin baino gehiagotan Etchepare adixkidiari bermatu dela, haren argiez, lumaz eta laguntzaz baliatuz.

O zoin lakhet zuen Baionako edo Donoztihiriko buruzagien bilkura ttipietan! Denboraren buruan... iduri zait ikusten dudala oraino, zigarrata erhien punttan, begiak erdi-hetsirik, erran guzieren beba, ixil-ixila egoki: Elissaldek bere ditxoez Oxobiri ximiko; hunek mendia bezalako ihardespena, *bumb!*; Jaureguiberrik Afrikako ixtorio xahar ikharagarri bat konda; M. Souberbielle zenak, serios-seriosa, alegia deus-ez, kitzika pollit bat bota; Dufauk bere xokotik nasai-nasaia botaren errefera; Mendizabal liburu berri erakusten ari; Eizaguirrek kantu, Mattinek edo Ligueixek kobla, Dassance orenen hotsemaile, eta gure Etchepare, xoratu iduri, deneri irriz, irri goxo ezti batez arraitua! Bainan bera hasten zena bada mintzatzen, argitzen zaizkon begiak, kasik biribiltzen, eta arrazoinak atheratzen zauzkitzun, bildu-bilduak, lerro-lerro, xuxen eta garbi, mintzaire gurbil eta aphaindu batean. Ahopaldiak bata bertzearen ondotik metatzen zituen; oso, eder, harri pikatua bezala lanturik, harri pikatua bezain azkar eta xorrotx. Berak bazauden, pisuak elgarri ahotuak eta juntatuak zauz-kala, bertze lokharririk gabe. Handi emaiten zuten, Erromanoen jauregiek ere handi emaiten duten bezala; baina bazaukaten halako arin-eskas eta lagun-eskas aire bat: hitz batez erraiteko, bere mintzairea biziki jauna zuen, bethi xut-xuta, bethi munttoa, arthoski orraztatua, eta ezpaina lore.

Atsegin berezia zen harentzat gazteen zoin-gehiagoan preparatzea eta gero heien lanen ikhertzea. Loriatua zagon hizkuntza pollit bat edo itzulika aberats bat aurkhitzen bazioten; are loriatuago, aphez-gai bat edo bertze agertzen zenean, eskuara errotik zakiena. Alabainan geroaren grina ezin barnago zuen, eta guk bezala uste zuen gazteen jakitatea dela ethorkizunaren gakhorik segurena.

1921ean, Eskualdun biphil batzu elgarretaratu ziren «revue» edo agerkari delako bat behar zutela egin, sort-herriari doazkon jakitate gehien ikhertzeko eta hedatzeko. Lagunketa gaitza bildu ziren, eta ez nor-nahi. Hilan artean izenda ditazke: Blazy, agerkariaren abiatzaile suharrak: Barbier, Apesteguy, C. Dufau, Ithurbide, Colas, Hérèle, Vinson; eta orai-



no bizi direnetan: Mgr. Saint-Pierre, Daranatz, P. Lhande, E. Souberbille, Dassance, Mayi Elissague, Elissalde, Moulier, Gavel, eta nik dakita?...

Geroztik hunat bertzerik ere sartu da erronka horren emendarri. Etchepare jauna hetarik da. Lehenbiziko deia egon ziotenean eza eman zuen: iduri zitzaion *Eskualduna* aski zela Eskualdunen argitzeko; ez zituen herriko indarrak berduratu nahi: handi zezatela kazeta, jori zezatela, baina ez othoi bertze agerkaririk athera, orobat... astekariari kalte egiteko ere! *Gure Herria* ez onesten-eta nola sartuko zen?

Bizkitartean oharturik halere, jende eskolatu hainitzek ez zutela *Eskualduna* irakurtzen arruntegi hertsiegi, haurregi zaukatelakoan; eta bertzalde berak ikhusirik kazeta batek ez zuela eremu handirik uzten ahal jakintsunen lan berezientzat, aithortu zuen geroxago, bien tokia bazitakeela Eskual-herrian eta *Gure Herria* nehork bezain ontsa edo nehork baino hobeki ere lagundu zuen.

Oxobyk erraiten zuen agerkari hortan, Etcheparen hil-berria emaitarekin: «Hemen zaunkigun Etcheparek, hilabethetik hilabetherat, emaiten Pyrenées hunaindiko berriak Arotik hasi eta, gerthakari handienak barne, laborantzako gora-beherak ahantzi gabe, pilota partidetaraino, solasa bazerabilan orotaz hain xuxen, hain xeheki, eta zer eskuara paregabean! *Iritzi* eta *kitzika* tituluaren azpian ere, zer ez dauku erakutsi eskuarari eta eskuarazko liburueri zoakotenik? Orhoit gira nola axalkatu zaukun jakituz bezala Aguirrereren *Garoa*, nola bixtarat eman Axularren *Geroa* eta Duvoisin kapitainaren lan gaitza. Ez ditugu ahanztekoak Eskualtzaleen biltzarreko hitzaldi zombait, ez eta Pierre Etchepare bere anai aphezari egin ziozkan lerroak. Liburu huntako ondar-solasean ager-arazten ditugu lerro hoik: erakutsiko dute nolako bihotzaren jabe zen, eta bogoi urtheren buruan zer bidea eginik zagon, sendimenduz ala mintzairez.

*Gure Herrian* ager-arazi zuen ere lehenik *Beribitez*, liburu gozo bezain ederra. Eskual-herrian egin itzuliño bat aiphatzen dauku xehe-xehea: Kanbotik abia, Garazin eta Iruñen gaindi iragan, Loiola ikus, Donostia eta Donibane-Lohizunen barna itzul berriz ere Kanborat. Bide-nabar kausitu herri, hiri, jende, gauzek sendimendu eta irakaspén hainitzen gaia emaiten diote. Zombait orhoitzapen lan hortan! Zer begi ernea! Eta, denbora berean, zer bihotz mardo eta zabala!

Aintzin hortan haren mintzairez giniona hemen errepikatzen ahal ginuke haren izkiribuzko lanez. Nahi-eta-ez zelaiari hazi gizonak traka dorpea du mendiz-mendi atrebitzen denean. Berdin gertha dakioke hizkuntzari: sukalde-ekzarzetan hazia, baditake josi-aire emaiten duen salunetako dirdira lilluragarrien artean. Baina Etchepare mirikuaren eskuara

segurik, burua gora badagoke nun nahi; ez dio frantsesari berari deus zorrik ez soinez, ez soinu; jaun emaiten du; usaiari baino jaunago menturaz; ez ordean behin ere jaunegi, aberastu-berri ergelaren pare.

Izaitekotz gerla-ondoan, mendiz haraindiko liburuen irakurtzen hasi zenean gogoratu zitzaion hitz berri batzu sar-arazi behar zirela eta eskuara hetaz hazi. Orduan «garbizale» edo *puriste* baten fama bildu zuen. Bizkitartean, han-hemenka urrunko joanik ere hitz-berri-keta, uste dugu ez duela banabertze gure mintzaire zaharra axaetik ere histu. Errana dugu lehenago, eskualdun izkiriataleen nausitzat baginaukala. Hitz hortan gaude.

Orai erran gogo ginuke, zer ahaide eta adixkide atxikia zen: zoin ona, lainoa eta maithagarria, zoin eginbidetsua! Baina haren urhatsen aiphatzeko, behar ginituzke bertze askorenak ere aiphatu, orozbat bihotz minbera batzu sobera barnatik hunkitu: nahiago dugu bada ixilik egon, laguneri, anai-arreben eta gain-gainetik haren andreamen herabea guphidesiz. Berdin liburu hau irakurriko dutenek aise asmatuko dute zer gizon beratza eta, fina zitakeen. Halahala *Beribitez* haren liburuak eman dezake argi, hemengo xehetasunez bertzalde.

Miriku bezala ez dugu guhaurek Etchepare Jauna hanbat ezagutu: erien erranetik badakigu ongi-egile handi bat zela. Mirikuntza aphezetasun bat zitzaion. Nihoiz ez zaukun bere burua aski jakintsun bere ofizioari buruz: eta oixtion baiginion alemanaren ikhasten ari zela! lan herri ez zen jostatzeko hasi; bai ordean mugaz haraindiko senda-bide eta sendagailuen berri jakin nahiz, denak entseatu behar zirela gaitzari ihardokitzeko. Baina jakitatea bezain gora emaiten zuen karitatea: ohartzen zenean eri bat dirubeharretan zela, bazakien nola alha, alegia deus-ez, osagarriekin, haren moltsa! Aldudan bezala Kanbon ere hainitzek frogatu dute miriku gixako horren arrabots gabeko urrikalmendua.

Soldado batentzat ez da hain heriotze ederrik nola harma eskuan etsaiari buruz hiltzea. Miriku batentzat ederragorik baditakeia, eri baten ohe-aldean bizia galtzea baino! Hala egin du bada Etchepare jaun mirikuak. 1935ko urtharrilaren 9a zen. Arratsean eri baten ganat izan zuen galdea. Doi-doia sartua zen bertze eri baten ganik eta biziki nekhatua! Ahaide batek nahi izan zuen lagundu; baina ezetz erranik, bakharrik joan zen ahal bezain laster. Eriaren etxerat-eta, bere xapela dilindan ezartzerat egiten du, eta huna non bet-betan erortzen den: alditxar delakoan bere baitharazi nahi dute. Zorigaitzez, ez da probetxurik: bihotza gelditua du, hila da.



Ez dugu erraitearen beharrik zer ukaldia izan zen haren ahaide adixkidentzat. Mututuak ginen denak, harrituarekin sorhaiotuak bezala. Ondoko egunetan senditu ginuen haren hutsa, eta oraiko ustez segurik, ez du iduri nehork behin ere betheko duen. Eskualherriak ehorzketa gaitzake egin ziozkan. Bazakien bere seme handienetarik bat itzuli zitzaiola.

Eta huna nere azken hitza, Etchepare jaunaren arimari berari: «Adixkide maitea, onets-azu nere agur xume hau Jainkoaren argien erditik. Mundu huntan zineno, egiaren eta zuzenaren ondotik ibili zira, egarritua, thematua, erdi-etsitua, ilhumbeka eta haztaka. Azkenean zure fede herabetsua berriz piztu zitzaizun, sendo eta saildu; berriz itzuli zinen, abendoan, girixtino urhats guzietarat lainoki bezain gizonki. Bai, herroak bet-betan hartu zinduen, bainan ez uste gabeen, haren menturan baitzinauden aspaldi-danik. Ah! orai badakizu hemen erdizka baizik edo bate-re ez zinakiena! Orai gogo-bihotzak alegrantzietan ditutzu! Ez bide duzu atsegin ttipia, gutartean bethi zintzo, zuzen eta leial agerturik, oren gaixtoenetan ere, eta bereziki azken eguneraino zure aldeko lagun gaixoez hain ontsa, hain handizki urrikaldurik...! Zaude bada dohatsu, guri eta gure beha, bethiereko zorionean. Gu ere, zure Eskualdun lagunak heldu gira bederezka herbail bainan fededun. Emaguzu eskua!».

## BARBIER JAUN APEZA

Jaunak eta andereak, agur!

Biltzar huntan ospatzen dugun Jean Barbier apez zena, ez dut bera biziki guti baizik ezagutu. Behin apezgai nintzelarik gutun bat igorri nion kontseilu galdez euskaraz hasia nuen lan bati buruz eta polliki ihardetsi zautan. Handik hiruzpalau urteren buruan, Uztaritzeko komentuan ikusi nuen lehen eta azken aldikotz. Bazkaritean auzo kausitu ginen eta alabainan mintzatu. Adiarazi zaitan linguistikaz ez zuela hanbat axolarik eta jende xehearen euskara zitzaiola orotako nausiena. Galde egin bainion zer irakurri behar nuen euskararen hobekienik ikasteko, artamendatu zautan hemezortzi mendeko Bernard Larreguren ixtorio saildua.

Gerotik ez nuen ukan Barbier jaunarekilako har-emanik, nahiz haren izkiribu guziak ager arau irakurtzen eta miresten nituen.

Apeza hil zen ondoan, Gieure Baionako apezpikuak galdegin zautan Semenari handiko apezgaiari hitzaldi bat egin nezoten Barbier zenaz.

Orduan, xehetasun-keta ibili nintzen haren adixkidetarik eta hartaz mintzatu ziren kazetetarik zerbait ikasi beharrez. Hain xuxen katedraleko bikario zen J.B. Barbier haren iloba, eta osaba zenaren paperak haren eskuetan ziren. Eskola-lagunak baiginen Jean-Baptiste eta ni, nasaiki argitu ninduen harek ere. Eta orai badakizue ene iturburu gehienen berri, nahiz geroztik ene notak guti edo aski emendatu diren.

Horiek hola, mintzatuko gira lehenik gizonaz eta gero haren euskal-lanez.

## I GIZONA

Jean Barbier Donibane Garazin sortu zen 1875eko uztailen. Ez dakigu ea ilabetearen zazpia zen ala bederatzia, meriako eta elizako ageriak akort ez izanez. Haren aita zen Jean Barbier, torneatzailea; ama, aldiz Jeanne Officialdeguy. Aitaren arbasoak Irisarritik etorri ziren Donibane huntarat hemezortzigarren mendean, denak torneatzaile eta kadiraegile ziren, bai eta, batto segurik, hezur-zuzentzaile, konduaren gaineko... Deitura frango desberdina zuten meriako paperetan: *Dubarbier*, *Barberena*, *Bar-*



*bier*; eta bertze. Beharbada daunatugotik, barbegotik jin zitzaioten izen hori. Officialdeguyarrak aldiz Mendibetik jalgiak ziren berrikiago.

Donibane, denbora hartan, orai baino biziki euskaldunagoa zitaken. Sort-etxean segurik, Jean ttipiak, euskararekin batean, ikasi zuen zer nahi lekuko kantu eta itorio. Gauza hortaz froga bat. Haren anaia Leonard, denek Leon deitzen zuten aita familiakoa ezagutu dutenek ez bide dute ahantzia zer kantari, bertsulari eta kondari alegera zen. Orroit naiz oraino Arnegi-Politeanean haren ahotik entzunik berak eginikako hiru kantu: *Neure andrea andre ttipia, Soldadoa sartzen da gurlak funditua*, eta *Martxoaren bia, ai hi zer eguna...* Alta, Jakes Pekotx eta Joanes Martxotekin muntatu jostetak aipu zituelarik, bazen konpainian ixtant bateko irri! Ez da erraitetako baizik, gure Jeanek sort-etxean aurkitu zuela euskal iturburu bat paregabea, ondoko urtetan ederki baliatu behar zuena.

\* \* \*

Gazterik hauteman zuen bere baitan apezteko deia. Donibanen hasi eskolak bururatu zituen Hazparnen, Larresoron eta Baionako apezgaitegian. Hartze ona baitzuen alde batetik, eta laneko gogo hainitz bertzetik, ikasle hobereenen lerroan argitzen zuen, frango errexki. Eginbidezko sailtarik kanpo, bere gustuzkoetarat lerra zitakeen makurrik gabe: hain xuxen, euskal kulturari zitzaion errotik atxikia. Jadantik ari zen euskal kantu eta ipuin biltzen, bai eta bertsu berri ontzen. Orduko zoin gehiagotan zenbat sari ez zuen irabazi! Hogoit urtetan izkiriatu zuen *Antxitxarburuko buhamien ixtorioa* euskaraz eta, omen, erdaraz nobela bat: *Le roi des bohémiens d'Antxitxarburu*. Lan hau zer bilakatu den ezin jakin dugu, euskarazkoa haatik ager-arazi dugu guhaurek duela lau urte.

1898an apezte-ta, Jaun apezpikuak Tolosarat igorri zuen teologo graduketan, eta bi urteren buruan «dotor» itzuli zen astirik galdu gabe.

Berehala Larresoroko ikastegirat izendatzen dute. Lau lorietan haurrekilakoa ezin hobeki baderama, bakotxaz ximenki arta hartzen duela. Gazteak ordainez arras atxikiak zaizko. Lanartetan bere euskara aberasten ari du Hiriart-Urruty kazetolari aipatuarekin, eta musika Hiriart-Makola kantika xahar biltzalearekin.

1905ean, izendatze berri: huna gure Barbier Baionako katedralean bikario. Hiri hortan laster ohartzen dire otoitzeko gizona dela eta arimez osoki hartua: apez laino eta mintza-errea egiten dute, jende xehari eta beharduneri emana. Ez doa halere handi-mandien ihesi: hauiek, egia erran, estimatzen dute haren jakitatea ba eta gorensten haren hautuzko jen-

detasuna. Orotaz grinatua, nehun ez dagoke: parropiako tan guzietara beti prest, aintzina badago kazetolari, olerkari eta euskalzale, sariketa zombaitetan oraino parte hartzen duela, ezin ohorezkiago! Bainan jadanik, bere bizi guzian iraunen dioten buruko min izigarriak hasten zaizko, ez baita batere harrigarri!

\* \* \*

Zortzi une gisa hortan pasatu-ta, 1913an Barbier apezta Senpereko erretore emaiten dute. Senpere ez zen gero nola nahiko parrokia, bainan Lapurdiko hautuenetarik bat, aspaldi danik kapablenez dohatua. Barbieren tau aintzinekoak hasteko, zoin bere jite bereziarekin, apez aipagarriak ziren: Belsaguy, Larreguy, Menta eta Sancinena.

Funtsean, gure Barbier atseginekin jabetu zen bere parropiaz; amodioz maitatu zuen, jeloski bezala maitatu; eta beti maiteago zuelarik, beti ederrago egin nahi izan zuen, erran nahi baita girixtinoago.

Behinik bat, ez zuen nahi jendeen fedea sendimendu huts izan zadin; ez zituen parropiantak *berotu* nahi bakarrik, bainan *argitu*. Horra zergatik katiximak eta eskola libroak gain-gainetik sustatzen zituen: haurrez berak ere arta hartzen zuen, artetan euskara poxi bat erakusten ziotelarik. Predikuetan halaber bazuen sineste, eta bera ari zen igandetan Ebanjelio sailduaren erakusten xeheki, kartsuki, hunkigarriki eta zenbait aldiz... luzeki.

Luzetasun hortaz kondatzen dute gertakari bat jostagarria. Baionan izan ziren 1929an Gorputz Sainduaren besta handi batzu. Charost kardinale omen gaitzeko predikariak behar zuen mintzatu «Camp Saint-Léon» deitu pentze zabalean. Beilariak milaka baziren herri guzietarik etorriak. Iguzki Saindua bere pausa lekuan ohorezki ezarri-ondoan, jendea ixil-ixila belarrean jarri zen....

Kardinale handiak hasten du bere hitzaldi handia. Barbier jauna bere parropianten anean dago: hauk pazientziarekin jarraitzen zaizko predikuari... Oren erdia joana, eta kardinalea beti mintzo. Barbier nardatzen hasia hainbertze ele eta parabolaz... Berroigarren minuta, ba eta Charost gaizoa sekulako trenpuan ari eta ari. Azkenean Barbier ez dagoke: pastikatua, erraiten dio bere parropiant bati: «Ez duzu luze kausitzen?» Eta gizonak irriño batekin arropostu: «Bah! gu Senpertarrak usatuak gara!»

Zer nahi den ixtorioxka hortaz, Barbier jaun erretore eliza-gizon ederra zen, elizkizun ospatsuak laket zituena, otoitzez orratuak, kantu altxagarri apainduak.



Parropia guzia balsan Jainkoaren ganat kudeatzen bazuen ere, Barbier jaunak, ahal zuen guziet arimak bakarka, bederazka, laguntzen zituen saildutasunerat, bakotxa bere dohainez baliazaz. Gisa hortan, nor harri hainbertze apez-gai eta serora-gai acera baita Senperetik?

Bai, Barbier jauna, errotik apeza zen. Eta uste dugu zinez, ez zituela euskara eta euskal-ohidurak hain artoski sustatuko, ez balitzaio iduritu euskaldungoa bere elizalnetarik bat zela, fedearen eta herriaren sustengu.

\* \* \*

Zorigaitzez ez zen zahartu. Ez omen zuen gaixoak orenik ez jateko ez lo egiteko. Beti alha zituen buruko min saminak eztitu beharrez, medikuen baimenik gabe, beti erremedio sanjan ari ornen zen, osagarria fun-dituz.

Horrela, behar baino goizago itzali zitzaikun 56 urtetan, 1931 ko urriaren azken egunean.

Haren ehortzetarat mundu bat bildu zen, Eskaldun idazle handienetarik baten agurtzeko eta dolu horren deitoratzeko. Jaun apezpikuak ofizialki jakin-arazi zuen zer estimu handitan zaukan diosesak galtzen zuen apez saindu bikaina.

## II

### BARBIEREN EUSKAL-LANAK

Barbier jaun apezak lan hainitz egin du euskaraz. Zenbait bere izen-deiturekin agertu ditu, bertzeak izenordez sinaturik: *Ganix*, *Nehor*, *Orduan gazte*, *Haurmaite*, *J.B.* eta azkenik *M.A.B.* Hots, zazpi sinadura orotarar.

Baxenabartar hutsa izana gatik, Lapurdin bizitzearen bortxaz eta Lapurdiko liburuak irakurtzen ohi zituelakotz, euskara lerratu zitzaion (bertze hainitzi bezala) nafar-lapurtarra erraiten diogun hizkuntzara. Berak Piarres bere liburuko ondar-plametan aitortzen du gauza hori den gutieneko urrikirik gabe, pentsatuz horrela ez zitzaiola euskara aberatsago eta biziago baizik ateratzen. Bere gisako euskara batu bat egina zuen harek ere.

*Eskualduna* astekarian eta *Gure Herria* errebixtan agertu dira haren lan gehienak, nahiz ondoan berak andana bat liburutan bildu dituen, ez zitezten barreaturik egon, alde bat galtzeko arriskutan.

1910ean, oraino bikario zelarrik, *Nere kantuak* izenaren pean liburuxka bat jalgi zuen, orduko bere hamabi kantu hoberenekin: hor daude hain ezagutuak diren *Amatxo*, *Irrintzina*, *Galerna mendian*, *Garazin gandi*, *Krixto erregeri*.

Gero, hamar urtez, ez du kasik deus ere agertzen, salbu zenbait kantu 1914eko gerlari buruz. Bainan ez dago alfer, ari da ipuini eta kantore zahar bil-eta bil... Notak metatzen ditu bere herritarren bizi-modu eta ohidureri buruz.

1920ean liburu bat argitarat emaiten du: *Ama Birjina Lurden*, Provost apezaren lan batetik itzulia. 1921ean, lagun batzuekin sortzen du *Gure Herria* deitu errebixta, eta hartan ixurtzen bere jakitate gehiena bortz-pasei urtez...

1926an *Supazter xokoan* liburu ederra ateratzen da: badauzka bi dotzена kondaira, bortz komedia eta kantu hat. Omone onezko obra zinez, merexi bailuke beriz agertzea!

1930ean *Ixtorio-mixterio*, euskaraz hori ere bainan frantses itzulpena parrean, kasik hitzez hitz.

1931 an *Légendes du Pays Basque d'après la tradition*, frantsesez, bainan bigarren parte batean ixtorio guziak euskaraz emanik. Lan horrek hiru parte ditu: *Laminak*, *Jondoni Petri eta Jesusen kondairak*, *Harritzeko ipuinak*. Lehen bi parteak *Ixtorio-mixterio* liburutik hartuak ziren. Bilduma baliosa, pondu askotan Barandiaran handiaren ikerketak osatzen dituen. Giese jakintsun alemariak lan sakon baten gaitzat hartu baitu, ezin uka ditake munta handiko obra dela, folklorea den bezen batean.

1926ean eta 1929an agertu zen bi partetan 520 plamatako nobela luze bat: *Piarres*. Aipatzen daukun gizon gixakoa segi dezakegu urratsez-urrats bai Senpereko bizi-modu guzietan, bai 1914eko gerla lekuetan. Arrazoinekin erran dute etnografo argitatzat salatua zaikula Jean Barbier obra nasai hartan.

Bertzalde, zazpi komedia jalgi dira haren lumatik: *Kauserak eta krux-petak*, *Gauden euskaldun*, *Zubietako debrua*, *Xilintxa sorgina*, *Ezkila xarmatua*, *Sorginak*, eta *Haurrik ez*. Teatro prestu hortan ez xerka ausartzia handirik, ez politika oihurik, ez saminkeririk. Ordua ez zen hortakoa. Antzerkilariak eta aditzaileak josteta eta irri goseago ziren urte hetan, berrikuntza egarri baino. Eta ahusamendu errexak nahi zituzten. Sasoineko galdeari ihardesten zion Barbieren teatroak.

Gure apeza Christophe Dufau jaunarekin an izan zen luzaz euskal kantu zahar biltzen eta *Gure Herria*n publikatzen, hitz eta musika. Berrehun bat uste dut bazituztela eskuraturik. Aita Donostia eta Azkue-



ren itsasorat ixur-arazi zuten heiek ere beren ibaitxoa, asko kantore gal-tzetik begiratu.

Bainan Barbier ez zen bakarrik bertsu biltzale; bera ere ari zen bertsu ontzen. Haren kantu eta kantikak batetaratuz, balitazke aise ehunez goiti, batzu erras ederrak, Elizanburu eta Ibarrarteneri zorrik gabekoak; bertze batzu pollitak, errexak; denak sendimenduz beteak, euskara argi goxo batean trokatuak.

Oixtion aipatu itzulpenen gainerat, Barbier jaunak ez du frantsesez hanbat lan ager-arazi Bizkitartean ezin ahantz ditzazkegu:

*Les bohémiens d'Antchitcharburu* (1905ekoa)

*La mort de la Paysanne* (1921ekoa)

*La tragique partie de pelote* (1923ekoa)

*Trois légendes sur Axular* (1925ekoa)

*Axular et les sorcières* (1925ekoa)

*L'abbé Charles Bécas, curé de Bidart* (1926ekoa)

Titulu honek guziak euskaldungoari eratzikiak ziren, ikusten duzuen bezala.

\* \* \*

Bazaudezte naski, zerk sustatzen zuen Jean Barbier bide hortan sar-tzerat eta jarraikitzerat.

«Odolean zuela, jitea halakoa, pausu-lan!» Bai, hori erran izan dute. Funtsean zertako ez? Nork gure dohainak, gostuak eta beharrak baditugu.

Bainan irakur-azue *Supazter xokoan* liburuari berak eman zion ain-tzin-solasa, eta han agertuko zaitzue bertzerik.

Euskal-herriaren plantari so, Barbier apeza grinatua, minberatua zagon: ikusten zituen arrotzak gure lurretan nausi paratuak, gure etxaldez jabetzen ari, gure arimez berdin; gure ohidurak, euskara, fedea larre joaki, kanpoko haizek zimeldurik. Orduan, gure arima ez saltzekotan, iduri zitzaion gogor egiteko ordua zela, ez bazen ere berantegi. Eta berak bere neurrian, ahal bezala, lumaz bederen, nahi zuen parte hartu, egjazko Euskaldunen iratzarpenean. Horra bihotz handi horren xede handia.

Ez zaiku segur itsusi Garaziko seme batek eman baitauku mende hunen hastean oraino ere behar-beharrena zaikun irakaspen hori.

## AITA LHANDEREN LANEZ

Ziberotar batek hain ederki aipatu baitauku Aita Lhande zenaren bizitzea, haizu dakiola manex bati izkiriant handiaren lanez laburzki bada laburzki, zerbaiten erraitea.

Gazte-gazte danik hasi zen Pierre Lhande literaturari ohartzen; Mauleko ikastegian erdarazko bertsuak jada ontzen zituenaz geroz, hama-lau-hamabortz urtetan. Bainan Baionako Semenari handian lotu zitzaion hogoi urtetara gabe izkiriatzeko sukar handia: poesiak, kondairak, kantikak, burrustaka barreatzen zituen aldizkari katolikoetara, dena bizi, fede eta pindar. Ez ziren beharbada denak aldi oroz arras zohituak hastapen hartan, bainan erakusten zuten luma erabiltzale gaztea norbait handi izai-teko bidean zela. Luza gabe landarea zuhaiztu zen, muskil, lore eta frui-tuak ausarki emaiten zituela.

Uzta hortaz mintzatzean, obrak ez baiginituzke nahas-mahas aipatu nahi, elgarretarik berexiko ditugu:

Eskuarez eman dituen lanak; erdaraz, bainan euskal-gaiez eman dituenak; erdaraz bertze gai hainitez eginikakoak.

### I

#### Euskarazko lanak

Egia erran, Aita Lhandek ez du utzi euskarazko obra guti baizik. Bertsez doi-doia bortz kobla Aita Aizpuru adixkide bati buruz. Hitz laxox Xuberoko euskaraz, *Euskaldun ona* deitu astekarian zenbait berrix-ka; 1915ean Baionako apezpikuaren gutun bat itzuli zuen; 1917ean Curutchet aphezaren hil mezan Onizen eman mintzaldia ager-arazi zuen; jalgi zuen ere dei bat: «Uskaldün güdükariantako güthünak».

Lapurdiko mintzaireran, hitzaldi bat: «Eskuara eta Eskualzainak». Gipuzkoako euskara zitzaion errexena: euskalki hortan egin ditu bi hitzal-di: *Gure orma zaharra* eta *Aguirre irakurgaikaria*, berak nobela bat ontu du «*Yolanda*», eta bi urtez Euskalzainen agerkaria *Eusker*a kudeatu du, beti gipuzkeraz, arta handienarekin.





## II Erdaraz euskal-gaiez

Aita Lhandek Euskal-Herria maite zuen bihotz-bihotzez eta ezagut- arazi nahi zuen gure lurra kanpokoeri; hortakotz naski erdaraz ari izana da euskal gaien erabiltzen.

Bertsuz publikatu zituen bi poema: *Le voeu d'Ythurralde* eta *Les Tourterelles du Père Anchieta*. Gaineratiko guziki hitz laxoz.

Argitan eman ditu gure aspaldiko orroitzapen ilunak *L'énigme basque* eta *La Madeleine de Tardets* aipatzean.

Gutarteko ohidurez, nasaiki mintzatu da: goretsi du euskal etxondo- aren iraupena, hiru titulupean: *Autour d' un foyer stable*, *Autour du Foyer basque* eta *Le Pays basque à vol d'oiseau*. Lan nausi pare baten medioz (*L'âme basque: La hantise de la mer* eta *L'Emigration basque*) erakutsi du nola euskaldun hainitz herritik lanketa joaiterat ekarriak diren. Eskual-Herriko hil-hobi zaharren berezitasunez ixtudio eder bat ager-arazi du: *La tombe basque*.

Pilotaz bi hitzaldi utzi ditu: *La pelote* eta *Notre jeu national*. Behin azal- du izan du ere: *Le théâtre en pleir air*.

Bere euskal-literatura lanetan zenbat herritar ez ditu goretsi: Azkue, Aguirre, Pio Baroja, Luis Elizalde, Campion, Julio de Urquijo, Salaverria, Aranaz Castillanos, Martin Hiribarren, Maurice Harriet eta abar.

Bereziki Etxahun Barkoxe ospatu du gain-gainetik, kasik piztu du, haren koblak bilduz eta Larrasquetekin publikatuz eta horrela bidea ide- kiz Haritschelhar jaunaren obra handiari.

Erran gabe doha Iñaki eta Xabier bi saindu euskaldunak ez zaizko- la sekulan ahantzi.

Bere nobeletan eta ipuinetan Euskal-Herria sartu du ahal zuen guziaz: ikus *La Ferronnerie d'Ameznabar*, *Mirentxu*, *Yolanda*, *Bilbilis*, *Le moulin d'Hernani*.

Bainan Aita Lhanderen euskal obrarik handiena izan da haren eus- kal-hiztegia, 1.117 paia dauzkana, Xubero, Baxenabarre eta Lapurdiko 60.000 hitzez goitirekin. Lan horri buruz bazuen berak bildurik eta bil- arazirik hainitz eta hainitz nota balios. 1926ean hasi zen *Dictionnaire basque-français* horren argitaratzen, bainan berrehun bat pala ateratu-ta, geldi- tu zen ezin jarraikiz bertzelako sailek itoa baitzen. Eskualzale guziak penatuak ziren. Eta egun batez, Aranart apezak eta biek deliberatu ginuen gure laguntza eskainiko giniola Aita Lhande onari. Onhartu zaukun eta

bere nota guziak igorri zauzkigun berehala: 1938an hiztegia bururatu zen: atsegin hartu ginuen eta aita jesuistak nola ez?

## III Erdarazko bertze lanak

Aita Lhande ez zuten Pariserat bildu eskualzale gisa, bainan apez- lanerarat. Aitzinean ere egin zuen apez-lan, eta jalgi zituen araberako libu- ruak. Gazte altxatzen ari izanik, *Jeunesse* izkiriatu zuen erakusteko nola iduk gaztekilakoa; *Luis* nobelan ikus ditake nola ama batek, nahas eta gal dezaken bere semea: *Mon petit prêtre* nobelan aldiz nola amak salba deza- ken. *Fils de Dauphin* eta *Les lauriers coupés* familiaren batasunari buruz egi- nak dira. *Un maître humaniste: Le Père Longhaie* liburuak orroit-arazten du jesuita predikari gaiek ukaiten zuten erakaspena. *Les Mouettes* nobelak eri- zainen eginbideak aipatzen ditu alegia deus-ez. *Les Mémoires d'un écureuil* liburuak ere badu bere zuhurtzia.

Pariserat-eta, Aita Lhandek aurkitu zuen nun zer egin. Dubois kar- dinaleak galde egin zion iker eta sala zezan hiri nausiaren inguruetako miseria gorria, hango eliza eta apez eskasa, bainan ere han gaindi zerbait ongi egiterat ari zirenen merezimendua. Gure ikertzale suharrak bazterrak inarrosi zituen bere artikulu, hitzaldi eta hiru liburuekin: harrigarriko arrakesta ukan zuten *Le Christ dans la Banlieue*, *Le Dieu qui bouge* eta *La Croix sur les fortifs* izenekoek. Ohart ondoriore: Bortz urtez eraik-arazi zituen 52 eliza, 90 gazteen bit-toki, 52 parrochia-etxe, 40 eri artategi, 12 eskola, 8 haur baratze eta 14 haurtegi.

Bigarren sail bati lotu zen Aita Lhande: Radioz predikatzeari, ordu arte Frantzian segurik nehor ez baitzen atrebitu lan hortara. Hitzaldi argi, xehe, hungigarri horiek bazuten aditzale, eta inprimaturik atxiki nahi bai- tztizuten asko jendeak, hamalau liburutan agertu ziren: *L'Évangile par dessus les toits*, *Le bon Pasteur*, *Les pauvres dans l'Évangile*, *Les béatitudes* eta abar.

Bainan zenbaitek estimatzen zuten leku soberaxko bazaukala hiri nausian, eta Parisetik urrundu behar zela. Buruzagiek itsasoz haindirat igorri zuten ohorezko itxura guziekin, mezulari handi gisa Ameriketara, Madagascargartera eta Indiarat. Bera onhartua zen jokoaz bainan bazo- an umilki eta pidaia bakotzak emaiten zion liburu berri baten parada. Horrela sortu ziren: *La France rayonnante*, *Argentine*, *Chili*, *Uruguay*, *Madagascar* eta *L'Inde sacrée*. Zorigaitzez, kurrida horiek funditu zioten osaga-



rria: odolak jo zion bururat. Zenbeit astez mintzoa galdurik, hasi zelarik berriz mintzatzten, euskara jin zitzaion ezpainetarat, geroago anglesa, azkenean frantsesa.

Erran dugunetik ezagun ahal da egun omendatzen dugun jakintsu-nak ezinago ohoratu dituela Eliza, Jesusen konpainia, Euskalzaindia eta Euskal-Herri guzia.

## AZKUE

Ordu dugu guk ere «Gure Herrian» Resurrección María Azcueren aipatzea. Eskuararen alde nehork egin duela nehoiz harek bezalako lan ketarik eta lan onik?

Iragan hazaroan itzali zaikun jaun hori gutik dute naski ontsa eza-gutu. Ez zen jenden arterat barreatu hetarik. Nahi dut ez zela gizon ihes-karia, bainan lanek zioten bakarrik manatzen etxetik atheratzeko, ez behin ez berri jakin nahiak, are gutiago elhekatzeko janizak.

Gu haren liburua eta gaineratiko idazkeri esker, heldu izan gitzaizko poxi bat ezagutzerat, eta irakurlek barkatuko daukute gizona balno xehekiago aipaturen baititugu haren obrak.

1864eko agorrilaren 5ean sortu zen Lequeition muthiko bat Eusebio Azcueren etxean. Eusebio hori irakaslea zen, eta eskualzale suhar bat: harena da *Parnasorako bidea* deitu olerki edo poesia bilduma, 1896an ager-tu beharra zena.

Etxeko lore berriari Resurrección-María eman zioten izena, eta art-hatu zuten gain-gainetik.

Erran daukutenaz, «Nautica»ko erakaspenari jarraiki zitzaioten sort herrian berean (1877-1880); 1881ean kausitu zuen Bilbon baxelergoa; laur urthe higatu Gazteitzko aphez-gai-tegian; handik lekora bertze hiru Sala-mankan Liburu Sainduen eta Elizaren legen ikhertzen. Grado guziak bildu zituen. Gero bai Belgikan, bai Cologne hirian, ikasi zuen musika biziki barna. Alemanian egonez alemanari ere behar zitzaion ontsa ohar-tu, eta hortik gerthatu zen frantses zonbaitek uste baitzuten Azcue, Fran-tziaren etsai zela. Ez zen gero frantseseri den gutienik aiher! Gerla den-boran «*Eskualduna*» deitu astekarian aski garbiki eman zuen bere aburua.

Zer nahi den, gazte-gazterik aitaren urhatseri jarraiki zer, eta esku-ara odolean sartu zitzaion, hil-arte iraun behar suhar baten pare.

«Instituto de Biscaia» delakoan eskuararen irakasteko kargua baitzu-ten lar batzuen balioz nork irabaz, Unamuno idazlari famatua Azcuek garhaitu zuen...

Entzun dut erraiten Unamunok ere bazuela ekhai onik lan horri buruz, eta beharbada hobe izanen zela eskuarari eman balio bere bizi guzia: hobe izanen, bai berarentzat, bai eta eskuararentzat! Nik ez dakit balitz-eko eiherak nolako irina dukeen. Bainan badakit Azcue jaun aphe-zak izaitzez ez duela bere mendea galdu.



Akademia xutik eman zutelarik, hura hautatu zuten buru, eta hil-arte, erran nahi baita hogoi-ta-hirur urthez, haren eskuetan gelditu da eskualzaingoaren giderra.

\* \* \*

Azcue jaun apheza , aphez zela oroz gainetik nehork ez du behin ere ukatu. Othoitz-gizon kartsua, predikari suharra, arima argitzale eta susta-tzale bizia.

Medikueri nahi ukan zioten ezagut-arazi Thérèse Neumann *La estigmatizada de Konnersreuth* liburuaren bidez. Ager-arazi zuen bertzalde *Jesusen biotzaren illa*, eta Lapurdiko katixima baten itzulpena. Kantika zer nahi ere jalgi dira haren gogo-bihotzetarik, hitz edo musika: *Recordare, Jesusen biotzari, Andra Mariari, Done Joseperi, El Rosario, Letanias, Apez ostegunerako ototza*.

Bainan elizatik landa, bazakien arraiki ibiltzen eta alegeraki idazten: haren teatroa nasaia da.

Komedia pollit bat bada harena: *Colonia inglesa*, berak eskuaraz emana: lau «zarzuela»: *Vizcaytik Bizkaira, Pasa de Chimbo, Sasi eskola, Eguzkia nora...* Ba eta bi «opera»: *Ortzuri* eta *Urlo*.

Bizkitartean ez du iduri Azcue jaunaren musikak eta teatroak erakarri diotela jakintsunen artean omen handirik! Ongi egin du halere entseatzea. Bertze eskualdun dohatsuago bati, nork daki ez dionetz bidea zabaldu, erakutsiz nun diren inthak eta murtzi-harriak bide hortan.

\* \* \*

Biziki errexagoak eta atseginagoak zaizku haren *Txirristadak* eta ipuiak ere, behinik behin *Ardi galdua* eta *Bein da betiko*.

Hor dira ageri Azcue jaunaren eskuara magu eta zirtu pollitak.

Halaber irakurgarrietarik ez othe *Lamiak Euskalerrian?*

\* \* \*

Haatik jakitatezko lanek egin dute jaun horren fama handia, ez bakarrik herritarren artean, bainan urrungo erresumetaraino. Hasteko nola ez aipha haren hiztegi harrigarria: *Diccionario vasco-español-francés*. Hitzak bildu ditu metaka, liburu eta paper zaharretan, bai-eta (herriz-herri ibiliz) Eskual-Herri bazter guzietan.

Diote hiztegi horrek badituela itzalak: zombait hitz gaizki hartuak edo gaizki itzuliak (berezi frantseserat); huts edo eskasak andanaka; hortako behar izan zuen Aita Lhandek Azcuere lana osatu bere hiztegian, Baxenabarreko eta guziz Xuberoko hainitz eta hainitz hizkuntza eratzikiz.

Halere hiztegi hori izan da, eta izanen ere luzaz naski, eskualzale jakintsunen ithurburu joriena. Gizon bakhar batek egiteko, erran ditake mixeriozko lan bat dela egiazki!

Azcuek moldatu zuen sakel-hiztegi ttipiago bat, arras baliosa, nahi dut, ez bizkitartean Ixaka Mendizabalena bezain aberatsa.

\* \* \*

Eskuarari datxikola, izenda ditzagun bederen ager-arazi dituen gaineratiko lanak.

Eskuararen irakasteko: *Euskal Izkindea* (erdaraz eta eskuaraz); *Met-hodo práctica, Clave de temas. Prontuario*.

Eskuararen ikertzeko: *Morfología vasca, Particularidades del dialecto roncaldés, Aezkera, La epéntesis en la conjugación vasca. Verbo guipuzcoano. Del acento tónico vasco, Evolución de la Lengua vasca, Neologismos. Acerca del Santoral vasco, Gipuzkera osatua, Mendibururen idazkiak eta idaztanka, Observaciones acerca de la «Langue basque et langues finnoises».*

Denetan Azcue jaunak erakusten du zuhurtzia bat gaitza. Eta zentzu horrek begiratzen du gehienetan enganatzetik.

Zonbaiten arabera, on zukeen bilhatzea bertze jakintsunek ere zer zioten, ala eskuararen legez ala erdaren legez: uste dute hertsitu duela bere behakoa bethi bera bere hartarik ariz, eskuara barnetik miatuz, hesiaren gainetik auzoetarat ez aski emanez begi eta beharri.

Gure iduriko, Azcue ez zen ez hain hertsia, ez hain lauso. Irakurtzen zituen arrotzen lanak, bainan ez aipatzen, edo doi-doi, nahiago ziotelarik egin ez ikusiarena. Orotan berak bildu hitz eta hizkuntza nasaietarik bazaukan bazela aski argi gure mintzaira xaharrari buruz: eta argi hoik berme seguragoak zitzaizkon izen ospetsuenak baino.

Behin edo bertze, bixtan da haatik ez zuela kalte izanen hain berekor edo berekoi ez izaita. Bainan infrentzu gabeko aurkirik ez da.

\* \* \*

Azcue jaunak musika ikasi zuela erran dugu, eta bere baitarik egini-kako lanek ez ziotela eman uste zuen fama.



Bainan eskual kanta bilha, ez du hanbat parerik ukan, salbu naski Aita Donostia.

Eta nola ez ditu ezagut-arazi? Irakur *La Música popular vascongada*. Irakur guziz *Cancionero popular vasco*, bere hameka liburutan, eta bertze *Cancionero* hura, bederatziz liburutan, bai eta *Euskalerraren Jakintzan* eratziki dituen kantu hek guziak. Zer bilduma!

Eskual kantuen amodioa bihotzean sartua duenak eskerrak izanen diozka Azcue jaunari, bizi deno...

Hacen ondotik kantu bila ibiltzen denak behar du aithortu deus guti duela biltzen: buruxka arin batzu, izaitekotz.

Erran ditake salbatu dituela ordu onean, itzaltzerat zoazin hainitz aire eder, eta ez balu ere bertzerik egin, tan gaitza bazukeen eginik sort-herriaren alde!

Bainan kasik harrigarriagoko lan bati lotu zen gazte-gaztetik, nahiz izkiribuz ezarri, ohidura, erran-zahar, ipui, ikusi-mikusi, basa-sendagailu, basa-sineste, aspaldiko bertsu, eskual hizkuntza, eta holako!

1882 plama handi bethe ditu xehetasun hoitaz, eta eskualdunen gogo urbildik ezagutu nahi duenak badu hor zer ikas.

Ez du gezurrik erranen. Bada oraino hainitz ekhei bazterretan *Euskalerraren jakintzako* lau liburuak bildu ez dutenik. Bederen erakusten daukute zer den egiteko eta nola egin, eta jadanik zama bat gaitza ezartzen daukute begien aintzinean.

\* \* \*

Hots, nahiz zehar-mehar baizik ez ditugun aipatu Azcue jaun zena-ren lanak, badugu aski erranik erakusteko Eskual-Herriak galdu duela seme on, jakintsu eta langile ospagarri bat.

Egunkari-astekariak erran dute nota itzali den. Ibai ondoan iraganez urerat lerratu. Handik salbatu ahal izan dute, bainan inharros-aldiari ezin ihardoki laur-hogoi-ta zazpi urthetan..., eta zombait egunen buruan Jainkoa baithan pausat.

«Gure Herria»k esker mila ongi egile kartsu zenari! Agian gaztek nahiko dituzte Azcue handiaren liburu baliosak irakurri eta gogoan erabili.

## «LARREKO» ESKUALZALE ETA IDAZLARI

Ezin ederkiago erranik aditu duzue nor zen Don Fermin Irigaray auriztarra: gizon eta mediku gisa, dena bihotz eta jakitate. Ene gain dago orai eskualzale eta idazlariaren aipatzea.

Ez dut bera behin baizik ikusi, eta orduan ere doi-doia mintzatu, zombait minuta. Auritzeko herri huntan, oraino apezgai nintzelarik. Sol-bezio egun batez, Arnegiko Don Lorenzo Polit zenak «Larreko» jaunari minduen presentatu eskualdun berri bezala.

Nork zuen asmatuko, handik hogoi bat urteren buruan, eskutitz har-emanetan jarriko ginela gu biak, eta berrogoi-ta-hamar urteren buruan nik hemen goretsiko nuela.

Jainkuaren nahia, dudarik batere gabe.

1919ko Abenduaren 5ean *Eskualduna* deitu Baionako astekariak atera zuen artikulu jakingarri bat: hartan «Larreko»k berak erraiten zuen, baizik-eta eskuara, bere burrasuen mintzaira, poxi bat ikasi nahi izan zuela bere lanpidea gatik, eriekin marruskatzeko, bainan ez bide zuela biziki iraunen haren indarrak, baldin Sabin Arana Goirenen erakaspak ez balioke bihotzean aberzaletasuna piztu, ordutik osoki eman baitzitzaion, Euskual-Herriaren maitez, eskuararen beretzeari eta lantzeari.

Irakurtzen zituen eskuarazko liburuak eta dena beharri bazagokioten baserriarri, nola zerabilaten Nafarroako hizkuntza zaharra, bere erran-modu eta joskera berezienekin.

Bainan 1921eko *Gure Herria* delako aldizkarian aitor zuen, *Geroko gero* bat eskuraturik, AXULAR baitan nehun ez bezalako argiak aurkitu zituela, jadanik eginbidez hanbat atxikitzen zion eskuara, handik goiti atseginez ezin utzia zaukan eta bertzeri ezaguarazi beharra.

Geroxago *Eskualduna* Kazetan, Axularrez bertzalde, artamendatuko ditu gain-gainetik Sebastian Mendiburu, Domeka Aguirre, Armond Abadie eta Hiriart-Urruty.

Bere eskual-lanean bakarrik ez egoiteko eta menturaz bertzen sustatzeko ere sartu zen asko asko batasunetan. Izenda ditzagun Nafarroako euskararen adixkideak, Euskaltzaleen biltzarra, Euskal idazleen elkargoa.

Zer nahi eskual agerkari irakurtzen zuen: 1925eko Maiatzaren 15ean *Euskalduna* astekarian aipatzen zituen giro hartan euskalzale batek eskura zezazken irakurgai baliosenak: ez ziren guti.



Beraz idazten zuen nasaiki hainitz aldizkaritan, nahiz aldian zombait lerro bakarrik. Ikus haren denborako *Argia*, *Euskalduna*, *Gure herria*, *Eskual-esnalea*, *Herria* eta abar.

Iker bazinetzake Iparreko gure agerkariak hetan ihaurre atxeman zinetzazkete «Larreko»ren artikulua, bereziki *Euskalduna* delakoan.

Egia erran, har-utz-ka ari zen: hiruzpalau ilabetez asteorok berriak igor eta bet-betan geldi, gero berriz noizbait bere saila hartzekotan. Luzexko ixilik egon-eta, bera harritu zagon, agortuz bezala kausitzen zela, zertaz mintza ez jakin. Bainan laster iragoiten zitzaion ele-debekua.

Goazen gaingiroki erran berrikerari gisa zertaz ari zen ardurenik eta nolako ohi zuen idazkera.

Funtsean, uste dut ekei guziak on zitzaizkola, alde edo moldez, euskal hitz edo modu zerbaiten sahatzeko parada emaiten zioten ber.

— gehienetan aroa aipu zuen: euri, lano, babazuza, elur, eguzki, ateri, beren erra.

— gero sasoineko osagarria: jenden eta aberen eritasun eta heldeak: nabarrerria, berrogei egunetako suharra, gripa, satarra, minondorra, kar-banko gaitza...

— handik landa merkatuko berriak: zombatetan, xaalkia, babarruna, azukra kilo, arroltze hamabikoa.

—hala-hola laneko gora-beherak: lan gabea, sindikaten lan uzteak, nausien lan gelditzeak, denak alfer-aldi deitzen baitzuten...

—politikaz ez zuen bere eritzirik emaiten, aipatzen hargatik ba auteskundetako kargudun-gaiak: jaimista, maurista, integrista, euskotar, liberal, zozialista...

—ez zituen ixiltzen nahaste batzuen dinamita eta bomba uhaldiak, ez eta orduko poliza-gizonen egitate garratzak.

—ixtripuak ez zituen ahanzten = etxe erretze edo lehertze, zubi kraskatze, mendi-litamendu, itsas-untzi hondamendu...

—gaitzesten zituen kulpekariak, edaleak, lizunak eta heien egitate hitsak.

—goresten aldiz ohiduren begiraleak, behardunen laguntzaleak, familien babesleak.

—elizkizunen berriak ere emaiten zituen: misione, prediku, hilmeza, apespiku-gutun, aste-saindu, beila, ba eta Limpiasen bezalako miragarria, nahiz hautaz zuhurtzia handirekin mintzo zen, arrazoinekin.

*Herria* Baionakoan ager-arazi zuen isendalari baten argiak apez gaz-teen laguntzeko, eri-handietarat deituak diralarik.

—hil handiak ere agurtzen zituen, hala nola Joffre jenerala, Musso-  
lini edo Domingo Aguirre apeza.

—Eskual-herriko idazleri gogotik igortzen ziozkatzen zorianak haien liburu edo berdin artikulua pollitak laudatuz = orroik nahiz horrela loresta-tu zituela zoin bere aldia gure eskualdeko Barbier, Oxobi, Antxuberro, Zer-bitzari eta Etchepare medikua. Bai eta lau idazle nafatar = Lahain, Oxin-buru, Astobizkar eta Aitz-zuri: lauak *Eskualdunaren* berrikerari zirenak.

-zombait aldiz kazetatik egiten zituen bere gomitak: behin horrela deitu zuen Saint-Pierre Auritzerat, bazkaldu-eta baziozkala herrian asko gauza pollit erakusteko.

-Gaiak hain desberdinak izanez, artikulua ez zezazken ukan denek doinu bera. Ez behar ere. Gehienetan serioak ziren; arras bakan saminak, behin gertatu zitzaion bezala, gazte batzuek eskandala gorria ortzirale sainduz eliza batean emanik.

Batzutan xantxa edo murrria pollikixko bazerabilan bere buruaren lepotik, erran badezaket.

1919ko hazaroan, Eskualzaindiak urgazle izendatu zuelarik, huna nola Baionako astekarian eman zuen berria:

«Akademia vasca» delako edo  
Elezaingoari ene onespina.

Ez dakit bide zuzenetik, ni ote naizen Elezaingoko laguntzale Irigaray hura (ni baino Irigaray geigo bai-dabilta bazterretan): baina, aspaldidanik euskaraz ari gera orri zikintzen, ni naizela uste dute aunitzek, eta onela bada ene esker berezi bat Elezaingoari.

Zoritzarrez, ene laguntza apurrakin, guti irabazi duke batza unek. Baña, nola nai den, or doakuzue biotz erdi-erditik ene onespina».

Handik zombait asteren buruan, Bilboko bilkura batean Oxobi begitarte ilun batekin eskuararen geroz arras etsitua atxeman zuten. Huna nola don Ferminek hazeka berean ihardetsi zion:

«Egia diozu: euskara galtzen da, bazterretan galduta du.

Mendiz hunaindiko irixketan biotzeraino sartua dugu espainol-erdarra.

Baino, egon apur bat: biotzeko min orren osatzeko gaia autatua dute. Ni naiz.

Alderdi huntako egunkariak ba-eiki adiarazi ziguten, nolaz, bertze batzuen artean berezi ninduten Elezaingo lagun...».



Segidan eratzkitzen zuen eskuararen begiratzeko ez zela bide bat baizik: deneri ezagut-araztea gure aberriaren mintzaira berezia dela.

Mussolini famatuaz egin zuen artikulua bat frango gazia. Azken lerroetan auxe ezarri zuen:

«*Beharrik italianuek ez dakite euskaraz; balakite, sala nindezakete*».

Orai, bukatzeko, zer erran Larrekoren idazkeraz? XVII garren mendea hastearrekin Malherbe-k nahi izan zuenean frantsesa frantsesagotu, ez zitzaizuten gramatikatzaileri jarraiki, are gutiago gorteko jaun-andereri. Portuko behar-ketariak hartu zituen maisutzat: langile horiek ez zituzken latinak, ez grekak, ez italianuek kutsatu, letradunak bezala.

Don Ferminen berdinean nekazari eta menditarren ahotik hartzen ohi zituen, bai eskual hitzak, bai eskual erranerak. Iduriz ez zen hain gaizki jokatzeko. Ala bainan den lekutik baizik deus ezin bil. Kale edo karrikako eskualdunek orotsutan hitz biziki gutiago derabilate bertze bano: artzainek bana bertze bira mila badeuzkate, laborariak hamabira ehun, plazakoek zortzi bat ehun, gorenaz. Hitzez erran duguna, errepika ditake eskual-modu eta joskeraz.

Hiritar zonbaitek ez dute gauza hoitaz oharitu nahi. Alta bistan da gatz gehiago baduela, erdarak kutsatu ez duen eskuarak.

Horrek ez du erran nahi beti eta beti molde beretan itxuri behar ditugula gure gogoetak. On baino hobe da segur azkatasun poxi bat edukitzea eskuaraz ere, hizkuntza hertsu eta linbroegi atxiki gabe.

Larrekoren eskuarak badu behar bada han hemenka bortxa aire bat, idor eta gogor aide bat, bainan oro har, Jean Etchepare medikuarenak bezala «jaun» emaiten du, demokrazia aro huntan ere, ez baitzaiku batere itsusi:

Aingeru Irigaray jauna, «Prosistas Navarros» zure liburua atsegin handiarekin irakurri dut behin eta bietan. Zure aitaren lanari iduri zait ez diozutela aski leku eman = badira artikulua ederrak, agertzea hartze luke tenak, Larreko maitearen ohoretan eta eskuararen onetan.

Egun batez agertze hori eginen dalakoan, deneri bihotz, bihotzetik agur.

## MISTRALEN «MIREIO» ESKUARAZ

Jaz, bazter guzietan Mistral handiaren ehungarren urtheburua goret si dute. Utzi dituen irakurgaiek alabainan gizonaren gogo-bihotzak bethi goiti deramazkite, irakurlea izan dadin Frantses, Espainol, Angles, Aleman ala Italiano, izan dadin jakintsun handi ala batere ez.

Ordean Provence-tarrek diozkate egin jai eta aiphamenik hunkigarrrienak.

Hartze zituen segurki.

Hemeretzigarren mendea hastean, heien sor-herriko mintzaira xokoan zagon oraino, ttontto-aire, eskas-aire, atheratzeko herabe. Eta horra nun buru gaitzeko gizon suhar bat jalgitzen zaioten ororen artetik: mintzaira xahar maiteari, sorgin ongiegilea bezala, lotzen zaio: odol berritzen du, zalhointzen, joritzen, eta, nehork uste gutienez, boz miresgarri, legun, bero bat emaiten dio: *Mireien* boza.

Orduan ziren orduan halrotu, bazterrak! Harrotu eta harritu: begi guziak Provence eskualdeari zauden, hango mintzairaak bazukeela engoitik ixtant bateko bizi eta bertze edozoinen bethi bazela.

Ai, gure eskuarak ere baluke Mistral baten, sustatzaile eta dirdistaile baten beharra! Bainan Mistral horri eman othe lezoke, deus onik egiteko baitezpadako den gai hura?

Askok ezetz diote. Egiaz bertzalde mintzo dira, gure ustez. Huna frogarik hobereana: Ormaetxea jaun onak eskuaralat itzuli berria du *Mireia*, eta berak diona: etzaio «beste munduko lana izan».

Aithor dugu, guhaur ez ginitzaizkola gogotik lotuko sail horri, hitz beharrenak, bereziki *Provence*-ko ohidura xaharri doazkotenen eskas izan beldurrez. Eta Orixeren irakurgaia hartzearekin, baginauden ea atheka hortarik atherako zen eta nola.

Athera? Bai eta aise!

Ez da nehun murtzi-haririk, ez hats-bahi, ez nekherik ere ezagun!

Ur xirripa bezala darian abiatu, deusek ere geldiarazten ez duela rik, bidez-bide bere hel-burura badoa, argi eta garbi, erasirik goxoenez.

Mistral baten asmu, olde eta gogoetak, diren bezain gora, sakon eta biguin izana gatik, eskuarak hain ontsa jaunzten ahal dituenaz geroz ez othe litake ordu, guri ere sor dakigun lehenbai-lehen *Mireio* bezalako irakurgai berri, maite, aipagarri bat?



Segurki baietz; eta, nehork egitekotz, iduri zaiku Ormaetxea jaunak berak egin lezakegula amesten dugun «poema nagusia». Ja, Provence-ko arranoaren lagun, ibili da gora-gora zeruetan gaindi: hegalak jarriak ditu hedoi-gainetako haize ukaldi guziera; ea ez othe zaikun bakharrrik abiatu-ko egun batez izar dohatsueri buruz?

## TEATRO EUSKARO

Antonio Maria Labayen da teatro-gaietan Eskual-herriko gizonik adituena. Ez du bakarrik izkiriatu hainitz obra, molde guzietakoak, baina beti danik ari izana da teatrolarien berotzen eta akulatzen. Bertzalde, ez nahiz bere xokoan mutxitu, urrungo airea ere hartu du arrotz herrietako teatroaren berri bilatuz.

Ez da beraz harritzeko «Añamendi» liburutegiak galdegin baitio denen meneko ezar dezan bere jakitetik zerbait, eta horra orai agertzen den liburuaren etorburua.

Labayenek hainitz ukanez erraiteko, ezin ditu erakatsi beharrak oro liburu bakar baten kabit. Bigarren tomo baten haiduru gaude beraz.

Lehen zati hau bera bi gaiez orhatua da. Ehun paiek kondatzen daukute zer izan den eskual teatroa hastapenetik hunat. Azkenez nahi ginduzkete argitu teatroari doazkon lege bereziez.

\* \* \*

Egiazko teatroaren (hots, oraiko teatroaren) aintzinzale izan da Eskual-herrian frango ikusgarri, teatroaren egite zerbait zuketena: elizkizun, profesione, ihaute-josteta, toberamustra, bertsulari-guduka, maiatz-ARBOLA-BESTA, baina berezikiago Xiberoko pastoralak, maskadarak, xikitoak, irrigailuak.

Erran dute ba Elizako teatro zerbait izan dela hamaseigarren mendean edo, baina ez da segurtamenik.

Hemezortzigarrenean hastapen ttipi bat izan zuen eskual-teatroari Munibe eta Barrutia jauneri esker, baina ehun bat urtez ez zuen ukan segidarik.

Marzelino Soroak sortu berri-arazi zuen 1876ean Ziburun, eta Donostian abiatu zuen etorkizun eder bati buruz.

Labayen jaunak hirur sasoin ezagutzen diozka eskual-teatroari: lehen 1876ean hasten da eta 1915ean bururaten; bigarrenak 1945garren urteraino irauten du; hirugarrenak orduantxe hartu duke bere oldarra eta oraino hartan gitazke.

Lehen sasoina, ahal bezalakoa izan dena, nor harri? Nehork ez zuen orduan teatroaren usaiarik, ez idazlariek, ez jolalariek, ez ikusliarrek. Josteta batzu ateratzen zituzten, dena ditxo, arraileria arrunt eta elhasturia



bitxi. Jende xehea baizik ez zabilan heien ikusten, eta asetzen omen zen irriz karkailaka. Komediak ez zuten gehienetan batasunik, ez kanorerik: orro eta keinu larri, trufa eta ihakintza zozo-aire eta elhe makur, hortan zen urte hetako jeinu komuna. Bainan zerbaiterik behar da hasi: predikari famatuena ere, haur xume zelarrik, apapaka hasi zen mintzatzan, eta lasterkari hoberena ikur-makurka eta xuti-punpaka ibiltzen.

Halere bazuten merezimendu abiatzalek, eta agur ditazke Soroaren ingurumenean Iraola, Gamboa, Gorostidi, Illaramendi, Uranga, Elicechea.

Geroxago agertzen dira berri batzu: Azcarate, Antia, Fuentes, Iribarren, Olazabal, M. Arzac, Pepe Artola, Altuna, Alen, Baroja, Zapirain, Otaño.

Opera batzu ere muntatzen dituzte: *Pudente, Iparraguirre, Txanton Piperrri, Artzai mutilla*.

Eta anartean ateratzen da Toribio Alzaga, gure teatro gizonik famatuena, eta harekin V. Mocoroa, J. Eizaguirre, Amondarain, J. Garcia Olaiola, Agesta, A. Barriola, Elizondo.

\* \* \*

Bigarren sasoina 1915ean hasten da. Akademia bat eraikitzen dute Donostian eskual-teatroaren alde, eta Eskola berezi bat xede berean, Alzaga buru.

Orduan gure teatroak egiten du urhats handi bat aintzina. Idazlariek ikasten dute zer den zinezko teatroa, nola antolatu behar den, nola emaiten ahal zaion bizi eta begitarte. Jokalariek ere uzten dituzte zarpantzarjostetak eta moldezki agertzen dira tauletarat. Ikuslariak, beren aldetik, hautematen dute, irri lodiaz bertzerik izan daitekela, eta irriaz kanpoko sendimenduak ere balios izaitea ez dela hain arrado. Hots, denek beren apendizkoak egiten dituzte, elgar igurikatuz eta elgar sustatuz, berankaririk gabe, bainan lehiakarrerik gabe; halako gisaz nun sasoin ohargarria jalgi baitzaiku, bai eta guziz ohoragarria, antzerki biziki onak eta iraunkorrak argitarat emanez.

Berriz ere badugu nor izenda nahiz ez ditugun luzazegiz zombait baizik aipatuko: Jose Elizondo, Arostegui, Amonarriz, Garitaonandia, J. Olaizola, Gorostidi, A. Barriola, Tene Mújica, C. Elicegegi.

Geroxago bertze zombait jaliko dira, hala nola Oyarbide, Biona, A. M. Labayen, Urquia, Alegria, Carrasquedo, Olarra.

\* \* \*

Bainan hemen liburuak uzten du ixtant bat Gipuzkoako teatroa, Bizkaiko berri eman beharrez.

Hemen ere ez da segur izen eskasik. Bertzek bertze, Echave, Viar, Parada, Maruri, Costes, Scheiffer, Azkue, Aresse, Mocoroa, Ortuzar, Arriaga, Arriandiaga, Bustintza, Arana-Goiri, Eleizalde, Achica Allende, Blanco, eta guri hurbilago Agustin Zubikaray, Arcocha, Erquiaga, Ziarzolo, eta, eta.

\* \* \*

Hirugarren sasoina ez da, egia erran, bet-betan sortu. Bigarren arokoak ontu ziren, zohitu, handitu. Agertu ziren antzerki-bildumak, errebixta berriak, jokolari-moltxo gurbilak, hola nola Saskinaski. Eta «opera» andana ederra ere ilki zen, oixtion aipatuen gainera: *Anboto, Guernica, Ramuntxo, La Navarraise, Chiquito, Maitena, Semetxi, Mendi-mendiyan, Mirentxu, Lide eta Ixidor, Urtzuri, Urlo, Zorigaiztoko eguna, Oleskari zarra, Katalin, Lekobide, Itxasondo, Perkain, Juana, Leidor, Zigor*.

Eta Frantzia aldeko Eskual-herrian, nahiz *Karmele* 1882koa den, behar dugu aitortu moda berriko teatroak 1921ean baizik ez duela hartu hastapen onik erran nahi baita Gipuzkoako bigarren sasoinan, beraz mende-erdi baten berantarekin. Hogeita-hamar idazlez goiti ari izan dira komedia izkiriak eta berrehun baino gehiago jalgi dituzte, denen kapitain daudelarik Larzabal jaun apezeta eta Monzon jauna.

1945etik hunat iduri du ozka batez goiti abestua dela eskual-teatroa. Indar batek ez othe duen gazteria bulkatzen kasko edo thini gorenatarat, bertze herrietako teatroen heinerat heldu beharrez. Ez dute gehiago nahi komedia parregarririk; eta dugun, aitor oraiko ikuslek zineman eta telebistan beren eskolak egin dituztela, ez bailezazkete naski jasan lehenagoko xauxunkeria edo tontokeria batzu; bainan, halere kasu! Ez dira, ez, jende guziak pret Ionesco eta Beckett batzuen konprenitzerat. Goazen erreposki!

Hogeita urte hautako izen berezienak izan dira: Larzabal, Monzon, Labayen, Echaniz, Albizu, Zubikaray, Arcocha, Dolores Aguirre, Erquiaga, J. de Echaide, Zaitegui, Amezaga, Larracochea, Garmendia.

\* \* \*





Ororen buru, erran ditake borts ehun teatro-gai jalgi direla eskuaraz gutienetik 89 urte huntan. Badira seguru hoitan purruxkila batzu, balio gutikoak.

Bainan erdiak segurik oraino agertzeko gai dira ehun baino gehixago nun nahikoeri zorrik gabeak.

Labayenek diona: Soroaren *Anton Kaikutik* Larzabalen *Bordaxurirai*-no aintzinamendu gaitza hauteman ditake, eta uste izaiteko da gero ere iraunen duela eskual-teatroaren goitiko oldarrak.

Iragan astean Labaien jaun jakintsunaren liburu berriaz hasi ginen zerbaiten erraiten. Lehen partea baizik ez ginuen aipatu, toki eta asti eska-sez. Adi-arazi ginuen nola izkiriatu zuen Eskual-teatroaren ixtorio labur bat.

Aldin huntan nahi ginuke hitz bat erran bigarren parteaz.

Hortan emanak zaizku teatroari doazkon lege edo manamendu batzu, Eskualdun teatro-gizonek ikasi nahi badituzte.

Berak dionaz, ez ditu xoilki bere burutik ateraiak, bainan hainitz liburu irakurri baititu gai hortaz, hetan atxeman argiak ezarri gogo ditu gure meneko.

Lehenik agur bat egiten diote bere irakasle handieneri, izan diten greko, latin, frantses, espainol, aleman. Bereziki Henri Gouhier-i dituen zorraz aitortzen ditu esker onez.

Gero hasten da bere sailari. Teatro zer den ezagutarazi nahi dauku. Gertakari baten elhez eta keinuz itxuratzea ikusliar batzuen aintzinean, horra teatroaren funtsa, gertakaria arrunt alegiazkoa izanik ere, kanore zerbait emaiten zaion ber. Beraz irakur baizik ez daiteken komedia, tauletan eman ez daitekena, ez da egiazko komedia: literatura ederra izan daiteke, ez da teatroa, eta teatro zoingehiagoetan ez lukete saristatu behar. (Haatik ezin jokatzeko fama egin baitzioten Claudel zenaren antzerki batzueri, azkenean ederki jokatu dituzte!) Teatroa ez dute hitzek berek egiten, bainan itxuratzen den auzi bizi batek, eta mogimenduak behar du nagusi.

Halere antzerki-egilearen lana ez da alferretakoa: harek ditu manatzen keinuak, urhatsak, oihuak ba eta ixiltzeak ere: ongi konprenitu behar baita ordean!

Antzerki mota asko badira! batzuek hunkitu nahi dute, bertze batzuek irri egin-arazi; zonbaitek nahas-mahas derabiltzate irria eta nigarra; denek denbora-pasarazteko gogoa dute, artetik zerbait erakaspasakaturik ere, alegia deus ez. Alabainan teatroa ez da berenaz ez eskola, ez predika-alki, ez politika-biltzar, bainan jostaleku eta abusa-toki.

Buruan sartu behar dugu teatroa dela oroz gainetik kondaira bat ongi eremana, ustegabe ustegabe punpaka, gertakariak koropilatuz, eta azkenean koropiloa deseginez, aditzaleak bururen buru hatsaren gainean atxikiz, jakin nahi dutela nola xurituko den auzia.

Ezen teatro-gizonek aditzaleak dituzte beti gogoan; eta herri batean herritar gehienak dira aditzale-gai, eta ez bakarrik zonbaixka. Beraz denen meneko komediak egin behar dira, heien zentzu, mintzaira eta kulturari emanak: heien ganik urrunegi loaken teatroa, behar den bidetik zehar balabilke. Labayenek ez ditu kondenatzen eskolatuen arteko teatro-berri entseguak, bainan ez du uste entsegu horiek ondorio onik baluketan jende xehearentzat.

Unamuno zenaren iritziaz on egiten du. Filosofo handi horrek ez zuen pentsatzen teatroak behar duela baitezpada moralatik berexi: ez zitzaion iduri zikinago eta ederrago izan zitakela.

Bertzalde teatroak kanorea eskatzen ote du? Egia erran, bati sinesgarri zaion gertakariak, baditake bertze batentzat ez duen kolorerik. Nork gure idurimenaren arabera jujatzen ditugu gauzak, eta jokolari artexek badakite lillura botatzen.

Ofizio, tresneria, apaindura: hein batean, hiru gider horiek lagunt de,akete teatroa: emaiten al diote egiaren itxura gehixago. Bainan, hein batean bakarrik. Ikusliarrak badaki berdin, denak alegiazkoak direla tauletan gainean. Teatrolarien jokoa da beharrena, eta phurli beha aise ahanzten dira ingurumenetako xurruburukeriak.

Eta zer erran irriaz? Egungo egunean gazte batzuek arbuiatzen eta erdei,natzen dute irria: gauza arrunta zaiote; eta Uztaritzeko teatroan Blazy jaun erretor zenak ezarri baitzuen: «nigarra labur, irria luze», heiek luza lezaket nigarra eta laburt irria. Labayen jaunak gorensten ditu irria eta omore ona, eta guti prezatzen dena ikarakeria eta etsimendu diren antzerki buru-joangarriak.

Gero emaiten ditu zonbait aholku teatro-izkiriateri. Oroz gainetik galde egiten diote sail bakar bat baizik ez dezaten har. Sail horren rreneko izan ditazke gertakari desberdin batzu, bainan tinki datxikotela xede nagusiari. Nahi du beti izan dadin zerbait mixterio xilatu beharra, azken ponduan argituko baita. Lan gaixtoena, nola burura antzerkia, bereziki komedietan. Ez da hortako segereturik.

Azken kapituluan Labayen jaunak emaiten ditu Goethe idazlari handiaren zonbait iritzi edo aburu.

Hau lehenik: ofizio bat dela teatroarentzat izkiriitzea, eta hortako dohaina ez duen batek hobe duela lan horri ez lotzea.



Gero: izkirioz irakurtzalearentzat laket dena ez dela beti teatroan agertzeko on. Goethek «Hermann eta Dorothea» ager-arazi zuelarik, liburuak harritzeko arrasketa ukan baitzuen Topfer-ek antzerki kondu ateratu zuen, baina teatroan aditzalek ez zioten gatzik atxeman.

Bertzalde: teatro ona ez du xoilki ofizioak egiten jainua, talendua ere baitezpadako da.

Ororen buru, ezagun da teatroa ez dela josteta errega.

Orai dugun aitor teatroari buruz ez daudela teatrolari guzti guziak Labayen jaunarekin adox, xehetasun guzietan. Batzuek hetxiegi aurkitzen badute, zeren den lege zaharren frango atxikia eta bereziki errespetuari, askok ez ote duten zabalegi kausituko, zeren lirikari edo dantzari leku emaiten baitiote komedian? Ez da erraiteko baizik, buru bezenbat aburu agertzen direla teatroaz mintzatu behar delarik.

Bigarren liburua jaliko den artean, bihotz-bihotzetik goresmenak zuzenduko diozkagu Labayen jaunari, esker hoberenak ere: haren lana arras beharrezkoa ginuen.

Ondar urte hauk eskuararen konduen egiteko urteak ukan ditugu.

Olerkiaren kondaira egin dauku Aita Onaindiak;

Bertsolariena, hunek berak eta Aita Zabalak;

Literaturarena, Michelenak eta Villasantek;

Eta huna orai teatroarena... Labayenek.

Agian, konduak egin-eta, ez gira loak-hartuko baina oldar berri batean ethorkizunari buruz behin ere baino ederkiago abiatu.

## HAZPARNEKO ANDEREA (MOLIERE-TIK MONZON-ERAT)

«Les femmes savantes» komedia Molière-k, 1672an eman zuen bortz zatitan. Huna haren ekeia. Chrysale burjes gaizoaren etxean, emazte guziak emanak dira jakitateari: Philaminte haren andrea, Belise haren arreba eta Armande alaba. Haatik Henriette, haren bigarren alabak ez du gogoan Clitandre-kin ezkontzea baizik. Zorigaitzez Clitandre-k ez du Philaminte andereari kausitzeko behar laitekenik: giza-gaizoak erakusten du ez duela emaztetan jakitatekeria batere estimatzen eta dena mespretxu dela etxeko jainkotzat daukaten Trissotin basa-poetarentzat. Behar litake beraz Chrysale aski azkar, arras gogokoa duen suhi horren onhart-arazteko. Baina Philaminte izigarriko manatzalea da: senharrak ez daki haren aintzinean amor emaiten edo ixiltzen baizik; hanbatenez nun andreak nahi baitio Henriette Trissotin-i eman. Bizkitartean Chrysale ahulak, Aris- te anaia sustengu, zin egiten du noiz nahi, azken mementoan onhart- araziko duela bere hautua. Mementoa heldua da. Philaminte-k ekar-arazten du notaria, eta espos-gaitzat aipatzen dio Trissotin-en izena; Chrysale-k Clitandre-na. «Bi senhar-gai, dio harriturik notariak, hanixki da usaien ar- bera!» Philaminte nausitzerat loake naski, Aristek ez balu berri txar bat ekartzen: auzi bat galdurik eta bankarrota baten ondorioz, Chrysale ttu- rindua da Trissotine-k orduan agertzen du bere bihotz itsusia: gibelerat egiten du. Beharrik berri txarra ez zen Aristen jukutria baizik: Clitrande eta Henriette ezkontzen dira elgarrekin denen alegantzia handiengan.

\* \* \*

Monzonek komedia hortarik nahi izan du antzerki berri bar ratu Eskualdunentzat.

Arazoinek pentsatu du Eskualdunen artean jakin-nahiari askoz nausitzen zaiola handi-nahia edo ohore-gosea. Basa-jakintsuak bazterre- rat utzi ditu, eta asmatu du *Hazparneko anderea*: andere hori ez da segur nor-nahi; moko fier bat bethi bai, bere familiaren ohoreaz ezinago hartua: bere senhar amerikanoaren fortuna ez askiz, handi-mandiarena egin nahi du eta «markisa» tituluaren ondotik dabila, irri-egingarri bilakatu beharrik ere.



Gogoratu zaio auzoko jauregian bizi den aitoren seme batekin ezkont-arazi behar duela Mayi bere alaba. Hunek nahiago du Ezpeletako miriku gazte pilotari xehe bat: Beñat Elizanburu.

Panpi, Mayiren aita, abisu bereko da: Elizanburutarren adixkide zaharra ez dea? Molière-n Chysale-n pare, kitolis gaizo bat da, bere emaztearen menekoa: urrundik ba espantu asko: «hemengo nausia, ni; etxe huntan nik dut manatzen»... bainan gero, etxekoanderearen aintzinean, gizonik ez, ikaran, umil-umila, haren erranerat erortzen...

Handi-mandien usaiak har-arazi nahi diozka senharrari *Hazparneko anderea*: behar du ikasi gizonak golfean artzen, zaldiz ihizin ibiltzen... eta segur hemen «Les femmes savantes» ahanzten zaizku, gogorat heldu zai-kularik «Le bourgeois gentilhomme» bere erakaslekin burutzari ezin eman ez zapart egingarri. Eta berdin erran ginezoke Gachiune kriketari ez «La précieuse ridicule», bainan xuxenago «La bourgeoise ridicule»...

Familian badute, azen ontzeko, izeba edo ttantta mutzurdin sintsa bat: Mariana; dena othoitz, dena xaunxunkeria, baizik-eta gizonen bertute feirosari ezin fida daitekela, eta, hasteko, guziak ondotik amoros dituela... Gaizo mensa! Uste du bai Beñat bai Jauregiko jauna hartaz direla hartuak eta ez Mayiz. Hemen Monzonek norbait berririk pentsatu dauku. Mariana horrek badu Armanden eite, ezkontza mespretxatzen duelarik; Belisen eite; bere burua gizon-bihotz guzien panpalinatza daukalarik; ba eta naski Tartufen eite, ez baitu beti zin-zinez ar dela iduri! Baditake ezkont-janizak burua nahasi dion mutzurdin gaixoari... ez baitzuen beharrogorik...

Molière-k ez zuen apezik bere komedian. Monzonek biga eman ditu: herriko erretora eta «monseñore» bat. Erretora, frango plantakoa, xehea, zentzuduna, omore onekoa. «Monseñore» delakoa aldiz xanfarin eros-errexera, nehork ez baitaki nundik sortua den Erromatik dirutan truk «markisa» titulu baten ardiesteko... Goitia familiako batentzat!

Jauregiko aitoren semeak ez du fatxada eskasik: polliki mintzatzen da, mintzaira zerratu batean, bertsu hutsa! perttoli batzuz emokatuz noiz nahi bere solasa: diruari jenderi baino atxikiago dela ez da dudarik, egiten badu ere ontasuneri ez axolatuarena!

Horiek hola, *Hazparneko anderea* bere xedeari thematua dago, eta (itxuren arabera) gertakari guziak alde heldu zaizko; senharra ez zaio menturatzen kontrestatzerat; gehiago dena, Pampi gaizoak behin baietaz erran du, Mayi ezkon dadin jauregikoarekin! «Markisa» titulu ere bidean omen da....

Gaixo Mayi! Gaixo Beñat! Nola jalgi ateka izigarri hortarik? Hor da, beharri, Panpiren anaia, Dominixe zapatain. Hunek ez du Molière-k asmatu Aristen eite handirik salbu borondate ona. Scapin maltzurraz orhoitarazten gaitu, izaitekotz! Gauzen antolatzaile handia izanen da. Mayik bildu du Aitoren semea osabaren ganat, alegia deus es, eta hunat galde eginen dio diru zerbait presta, baizik-eta anaiaren aferak ez doatzi-la itxurek erakusterat emaiten duketen bezain ontsa... Jauna, berri hoik aditzean, hozten da diruarengatik nahi zuen Mayi; ez badu fortunarik, fa!

Eta Erromako paperak Goitia izenarekin ekartzen badio «markisa» titulu, Nikolasa sehiari emaiten dio jaun erretorak, hunek ere Panpik bezala Goitia baitu deitura.

Ororen buru, Beñat eta Mayi ezkontzen dira eta Hazparneko anderea kontsolatzen da erranez: «Ene semia markisa balinbada, zer naiz ba ni?»

\* \* \*

Beraz, zerbait eite izana gatik, Molière-n komediatik frango urrun dago Monzonena: han-hemenka entzuten den pastoraleko aireak eta hirugarren zatiko zamalzainek ere mintzairarekin batean eskual usain berezi bat emaiten diote.

Oro har, irri gehiago egin-arazten du, eta fantasia hainitz badu Molière-n obran etzenik.

Uste dut komedia berri hunek arrakesta gaitza izanen duela Eskual-herriko teatroetan gandi.

Gure goresmenak Monzon jaunari bihotzaren erditik.



## PIARRES LARZABALI EGIN IHARDESPENA

Aditzale maiteak, entzun ditugun elhe airos eta azkarren ondotik, ez zait iduri ene semetxiak hanbat kontsolatzearen beharrik baduen. Bertzenaz ere, bere burrunba-xalapartekin holako putiko bat besotan atxikitze-ko, ni ez bezalako aitatxi bat behar luke: Agerre herri-altxatzalea bederen.

Zure alkian uzten zaitut bada, Larzabal adixkidea, Jaun Presidentaren gomendio, eta berehala lotzen naiz ihardespinari.

\* \* \*

Hemeretzi ehun eta hogoi-ta-hamarreko hazilaren 27an Azkaine huntan ginen zombait lagun Elissalde jaun aphez zena eskualzain sartze-ko egunean. Ez zen izan besta handirik. Aratseko seiak irian bildu ginen eskola girstinoan.

Azkue famatua buru, eskualzainak hor ziren, orduan usatu xingolekin. Zerbitzarik goretsi zuen bi hitzaz Landerretche bere aintzinekoa, eta erran zaukun nola eginak diren eskuaraz landare eta lili batzuen izenak. Lacombe zenak ihardetsi zion. Bertzeak bertze, aipatu zituen Azkaindar izkiriant famatuak, ez bakarrik Chourio, baina Hiribarren eta Lapeyre bi anaiak. Elissalde denbora-kari bortzgarren heldu zen, eta Lacombe bere goresmenik kartsuenekin eskualzain-medaila eman zion lepotik.

Azkaingo lurra ez da agortu. Larzabal jaun aphez adixkidea, huna orai zu seigarren: seigarren denborakari, balioz uste baitut Chourio aspaldian aintzindu duzuela gehienek. Eta segur naiz zure ildoan loretuko dela gero ere herri huntako hainitz landare lorios, eskual-literaturaren alhorrean.

## NOR ZITUGUN

Zutaz banuke frango erraiteko. Baina zuk eta nik bertze batzuekin Eskual-herriaren alde hasi dugun mus-partida ez baita oraino bururatua, gure aditzalek konprenituko dute ez detzazkegula hemen agert gure karta guziak. Halere xintxoki ariko gira, parerik ukatu gabe; eta ene erran guziak egiak izanen dira, nun ez naizen nahigabetarik enganatzen.

Azkainen sortu zinen beraz hemeretzi ehun eta hamabortzean, labo-rari etxetiar ttipi seme, aita gerlan zinuelarik. «Gure herria» deitu agerkari ederrean kondatu dituzte ezin amultsukiago haurreko zure orhoitzape-nak: Larrungo lan eta josteten berri, aldaira ixtorio, xerri hiltze eta nik dakita. Bada nun alegera, baina denbora berean zombait xehetasun hun-kigarri. Zer olerkaria, zu, bihotza uzten duzularik mintzatzerat!

Bederatzi lagun baitzinezten familian, geroztik aita eta bortz haurri-de zendu zaizkitzu, bi anaia gerlaz. Egun, amarekin ez da batto baizik gel-ditzen denik zure egungo besta huntan parte hartzeko, nahiz segur nai-zen, bertze mundutik ere, loriatuak dauden beren Piarres maiteari beha.

Sort-herrian eskolak hasirik, Hazparden, Uztaritzen eta Baionan segitu eta bururatu zinituen. Oixtion jorraldi bat garratza eman diozute zure errient-erakasleni. Ez dut uste suminduraz karatoxatu ditutzula, bai-nan omore on hutsez, suminduraz karatoxatu ditutzula, baina omore on hutsez, goazen ba paso!

Nik Uztaritzen zaitut ezagutu. Orduan zinen mutiko torropiko gorraile bat, begi alimale batzuekin, buru-sorbaldak doi bat makurtuak. Zuk ere ez zinuen, denbora hetan, «Miss Ascain» baten egiteko gai handirik. Baina bazinuen bertzerik. Hogoi-ta-hamazazpi urte huntan eman ditu-dan nota guziak atxiki ditut. Behar dut erran, alemana erakasten nautzula-rik, behin 12 eman nautzula, bietan 13, bertze aldi guziez 14. Ez da errai-teko baizik eskolier hauta zinela; zure plazak araberekoak ziren, bethi lehe-netan, eta urtearen buruan lehen, Pascasio doniandarra garhaiturik. Ber-din eskuarazko lanetan. Orhoit naiz sumatu nuela zu batean jeinu-azi zer-bait. Hamahiru urte zinituelarik, ager-arazi nituen astekari batean zure zombait pertsu: *Belea eta axeria*; 15 urtetan «*Betizoak*» aipatu zinituen lantto batean eta «Gure herria» errebitak hartu zuen; zure lehen komedia ere, *Bazkari hauta*, «Aintzina» ene ilabetehekarian jalgi beharra zen geroxago.

Unamuno zenak erraiten zuen gaztek erakaslearen erranak bethi infrentzuz hartzen dituztela, eta ontsalaz eskolemaile batek ez lukela sekula santan sinesten duenik erakutsi behar. Ez naiz aburu hortakoa. Jakina: eskolemaileak ez du bere pentsatzeko manera saka-saka bortxaz onhartaraziko. Hobeki helduko da, zombait pindar erainez, eta sua han-hemanka lotu dela ikusi duen ber, emekiño buhatuz eta akulatuz... aha-laz urrundik. Bai urrundik: alabainan gaztea beregaintiarra da: bertzek erranak baino nahiago ditu berak asmatu dituelako egiak, nahiz laket duen bertzek hitz-erdiak erranen bere burutarik osatzea, erakaslen segetua xilatuz.



Eskolemailearen lana ez da bera errex, bereziki biligarro buruzkin batzu dituelarik partida. Eta adin gaixtoan astotzen direlarik, ez da mirakulu nolazpait zentzatu behar baditu ere. Bainan, arimaz egia, ez naiz orhoitzen ez zure astokeriez ez eta eman dauzketzudan gaztiguez.

Eskoletarik kanpo ere izan duzu zerbaiten ikasteko parada. Hama-sei, hamazazpi, hemezortzi urte zinituelarik, hiru «sasoin» egin zinituen Donibane Lohizunen «garçon de café» bezala: bizitzen ikasteko eta gauza askori oartzeko ofizio hauta. Soldadogoa Parisen, han bildu baitzinen «diplome d'infirmier» delakoa: dena ere on!

Gerla, Baionako «berrogoi-ta-bederatzigarrenean»; baina, Frantziak lehen mantxa galdurik, erabili zintuzten presoner Alemanian, Txekozlovakian eta Polonian, nehun ez baitzinen laketzen seguraz ere! Jan-eskasak eta arta-eskasak eriturik, behar ukan zintuzten Suisarat igorri. Ibiliz-ibiliz gaztea eskolatzen omen da hainitz.

Suisatik itzuli zinen Eskual-herrirat eta Hazparnen hartu zinen zure bikario kargua.

«Résistance clandestine» delakoan sartu zinen Alemaneri ixilka ihardokitzeko, eta gerlatik lekora, «membre cantonal du Comité de Résistance» egin zintuzten. Hiru urtez eman zautzuten «Préparation militaire» apailatzeko lana Hazparneko, Bastidako eta Ahurtiko eskualdetan «fonction de Commandant» graduarekin.

Bikario gisa, hamabi urtez, elizako eginbidez bertzalde, hastapena eman izan diozute asko batasun berriri (J.O.C., C.F.T.C., Laborarien zindikata, Laborantzako eskola eta bertze). Hazparne uztean zure laborantzako eskola segitzen zuten 45 gaztek, lan guziaz eskuaraz egiten zintuelarik.

Eta huna berriz hamabi urthe Zokoan zirela, berri-berritik parropia bat sor-arazteko kargu haztunarekin. Eraiki duzu eliza bat ohargarria, gero erretor-etxea, asko urtez ahal bezala ezerian biziz, atherbe txar batean, bainan bethi lantsu, bethi alegera, diru-kezka eta buru-hauste guziak othoitzean gesalduz. Murru eta hargintzen egitea bat da: arimen biltzea, argitzea, girixtinotzea, salbatzea ez da errexago, ez bada ere dirutan estimatzen ahal. Denbora berean segitzen dituztu «nagusi-injenierren bilkura» batzu; esku emaiten zindikat-buruzagieri eta arrantzarieri.

Hots, ez duzu alfertzeko astirik.

## ESKUARAK ZER ZOR DAUTZUN

Bainan Uztaritzen hauteman ginuen eskualzale lili gazte hura, zafra-tu eta galdu othe daukute hainbertze ekaitz-zirimolek? Gertha zitaken. Bainan ez. Landarea azkartu da, azkartu! Eta ekarri du ekar-ahala fruitu.

Aphez eskualdun gehienek bezala, eman dituztu predikuak eskuaraz, bainan ez aditzalen lokar-araztekoak, Aita Sainduen erakaspén berrien beldurrik gabe.

Kazetetan zonbat lan ez duzu athera, ala nagusien, ala langilen dre-txo-eginbidez, jornalez, induztriaren gora-beharez, Eskual-herriaren beharrez, federalixten xedez; edo bertzenaz itxorio kondan, zuhauk asmatu ipuiak emanez, edo berdin egiazki gerthatuak.

Hiru sasoinen radioan eman dituzte, zuk eginik, asko antzerki edo komedia, irri-solas, edo bertze emankizun-gai, hala nola *Kaskarot-ixtorio*, *Matalas*, *Gernika*, *Orreaga*... arrakesta ederra ukan dutenak.

Bainan zure fama gehiena teatrorik heldu da.

Ehun bat antzerki ttipi jalgi dira zure lumatik gazte eta haurrentzat. Sail hortakoak dira: *Okilomendi jaun mera*, *Xirrixiti-mirrixiti*, *Amerikanoaren ilobak*, *Merkatutik etxera*, eta abar.

Hogoi bat antzerki luze egin dituztu, barnean emaittekoak. Ezagutuenak dira: *Etxahun*, *Bordaxuri*, *Portu xoko*, *Basabeltz*, *Urriki latza*, *Hiru ziren*, *Berterretxe*, *Mugari tiro*, *Paper-mende*, *Hila espos*, *Herriko bozak*, *Nork hil du Oyhanalde?*

Bertze bortz-pa-sei kanpoan emaittekoak: *Tuta jotze*, *Bihotz bero*, *Kontrabandixtaren alaba*. Eta behar duta-salatu? Heldu den Pazkotako Azkain-darrekin apailatu gogo duzu pastoralala handi bat: *Orreaga*.

## IRITZI ETA KITZIKA

Lan-keta buru-joangarri horrek salatzen dauku nolakoa ditaken zure gogo: atzarria, idekia, argi-gosea, bethi kaldan, munduari barrandan, ikusi-ikasi guziez asmuka, eta irakimendu hortarik ideiek gairi egiten, fedeak, bihotzarekin batean, bide askotarit laguntzen dituela. Zure bizi gordearen, zure sofrikario eta othoitze ixilen, zure gudu mutuen zapak gisa hortan jauz-arazten dauzkitzu iguzkitarat barneko ontasan aberatsenak. Ezen urhats guziak aphezetasunak manatzen dauzkitzu, zonbaitek ez badute ere onhartu nahi, giristino eginbide lehena dela, Ebanjelioa era-



kusle, zuzenaren bilhatzea ala nor-bederarentzat, ala nork bere herriarentzat; ala herri guzi-guzientzat.

Zure teatroa ere ithurburu beretik heldu da turrustan.

Segur nahi duzu jendea josta dadin, eta orok badakite nehor ez dela zure antzokieri beha ez aspertzen, ez enoatzen. Ikasi duzu nola usu jauzaraz irria, eta noiztenka nigarra. Bainan zure komediek badute bethi zerbait azpildura, zerbait erakaspén. *Etxahun*-ek eman dautzu mihi gaixtoen kondentatzeko parada; *Hiru ziren* delakoan argitan ezarri ditutzu Ameriketarat joaiteak dituzken on-gaitzak; *Herriko bozetan* politikeroak dira jorratuak; *Mugari tiro*-k mugen auzia egiten du; *Paper mende*-k oraiko paperiarena. Bertzetan erakusten duzu hameka irri-karkailen artetik, zer kalte dakarketen herrak, handi-nahiak, bekaiztiak, diru-goseak, zirtzilkeriak. Axular guzia ekarri daukuzu teatrorat.

Nago, bizkitartean, ez direnetz ageriegia han-hemenka zure xede onak, bereziki prekiduaren eite duten zombait atheralditan: «*Mugari tiro*» delakoak bazuen itzalxka hori. Eta ez othe daukuzu *Etxahun* puska bat edertu zure «moralari» indar gehixago eman beharrez? Badakit antzerki-egilek gaien aldatzeko dretxo edo eskubidea badutela, bainan ez da erraiteko baizik.

Halere bizia badariote ausarki zure komediek. Gerthakariak haste-hastetik hartzen dute beren oldarra eta bururaino dabilta, hari biribila herresta-bidean mendi kaskotik punpaka zolaraino amiltzen den bezala: zati guziak bat daude, batek bertze osatzen eta ernatzen duela, iduri gortzeko zain, ginharri, muin, odol eta gaineratikoak. Nola ez aipa bertzalde zure teatroko gizon edo emazten nortasun harrigarria? Ez dute zahi, lasto eta trapuzko kuka edo panpinen eiterik. Haragiz eta arimaz orhatuak, jaidura on eta tzarrez josiak, gaixtoenek zerbait onik izaki, eta hoberenek zerbait itaxura, ez da batto ere bertze nehoren berdina denik.

Begi ona izanez, hainitz tokitan iragan baitzira, ez zaitzu gauza handirik eskapatu nehun ere, jendeen egon-molde, gobernu, ibilgune eta jեսtuetarik. Beharri ona izanez, zombait hitz eta hizkuntza, erran zahar, ditxo eta zirto ez ditutzu bildu, marinelen «litania beltzak» barne? Zonbaitek miresten dute zure teatroaren hatsa, bainan gordinskoa daukate, ohartu gabe gatz-biperrek emaiten diotela gustua hain laket zaioten saltsari.

Bertze batzuek pena dute, sobera mozkor eta xoro asmatu duzula eta hetaz truffatzen zirela, behar zinukelarik orhoitu jendeari zor zaion errespetuaz edo urrikalmenduaz. Eni iduri zait arrazoin horrekin nehortaz ez ginukela mintzatu behar komedietan: mozkorrak eta xoroak bezain urrikalgari daukat edozoin gizon edo emazte, saindutasun osorat heldua

ez deno! Eta gero, xoro edo mozkorren medioz, zombait egia biribil ez dira adi-arazten ahal, zentzudun batek odol hotzean nehundik ere erran ez lezazkenak: hori ere hada zerbait.

Entzun izan dut behin, hain urrun deramazula fantesia komedia batzuetan, nun ez baitzaioite gelditzen gehiago kanore izpirik. Aipatzen zautzaten *Mugari tiro*-n ezarri duzun saskipeko guarda eta *Paper mende*-ko paper-jatea. Nik ez dautzut hortako ere erasia soberarik eginen. Egiaren muga hertsietan egonez, irria laster agor litake. Gauza batzuek irri egiteko hobe dugu ohartzea alegiazkoak direla.

Racine antzerlari frantsesak, *Les Plaideurs* komedia famatuan, bere denborako tribunalez burlatzeko, zakur bat jauki-arazten zuen jujearen aintzinerat. Gisa hortan aditzalek irri egin zezaketen, tristatuko eta hasarretuko ere zirelarik, era beretan ikusi balute gizon bat jujatzen. Berdin *Mugari tiro* eta *Paper mende* ez bazinitu ezin sinetsizko xehetasunez hanpatu, uste dut bazterretan ez zituztela aise jasanen, eta beharbada egun, Azkainen izaiteko plazan, nunbait preso zintezkela, ez bailuke guretzat berdin balio, ez eta zuretzat ere...

Izaitekotz, ene gustuko, zombait aldiz hala denari hurbilegi danik jarraikitzen zaizkio. Ohart othoi, ez dautzutala ausartzia erreportxatzen. Maite dut ausartzia. Nehork bezenbat miretsi ditut Bordaxuriko hil ganbarako eskatima eta Etxahun elizan, kofesatzeko bere aldiaren haiduru. Zure bekokia behar zen, hortako ikusgarri ustegabekoeri lotzeko... Bainan teatroa ez da bizia, ez eta egia hutsa. Askotan gauzak adiarazten dira, tiletez-tilet erakutsi gabe. Behar ere! Orduan zertako iraun-araz mende bat Berterretxen heriotze latza, iduri-eta ez zinuela nahi gal zadin agonia izigarri hortako ez auhen bat, ez sofrikario oiuhu bat, ez zain-ikara bat, ez nigar-xotin bat? '.. Aitor dautzut holakoetan nahiago nukeela gerthakaria labur dadin, «Ezpeldoi-altian» luzea izan bazen ere.

Bainan ez litake xuxen pentsatzerat uztea, itzal hori zure lan guzietarat hedatzen dela. Badakizu segur, gauz hainitz adi-arazten, ala hitz-erdi-ka, ala itxuren medioz. Gogoan dut, Etxahunek Hegiapalen basoan edaten duen memento penagarria. Gogoan ere, *Muga tiro*-ko loretegia eta nola bere lorez mintzatzean Aita Churiak hain samurki kantatzen duen ezkongaien arteko amodio garbia.

Behar banu erran, zoin zaitan zure dohain nagusia, aipa nezake indarra. Indar hori manatzen duzuno, denak ongi doazkitzu; eskuetarik eskapatzen bazaitzu, al orduan hanbat gaixto, mugak eta neurriak kraskatzeko lanjerrean dira. Beharrik azken kasu hau, biziki bakan gerthatzen zaitzu,



eta maizenik gure goresteko atsegina baizik ez zaiku gelditzen, zure komedia ospatsuetarik lekora.

\* \* \*

Hitz batez, eta huntan bururutzen dut: teatro-idazle handia zira, berzete asko dohainekin. Eskualzaindiak ene ahotik erraiten dautzu bihotz-bihotzetik «ongi-ethorri».

Ez dut ukatuko halere zuen hitzaldiko azken mehatxuek halako bat egin dautatela. Lehenago Alphonse Daudet-ek *L'Immortel* izkiriatu zuen Frantziako Akademiak jostatu beharrez. Nork jakin zuk ez gaituzunetz komedia berri batean Eskualzain zaharrak galanki jorratuko? Hobe, funtsean, hala balitz, zuri esker nolazpait bederen menderen mendetan Eskualdunek jakin dezaten, bitxi bagira bitxi, lanean ari izan girela eskuararen salbatzeko esperantza bitxiarekin.

Anartean, ene semetxi maitea, huna zu ere eskualzain, agian hainitz urtetako, eta Jainkoa lagun, eskuararen onetan.

## «URRUNDIK»

Orok baginakien Montzon politika gizon bikaina zela, Bilbaon minixtro izana.

Baginakien mintzatzale ederra zela, bai espainolez, bai eskuaraz, eta behin ere entzun izan dugu frantsesez, Pariseko erdara zerratu hartan.

Baginakien mediku jakintsuna zela.

Orai badakigu berriagoko zerbait: Montzon olerkari edo koblari gaitza dela.

Eskuarazko kobla andana ager-arazten du eta deitzen du «Urrundik», erakusteko, herritik urrun moldatu dituela.

Bi zathitan egina du.

Liburu batean goresten du bakhe denborako Eskual-herria, bere dohain, atsegin eta josteta bereziekin.

Bigarren liburuan gerla du geia. Gerlarien gerla, bai eta ameena, esposena, emazte geiena, haurrena, hots! harmen, odolaren eta bihotzen gudu izigarriak.

Segur Eskual-herriak izan goresle munduan agertu denetik. Bainan ez du naski hainitz izanen Montzonen heinekorik. Beharbada hemen gaindi bilduegi kausituko dute irakurlek olerki mota hori, zeren elhe nasaia eta ahopaldi luzea, hats handia maite baitugu kobletan.

Bainan behin usatuz geroz, zer goxoa! Gora Montzon! Urrundik urbildik bezain maitagarri!



## «ARANTZAZU»

Hamahirur urthe huntan, mendiz bertzaldeko eskualdunek nekez sortu dituzte eskuarazko liburuak bere sort-herrian berean.

Orai iduri du aisexago entsea ditezkeela, ondar ilabethe hautan.

Behinik behin liburu eder bat behar dugu, laburzki bada laburzki, aiphatu, aurthen Oñiateko moldiztegi batean sortu dena! «Arantzazu».

Bi aita frantsiskanok egina da: Aita Salvatore Michelenak eta Aita Jabier Eulatek. Komentuak sustatu ditu, eta baitezpadako gustu edo xahupenak bere gain hartu.

Eskual-Herriak eskerrak diozkate.

Liburu gotorra da: 248 horri-alde (16 x 28), beraz itxura handikoa. Axala kolorezkoa du, ditaken begikoena.

Barnean neurthitz edo bertso hunkigarriak, Aita Michelenaren bihotz gogoetarik bero-bero atheraiak, Arantzazuko Ama Birjinaren goresmenetan. Beila-toki xahar horren hastapenak eta ondoko goiti-beheitiak zoin polliki emaiten dauzkun begien aintzinerat, ez ditake aise erran. Eskuara errexa du eta goxoa. Ez du jakintsunarena egin beharrez, mintzairia bihurrikatzen, are gutiago arrotzen: egun guzietako hitz eta hizkuntzak barrastan baderamazkigu, grinatu batere gabe, ea erdarak heen ahaidetik baduken. Badaki harek eskuaraz mintzatzen girela, ez baitezpada hauzok ez bezala mintzatzeko, baina gutartean bezala mintzatzeko. Badira eskualzaleak bethi arrotzari beha daudenak, harek egin urhatsak bazterrerat utzi nahiz, hobeki egin bailezakete behartuz nola diren Eskualdun egiazkoak artzen, heien urhatseri jarraitzeko. Aita Michelena ez da atzeen beldurrean bizi, baina bai Eskualdunen ezagutza minean. Ez du auzoan axolarik, etxekoen baizik. Gure iduriko, horra eskuarak hartu eta atxiki behar duen errege bidea, ez badugu ondarra galdu nahi.

Liburua aphaindura ederrez edertua da. Aita Eulateri esker. Dugun hemen aithor guk mendiz hunaindian ez dugula naski behar litaken indarra egiten liburuaren aphaindurari buruz. Hitz, solasa, eskuara, bai, askittoa artatzen ditugu: itxuraz, begien atseginaz, ez gisa hanbat kexu! Diru eskasak hortaratzen gaituela ez dut ukatzen; baina ez othe noizean behin ere gustu eskasak? Zer nahi den, ez zaiku itsusi eskual-liburu bat hain aberaski emana! Burua goiti-arazten dauku, holako zilharkiarene eskuetan erabiltzea!

35 pezeta, horra obra eder horren prezioa. Iduri du kario dela; erosazu Frantzian hein bereko liburu bat: ikusiko duzu zer gustako zaitzun.

Berriz ere egileari eta agertzaileri gure eskerrak eta zorionak.





## «LORAMENDI ETA HAREN GARAIA»

Aita Julian Yurretarra, kaputxin eskualdun argitueta bikainenetarik da, eta agertarazi du lar bat ohargarria, Loramendi zenaren neurtitzak eta bertze lanak ere errotik ikertzen dituela. Obra horrek merezi izan du Eskualzaindiak emanikako sari eder bat.

Lehen zathi batean Aita Julianek erakusten du, Loramendi bizi izan den urthetan (1907-1933), izan dela Eskual-herrian literaturasoin bat harrigarria: bederatzi plametan behako bat emaiten dio mende laurden horri, eta bada nun zer goretz hoinbertze agerkari eta libururen aintzinean, nahiz ez dituen denak izendatzen, hurbiltzekorik ere.

Bigarren zathiak Loramendi kaputxin-gaia ezagut-arazten dauku: gazte-gaztea itzali zer 26 urthetan, 23 egunen buruan meza emaitetako zelarik. «Loramendi» izen-ordea zuen Joaquin Bedoñakoak, eta bere bizi laburrean, ez zituen jalgi 25 olerki baizik. Aita Julianek gain-gainetikakoa dauzka eta hurbildik miatzen dauzku.

Miresten du olerkari liriko jainkotiarra, mistikak hartua, bainan ez halere bere berezitasuna galtzerainokoa.

Loramendiren ithurburuez jakiten dugu zerbaite: ba omen ziozkaten zorrak Gabriel y Galan, Verdaguer, Mistral, Jauregi, Lizardi olerkariari.

Loramendik zerabilan eskuaraz liburuak emaiten dauzku zombait oharpen: guri iduri zaiku olerkariaren mintzaira ez zela oraino arras zohitua; bakotzak bere gustu.

Hirugarren zathiak iragaiten ditu banazka neurthizlariaren lantxoak, erakutsi nahiz nolako idurimen aberatsa, adimendu argia eta bihotz bigun edo mardo goipera zituzken... Eta udaberriko loreñoa itzali!

Segur liburu goxoa da, kartsua, argia, eta erakusten du rola egin ditaen eskuara garbiz obra oso baten kritika, erdaraz bezain barra eta xeheki.

Gure goresmenik bizienak Aita Julian Yurrekoari.

## ELORRI

Aita B. Gandiagak egina

«Elorri» izenarekin agertzen da Aita Gandiaga frantsiskanoaren lehen liburua.

«Elorri» hitz horrek gogorat dakar Arrantza eta «arrantzak» Aranzazu Oñatiko komentu menditarra, hortakoa baita-bada liburu berriaren egilea.

Bizkitartean ez uste Aranzazuren ospea nahi daukula kantatu. Ez, bera da «elorri» hori. Bere burua du aipatzen. Elorriarekin berak du sofrirtzen, bera da loratzen, berak du oraia zilatzen gerorat itxaropenaz sartzeko bera da Andre Dena Maria pausatuko den arrantza.

Liburua zortzi zatitan egina da, ibai berak urtatzen dituen zortzi baratzetan.

Aita Gandiagaren hizkuntza biluzia da, laburra, xuhurra, kasik idorra eta uherra: iduripenari baino biziki gehiago zor dio gogo hutsari, eta arrazoinari baino arimaren begiari.

Elhasturia guti. Solasak pikorka heldu. Itxuraz lokarrik ez pikorren artean. Bainan gogoeta egonez, bakarka sortu iduri izar ttipi horieri, irakurle artatsuak ezagutzen diote elgarren ganako hari gorde bat, kateatzen dituen: nola ditugu bada ikusten «zazpi ohoinak» zeruan?

Gainera, bertsuen edo neurtitzan tankeraz zer erran? Ez dute ohikoen eite handirik, eta lehen irakur-aldian haztoratua bezala uzten zituztete, ezin xuxen zilatuz nola ontuak diren.

Papaita edo asmaketa harrigarri hoitan, iduripenari eta beharriari hain arrotz direlarik, segur gogo hutsak badu asetzekoa, eta bihotzak ere bai: errar dut «bihotza», hots, bihotz-muina, ez bihotz-axala, are gutiagoko haragia eta odola, edo zainetako pilpira.

Hortakotz Gandiagaren olerkia ez da izanen lehen-jinaren heinekoa, bertsulariet ez dute ulertuko, ez eta eskualdun argitu gehienek ere, nun ez duten Europako poesia berri-berria jastatu eta gozatu, hala nola Eluard, Schehade, Cayrol, Saint-John Perse, Supervielle eta bertze holakoena.

Eskual-herriak izan ditu olerkari errexak eta «herritarrak»: ni oraino bihotz-bihotzez maite ditut Gazteluzar, Zaldubi, Elizanburu, Etchahun, Bilintch, Oxobi eta holakoak, eta agian ez da agortuko heien odola.



Bainan ez dut beltzuri izpirik eginen bertzelakoeri: aitortuko dut goratzen dutala eskualdunen omena Lizardi, Lauetcheta, Orixe, Zaitegi, Iratzeder, Mirande, Aresti eta Gandiaga batzuek.

«Aitaren etxean asko egoitza» badirelarik, nola ez bada Eskual-literaturan?

Gandiaga gazteari igortzen diogu agur handi bat: Jainko maiteak diola bide luze on, zombait elorri gora-behera, elorri xuria loratzen den ber.

## HARRI ETA HERRI

Gabriel Arestiren liburu berri baten titulua da. Badauzka nahas-mahas koblak, bertsoak, ditxoak eta poemak.

Bilduma horrek 1963an izan zuen Tolosan xapeldun saria. Eskuarzako poesia badakar; eman bisian-bis espainolezko itzulpenarekin ageriarazi dute, erdaldunek ere ikus dezaten erran ditakela eskuaraz gauza baliosik... edo bertzerik.

Gutarlean erraiteko, itzulpenak ez du hurbiltzekorik ere Arestiren eskuararen gatzik.

Eskuara hori errexera da, eta lapurtarrek aise konpreni dezaketena, kultura poxi bat baduten ber.

Ezen Arestik, ez jakinarena egiten duenean ere, ez du deus ere ohargabetarik atheratzen; badu bethi zerbait gibel-asmu, eta alegia deus-ere inharrosten ditu bazterrak.

Ez da, ene iduriko, gazte buru-guri batzuen xuxentzale izanen: badi-ra alabainan josteta batzu, arrafarta batzu, gizon heldu eta tarrotuentzat gibelongorik gabeak daudenak, baitakite atheraldietan zer har eta zer hutz! Bertzalde larrua egin dute, erran badezaket; eta gazte bati karra-mixka egin dezaken elhorri-xixtak ez diote heieri pereka baizik egiten.

Arestiren poema gehienak ezin kantatuak dira; ez dute punturik, ez neurrik: bainan badute hats berezi bat, eta poesia arras berri bat bada-riote.

Poesia horrek ez du hanbat bilatzen ez xori, ez lili, ez izarrik, nun ez den irri erkatx batekin; bainan munduari bazterretik behatuz, ikusten diozkan makurguneak erdi-trufaka altxatzen ditu, ez baita beti aise jakitea noiz den seriocki mintzo!

Ez da erraiteko baizik bide berri bati abiatua dela eskual poesia ere, eta hartze duela zaharren ganik, gazteen ganik bezala, agur handi bat.



## XABIER DIHARCERI EGIN IHARDESPENA

Adixkide maitea,

Atsegin eta ohore zait Eskualzaindiaren izenean ongiethorri erraitea gura lagun berriari. Orok dakitena: gure biltzar hunek ez du deus ere bilhatzen eskuararen zaintzea eta goiti sustatzea baizik. Hain xuxen, Belokeko etxe saildu huntan lan on eta nasaia egiten baita aspaldi danik gure mintzaire zaharraren alde, gogoratu zaiku laguntza baliosa aurki ginezakela Beneditanoen artean: hortako bereko hautatu ditugu Aita Xabier Diharce eskualzain gisa eta Aita Gabriel Lerchundi urgazle gisa. Nola berexiko ginituen, hain rnaiz elgarri uztarturik agertzen diren bi izen handi? Beneditano rnaiteak, othoi barkatu, gureganatzen balinbadugu komentuari jaun horiek ekartzen dioten ohoretik zerbait!

Eta utz nezazue egoitza hau nik ere gorets dezadan! Hemen egin ditut zazpi urtez ene aphez-gai eskolak, Larresoroko Semenarioko leku hautan atxeman baitzuen atherbe, Frantziako harginbeltzek aphez-etxeak ebatsi zituztelarik. Eta hemen ezagutu ditut eskualzale batzu, famatuak: Abbadi jaun superiora, eskuaraz laborantzaren alde hainbertze idatzi duena: Hiriart-Urruty *Eskualdunaren* buruzagi pindartsua (Baionatik heldu zitzaikun alemanaren erakasterat); Hiriart musikaria eskual-kantika bilduma bat agerarazi zuena: hunek asmatu zuen «makolina» erdi-piano, erdi-xirrihika soinu-tresna bitxi bat; Pierre Etchepare apheza, Jean Etchepare medikuaren anaia: aphezak biziki gora zaukan medikua; aipatzen zaukularik deitzen zuen: «Monsieur mon frere, le Barrès basque!»; ezagutu ere ginuen Michel Etcheverry ixtorio-zale kartsua. Hetarik biga, Abbadi eta Hiriart, hantxet daude ehortziak, Bihotz Sakratuaren bultu oinetan... Beneditanoen hil-harriari datxikotela.

Ez da erraiteko baizik, etxea, bere jabe deserrituen haiduru zagolarik ere, eskuarari bethi atxikia egon dela.

Bainan itzul gaiten gure harirat.

Aita Xabier, zu hautatu bazaitu Eskualzaindiak Beloktarren gutarteko gizon gisa, ez da dudarik ezagutu dauzkitzula eskubide bereziak.

«Académie française» delakoan bagine, behar nautzuke kondatu tiletez-tilet zure bititze guzia. Eskual herrian elhea motzago omen dugu. Jauna, Donibane-Lohizunen sortu zinen 1920eko urtarrilaren lauean, eskualdun familia zahar batetarik: aphezak ateratu dira lehen ere zuen

odoletik eta ez zena zuentarra Tarben Axular apheztu zuen jaun aphezpi-kuak!...? Hamar urtetan ethorri zinen Uztarritzerat, zazpigarrena egin eta joan. 1933ko urrian aphez-gai gisa sartu zinen, eta zombait urtez ikusi zaitut handitzen asko moldez: olerkaria ere goizik agertu zen zure baitan, eta orhoit naiz nihaurek argitaratu nauzkitzula erdarazko eta eskuarazko lehen bertsuak. Menditarren eta «Aintzina» deitu ilabethekariaren udaberri egunetan ginen orduan. ...

Baionako Semenarioko handian sortu zinen 1938an, eta handik hiru urteren buruan Jainkoak deitu zintuen etxe huntarat; hemendik ez zinen jalgi bietan baizik: behin Lazcanorat 55 egunentzat, Alemaniarat ez joaiteko; gero Idronerat soldado, hiru ilabete iragan baitzintuen, armadako saldaren jastatzeko doa.

1945eko ekainaren 10ean aphez egina zinen, handik bortz urteren buruan ezarri zinduten fraile-gaien nagusi-moldatzaile. Komentuan sartu zinelarik, zombait eskualzaleri ilhundu zitzaioten behakoa: «Bat gutiago eskuararentzat». Bainan sinheste aphurreko mindulin horiek ez bide zaiten Jainkoari emana irabazitan emana dela, batentzat ehun biltzen direnaz geroz.

Belokeko buruzagiek badakite nun bizi diren, eta Eskualduneri eskuaraz hobeki onhart-araz dezoketela Jesusen argia. Ez zaituzte baztertu ez olerkitik, ez eskualzalegotik. Zure inguruan xutitu dira langile baliosak, eta zu buru, horra «Ezkila»ren lan miresgarria ez bakarrik abiatua, bainan han-harat hedatua. Segur, izan bazine ala erakasle, ala bikario, ala erreto, ez zinuen izanen hainbertze errextasun, ez hainbertze laguntza. Bai Jainkoak bide onean ezarri zaitu. Eskerrak Jainkoari!

Bainan ez zira bakarrik izan bertzen sustatzaile eta akulatzaile. Zuhaur ezin geldituzko langilea zira, behin edo bertze osagarri eskasak ohean itzatu zaituelarik, asti hortaz laneko baliatzerainokoa.

Zure obraz balitake hainitz erraiteko: zure arbolak adar zer nahi badu, eta adar bakotxari zombait ez badarizko hosto, lore eta fruitu? Hitz bat zure olerki edo poesiaz: berdin uste dut ez zirela egundaino olerkitik atheratzen, ez poesiatik athertzen, zure othoitz, prediku eta mahaineko solasak ere zur preziasu beretik baitira.

Olerkiak badituztu zure-zureak: han dituztu aipatzen hein bat amultsuki zure etxeok, komentua dagon zerumendia, Eskual herria bere ongaitzekin, zure doluak edo alegantziak, Jainkoarekilako zure bar-emanak. Zuret zat poesia ez da jauntz eta erauntz ditaken soineko bat: haragia eta hezurra bezain bat egina da zure jitearekin. Hots, zure hatsa, zure bizia.



Bertze olerkiak badituztu, ez zure baitarik sortuak, bainan halere zure baitan haziak, izan ditzen zure teatro lirikoa, zure paraliturgiak, zure inobreko kantikak edo salmoak, hetan Izpiritu Sainduari mailegatzzen baitiozkatzu zure eskual-mintzoa, zure eskual-bihotza, eta eskual-gogoa.

Bana-bertze uste dut klasikoa deit ditaken zure bertsu-moldea: ausartzia guti, elhasturia gutiago; hitza bethi xuxen, batzutan ozen, bertzetan perekari; bainan aldi oroz Aita Gabrielen eskual-musikarekin ezin hobeki ezkondua.

«Surréaliste» gaizoket laket baitituzte ezin ulertuzko olerkiak, dena ilhunkeria, ahapaldi trukes eta markets, ez dut uste, Aita Xabier, heikilako zitazken. Segur, luma zalhu eta zume duzu, bainan ez zira, beharrak zure solasen hausterat, bihurtzatzerat, ez kraskatzerat ekarria.

Bihotza ez da lo zure baithan, hurbiltzekorik ere, bainan bethi edukitzen duzu Eskualdunak, eskualdun direno, deraukaten herabe-hein hura.

Olde eta oldar eskasik ez duzu, bainan izariz, ordenik ez nahasteko gisa, ez baituzu nahi oihuek itho dezaten zentzua.

Bertsua arin-arina derabilkazu, bainan behin ere ez hatsa. Argia ere badariote zure neurtitzek, ez ordean girgileriarik, ez eta itsutzeko dirdira gaixtorik.

Hots, zure Musa zu bezain beneditanoa da: bamakorra azkarra, kar-tsua, bihozduna, bainan bethi esku-menean daukazunaz, zuzenean eta beraz bakean.

Aita Xabier, eskual-arimak bazituen Eskualzaindian hainitz bozmota. Zurea ginuen eskas. Emaiten daukuzunaz geroz, eskerrak komentuari eskerrak zuri, eta bihotz-bihotzetik ongi-ethorri.

## TORIBIO ECHEBARRIA. IBILTARIXANAK

(Arratetikuen izketango alegiñak)

Itxaropena Argitaldaria. Zarautz, 1967

Toribio Echebarriak egina da bortz ehun plama haundi dauzkan eskuarazko liburu berria. Sortzez Eibartarra, egileak laurogei urthe badi-tu beteak, eta «ibiltari» izena hartu du, zeren 1936etik hunat munduz mundu ibili baita, Caracasen azkenean gelditu arte.

Toribio Echebarria ez da gero nor-nahi. Eskoletan guti ibilirik ere, hainitz irakurtzearen bortxaz, laster bildu zuen jakitate: kargu ederrak eman ziozkaten bai koperatifetan, bai herriko etxean, eta gustu hartu zuen izkiriatzen erdaraz eta eskuaraz. Erdaraz filosofia eta zozialismoa aipatzen zituen. Sort-herriko eskuararen hiztegia eta aditza ere bi liburu handitan ezagutarazi ditu, ez du hain aspaldi.

Oraiko obra hau harrigarrietarrik dela erranez ez gira espantu hutsetan ari. Jendeak hunkitzen dituzten gai guzietara hedatzen da, ala bizi, ala sendimendu, ala jakitate, ala sineste, ala zuzen, ala lur, ala herio-tze.

Ez ditake erran nehoren filosofiari arras emana dela, haren zozialis-moa ere nehunerekoa da: alta haren erlisionea, nahiz Bibleaz hazia, ez dakigu nungo elizetakoa ditaken: bainan ezin uka baduela kar, eta dena bihotz dela.

Eskuaraz ez dugu behin ere irakurri luma batetarrik jalgirikako hoin-bertze bertsu bizi eta gogoetagarri. Ez izanik ere Heine filosofiarekin hanbat adox, daukat erakusten duela bederen eskuarak jasan dezakela elhe perttoli batzuez bertzerik. Hori ere zerbait bada.

Juan San Martinek egin dion aintzin-solasak ere merexi du irakur-tzea, argitzen baigaitu Toribio Echebarriaz eta haren ideiez.



## MANUEL LECUONA ESKUALZALE

Aditzale maite hoieri, agur!

Hastera noan lanari lotzeko, bazitazken zuen anean hameka eta hogoi-ta bortz baino gehiago ere, mintzatzaile hau baino egokiagorik. Bainan nahi-izan duzue Bidasoz haraindiko norbait ager zadin apez-bilkura huntan, Eskual-herri guziak gorets zezan Manuel Lecuona, Eskual-herriko apez guzien ohorea delakotz.

Atsegin zait karia hortarat zuen artean aurkitzea.

Duela hogoi-ta-hamabi une, Lapurdiko bortz lagunek erabaki ginuen, hunaindiko lau eskulan-herrietan gaindi ibiltzeko aste bat osoa, Irungo Kandio Arruabarrena gidari, bazter ikuska. Gazteitzen ez ginuen Apezgaitegia ahanzten ahal, eta han egin ginituen eskualzale bipil baten ezagutzak: ongi-etorririk goxoen egin zaukun eta eni eman, orduan ager-tu berria zen *La poesía popular vasca*.

Denek asmatua duzue nor zen.

Egia erran, haren izena ez zitzaitan batere arrotza. Ordukotz irakur-tzen nituen hemengo eskual-aldizkari gehienak, eta bertzalde Martin Lecuona zenaren adixkide mina nintzen, aintzineko bi urtetan Markiegi zenarekin, Uztaritzen, zombait egun iragan baitzitu, udakari, eta ene auzo hurbil. Nola solastatuko ginen, don Manuel maiz eta ardura aipatu gabe?

Geroztik gertatu dira beltzak eta gorriak: ez dut nik hemen gaur, egun deitoragari hoitaz bertzerik erranen: bainan urrundik bada urrundik, euri edo ateri, Manuel Lecuona jaun apezaren lanari jarraiki gitzazko, miresten ginularik haren adimenduaren eta jakitatearen hedadura, haren luma aberatsa bezala.

Jadanik bi aho ederrek argitarat eman dute zer zor dioten Lecuona jaunari liturgiak, edestiak eta edertiak.

Behar omen dautzuet gogoratu zer zor dion eskual elertiak ere.

Ordu-laurden barne, ez dut ondikoz axaletik eta gain-giroki baizik aipatzen ahalko, nola don Manuel izan den hizkuntzalari bipil, liburu-epaile jakintsu, idazlari oparo, antzerki-egite artex, olerkari xukun eta herri-elerti ikertzale sakon.

\* \* \*

Izkuntzalariz, gure Lecuonak eskuaren berezitasun batzu aztertu ditu, hitz zombaiten erran-nahia zeaztu, bertze askoren iturburu bilatu. Adibidez, eskual *deikia* edo vocativoa nola egiten den, bi lanetan erakutsi dauku: izenekin berexten ditu deiki hutsa (*seme ator etxera!*), deiki artillu-luduna (*Agur, jauna*), deiki ori-duna (*seme maite ori, atoz gugana*), deiki joku-tu edo deklinatua (*seme maite horrek, laster egizu*); eta ohartarazten gaitu, eskual aditzak ere baduela bere deikia, bereziki ika mintzatzen girelarik: hor *duk*, hor *dun*, eta abar.

Hitz zombaiten ikurra argitu duela erran dugu: adibidez, Azkuek bere iztegian bazaukan *noski* hitzak «sin duda» erran nahi zuela. Lecuonaren arabera, Oiarzunen beintzat, hitz horrek subjective, nor bere baitan, «segurki» erran nahi du, bainan objective, gauzaren aldetik, «beharbada»; hots, oro har, Lapurdiko «nik uste» bezalako zerbait. Berdin salatu dauku *izanki*, *egoki*, *eramanki* eta hortako aditz-erak ez direla Oiarzunen gerundioak, infinitivoak baizik.

Hitzen iturburuak bilatuz, aztertu ditu *Zipitria* abizenaren gorabeherak, eta aurkitu Zufiri deituratik sortua dela. Bainan huna garrantzia handiagoko zerbait; askok uste baitzuten krixtautasuna gutarterat hego aldetik edo ekaldetik etorria zela, Lecuonak duda batzu piztu dauzku: ezen *goraxe*, *eleiza* eta gisa hortako hitzak iparren baizik ez dira ethorri ahal izan, fonetika-legez beintzat.

\* \* \*

Bainan bego izkuntzalaritza, eta dugun aipa kritika edo epaikitza. Hortan ere norbait da Lecuona: badu hortako begi eta luma ukaldi. Zombat libururen berri ez du aldizkarietan eman, argi eta garbi? Erasia handirik gabe adi-arazten du aldi bakotx, lanak ezer duen balio, ala mamiz, ala axalez: goresmenen artetik, hitz-erdika badaki behar-orduan esondatzen, biligarroen artean bazitazkela, ahantzirik, zombait xoxo: bainan ez du ausiki ez aztaparkada gaixtori: irri-mirri jostagarri bat doi-doia, egari bere bidea emaiteko heinean, nehoi minik egin gabe.

Adibidez, irakur-zkitzue *Egan* aldizkarian agertu dituen iritziak; irakur *Santa Klararen* kantu xaharraz ontu duen hitzaldi ohargarria; irakur hemezortzigarren mendeko «*Gabon-kantak*» haren argibidekin; irakur oroz gainetik Axularen *Geroari* eratxiki dion itzaurre joria: ezagut-arazten dauku nor zen Sarako erreter famatua, nolakoa haren liburu baliosa, zer hartu behar dugun, eta zer utzi orduko idazkeratik.



Lecuona ez da haatik bertzeen eskuara epaiten ari, bera eskual lane-tan murgildu gabe: hitz laxo ala hitz neurtu, eskuara herrikoia baderabil, doi-doia garbiturik, beti errex, beti labur, beti argi: hala beharrez, ulerga-riago izan uste duenean, berdin erainen dauzkitzue han-hemenka latin edo erdal piko batzu. Montaigne zaharrak erraiten baitzuen: «Si le français n'y peut aller, que le gascon y aille»: frantsesa ez bada aski, bota kaskoina, uste dut don Manuel aburu berekoa dela nahiz ez den ez garbizale, ez mordoil, izaitekotz herrizale apain.

Mintzairer miresgarri hortaz baliatu da itzulpen hainitzen egiteko, oxtion Oñatibia jaunak erran duen bezala: liturgia, dotrina, apezpiku-gutun edo karta, eta ez du hain aspaldi orok dakigun *Bidea*. Bainan bere burutarik ere egin du zerbait baino gehixago. Adibidez, aldizkarietako hainbertze artikulu desberdinez bertzalde, nola ez aipa bi antzerki: *Ehun dukat* eta *Ameriketako osaba*, berrogoi-ta-hamarna orrialde dauzkatena, eta biak ezinago jostagarriak? Nola ahantz haren olerki bakun, pollit, ongi neurkatuak, izan dadin *Jesu aurraren bizitza*, izan diten bertze bertsu... bere bihotzetik jaiok, herriko koplak zaharren modurat.

Nahi dautzuet entzun-arazi haren olerki laino hunkigarrienetarik bat:

## SORTZEA

Orain esango degu  
Jesuxoren bizitza,  
abesti politik entzun  
nai duanik balitza...  
— abesti politik entzun  
nai duanik balitza,  
orain esango degu  
Jesuxoren bizitza...

— Yo-a-kin eta Ana,  
alaba nun dezuten?  
— Ez dagola, ez, etxean  
ez dagola, ez, emen.  
Yerosolimen dago gure  
Yabe yauresten...  
Ez dagola, ez, etxean,  
ez dagola, ez, emen!

Simeon aiton zarra  
dago Jerosolimen:  
— Miremtxu nexka polita  
ikus dezun emen?  
— Uso txuri batek zizun  
emen izena Mirem  
Orain ezkonberri dago  
gaxoa Natzaretan.

Yosepe gizon ona  
bizi da Nazaretan:  
— Nun dezun zure usoa?  
nun dezun zure Mirem?  
— Lanean goxotxo,  
lan ta otoitz egiten,  
Mesias salbatzalea  
etor dedin lenbaitlen.

Mesias Xalbatzalea  
badator ba oraintxen:  
Yaunaren mandataria  
orain dator zeruren:  
...Agur, agur, Miremtxu!  
agur, bai, agur, Mirem!  
Zu izango zera Ama  
Aitaren Semearen...

— Nola diteken ori,  
ori nola diteken?  
— Goikoak emango dizu  
ber'itzal ta amas goien.  
Birjin izango zera  
beti ama izan arren  
— Birjin ta Ama nadilla  
dizun bezela. Amen



Bizkitartean ez diote Manuel Lecuonari bertsuek bildu bere omen gehiena, bai ordean herri-olerkariari eman dion artak eta hari buruz erakutsi duen jakitate handiak.

Gazte danik bilatu izan ditu kopla zahar hainitz, eta asko agerarazi, bai *Anuario de Eusko Folklore* delakoan, bai bertze aldizkarietan, bai eta, erakusbide gisa, bere liburuetan ere.

Bortz obra bereziri esker ezagut-arazten dauku eskualdunen herri-olerkia. Hek dira:

- *Métrica vasca* (1918)
- *Las toberas* (1920)
- *La poesía popular vasca* (1934)
- *Literatura oral euskérica* (1936)
- *Literatura oral vasca* (1965).

Lan horiek elgarren ahaide urbil dira, baina asko gaietan elgar osatzen dute.

Don Manuelek argitu gai nausiak huna zoin diren:

- Herri-elertiaren ohiko legeak;
- bertsolaritza;
- kopla zaharrak;
- apaindurazko olerkiak;
- herri-antzerkiak;
- ipuin-kantak.

Sail bakotxari datxizkon azalpen eta xehetasunak eman behar baginuitu, aratsalde guziaren betetzekoa baginuke, bazkariaren kaltetan. Ez dautzuek holakorik eginen: ez izan beldurrik.

Bizpahiru lerro bakarrik sei gai handi hoietaz.

Herri-poesiaz, Lecuonak dio nola bertsuetan itxurapenak laster mugitzen diren, zoin guti aski duten elgar-deitzeko ala soinuak, ala iduripenez, ala auzotasun hutsez, logika formalik gabe, barneko lokarri zerbait duten ber.

Bertsolaritza biziki zaharra dauka, berexten ditu sasi-bertsolariak egiazkoetarik, argitarat emaiten nola konpontzen dituzten puntu, bertsu, neurkada eta aire-soinuak.

Kopla zaharren teknika berdin sakonki aztertzen du, beren elerantza labur, motz, bethearekin.

Apaindurazko olerkiak arta berezi batekin bipildu ditu: bogoi bat etsenplu badakarzka, trikiti-trikixak barne.

Antzerki zaharretan aipu ditu pastoralak, galarrots-toberak, gabon-kantak, zoin beren legekin.

Ipuin-kantueri, eskual erromantzeri ere ohartu da, nahiz ez duen harrobia ideki baizik: baina oiha-sasietan gaindi ez dea zerbait, bide berri baten erakustea ere?

Horra bururaturik eman zinautaten lana.

Don Manuel, zutaz mintzatu-eta, zuhauri bi hitzen erraitea haizu bekit.

Goresmen eta esker mila hainbertze urtez egin duzun lan ederra. Ixil-ixila, hainitz egin duzu Jaungoikoaren aintzaren gatik eta eskualdun arimen onetan.

Bidasoz haindiko apez eskualdunen izenean agur kartsu bat bai zuri, bai zure inguruan diren guzieri.



## BERTSULARI-SOLAS

Bi liburu agertu dira betantsu, bat erdaraz, bertzea eskuaraz, begien aintzinerat emaiten baitaukute bertsularien berri.

Bat da Aita Zabalak eginikako *Bosquejo de historia del bersolarismo*, 152 plama dauzkana.

Bertzea Aita Xanti Onaindiak aterai: *Gure bertsolariak*. Hunek 331 plama baditu, xehe-xehea izkiriatuak.

Hau aise osoagoa da. Lau zatitan egina da.

Lehen zatian kondatua zaiku, noiz nun eta nolako bertsoerraileak, bertso-egileak, eta bertso kantatu arau asmatzaileak, izan diren lehengo denboretan. Aita Onaindiak ikertu ditu liburu zaharrak, eta ikasi zer koblakariak izan diren aintzineko Egipto, Xina, Japonia, India, Lur Saindu, Grezia, Erroma, Kelto- herri, Jermania, Frantzia, Espainia eta Portu-galeko bazterretan.

Azkenean Eskual-herrirat heldu da eta aipatzen arbasoen kantu zahar mota nausienak: gerta-olerki, maite-lelo, irri eta nigar bertsoak, arnozkoak, Jainkozkoak, pastoralak...

Bigarren zatiak bertso egiteko lana ikertzen du biziki barna. Jakiten dugu zer dohain behar den sail horri buruz, zoin diren bertso gaiak eta olerki-gaiak, zoin iduripen laketzen zaizkon eskualdunari, nolako neurtitzak diren alha bertsularien anean, zonbat mota; eta aipatzen zaizkigu bertsoaren higikera, azentua, neurria, geldipena, pontua. Gure iduriko zati hori ditake aberats eta jakingarriena.

Hirugarren zatian bertso mota ezagutuenak goستن dauzku Aita Onaindiak; ume-bertso, kirol-bertso, erlisione-bertso, neska eta mutil zaharrenak, Amerikanoenak, trixixak. Uste dugu aipatu gabe utzi dituela zombait bertze mota: politika, bertso, tobera bertso, krima bertso, eta abar. Huntan behar bada Aita Zabalak ekartzen dauku argi gehixago.

Laugarren zatiak bertsolarien kondaira egiten dauku. Bainan has-tean, hogoita lau plametan, bertsolaritasunaren dohainak ongi miatuak daude: izaitekotz, airean buruz balitake zerbait gehixago erraiteko.

Gero bertsolari eskolatu eta ez eskolatuak tokika izendatzen dauzku liburuak. Oroz lehen: Iparraguirre, Bilintx, Otaño, Basarri, Arrese, Enbeita, Ulibarri, Bordele, Etxahun, Otxalde, Ibarrart, Pernando Amezketarra, Xenpelar, Errota, Txirrita, bainan heien ondotik ez dakit zombait dotzena.

Berdin xapelketez, bada nun zer irakurri, nola iragaiten diren, nola behar litasken iragan, jujarien eginbideak eta oro. Bertso-paper sariketarak ere ez dira ahantziak.

Aita Onaindiak ez du gauza handirik ahantzi. Lehenagoko «desafio-ak» eta «andere bertsolariak», bitxi zait nola ez dituen nasaikiago ezaguturazi.

Bainan, Aita Zabalaren liburuak lagun, uste dut irakurleak badukela jakitate bat ugaria Eskual-herriko bertsolariak, bi obrek elgar osatzen dutelarik.

Bi ekuazale suhar jakintsuneri gure eskerrak eta goresmenak bihotz-bihotzetik.





## AITA LAFITTEK MATTIN BERTSULARIARI

Mattin adixkidea, atsegin handirekin juntatzen naiz goresten zaituzten lagun guziekilaran.

Aspalditik ezagutzen zaitut, eta beti danik estimatzen. Zure bertsulari lehen urratsak ikusi ditut, eta orroit naiz zoin laster trebatu zinen zure lan berri hortan, eta zoin aise berdindu zintuen orduko koblakariak.

Atsegin hartu ginuen zu eta zure adinekoak agertu zinetenean. Ez dakit kondatu dautzutenetz bertsolaritzak pasatu duen memento txarra. Mende hunen hastapenean, ametsetako euskal literatura baten izenean zenbait euskalzale hasi ziren bertsolarien mesprexatzen, arruntak zirela, izpiritu gabeak, edertasuneri ohartu gabeak. Carmelo Etxegaray batek nahiko zituen gure plazetarik alde bat baztertu.

Bainan aho-xuri eta moko-fin horien kontra altxatu ziren Gipuzkoan Manuel Lecuona, eta Lapurdin Luis Dassance, bakotxa bere lagunekin. Sustatu zituzten orduko bertsulari xaharrak. Hemen gaindi alha ziren Kaltabil, Larralde, Larramendi, Matxin Irabola eta sortu ziren Etxahun Iruri, Ligueix, Jolimont, Ohitx, azken hiru hauk gazterik itzali zitzaizkunak.

Espainiako eta gero Europako gerlek xahutu zuten bertsolaritzaz.

Beharrik Ernandorena etorri zen, eta iratzarri zituen lo zauden bertsulari zenbait eta berri batzu argitarazi. Zu eta Xalbador xitaldi hortakoak zineten, eta eskerrak merezirik, zaudezte zuen lagunekin, zeren hausteraz zozan bertsolarien gatea berregin, azkartu eta salbatu baituzue. Geroztik bertsolaritzaz piztun eta aberastu zaiku, bana bertze alde gehienetan. Zueri jarraiki ziren gutartean behin Xanpun eta Esponde, geroxago, Alkat, Mendiburu, Arrosagaray eta abar.

Bainan zuhaur, Mattin adixkidea, nahi duzu jakin nola ikusten zaitudan? Huna laburzki.

Duela laurogoi eta hamaka urte ikertzale batzuek negurtu zuten orduko bertsularien zalutasuna. Bakar batzu iduritu zitzaizkien ezinago zaluak, zeren noizik behinka 17 zekundaz bururatzen baitzuten 13 silabandun lau-puntuko bertsuak.

Berrikitan norbaitek negurtu ditu zure eman-alde zenbait. Oixtion aipatu dudana bertsuak zuk askotan 14 zekundaz botatzen duzu.

Zalutasun horrek eskatzen ditu hainitz dohain: gogo ernea, begi-kolpe bizia, zirt-zart asmatzeko zer errar eta nola erran; mintzo errexa aho-mihiak trebe, hitzak berehala lerra ditzen ezpainetara.

Zure boz eder argiak ere laguntzen zaitu aditzaleen biltzerat, beharriak lilluratzen ditutzula.

Bainan baduzu bertze jeinurik. Nola ez aipa zure omere ora? Kasik tauletarat agertzea aski duzu jendearen alegeratzeko. Orok badakite jostakina zarela, zirtolaria, ditxo maite. Bertsulari lagunak atakatzen dituzu, ez haatik gaixtoki: xistatzen duzu, ez kolpatzen; ximikatzen, ez larrutzen. Trufa polliki derabilazu, bainan gutik egiten dutena, zuk badakizu zure buruaz ere trufatzen, aditzaleen libertitzeko.

Bai, irria laket duzu; bainan ez zare beti irri-gura. Bihotz beratza duzu. Konprenitzen dituzu jendeen nahigabe eta penak. Senditzen dituzu, eta zure bertsutan maiz entzun ditu ateraldi hunkigarrienak, fedez, familiaz, haurrez, doluez, sort-herriaz, adixkidez mintzatzen zinenean. Ai, orduan zoin barra hatxemaiten dituzun zure aditzaleak, zenbaitek nigarra uxtar dutelarik.

Arrazoin horien guzien gatik zaitut gain-gainetik estimatzen, Mattin adixkidea, eta denekin batean goresten. Jainkoak luzaz eman diezazula indar eta osagarri Euskal-herriaren onetan.